⁷⁴ Adibidez, Arestik anitzetan testua aldatzeko libertatea hartzen du, ezaugarri morfosintaktikoak aldatuz; bihoaz pare bat etsenplu, halabeharrez antzemanak. Lehenik, 65. bersetean bada kode-amalgama bat, perpaus berean frantsesa eta euskara konbinaturik. Frantsesezko zatiak, erlatibozko egiturak, perpaus nagusiko subjektu funtzioa betetzen du: *çelui qui manquera / phaquaturen du phitchera*, eta Arestik ergatiboa itsasten dio frantsesezko egitura osoari: *celui qui manquerac / phakatüren dü phitxerra* —ohart, bestenaz, *r* → *rr* aldaketez—. Bigarrenik, 484. bersetean Arestik hainbat aldaketa morfologiko (eta are sintaktiko) obratzen du. Hona originaletik egin dugun irakurketa: *Ukhen bagunu bira tripa / nahiago gunuquen, / ceren eta haboro / janen beigundien*. Hona Arestiren edizioa: *Ükhenen bagünü bira tripa, / nahiago günükian, / zeren eta haboro / janen baikünian*. Zuberoako corpus osoan geroaldiko formatan oinarritutako baldintzazko egiturarik ez da behin ere ageri, eta Arestik ematen duen *ükhenen bagünü* agerraldi bakarra izateak originalera jotzera bultzatu gaitu; apodosiaren egitura ere aldatua izan da, beste zenbait kanbiamenduren artean.

Urkizuren edizioei doakienez, zilegi bekigu adieraztea haietan transkripzio akats ugari dela. Horretaz gainera, inoiz edizilogileak testuaren zentzua ulertu ez duela erakusten du, ondoko passartean ezarri duen puntuazioak salatzen duenez: *Cer phenxatcen duq, Boubane, / ezteçala etchia kita? / Lehenago emaztiary / urra yçoq tripa*. (*Boubane* 94). Izan ere, *ezteçala* ez da *phenxatu* aditzaren konpletiboa, ezezko agintera baizik, Akitaniako mintzoetan historikoki *-la* atzizkia hartu duena.

Zuberoako euskal liburuei doakienean, Vinsoen bibliografia ez da oraino gainditua izan; zorionez, JUMIk 1984an argitaratu edizioan Vinsonen bibliografia Urjijoren oharrez aberastu da. Tesi honetan baliatu zaizkigun datu bibliografikoak, hein handi batean, Vinsoni zor dizkiogu.

XX. mendean Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* lan erraldoia dugu lan nagusia. Zuberoako liburuei doakienean, hala ere, informazioa Vinsonen lanetik jasotzen du, eta ez osoki. Bonaparteren menpeko testuei begira, González Echegarayren katalogora (1983) eta Arana Martijaren lanera igorri behar da (1991a).

Peillenek lan handia egin du Zuberoako testuen inguruan. Bereziki transmisio aferez, Eguiateguyrekikoak aipatu behar dira (1963; 1983b & 2011), galdu zatia barne (2012). Mongongo Dassançaren liburuaren zubererazko moldaketez idatzi du (2001 & 2016), aitzinetik nolabait korapilatua den afera erreferatuz (Urkizu 1999). Peillenek XV. mendeko zenbait baladaz ere jardun du (1986a). Davantek antologia lanak egin ditu (2008), datu berriak emanik haatik, hala nola liburu batzuen egiletza; cf. § 3.2.4, *Myst*.

Azken urteetan Agirrek ekarpen interesgarriak eskaini dizkigu: besteak beste, 1676ko pronuaren iturria argitzea eta Belapeireren egiletzaz hipotesi sendoa formulatzea (1998a) (§ 3.2.2); Belapeireren *Catechima laburraren* frantses iturria atzimatea (1996) eta Anna Urrutyren itzulpenen frantsesezko iturriak xeheki azterkatzea (2016).

Bestalde, tesi honen atariko lanetan Zuberoako euskal liburuen gaineko zenbait informazio berri eskuratu ahal izan dugu, hala nola liburu batzuen edizioen kontu errendatze zehatza (Padilla-Moyano 2015a), kasu batzuetan edizio *galduren* alerik edirenez —adibidez, *Noelen Lilia* (1782) liburuaren 1. edizioaren ale ezagun bakarra—. Bestenaz, Mercyren itzulpenaren frantses iturria atzeman dugu (Lucuix 1995), eta Anna Urrutyren biografia abiatu, bai eta haren frantses gutun sorta bat ediren. Azkenik, *Catuchuma españoul* eskuizkribua (1899) aurkitu dugu (§ 3.2.4, *Catuchuma*).

Herri antzertiaren tradizioko testuez denaz bezainbatean, Hérelle dugu erreferentzia nagusi. *Mutatis mutandis*, liburuen kariaz Vinsonez erranak Hérelle-rentzat bali dira. Pastoral zaharretan ezagutzen dugun lehenbiziko edizioak *Saint Julien d'Antioche* (Vinson 1891b) eta *Sainte Hélène de Constantinople* dira (Léon 1909). Gure denboran, Oyharçabalen lanak aipatu behar ditugu: pastoralen tradizioaren gaineko bibliografia zehatzaz (1991), testuen datazioaz ala transmisioaz (1999; 2004), Koro Seguroolarekiko elkarlanean —cf., halaber, Segurola 2015, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajectuariaren eskuizkribuaz—. Mozosek (1986 &

1995), Loidik (1996, 2004, 2008, 2009a & 2009b) eta Bilbaok (1996) zenbait pastoralen transmisioa eta egiletza argitu dute.

Finitzeko, komeni da adieraztea Zuberoako corpusean badirela liburu izengabeak, horietako batzuk egile ezezagunekoak, besteak norbaiti egotziak, eta haien artean eskuarki aipatu ohi ez diren egile batzuk. Egiletasun afera batzuk corpusaren deskripzioan aipatuak izan dira (ATALASEAN, § 3.2), dagozkien testuen ataltxoetan.

3.4.3. Itzulpenez

Ezaguna denez, itzulpenek osatzen dute euskal literatura klasiko edo zaharraren parterik handiena. Urgellek (2017a: § 3.3.2), Sarasolaren (1976) datuetarik abiatuak, euskarazko lan inprimatuen datuak konparatu ditu, euskalkika eta garaika. 4. TAULAK zubererari dagokion informazioa biltzen du:

4. TAULA. Zuberoako ekoizpen inprimatua*

	1545-1749	1750-1879
argitalpenak	10	47
lehen edizioak	6	8
originalak	2	4

* 48 orrialdetik goiti

Iturria: Urgell 2017a: § 3.3.2

Bistan denez, bigarren denbora tartean zubererazko ekoizpenak goraldi nabarmena erakusten du; aldiz, lehen edizioen kopurua mantentzen da, eta horien artean lan originalak proportzio txikian dira. Hau da, zubereraz lehenbiziz argitara eman diren liburuen multzoa ttipia da: sei eta zortzi liburu, alderatzen diren denbora tarteetarako; bereziki 1750-1879 bitartean lehen edizio horiek nonbait ekoizpen guztiaren seiren bat baizik ez dira. Gehiago dena, lan originalei doakienean, zifrak are urriago bihurtzen dira: bi eta lau, hurrenez hurren. Datu horietatik idokitzen da zubererazko lehen edizioen arteko gehienak itzulpenak eta moldaketak izan direla.

Datu horiek agerian uzten dute itzulpenezko testuen aztertzeko beharra. Gure corpusaren datuen argitara, 5. eta 6. TAULEK Zuberoako ekoizpen inprimatuaren izaera (original vs itzulpen) deskribatzen dute, posible gertatu denean, testuz testu.

5. TAULA. Zuberoako corpora: itzulpenak Iraultza arte.

			Hitz	Itzulpena
1657	Paris	<i>O Pro</i>	4723	ez
1657	Paris	<i>O Po</i>	4800	ez
1666	Orthez	<i>Tt Onsa</i>	33.150	?
1672	Orthez	<i>Tt Arima</i>	15.824	?
1676	???	<i>PrSing</i>	1.254	bai (lap)
1686		katixima galdua	?	?
1696	???	<i>Bp</i>	23.071	bai (fr)
1706	Paue	<i>CatOlo</i>	10.751	bai (fr)
1734	Paue	<i>Othoitce</i>	9.216	?
1757	Paue	<i>Mst</i>	48.300	bai (lat)
ca. 1757	Paue	<i>IP</i>	1.995	?
1758	Paue	<i>Ressegue</i>	5202	bai (fr)
1780	Paue	<i>Mercy</i>	5360	bai (fr)
1782	Paue	<i>NLilia</i>	2.222	?
1783	Paue	<i>Ene adisquidia</i>	?	
ca. 1790	Baiona	<i>UskLi</i>	15.210	?

6. TAULA. Zuberoako corpora: itzulpenak (1789-1879)

			Hitz	itzulpena
1812	Baiona	<i>Dostrina Khiristia</i>	11.823	bai (fr)
ante 1834	Baiona	<i>CatS</i>	20.240	bai (lap)
1834	Baiona	<i>UskLi 2</i>	11.490	?
1834	Paris	<i>Chaho AztBeg</i>	985	ez
1838	Oloroe	<i>Khurutch</i>	2.158	?
1844	Oloroe	<i>Meditacioniac</i>	26.835	bai (lap)
1844	Baiona	<i>Chaho Ariel & Le Messenger</i>	?	ez
1846	Baiona	<i>Cantica Espiritualac</i>	≈ 10.000	bai (lap)
1847	Baiona	<i>Ip KurBD</i>	2.736	?
1850	?	<i>Mariaren haurren</i>	537	?
1851	Baiona	<i>Ip Uscaldunaren laguna</i>	≈ 18.800	?
1852	Oloroe	<i>MaiMarHil</i>	13.650	bai (fr)
1852	Pau	<i>CibGut / Myst</i>	7.530	?
1856	Baiona	<i>Ip Mat</i>	≈ 18.000	bai (fr?)
1857	Londres	<i>Bon/Ip Dial</i>	5.203	bai
1858	Londres	<i>Bon/Ip CantTP</i>	413	bai
1858	Londres	<i>Ip Apok</i>	9.533	bai
1858	La Réole	<i>Archu Fab</i>	7.912	bai (fr)
1860	Oloroe	<i>HOrdre</i>	12.798	?
1873	Baiona	<i>EvS</i>	14.567	bai (fr)
1873	Baiona	<i>Epit</i>	3.219	bai (fr)
1879	Paue	<i>SGrat</i>	2.776	ez

Ez dugu segurtamena Zuberoako euskaraz argitaratu liburuen artean latinetik zuzen iraulia izan denik; gure hipotesia da Maisterren *Imitacioniaren* kasuan hala izan dela.⁷⁵ Corpusean gaztelaniatik segurki itzulia izan den testu bakarra ez da goiko tauletan jaso, eskuizkribua delako: *Catuchuma Españoul* (Hauze, 1899), gure azterketaren arabera Asteteren katiximatik zubereratua. Testu horiezaz landara, gainerako itzulpen haboroenak frantsesetik eta lapurteratik egin izan dira. Hona frantsesezko iturria duten batzuk:

- 1696ko *Catechima Laburra*. Belapeirek Bossuet-en *Catéchisme du diocèse de Meaux* (Paris, 1687) dotrinako “Catéchisme des fêtes...” atala euskaratu zuen. Lehen parteko pasarte zehatz batzuk, aldiz, Materraren *Dotrina Christianatik* eta Bossueten dotrinatik bertatik ekarri zituen (Agirre 1998b: 352-355).
- 1706ko *Catechima Oloroeco diocezaren cerbutchuco*, edo Oloroeko katixima. Joseph de Revol apezpikuaren 1706ko ordenantzak frantsesetik euskarara nahiz biarnesera itzultzeko agindua jasotzen du.⁷⁶
- 1758an, Ressegueren lanaren kasuan, itzulpena izenburuak du aipatzen: *Sacramentu-Saintiaren aurhidegouaco maniac eta chediac [...] Franceseti, Uscarala utçulia, Aurhidegouaren manuz, P. Ressegue, bestela Mercy, Aurhidegouaco Prioreaz edo gueienaz*. Ez dugu frantsesezko iturria atzeman.
- 1780an, Mercyren lanaren ezaugarriak Resseguerenak bezalakoxeak dira, eta berriz ere itzulpenaren kontua izenburua da aipatua: *Andere Dona Maria Scapularicouaren Confrariaco bulla, decreta, statutac, eta maniac edo chediac. [...] Franceseti uscarala utçuliac, Jaun Directorraren eta beste Officieren manuz, Alexis Mercy Praticienaz*. Eskiulako haurridegoaren araudi honen frantsesezko originala aurkitu ahal izan dugu: *Réglements et statuts de la Confrérie Notre-Dame du Scapulaire de la paroisse d'Esquiule en 1772, en remplacement de la Confrérie Notre-Dame du Mont-Carmel, qui existait depuis 1686* (Lucuix 1995).

⁷⁵ Aieruen mailan, Maisterren latinaren kalitate arras onak itzultzaileak latinetik itzultzeko gai zela frogatzen du; aieruetarik zantzueta iraganez, hizkuntzaren azterketak erakusten du, kasu batentzat, Maisterren bertsioan zubereraren formula aurkezlearen agerpena eskrupuloski jarraikitzen zaiola Kempisen lantinezko aurkezleenari; cf. “Zuberoako formula aurkezlea eta deixiaren diakronia”.

⁷⁶ “Nous nous sommes assurés, pour en faire la traduction, de personnes dont la capacité et la probité Nous sont également reconnus, ayant choisi pour la langue Basque, Messire Jacques de Maytie, Chanoine de notre Eglise Cathedrale et notre Diocese qui est en Soule : & en Bearnois Maître Pierres de Lailhacar Curé de Leguignon & notre Promoteur” (Revol 1712: 15); ikus, halaber, “ZUBERERA IDATZIAREN BEHARRAZ ETA EGONKORTASUNAZ” (I, § 3.3.4.3.3).

- 1812ko *Doctrina Khiristia* edo Inperioaren katixima laburra frantseseko *Abrégé* delakotik izan zen itzulia.
- 1852ko *Maiatza edo Mariaren hilabetia* Bordachar apezaren frantseseko testutik zubererara iraulia izan zen, Hagon izeneko Mauleko apez batez (cf. § 3.2.4).
- Inchauspereen itzulpenek ikertze berezi bat merezi lukete, baina momentoko ez dugu lan hori gure gain hartu. Bereziki interesgarria litzateke 1856ko Mateoren ebanjelioaren, edo 1883ko *Imitacioniaren* iturriak aztertzea.
- Archuren *Alhegiak*, bistan denez, La Fontaine-ren jatorrizko testutik euskaratuak dira.
- 1873an Anna Urrutyren itzulpenak (Jondone Joanesen ebanjelioa eta Pethiriren epistolak), frantseseko testuei jarraikitzen zaizkie. Erran izan da Urruty anderea Sacyren eta Ostervalden testuan oinarritu zela (cf. Roque 2013), eta Agirrek iturri horiekiko konparantza zehatza egin du (2016).

Azkenik, zubererazko itzulpenen arteko multzorik interesgarriena, beharbada, lapurteratik moldatu ziren testuek osatzen dute. Ikusiko denez (I, § 3.3.4.3), XIX. mendearekin zuberotarrak Baionako elizbarrutira iragan ziren, eta egoera berri horretan zenbait liburu, “estimatuena” edo, lapurteratik zubererara egokitu ziren (cf. Urgell 2017a: § 3.3.6); halere, lehenbiziko barne itzulpen horietakoa askoz lehenagokoa da. Hona zerrenda:

- 1676ko *Pronus Singulis diebus...* testuaren zatikako iturria d'Olce Baionako apezpikuaren lapurterazko *Pregarioac* dira (1651), Agirrek probatu duen bezala (1998a: 5).
- 1834 baino lehen datatu dugun Astrosen katiximaren zubererazko bertsiok lapurterazko originalari segitzen dio; cf. § 3.2.4, *CatS*.
- 1844ko *Meditacioniac* Baratciarten *meditazione ttipiak* dira, *laphourdico uscaratic ciberoucoualat cerbait khambioreki utçuliric*.
- 1846ko *Cantica espiritualac* (Vinson 100y) lapurterazko *Cantica izpiritualac* bildumatik moldatuak izan dira (xehetasunendako, ikus Francisque-Michel 1857: 503-507).

3.4.4. Hizkuntz alderdiez

3.4.4.1. Euskararen historiaz

Euskararen historiaz denaz bezainbatean, eta bereziki ekialdekoarenaz, ezinbestekotzat jotzen ditugu Lafonen lanak. Zehazkiago, Lafonek Oihenarten hizkera aztertu zuen (1949; 1955a; 1955b), bai eta Etxeparerena (1951 & 1952). Dena den, Zuberoako euskararen gaineko

ezagutza sakona haren obran zehar antzeman daiteke, eta hizkuntzaren maila guztietan. Orobat, Mitxelenaren lanak ere erreferentzia nagusi ditugu.

Berrikiago, eta lehen aipatu dugun paradigmaren aldaketaren barnean, ekialdeko mintzoen gaineko proposamen berriak plazaratu dira, nabarmen EBZ-aren ondoko dialektalizazioan ekialdeko multzoaren adarkatze goiztiarraren hipotesia (Lakarra & Urgell 2008; Lakarra 2011a). Ikuspegi horren partalier da Camino, XX. mendeko ikertzaileek erabili zutena baino corpus aberatsago batean oinarriturik, ekialdeko mintzoen azterketa sakonak egin dituen ahego nafarreraz (2003a & 2003b), Nafarroa Behereko euskara zaharraz (2008), Amikuzeko euskaraz (2009b), Oztibarrekoaz (2015) eta, oroz gainera, ekialdeko barietateen iraganaz (2011).

3.4.4.2. Grafiaz

Alor honetan ditugun bi lan garrantzitsuenak Mujikarena (1997) eta Agirrerrenak (behean aipatuak) dira. Mujikak, halere, Iparraldeko grafiaren hastapenak bere osotasunean aztertzen baititu, logikoa denez, Lapurdiko tradizioa abantailatzen du; bestetik, azterketaren denbora muga 1750ean kokatzean, garai zaharrenetako testuak baizik ez ditu ikertzen —Zuberoako tradizioarentzat honakoak: Oihenart, Zalgize, Tartas, Bela, *PrS*, Belapeire eta *CatOlo*—. Belapeireren grafiatarik abiatuak, Agirrek Zuberoako tradizio grafikoaren bilakaera osoaren berri zehatz eta ezinago egoki eman digu, iturburuetara joz (2001a) eta sistema fonologiko osoa aztertuz (2001b).

3.4.4.3. Fonologiaz

Fonologia izan da Zuberoako euskararen gaineko ikerkuntza saioetan gehien joratu diren alorretarik. Chahok (1836 & 1856) badu hainbat ohar fonologiaz, hala *j-ren emaitzez, nola behe nafarreraren eta zubereraren txistukari ahostunez (1856: 13). Inchauspek ere fonologiazko erremarka laburrez hornitu zuen bere lana (1858: xi-xii), eta orobat egin zuen Gèzek (1873: 2-3). Bonapartek (1869) ohar andana bat egin zion Zuberoako euskararen sistema fonologikoari —aitzinekoek baino zehaztapen handiagoz—, harmonia bokaliko deitu zituenenez, /y/ fonemaz, bokal sudurkariez eta txistukari ahostunez, besteak beste. XIX. mendearen akabantzan, Charenceyk, *Phonétique Souletine* lanean (1891), zuberera hautatu zuen euskararen fonologia zahararen ikerkuntzaren abiapuntutzat, erromantzei hartutako

maileguen azterketari ekinez —menturaz ez da kasualitatea Chahoren hiztegiaren parte argitaratu bakarria maileguei dagokiena izatea—. ⁷⁷

XX. mendearen lehen partean, Gavelen lanek (1920 & 1929) egoera berri batera igo zuten zubereraren fonologiaren ezagutza. Larrasqueten iritziz, Inchausperi eta Bonarparteri zor zitzaizkien merezimenduak aitorturik, Gavelek gaiaren lehenbiziko deskripzio sakon, serio eta zehatza eskaini zuen (1939: 17), irauteko destinatua. ⁷⁸ Bere beste zenbait lanetan, Gavelek beti eskainiko zion arreta berezia zubererari, hala fenomeno konkretuei begira —/y/ bokala (1925) eta latinetik euskarara iragaitean obratu aldaketak (1949)—, nola ikuspegi osoago batetik (1960).

Larrasquetek ere arta bereziaz lotu zitzaion fonologiari, batetik, azentuaren eragina kontsonanteetan aztertzean (1928) eta, bestetik, Zuberoako ipar-ekialdeko deskripzioan (1939). Oro har, Larrasquetek bere sort hizkeraren ezagutza sakona ez bakarrik fonologian, baina hizkuntza maila guztietan ere islatu zuen,.

Lafonek /y/ bokalaz jardun zuen (1937; 1962; 1965a), eta oro har zubereraren sistema fonologikoaz, lana Larrañeko barietatean funtsaturik (1958). Bistan denez, Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* ezinbestekoa da euskararen gaineko zein-nahi ikertze saioentzat. Ekialdeko mintzoren artean, Mitxelenak saio bat dedikatu zion erronkarieraren azterketa fonologikoari (1954).

Aitzineko puntuan errana dugunez, Agirrek lan erraldoia egin du zubereraren sistema fonologikoaz, iturrietara joz (2001b). Gai zehatzetan, Haasek (1990) maileguen egokitzapen fonologikoaz idatzi du, eta Oñederra /y/ bolakaz aritu da (2009), Lafonenak ez bezalako ondorioetara iritsiz. Azkenik, Egurtzegik ere arreta eskaini die zuberera —beste mintzoren artean—, hunkitzen duten fenomeno batzuei, hala /y/ fonemari (2015a), nola *o*-ren hesteari

⁷⁷ “Nous nous occuperons plus spécialement ici des termes pris par le basque aux idiomes néolatins. C'est, évidemment, par là qu'il convient de commencer pour pouvoir établir la science étymologique du langage des montagnards pyrénéens sur des bases solides” (1891: 3).

⁷⁸ “Cet ouvrage de M. Gavel est beaucoup plus et mieux qu'un travail destiné à « servir de base » à des études ultérieures. Conçu suivant les méthodes les plus modernes, il a été réalisé par un savant chez qui le souci de la documentation méthodique, exacte et minutieuse, de l'objectivité absolue dans l'interprétation des faits, de la précision parfaite dans la notation a fait de ce gros in-8° de 542 pages une œuvre qui a renouvelé presque entièrement la phonétique basque. Il faudrait un volume pour démarquer tout ce qu'il portait de complètement neuf et vrai. C'est dire que c'est un travail non seulement destiné à durer mais définitif” (Larrasquet 1939: 18).

(2015b) eta bokal sudurkariet (2015c). Azkenean, ezin ahantz daitezke *EHH*Aren datuak, bereziki izen morfologian obratzen diren arau morfonologikoei (V. liburukia).

3.4.4.4. Morfosintaxiaz

Fonologiarekin batean, euskararen deskripzio lanetan morfologia izan da, dudarik gabe, interes handien piztu duen alderdia. Hori ez ezik, ikuspegi diakronikotik euskararen kasuan morfologia lehenesten da, 1545etik hona hotsen bilakabidetik ez delako gauza handirik ateratzen (Lakarra 1997): aldaketak gehienak oso lokalak izaten dira —*ergo* modernoak—. Aldiz, morfologiaren alorrekoak dira garai historikoan lekukotzen ahal ditugun aldaketa garrantzizkoenak, eta horri beste arrazoi bat emendatzen zaio: gure hizkuntzaren aberastasun morfologikoa (cf. Lakarra 1983: 643)

Deklinabide mailan, Chahok (1836) eta Gèzek kasu-marken gaineko hainbat ohar egin zuten; bereziki interesgarriak dira kasu lokatiboen morfemen gainekoak (Gèze 1873: 22-23). Gavelen gramatikaren lehen parteak (1929) aditzaz landako alorrak ditu jomuga, eta zenbait puntutan deklinabide atzizkien gaineko haren azterketa arras iradokigarria iruditzen zaigu, eta orobat erran daiteke Lafitteren gramatikaz (1943). Larrasquetek ere kasu-marken gaineko iruzkin interesgarriak txertatu zituen bere hiztegian (1939 s.v. *-tik*, adibidez). Lafonek, besteak beste, honako gaiak jorratu zituen: *-kin* atzizkia (1936), ablatiboaren atzizkiak (1948), bi genitiboak (1965b) eta deklinabide sistema (1970). Beste maila batean, Lafonek euskararen genero gramatikalaren absentiari oposa dakizkiokeen salbuespenak ikertu zituen, eratorpen atzizkietan has, eta adizkera alokutiboan azaleratzen den bereizkuntzan buka (1947).

XX. mendearen azken partean Jacobsen lana aipatu beharra dugu, lokatiboaren gainean (1977), eta dudarik gabe De Rijkenak, morfologiazko hainbat gairi buruzkoa (1981) nola **da* morfoari eskainiak (1992 & 1995), hein batean Zuberoako datuek inspiratuak. Bestalde, ezin ahantz genitzake Haritschelharren (1969-1970) eta Oyharçabalen (1991) lanak, edizioa baino askoz harago doazenak; partikularzki, *Charlemgn*eren edizioko oharretan gaindi, gure ustez, zubereraren gramatikaren ikertze saiorik sakon eta osoena aurki daiteke.

Azken urteetako ekarpenen artean, honakoak azpimarratu behar ditugu: deklinabide sistemaz ordura arteko proposamenen sintesia (Santazilia 2013); izenordainen, erakusle eta artikuluaeren bilakaera (Martinez-Areta 2013); deklinabide sistema, erakusle eta artikuluaeren gramatikalizazioa (Manterola 2015) eta animazitatearen eta kasu lokatiboen arteko lotura (Creissels & Mounole 2011). Azkenik, adlatiboazko *-ra* & *-rat* pareaz egikera oso diferenteko bi lan aipa ditzakegu: M. Igartua 1986, Leizarragaren hizkerara mugatua, eta Zaika 2016,

ikuspegi diakroniko eta dialektologikotik egina, eta lapurterazko datuei lehentasuna ematen diena.

Aditz morfologiara aldatuz, ezaguna da XIX. mendetik euskararen gaineko lan linguistiko gehienak atal horri eskaini zaizkiola, eta Zuberoako euskalkiaren deskripzioan ez da horretatik bereizten. Hortaz, guztiak biltzea pisuegi litzatekeelako, eta zerrendatze hutsa ez delako gure helburu, gehien baliatu zaizkigun lanak baizik ez dira aipatuko. XIX. mendeko lan klasikoak, hein handi batean, aditz sistemaren deskripzioak dira (d'Abbadie & Chaho 1836; Inchauspe 1858 eta Gèze 1873). Hirurak baliatu ditugun arren, balitzateke zer gaztiga.⁷⁹

Aditzaren sistema osoaz, bi lan gertatzen dira ezin utzizko erreferentzia eta abiapuntu: Lafon 1944 eta Mounole 2011; zubererari begira, Lüders ere aritu da aditz sistemaz bere osotasunean (1993). Bere *Système* delakoaz gain, Lafonek preseski Larrañeko aditza ikertu zuen (1959 & 1963), bai eta *-ke* morfema ere (1970b & 1973b). Azken gai horri loturik, Jendraschek-ek posibilitatearen adierazpenaren bilakaera aztertu du (2003). Orpustanek (2003) *izan* & **edun* parearen forma jokatugabeetako aldaketa fonetikoak ikertu ditu; Traskek (1995) aditzaren forma jokatugabeen historiaurrea, eta Urgellek horien historia (2006). Azkenik, guhaur aditzaren forma jokatugabeen bilakaeraz aritu gara (Padilla-Moyano 2013a), eta Ariztimuño forma jokatuenez (2013).

Horiezaz gain, Larrasqueten testigantza (1939), Gavel & Lacomberen gramatikaren bigarren parte, aditzari eskainia (1937), eta Lafitterena (1944) ere baliagarriak dira. Bistan da, ikuspegi morfologiko hertsiago batetik, Bonaparte 1869, Jaureguiberry 1957, Casenave-Harigile 1993 eta Yrizar 2002b ere beharrezko lanak dira Zuberoako aditzaren alorrean.

Sintaxi hutsezko gaiak landu dituzten saioak gutxiago dira. Zuberera aztergai, eta ikuspegi sinkronikotik, Lüders-en 1998ko lana aipatu behar da; bestenaz, Oyharçabalek (1987) erlatibozko egituren deskripzioa egin du. Diakroniatik, Aldaik (2009) hipotesi interesgarria

⁷⁹ Larrasquetek ondoko kritika egin zion Inchausperi: “1° Il est arrivé à l’auteur de consigner des flexions qui ne sont pas souletines [funtsean *hezake* bezalakoak]. 2° L’enquête ne s’étant portée que sur des parties limitées du domaine souletin, l’auteur n’a pas recueilli les variantes, nombreuses pour la majorité des flexions [...]. 3° De même les formes suivantes, entre des centaines d’autres, ne sont que des variantes locales, mal accentuées [...]. 4° L’auteur ne mentionne aucune des formes où les groupes *ía* ou *íá* sont contractés en *i* : que ce fût fréquente ou non, à l’époque où il écrivait, cette étude aujourd’hui incomplète, encore à cet égard [...]” (1939: 19).

formulatu du ekialdeko barietateen ergatibotasunaz, eta Ormazabalek (2016) datibo komunztadura landu du, nagusiki lapurteraren datuetarik abiatuak. Euskara osoaren sintaxi diakronikoaz, Krajewskaren tesiak (2017) argia emanen dio erlatibozko egituren bilakaerari. Gai zehatzagoetara lerratuz, Lafittek *nafar-lapurteraren* harridurazko perpausak azterkatu zituen, hainbat puntutan Zuberoako datuak ere eskainiz (1948). Peillenek zubereraren galderazko perpausak aztertu ditu (1979), eta berrikiago Ortiz de Urbinak *-a* galderazko morfema iruzkindu du (2003: 467). Guhurrek aditz iragangaitzekiko perpaus nominalizatuetakoa subjektuen (des)genitibizazioa deskribatu dugu (Padilla-Moyano 2013c). Gorago erran bezala, Zuberoako euskararen sintaxiaz ere gehien dakarren lantzat hartzen dugu Oyharçabal 1991.

3.4.4.5. Lexikoaz

Dudarik gabe, euskal lexikografian egin den lanik handiena dugu *OEH*. Zuberoari begira, lexikografiaren aitzindarien ondoren (Leizarragaren hiztegiñoa eta Oihenarten hitz zerrenda), Chaho 1856, Gèze 1873, Lhande 1926, Larrasquet 1939, Epherre (argitaragabea) eta Casenave-Harigile 1993 ditugu hiztegi gile nagusiak. Urkizuk Chahoren lanaren balioztatze egokia egin du (*apud* Urgell 2002: cxii); halaber, Urgellek hiztegi horiek aztertu ditu — Larrasquetena arte—, euskal lexikografiaren bilakaera osoan kokatuz (2002).

Bestalde, Peillenek Bela zaldunaren hiztegiaren parte bat argitaratu du (1983a), eta Larramendiren hiztegiaren eragina deskribatu du Eguiateguyren lanetan (1983b & 2011). Testuen lexikoiaren azterketen artean, Caminok ekialdeko behe nafarreraz idatzia den Lopezen itzulpenarena iruzkindu du (2013), eta Agirrek Belapeirerena (2010). Azken ikertzaile honena da, halaber, Zuberoako lexiko *historikoaz* *OEH*-tik kanpo egin den lanik handiena (Agirre 2016), laster argia ikus dezakeena: Belapeireraren lexikoitik abiatuz, hiztegi horren bilakaera xeheki aztertua da corpus zabal batean, XX. mendera arte.

3.4.4.6. Hizkuntza ukipenaz

Azken bi mila urteetan euskarak latinaren eta ondoko erromantzeen eragin sakona jasan du, eta horrek lexikoa ez ezik, fonologia ere aldatu du, bai eta, oraino aztertzeke den izari batean, morfologia eta sintaxia ere. Euskara osoan begien bistakoak izanik ere, hizkuntza ukipenaren ondorioak are nabariagoak gertatzen dira bazterretako mintzoetan. Gogora bedi nola Mitxelena, beste zenbait argudiorikin batean, Landuccioren hiztegi euskararen itxura aski erromantzatuz baliatu zen lekukotasun hori ez jadanik mendebaldean, baina Araban kokatzeko, eta zehazkiago Gasteizen:

Tenemos, pues, ante nosotros el testimonio de un habla muy castellanizada, mucho más castellanizada que la de Bilbao tal como nos la describió Micoleta casi cien años más tarde. Los dos principales compiladores pudieron equivocarse en el valor de términos corrientes, lo que puede deberse a que, conociendo mal la lengua, tuvieran que recurrir a informadores. Estos mismos les fallaron más de una vez, y precisamente con voces que debían ser familiares a cualquier campesino. El vocabulario es abundante, por el contrario, en términos de civilización, hecho no demasiado frecuente en léxicos vascos. No parece aventurado, por todo ello, suponer que las traducciones de la lista castellana de Landuchio proceden de una población importante, con tradición eclesiástica, donde había personas que a mediados del siglo XVI conocían poco y mal el vascuence (1958: 47).⁸⁰

Ezaguna denez, historikoki frantsesaren eragina euskararen ez da gaztelaniarena bezain sakona izan, arrazoi sinple batengatik: Frantziako hegoaldea òc hizkuntzen lurra izan da eta, beraz, frantsesa euskararen auzo izatea gauza berriagoa da —Akitaniako euskal herrietako egoera soziolinguistikoaren bilakaeraz, ikus Oyharçabal 2001a & 2001b eta Etxagibel 2015; frantsesaren Biarnoan sartzearen berantaz, ikus Brun 1929, Trotter 2006 eta Mooney 2016—. Frantsesarekiko ukipenaren ondoriozko fenomenoak direnaz bezainbatean, Norantz proiektuak (Oyharçabal, Epelde & Salaberria 2009) informazio aberats eta zehatza eskaintzen du Akitaniako barietate guztiendako, hala frantsesetiko maileguren egokitzapenez, nola frantsesaren eraginez galbidean diren oposaketetz.

Iparraldean gaztelaniaren garrantziaren parekoa izan duen hizkuntza beste erromantzea da: gaskoia.⁸¹ Mendebaldeko euskara gaztelaniaren eragin sarkorraren erakusgarri izan bada, orobat erran daiteke Zuberoakoaz, gaskoiarekiko ukipenak hein batean moldatu baitu. Lehen,

⁸⁰ Berrikiago, Urgellek ñabardurak egin dizkio Landucciren hiztegiko maileguak Arabako euskararenak direlako hipotesiari (2008).

⁸¹ Euskararen auzoa den erromantze horren izenaz, *okzitaniera*, *gaskoi* eta *biarnes* terminoak ez dira neutro ez eta, maiz nahasten badira ere, erran-nahikideak ere. Biarnesa gaskoiaren barietate (multzo) bat dela onarturik, eta gaskoia okzitanieraren dialekto bat izanik ere —halere Rohlfsek (1935) hizkuntza beregain gisa zekusan, katalana beregaintzat hartzeko den heinean—, gure ikerketaren jomugak batzuetan *gaskoi*, besteetan *biarnes* erabiltzera bulkatzen gaitu. Barietate horien hitzunek eta ikertzaileek nahiago ahal ditzaketen glotonimoak gorabehera, euskalaritzaren ikuspuntutik, Akitaniako mintzo erromanikoek euskara osoan —edo Iparraldeko euskararen— izan duten eraginari pentsa, *gaskoia* da izenik egokiena. Haatik, ekialde hertsiko euskararen ikuspegitik, mugakidea den Biarno herriko gaskoiari erreferentzia egiteko *biarnes* terminoa nahiago dugu, Zuberoa bakarrik —kasu batzuetan Nafarroa Behereko iparraldearekin—hunkitzen duten hainbat fenomeno eta eraginaren sarbidea seinatzen baitu.

erromantzeen herexa sakon hori *nahasketari* lotzen zitzaion,⁸² euskara kasik hizkuntza hibridoa bailitzan; cf. “half-romance language” (Shimomiya 1988).

Euskararen eta gaskoiaren arteko harremanek hainbat ikertzailearen arreta erakarri du. Erromanistek bezala, euskalariak ere euskarak eta gaskoiak erakusten dituzten bat etortzeak aztertu dituzte hizkuntza ukipenaren eta hizkuntzalaritza arealaren ikuspegitik, baina batez ere substratuaren teoriatik. Ezaguna da bi hizkuntzek partekatzen duten fonologia ezaugarrien zerrenda luzeak aitzineuskararen substratura igortzen duela; gogora bitez Luchairen hitzak, zeinen arabera gaskoiak hauxe baizik ez dira: “des Aquitains qui ont été conquis par la langue latine” (1877: 69). Hor ditugu latinaren *f*-ren hasperentzea, bokalarteko *n*-ren galera edo hitz hastapeneko *r* aitzineko protasia (Rohlf 1970 [1935]; Jungemann 1955; Mitxelena 1956 & 1977a; Gorrochategui 1984). Hala ere, berrikiago Burov-ek (2014) fonologia ezaugarri partekatu horiek substratuaren ideiatik urrunduz azterkatu ditu.

Gaskoi erromantzearen eta euskararen arteko geroko interrelazioak hainbat autoreren lanen ikergaia izan da. Haietako batzuek hizkuntza ukipenak lehenbizi kanbiarazten duen alorra jorratu dute, hots lexikoarena (Peillen 1990 & 1998; Coyos 2001, 2006, 2008 & 2010). Beste maila batean, Lafonek (1965) ekialdeko euskararen zenbait mintzoren —eta bereziki zubereraren— /y/-ren jatorria okzitanierarekiko ukipenaren medioz azaldu zuen. Allières (1993) aitzindaria izan zen okzitanieraren eta euskararen tradizio grafikoak lotzen. Coyosek (2008) bi hizkuntzen arteko egokitzapen fonologikoa eta izen eratorpeneko gaiak landu ditu. Halaber, Rohlf 1935, Haase 1992a, Cierbide 1987 edo Allières 1992 lan ezin utzizkoek euskararen eta gaskoiaren arteko harremanak aztertu dituzte ikuspegi zabalago batetik.

Gaskoiaren eragipena bi norabidetan sartu da Akitaniako euskararen eremuan: i) Landetako barietateetarik Lapurdira eta Nafarroa Behereko ipar-mendebaldeko lurretara (Agaramont); eta ii) Biarnotik Nafarroa Behereko ipar-ekialdera (Amikuze) eta partikularzki Zuberoara (cf. Orpustan 1987: 31). Horrekin batean, frantsesaren euskal lurretatik hedatzearen kronologia ere kontsideratu behar da zeren, horretaz oraino deus gutxi dakigun arren,

⁸² Le peuple qui le parle [l'idiome des montagnards pyrénéens], n'ayant pas joué de rôle bien important dans l'histoire de la civilisation, a, naturellement, bien plus emprunté aux dialectes voisins qu'il ne leur a donné. Le basque peut être pris comme le type par excellence, à un degré plus prononcé que l'anglais, le hongrois ou le turk, des langues mélangées. Nous pouvons affirmer, sans crainte d'être démentis par les experts en la matière, que près de la moitié de son vocabulaire est emprunté au latin et aux dialectes romans, spécialement au béarnais et à l'espagnol (Charencey 1891: 1).

frantsesa Lapurdin Zuberoan baino lehenago sartu zatekeela postulatzeko da oso. Bestela erraiteko, Biarnon gaskoiaren indarrak eta prestigioak beste inon baino luzeago iraun zuten, eta horrek frantsesak ipar-ekialdeko euskal herrietan izan dukeen sartzeko eta hedapen berankorra azaltzen lagunduko luke.

Puntu honetan, komeni da gogoratzea Zuberoaren eta Biarnoaren arteko muga ez dela bi hizkuntzen artekoa: Zuberoan badira biarnesez mintzo diren herriak, eta Biarnon herri euskaldunak.⁸³ Historian gaindi, Zuberoako euskaldunek Biarnoko auzoekiko harreman estuak garatu dituzte. Mota askotako faktoreek faboratu dute lotura hori (Larrasquet 1928; Peillen 1993; Coyos 2001; Camino 2011: 114-116). Geografiaren baldintzekin has, Zuberoa Behereak mendebaldetik Amikuzerekin, eta iparraldetik zein ekialdetik Biarnorekin du komunikaziorik errazena; elizbarrutien antolamenduarekin segi, Iraultza aitzin Zuberoa mende luzeetan Biarno osoa bere baitan hartzen zuen Oloroeko diozesan sartua egon zen; egitura administratiboekin buka, Iraultza ondoko antolakuntzak Zuberoa eta Nafarroa Beherea Lapurditik bereizi zituen (1790), eta ondoren Zuberoa gainerako euskal herrietarik urrundu, Oloroeko arrondizamenduan sartuz.

Intrahistoria mailan, zuberotarren eta biarnesen artean merkatu harremanak, transhumantzia, ezkontza mistoak, etab. izan dira gauzarik ohikoena. Azken buruan, euskararen eta gaskoiaren arteko harremanak —eta biziki zubereraren eta biarnesaren artekoak— behiala populu bakarra izan ziren bi herri auzoen arteko loturen ondorio baizik ez dira. Hortaz, muga linguistikoak ez dituzke auzoen arteko harremanak sobera oztopatu:

L'exceptionnelle rareté des affrontements politiques ou sociaux depuis deux siècles et plus, la rareté des incidents [...], et ceci même et surtout aux régions étroitement limitrophes ou dans les communes « mixtes », constitue, pour une zone frontière, un fait sans doute sans équivalent. Ces remarques nous conduisent à penser que jamais la frontière linguistique n'a vraiment constitué un obstacle sérieux, une gêne pour l'entente ou la vie commune, la

⁸³ Peillenek *Soule gasconne, Soule basco-gasconne* eta *Béarn bascophone* terminoak erabiltzen ditu; haren hitzetan, “Sont de langue béarnaise actuellement trois communes souletines : Osserain [Ozagañe], Rivareyte [Arribareita] et Gestas [Jestaze]; Montory est basco-gasconne” (1989: 109-111). Biarnoko gune euskaldunak direnaz bezainbatean, Peillenek “hameaux bascophones de communes béarnophones” aipatzen ditu, eta atal berezi batean Eskiula, komunzki herri euskalduntzat hartua dena (*ibid.* 111-113); Jeruntze ere Biarnoko herri euskaldun gisara izan da aipatua. Biarnoko euskaraz eta euskaldunez, ikus Etxegorri 2003 & 2012. Bestalde, Artolak & Tellabidek euskararen ekialdeko mugaren berri zehatza ematen dute, kasik etxerik etxe (1990: 257-258).

compréhension mutuelle, le respect des personnes et de l'identité des cultures (Milhères 1983 : 16).

Horren guziaren ondorioz, zuberotar anitzek biarnesaren ikasteko beharra sentitu zuten, elebitasun maila desberdinetara iritsiz. Peillenek *haur ordarika* izeneko tradizioa aipatzen du, zuberotarrek eta biarnesek beren haurrak ogibide bat eta auzoen hizkuntzaren ikastera bidaltzen zituztelarik (1993: 294-295). Oraino bizi dira euskaraz, biarnesez eta frantsesez dakiten azken hiztun hirueledunak.⁸⁴ Lotura azkar horrek herexa biziki markatua utzi du hizkuntzan; izan ere, erran dezakegu Zuberoakoa dela, euskalki guztien artean, okzitanieraren eraginik azkarrena jaso duena, biarnesaren bitartez, bederen azken hiruzpalau mendeetan zehar.

Ukipenean dauden hizkuntzen arteko mailegutza fenomenoentzat mailakatze bat baino gehiago proposatu izan da. Zubererak patitu dituen kanbiamenduak hizkuntzen arteko ukipen intentsiboan koka daitezke, “A type of language contact including much bilingualism among borrowing-language speakers over a long period of time” (Thomason y Kaufman 1988: 50). Horren ondorioak lexikoaren mailegutza masiboa, eta egituren mailegatze moderatua edo sakona dira, nabarmenki fonologian eta sintaxian. Ukipen egoera azkarrek gramatika kategorien inbentarioan eragin ditzaketen aldaketez, honakoa diote Heinek eta Kutevak:

Contact situations, except for cases of attrition, tend to lead not to the reduction and loss of existing grammatical categories, but rather to diversification and to the creation of new grammatical categories in one language on the model of another language. (Heine & Kuteva 2005: 258 *apud* Epelde & Jauregi 2011: 984)

Honaino iritsita, biarnesaren eragipena azken mendeetako zubereran ez da alta aski aztertua izan. Tesi honek erakutsiko duenez, lexiko mailegatze masiboan eta fonologian ez ezik — alderdi hauek Larrasqueten, Lafonen, Peillenen eta Coyosen lanetan izan dira aztertuak—, Zuberoako euskarak hizkuntzaren gainerako ataletan ere erakusten du biarnesaren marka. Bi hizkuntzen arteko ukipenaren ondorio horietako batzuk aztertuko ditugu: besteren artean, bokal sudurkarien “bigarren labekada” (I, § 1), txistukari ahostunak (I, § 2), *-i-dun* partizipio

⁸⁴ IKER UMR5478 zentroaren proiektuetarik bat da *Hiruele*, zeinaren helburu nagusia “euskara eta gaskoinaren arteko ukimen eremu tradizionalan aurkitzen diren hiztun elebidun (euskara-frantsesa) eta hirueledunen (euskara-frantsesa-okzitaniera) hizkerak eta hizkuntzari buruzko burubideak (errepresentazioak, jarrerak, oroitzapenak, beren hizkuntzen bilakaerari buruzko gogoetak) jasotzea eta interesatuen eskuetan jartzea da” <http://www.iker.cnrs.fr/~hirulele-.html?lang=eu> [azken kontsulta: 2016-12-9].

sail berri bat (IV, § 3) eta formula aurkezle berezi bat (VII, § 2), gaskoiaren *que* partikula enuntziatiboaren kalkoa ere islatzen duena (VII, § 2.5.2). Gure ikusteko maneran, biarnesaren eragin hori orain arte baino neurri egokiagoan baloratu behar da, eta horretan ahaleginduko gara.

Zuberoako euskararen kasuan, finitzeko, hizkuntza ukipen fenomenoak beste eremu batzuetan baino konplexuagoak dira; hau da, historikoki jokoa ez da soilik bi mintzoren artekoa izan. Pirinioak hainbat hizkuntzaren bidegurutze ikustearen ideari lotuz, Zuberoa bidegurutze horren gunean plazatua irudika dezakegu, “au cœur d'un carrefour des langues” (Padilla-Moyano 2017c): frantsesa gaskoiari gainjarri zitzaiokeen, eta gaztelaniak ere bere garrantzia izan zuen (Peillen 1986b), latinaren rola ere ahanzi gabe. Beraz, populazioaren zati handi bat elebakarra izan bada ere, erran daiteke historikoki zuberotarrek komunitate eleaniztuna osatu dutela; horren ondorioak klarki ageri dira herri tradizioko literaturan, bertsotan zein hainbat antzerkitan pasarte elebidunak eta eleaniztunak ohikoak izanik (Urkizu 2002; Padilla-Moyano 2017a). Hizkuntzen jokoaren naturaltasunaz, gogora bitez Maisterren hitzak:

Besthalte escolan dabilçan hurrec uduri da abantalla haur jardiexiren diela, uscararen iracourten ikhasten dielatic, hala noula latia eta francesca ikhasten beitutie, hanitcheç ehignerago gogouan etchekiren dutiela catichiman eracousten çaitcen eguia saintiac, eta Jincouaren laidoriouen canticouac; erregentec eracouxi deikeyenian bere lengouagiaren hagn laster iracourten, noula bestetan trebatcen beitutie (1757: ix-x).

I. KAPITULUA

FONOLOGIAZKO BI EZAUGARRI

1. Zuberoako bokal sudurkari *berriak*
2. Txistukari ahostunak Zuberoan

1. Zuberoako bokal sudurkari *berriak*

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Euskararen bokal sudurkarietz
 - 1.2.1. Jakingarri orokorrak
 - 1.2.2. Bokal sudurkariak Zuberoan
- 1.3. Zubereraren bokal sudurkari berriez
- 1.4. Testuetan zehar
- 1.5. Ondorioak

1.1. Sarrera

Atal honetan Zuberoako euskarak dituen ezaugarri berezietarik bat aztertuko dugu: bokal sudurkariak. Baina ez gara euskararen bokal sudurkari *zaharrez*, etimologikoez arituko, azken mendeetan mailegutza bidez sartu diren bi bokal sudurkari *berriez* baizik. Lehenbizi euskararen bokal sudurkarietz mintzatuko gara, oinarritzko informazioa emanik (§ 1.2.1), eta ondoren Zuberoaren eremura hertsatuz (§ 1.2.2). Sudurkari zaharren gaineko informazioa hetsirik, *ĩ & ù berriak* ikertuko ditugu (§ 1.3), Zuberoako testuetan izan duten agerpena xeheki ekarriz ere (§ 1.4). Azkenik, ondorio orokor batera etorriko gara (§ 1.5).

1.2. Euskararen bokal sudurkarietz

1.2.1. Jakingarri orokorrak

Ezaguna da Zuberoako euskarak bokal sudurkariak gorde dituela, Erronkarikoak ere iraungi arte gorde zituen bezala. “Zubero-erronkaria” deit genezakeenaren eremutik kanpo, Bonaparteren arabera (1869: “Observations” xxix-xxx), ekialdeko behe nafarreran bokal sudurkariak soilik Domezain eta Ithorots-Olhaibin herrietan existitzen ziren —geografikoki Zuberoan—. Ezaguna da, halaber, XVI. mendeko bizkaieran ere bazirela bokal sudurkariak: Madariagaren eta Garibayren aipu arras ezagunek ez dute zalantzarako tarterik uzten (cf. *FHV* 48); XVII. mendean Capanagak bere dotrinan markatu zituen (1656), eta Bergarako hitz zerrendaño batean ere sumatu dira (Aginagalde & Urgell 2012).⁸⁵

⁸⁵ “[...] beranduagoko datuek gidaturik zuberera eta erronkaria arkaikoez ere bokal sudurkariak zeuzkatela ondoriozta dezakegu; bizkitartean, arabera, gipuzkera, goi nafarrera, lapurtera eta behe nafarreraren kasuan, une honetan ez dugu aski daturik deus ez erabakitzekeo” (Mounole & Lakarra 2015, “Euskara Arkaikoa”).

Euskarak —historikoki mendebaldean eta gure denbora arte ekialdean ere— izan dituen bokal sudurkariak barneko bilakabide baten emaitza dira: bokal arteko $n > \tilde{h}$ —urrats hau Egurtzegik (2014) proposatu du, Mitxelenaren berreraiketa osatuz—, gero h , eta azkenean \emptyset : *annona*, *anate*, **bini* > *anõhã*, *ãhãte*, *mĩhĩ* > *anoha*, *ahate*, *mihi* > *anoa*, *aate*, *mii*. Ziklo osoari erremarkaturik,⁸⁶ halako bokal sudurkarien atxikitzea arkaismo handia dela erran dezakegu. Bokal sudurkariak lekukotu ez dituzten hizkerak ziklo horretako ondoko fase batean daudela kontuan hartuz, orduan ondorioa ezin utzizkoa da: Bizkaierak eta zubererak ez ezik, behiala euskara osoak bokal sudurkariak izan zituen, mintzo batzuetarik lehenago edo berantago desagertu ziratekeenak.

Mitxelenari jarraituz (FHV 50), bokal sudurkarien lekukotasunik zaharrena beharbada XII. mendeko *Erromesaren gida* delakoan kausitzen da, *ardum* formako *-m* ez baita latinaren akusatiboaren marka, atzerriko erromes hark hauteman zukeen [ardũ] ahoskeraren bukaera sudurkariaren islatzeko baliabide grafikoa baizik —akusatibo markatzat hartzeak ez luke zentzurik, bakarra bailitzateke zerrenda osoan—. Beraz, [$n > \tilde{h}$] bilakabidea zaharra da: Mitxelenaren arabera, XI. mende hastapenerako gauzaturik zatekeen,⁸⁷ eta Lakarrak (2011a: 193-194) askoz lehenago gertatu zela proposatu du: Chambonek & Greub-ek (2002) gaskoian [$n > \emptyset$] bilakabidea 511rako gertatua zela erakusten dute, eta galera hori substratukoa balitz, orduan euskararena ere garai hartakoa zen. Bistan denez, aldaketak latinetik mailegu zaharrak bezala euskararen hitz patrimonialak ere aldarazi zituen: *ũhũre*, *orgã*, *ãhãlke*, *ãhõlku*, *ãhãntzi*, etab. Halako hitzetakoak dira bokal sudurkari *zahar* deituko ditugunak, aztergai ditugun bestelako bokal sudurkarietako distantzia hartzeko xedez.

⁸⁶ Mendebaldean *i* bokalaren ondoan zikloa hetsi da, kontsonante sudurkaria berrezarritik: *devotione* > *deboziõẽ* > *deboziõ* > *deboziño*; gainerako bokaletan sudurkaritasuna galdu da. Ulibarriri jarraikiz (2015: 144-146), kontsonantearen berrezartzea bi urratsetan egin zen: 1) bokal arteko testuinguruan —*sei* / *seña*, *mi* / *miña* oposizioa delako—, eta 2) gainerakoetara analogiaz hedatu: *miña* → *miñ* edo *min*.

⁸⁷ “El proceso [lat. $n > h$ bokal artean] estaba cumplido en lo fundamental para comienzos del siglo XI, cuando encontramos ya el antr. *Aceari* y algo más tarde *ardum*, *araign* en la Guía del Peregrino. La gran mayoría de los préstamos latino-románicos de alguna antigüedad ha sido afectada (las excepciones como *tenore* ‘ocasión, tiempo’ son de introducción reciente) y en principio no hay razón para pensar que las fechas sean muy distintas de las que el mismo fenómeno tiene en gascón o en gallego-portugués” (FHV 302).

1.2.2. Bokal sudurkariak Zuberoan

Zuberoari begira, beharbada bokal sudurkarien lekukotzarik zaharrenak XIV. mendearen azken partean egin zen erroldan kausi ditzakegu (Cierbide, Grosclaude & Orpustan 1994). Bertan *mina* ‘mahasti’ mailegua duten oikonimo gehienek *mia* grafia agerrarazten dute: *Miabea* (Guariney = Garindaine), *Miagorene* (Aucet Suson / Altzai), *Miaguaray* (Mendy, Ervis & Gotein = Gotaine), *Miaquia* (Ossas / Ozaze), *Miartea* (Erbis) & *Miasabau* (Aucet Juzon / Altzabeheti) —azken hau gaskoiaren ezaugarria den *-l > -u* aldaketarekin—. Soilik *Mignagaray* (Lic / Ligi) formak atxikitzen du bokal arteko kontsonantea.⁸⁸ Halaber, gure ustez *Guabastoo* forman <oo> grafiak bukaerako *ũ* sudurkaria islatzen du, ezagun baita halako bokal bikoitzak *scripta bernesaren* ezaugarri direla Okzitaniako bestelako mintzoen aitzinean;⁸⁹ azkenik, *Larrandoe* forman ere beharbada ahoskera sudurkaria datza.

Bonaparterengandik bokal sudurkariak bertako euskararen ezaugarritzat hartu izan dira (Zuazo 1989b: 620; Camino 2009: 166). Larrasquetek bokal mota hauen agerguneak zehaztu zituen: kontsonante sudurkari baten ezker zein eskuin, edo bokal arteko *h*-aren ezker zein eskuin (1939: 232). Bonaparteren eta Larrasquetengan oinarriturik, Agirrek (2001b: 665) Belapeireren *katiximako* bokal sudurkaririk duten hitzen zerrenda eman du, eta ondoan hitz bakoitzaren jakingarriak, Bonapartek, Larrasquetek ala biek emandako informazioaz horniturik, beste euskalkitako korrespondentziekin edota latinezko etimoarekin. Hona zerrenda:

Ahalke, ahazten, aholcatu, aholcu, diharria mug., ihian ines., guihaur, cihaurreyec, hugu, ihardesteco, Ihauterian, ihes (eguiteco), ihor, christi, mihi, ohognen, ohore, ohoratu, chaha

⁸⁸ Hona Orpustanen interpretazio zuhurra: “Emprunt *mina* ‘vigne’ qui reçoit (ou garde) dans cette zone dialectale la “mouillure” de la nasale après *-i*: au Censier *miaqui*, moderne *Miñaki* qui a conservé la prononciation locale comme dans la plupart de ces noms ; mais le Censier écrit exceptionnellement *mignagaray* à Licq, graphie romane (et francisée car le gascon aurait eu *-nh-* pour la nasale palatalisée) conforme à la phonétique locale ; à Arrast le Censier note *Cuhary* actuellement *Ziñhári*. [...] L’élimination ponctuelle de la nasale n’est pas un fait uniquement béarno-souletin, et les documents sur la Basse-Navarre issus de la Chambre de Comptes de Pampelune offrent les mêmes variations graphiques (où peut intervenir pour une part la non transcription du signe abrégé habituel pour les nasales: un petit trait sur la voyelle qui les précède): à Anhaux (vallée de Baïgorry) 1350 *mihondoa*, 1412 *minhondo*, à Sorhoeta (idem) 1350 *miondo*, 1412 *minhondo*” (1999: 47-48). Gure irudiko, grafia horiek bokal sudurkariaren presentzia iradokitzen dute.

⁸⁹ “Système toulousain: maintien de la consonne finale étymologique latente (ou suppression complète). [...] Cf. *canson / canso, la fin / la fi, lo can, la ma*. | Système béarnais: doublement de la voyelle pour noter l’allongement compensatoire du à la disparition de la consonne finale: *cansoo, la fii, lo caa, la maa*” (Grousclaude 1987: 284).

(*eraciric*), *chahu*, (*genté*) *chehec*, *çuhur*, *çuhurtcia*; *cosia* muggb., *latiz* instr., *medeci*, *arraço*, *presoubat*, *saso*.

Gure ustez, Lafonek egin du Zuberoako bokal sudurkarien deskripziorik hoberena, Larraineko euskararen kari; lehenbiziko hurbiltze gisara, honakoa diosku:

Existence de cinq voyelles nasales, *ã*, *ẽ*, *ĩ*, *ũ*, *ũ̃*, qui se rencontrent même en dehors de tout contact avec un *m* ou un *n*, du moins actuel. Par exemple, on rencontre *ã* son seulement dans *hándi* « grand », mais encore dans *aháte* « canard ». A Larrau, *õ* ne se rencontre qu'au contact de *m* et de *n*. La nasalité est moindre que dans les voyelles nasales françaises. Elle est plus sensible en syllabe initiale qu'ailleurs. (1958, in *Vasconiana* 114-115)

Larrainen behatuak dakartza Lafonek, hala nola *h* inguratzeko duten bokalen kalitatea ahokoa ala sudurrekoa denetz: *ahate* bezalako hitzetan, batzuetan *h*-aren ezker zein eskuinera hauteman zituen bokal sudurkariak, eta bestetan soilik ezkerrean (1958: 82, *Vasconiana* 117). Beste zenbait hitzetan ez zuen batere sudurkaririk hauteman: *zahar*, *zuhur*, *bühürtiik*.

Lafonen lanak badu beste alderdi bat guretzat interes bizikoa. Batetik Bonapartek (1869 “Observations” xxix-xxx, 3. oharra) eta bestetik Larrasquetek (1939) bildu zituzten bokal sudurkaridun hitzen zerrendak (Lafonek) berak Larrainen ezagutu zuenarekin erkatu zituen. Oro har, Bonapartek eta Larrasquetek bildutakoa baino bokal sudurkari gutxiago hauteman zuen. Haren eleetan, “Dans plusieurs cas, Bonaparte et Larrasquet indiquaient des voyelles nasales là où j'avais noté des voyelles orales” (*ibid.*). Bonapartek ez zuen aitortu sudurkaridun forma haiek non ziren entzunak; halere, Printzeak oroz gainetik Atharratzeko barietatea hobesten zuen zubereraren ordezkariak; Larrasquet bere sort hizkeran oinarritu zen. XX. mendearen lehen erdiko testigantzen hesteko, Lhande zalgiztarrarentzat “*ã*, *ẽ*, *ĩ*, *õ*, *ũ*, *ũ̃*, prennent un léger accent nasal [...] en souletin et en bas-navarrais devant un *h* suivi d'une voyelle” (1926: xxxi).

Beraz, lehen begi kolpean pentsa liteke bokal sudurkarien agerguneak edota bokal sudurkaridun hitzak behehituz joan direla. Lafonek, aldiz, lekukoen jatorria azpimarkatzen du, iradokiz fenomenoaren indarra ez zatekeela homogenea Zuberoa osoan —menturaz Basabürütik ahultzen hasia zen, Pettarran azkarrago zegoela—. Nolanahi ere den, jada XX. mendeko Zuberoan bokal sudurkariak ez ziratekeen bere aldirik oparoenean; Mitxelenaren hitzetan: “Incluso en suletino las vocales nasales se nos presentan hoy, por su inestabilidad, como una particularidad arcaica en vías de desaparición” (*FHV* 48). Lafonen erranak arras ongi ezkontzen dira ezaugarri ihartuaren ideia horrekin. Bada, ezaugarri egongaitza eta

nonbait gibelatua izanda, hautemate mailan zuberotarrek berek ez zuketan bokal sudurkarietan beren kontzientzia osoki ipintzen:

¹⁵² Iainkoaren beldur *ezpanaiz ere* eta nehorzaz konturik ez *egitenagatik*: Badarik ere zeren faskeria emaiten baitraut alhargun hunek (Lk 18, 4-5) & Gehienzi lekhuetan arranzale *erraitenagatik*. (Hiztegiñoa, s.v. pescadore). Preseski ohartarazten dugu Leizarragaren adibide hauek balio kontzesiboa dutela, euskara historikoan ezagunagoa den *-teagatik* / *-tearren* segidek motibatiboa adierazten dutenean.

Etxeparek *gatic* marka maizenik genitiboari lotua ematen badu,¹⁵³ Leizarragak kasik beti absolutiboari estekatzen dio, pluraleko formak barne —“sistematikoki”, Azkarate & Altuna 2001: 108; Camino 2008: 140; baina bada salbuespenik, izenen pluralean ere—. ¹⁵⁴

Zuberoan *-gatic* markaren erabilpen historikoaren bilakaera honela laburbil daiteke: izenen nahiz erakusleen pluralean testu zaharrenetarik genitiboari erantsirik agertzen da, nabarmenki *-egatic* itxuran, eta anitzez gutxiago *-engatic* (*n* gabeko forma haez, ikus § 1.5.4). Singularrean, aldiz, *-gatic* absolutiboari jarraitzen zaio kasik beti. Mugagabeen tema biluziari erantsirik agertzen da. Azkenik, izenordainekin joera da motibatiboaren marka genitiboaren gainean emateko, baina absolutiboari ere lot dakioko, garai guztietan. 10. TAULAK motibatiboaren bi aukera hauek biltzen ditu, testuka.

Oihenarten atsotizetan bada *denagati* 85, *ontarzunegati* 112, *gutigati* 112, *hutsagati* 136, *darraikonagati* 126, *herenagati* 226, *berzegatik* 313, *denagati* 351, *ontarzunagati* 351, *hobeagati* 476, *xoriegati* 477, *berriagatik* 540, *guziegatik* 589, *orogatik* 589, *zuzenagatik* 590 eta *duenagati* 632. Haren neurtizetan izenordainen formak aipa genitzake: *higati* & *nigati* III 4, eta bereziki *gugatila* forma, *gatila* atzizkiaren forma luzatu bitxia agerrarazten duena (195); morfema horren iruzkin batentzat ikus II, § 2.2.3.3.

- (194) *Zer ere zugati, nigati / Bailedask' izterbegiak / Gal zaitzadan eztu hargati, / Merezi ene maitegiak.* (O Po XV 5)
- (195) *Jainko jauna gugatila, / Regnatu da zuretila. “Le Seigneur Dieu, pour nous, a régné par le bois”* (O Po XXII 3)

¹⁵³ Singularrean: *kausa honegatic* (gutuna), *soldata apphur bategatic* I 10, *Bategatik sarri niro diren oroz arnaga* (XII, 56) “à cause d'un être, je renoncerais vite a tout ce qui existe” (Lafon) / “Une seule me ferait bientôt renier tou ce qui existe” (Euskaltzaindia), *hobenagatic* XIII 48, *Ienkoagatic* II 81. Pluralean: *Orai tuzun penegatic zuria egonen duzu* XII 30, *gure gaizkiegatic* II 134 “à cause de nos mauvaises actions”, *gaizki handiegatic* II 136 “pour les graves fautes qui se commettent”, *zure othoiegatic* II 137 “à cause de vos prières”, *Zuhur gutik andregatic gaizki erran dirote* III 7 “peu de personnes sages peuvent parler mal de femmes”. Mugagabeen: *berzegatic hura gabe oro galdu girade* II 35 “Malgré les autres, sans elle, nous sommes tous perdus”. Izenordainetan Etxeparek beti genitibo markarik gabe ematen du motibatiboa. Erakusleak eta beste: *hargatic* II 116, IV 2, X 26 & XII 8; *Emazteak zerengatic gaiz erranen dirate* III 9 “Pourquoi ira-t-on dire du mal des femmes?”, *norgatic* VII 20, *Lotsaturik iarri nuzu ezpaitakit zegatic* IX 6 “Me voilà prise de peur, sans savoir pourquoi”, *Ezetare zerengatic behar dudan auzirik* IX 10 “Rien d'où il suive que je doive avoir un procès”.

¹⁵⁴ *Guregatic*, *enegatic* & *hiregatic* (Lç Mt 17, 27), *zuegatic* (Lç Mk 22, 19) —izenordainekin sistematikoa da, salbu *gugatic* bakan bat—, *razoin hunegatic* (“Heuscalduney”), *kausa hunegatic* (“Heuscalduney”) —*hunegatic* sistematikoa da—, *horrengatic* (Lç Mt 27, 19; Mark 7, 29), *harengatic* (Lç Lk 4, 38), *gizonengatic* (Lç Heb 5, 1), *anhitzengatic* (Lç Mt 20, 28).

Zalgizek *hobiagatik* dakar (91). 1616an Etchartek bitan baizik ez du motibatiboaren atzizkia ematen: *contentamenduagatic* 7, 1r & *baquiagatic* 7, 1r. *Onsa* liburuan, Tartasek banaketa sistematikoa erakusten du, 32 agerraldiren artean: izenen singularreko formak absolutiboaren gainean, eta pluralekoak *e* ondoan: *arimagatik*, *berziagatik*, *biziagatik*, *bizieagatik*, *huriagati*, *deusegatik*, *enegatik*, *eztianagatik*, *gizonagati*, *gloria gati*, *gugati* (lautan), *haieagatik*, *hargati*, *hargatik* (bitan), *hilegatik*, *honegatik*, *Ienkoagatik*, *iniustoagatik*, *larriagatik*, *mundiagatik*, *ohoriagatik* (bitan), *orogati*, *probexua gatik*, *zenagatik*, *zergatik* (bitan) & *zugati*. Dotrinek eta pietate liburuek (196)-ko bezalako pasarteak biltzen ohi dituzte.

- (196) *Othoi eçacié bicitcé honen eta Eliçaren behar orogatic, hambat cihaureyegatic, nola bici eta hil orogatic. Othoy eçacié Eliça Santa Catolica, Apostolica, eta Romanoaren beguira, eta goratcia gatic; goure Aita Saintia gatic, çoin baita haren buru agueri dena; Cardinalen Collegio Sacratia gatic, goure Iaun. N. Apezcupia gatic, haren Cargudun egatic, gouré Iaun Archapezcupu, Apezcupu, Erretor, eta besté arimen guidaçalé oro gatic, gouré Erregué ecinágo Christiá gatic, lecu hontaco Patron, Patronè gatic si sit; Iugè eta besté oro gatic, Amorecati hayen Gouvernu hambat espiritual, nola temporalen pian (PrS 17-18)*

Belapeireren katiximan ondoko formak nahi genituzke markatu: *norgatic* I 34, *cihaurgatic* I 154 (vs. 1676ko pronuko *cihaureyegatic* 17), *horiegatic orogatic* II 80, *arraçou gatic* II 115 (mugagabea), edo *bi arraçogatic* II 38. Oloroeko katiximan ber banaketa kausitzen dugu. 1734an lehen aldiz aurkitu dugu izen singular batek *-gatic* atzizkia duela *-n-dun* genitiboaren ondoan (197); gainera *hautsiagatic* kontzesiboa aipa liteke (*Othoitce* 7), bai eta izenordainen formek ere genitiboa agerrarazten dutela: *enegatic* 20, *çouregatic* 34 & 50, *gouregatic* 59.

- (197) *Eztiçut mundiarengatic / Galduren çoure gloria. (Othoitce 101)*

1757an, *Iganteçtaco pronoua* eta Maisterren *Imitacionia* lehengo usantzari lotzen zaizkio. Pasarte batean ber haplogiaren bi agerraldi ematen du: *eguilenenegatic* (IP 10) & *adichkidenenegatic* (IP 11) ‘egileen [arim]engatik & adiskideen [arim]engatik’. Izenordainen forma indartuetan genitiborik gabeak ematen ditu Maisterrek: *nihaurgatic* (IV 17, 3), *beraurgatic* (III 54, 7). Ressegue ber bidetik dabil: *beste gaiçagati* 17 vs. *onsa diren gaiçegati* 17; eta orobat erran daiteke *Mercyz*.

XVIII. mendearen akabantzan Eguiateguyk berritasun handia dakar: izenen singularrean *gatic* atzizkia genitiboaren markari eranstea abantailatzen du: *ohoriaren gatic* (“Hitzauria”), *ontartiaren gatic* (“Hitzauria”), *gaitzaren gatic* I 3, *bakiaren gatic* I 4, *beltzaren gatic* I 6, *baten gatic* I 6, *arrazoaren gatic* I 21, *diariaren gatic* I 26, *probetxiaren gatic* I 28, *kabaliaren gatic* I 28, *esküdantziaren gatic* I 30 —baina *abantailla gatic* “Hitzauria”, *ziana gatic* I 25 & *kondaira gatic* I 40—. Horiezaz gain, pluralean *-engatik* itxura erabiltzen du,

garbiki emana genitiboaren gainean: *hitzkondien gatik* (“Hitzauria”), *txarragoen gatik* I 3, *hen gatik* I 5, *harmen gatik* I 20, *gerthaldien gatik* I 6, eta are mugagabeen ere: *zonbaiten gatik* I 33. Horietaz gainera, (198)ko pasarteak sintaxi bitxia dakar, *gatic* atzizkia erlatiboazko egiturari zuzen erantsirik:

(198) *Nolako nahi zertakoz egina den gatic erraiteko.* (Egiat I “Hitzauria”)

XIX. mendean, *Doctrina Khiristia* molde zaharrari lotzen zaio. Singularrean sistematikoki absolutibo gehi *-gati(k)* dugu: *originalagati* 21, *livratciagati* 23, *sartciagati* 24, *erakhartiagati* 30, *gloria gati* 47, *salvamentiagati* 47, *eracastiagati* 48, *sanctificacioniagatic* 51, *amourioua gatic* 61, *juntatcia gatic* 58, *eracastiagatic* 58, *arraerostia gati* 61. Pluralean *-egati* itxura zaharra: *gu bekhatoregati* 9, *merechimentiegati* 26, eta mugagabeen *bi arraçou gati* 78. Izenordainetan genitiboa ageri da: *enegati* 12 & *goure gati* 14, 23, 57... Eta ber banaketa *Uscara Librian*; testu honetan, gainera, singularrean *çouinegatic* aurkitzen dugu (*UskLi* 44). Bi hamarkada berantago, *Catichima edo Fedia Laburki* (*CatS*) liburuan pluraleko hiru moldeak ageri dira: *bekhatariac gatic*, *bekhatoregatic* & *bekhatien gatic*.

1844ko *Meditacioniac* moldaketan itxura berriko genitiboen maiztasuna igotzen da: *mehatchien gatic* 29, *troumperien gatic* 29 —baina *balakiegatic*, perpaus berean—, *avis gucien gatic* 45, *hen gatic* 194. Singularrean *gueçur baten gatic* 37, *horren gatic* 145, edo, orrialde berean, *houne gatic* 216 nahiz *hounen gatic* 216 (1 vs. 6). Izenordainetan *-gatic* beti genitiboazko formei erantsirik ageri da (*ene gatic* 27, *harengatic* 136, *çoure gatic* 23, *goure gatic* 65...); bestenaz zenabait formatan *gatic* oinari zuzen eratxekia ageri da: *berargatic* 110, *ezdeus gatic* 79. Inchauspereen *KurBD* testuan ere pluraleko genitibo berriak hedatuz doaz: *gachoen gatic* 8, *ciengatic eta cien haurregatic* 27; baina *bekhatiegatic* 11 & 27.

MaiMarHil liburuan (1852) pluralean *guiçonengatic* 40 & *berthuten gatic* 54 parearen ondoan [*ene bekhatiac*] *çouñegatic* 136 ageri da; singularrean *jincöa gatic* 44 nahiz *cerbaitegatic* 28. *Mysterio* liburuaren testigantza bide beretik doa. *Heren-Ordreco escu librian* (1860) pluralean *-egati(k)* zaharra dugu: *çougnegati* 96, *bekhatiegatic* 168 & 204 eta *enegatic* ‘eneengatik’ 204. Singularrean *hounengatic* 177 & 186 nahiz *haregatic* 168 edo *elibategatic* 206.

Etchahunek pluralean bitan ematen du *-engati(k)*: *jüjen gati* 642 eta *erranen gatic* 684, baina gainerakoetan *-egati(k)* itxura zaharra: *haurregaty* 416, *traidore hegati* 446 & *haiegati* 642. Erakusleen singularrean ere *-egati(k)* du ematen: *horre gati* 2378, *horregatik* 360 & 640, *haregatic* 604; izenordainetan genitiborik gabeko formak nagusi dira: *nigati* 110, *gü gatic* 664 edo *nur gatic* 642 —baina *hire gatic* 642—.

1873an, Anna Urrutyk banaketa argia erakusten du bere ebanjelioan (*EvS*). Izenen singularrean absolutiboa darabil: *loria gati* 10: 38, *populia gati* 11: 50, *elhia gatic* 15: 3; izenen pluralean genitiboaren itxura berria: *ardien gatic* 10: 15. Erakusle zein izenordainetan ere normalki genitiboa ematen du, singularren nahiz pluralean: *haren gatic* 7: 12, *baten gati* 10: 33, *hoien gati* 10: 19, *çougnen gatic* 10: 32, *ene gatic* 12: 30, *cien gatic* 11: 15; hala ere, bitan forma estonagarriak erabili ditu: *populu bat gati* 11: 52 & *oren hau gatic* 12: 27. XIX. mendea hetsiz, *Catuchuma españoul* eskuizkribuak ondokoak dakartza: *seiñhalia gatic* 6, *harengatic* 6 & *ontxagatic* 67.

Azkenik, ez da interesik gabea tradizio mistoko testuetan gertatzen denaz erremarkatzea. XVIII. eta XIX. trajerietan *-gatic* atzizkiaren maiztasuna arras baxua da salbu, beharbada, *Saint Julienen*. Horrela, *Edipa* trajerian bitan baizik ez da ageri (199) & (200). Konparazione, *StJul* trajerian 20 bat agerraldi dira, *hargati(k)* formaz landara. Bestenaz, *Saint Julien*, *Charlemagne* eta *Sainte Elisabeth* trajerietan motibatiboaren erabilera zaharra ikusten da, pluralean betiere *-egatic* itxuraz, bai eta izen sintagmako determinatzaileetako singularrean ere: *bategaticq* (*StJull* 1100), *Cabaliertategaticq* (*Xarlem* 288), edo *hounegatic* (*SteEli* 774).

(199) *Eztuçu enegaticq / bakia phasaturen. (Edipa 684)*

(200) *Deusegatic ere eztuçu / uzten çoure pleguia. (Edipa 840)*

Eta ber gauza asto lasterretan, non *-gati(k)* atzizkiaren lekukotza minimo batetara mugatua baita: bi testuk hiruna adibide ematen dute: 1807koa den *Mañqu eta Malqulina* fartsan *amaren gati* 59, *hunegati* 169 eta *ene gati* 581; *Kaniko eta Beltxitinak* (1848) *haiegati* 135, *hire gatic* 270 & *arrusta gati* 456. Motibatiboaren atzizkiaren arrarotasun hori nola esplikatu? *A priori*, hiru erantzun posible lirateke: a) motibatiboaren adierazteko beharrik ez gertatzea, horrelako tamainako lekukotasunetan estonagarri litekeena; b) errejentek genitibo hutsa baliatzea motibatiboaren adierazpenean; edo c) bestelako marka baten medioz adieraztea, agian *-tako* —1.5.5.1 & 1.5.5.2 ataletan aztertuko den berrikuntza litekeena—.

10. TAULA. Motibatiboaren aukerak Zuberoan.

	izenordain		erak. sing.		erak. plu.		izen sing.		izen plu.	
	ABS	GEN	ABS	GEN	ABS	GEN	ABS	GEN	ABS	GEN
<i>O Pro</i> ca.1600	-	-	(x)				X			X
<i>Bela</i> ca.1600							X			
<i>Zalgize</i> ca.1600							X			
<i>Etchart</i> 1616							X			
<i>O Po</i> 1657	x		x	x		x	x			
<i>Tt Onsa</i> 1666	x	x	x	x		x	x			x
<i>PSing</i> 1676		x					x			x
<i>Bp</i> 1696	x	x					x			x
<i>CatOlo</i> 1706	x	x				x	x			x
<i>Othoitce</i> 1734		x					x	(x)		x
<i>Mst</i> 1757		x		x			x			x
<i>IP</i> 1757		x				x	x			x
<i>Ressegue</i> 1758						x	x			x
<i>StJul</i> 1770		x		x			x			
<i>Mercy</i> 1780							x			x
<i>NLilia</i> 1782	x		x	x			x			
<i>Egiat I</i> 1785				x*		x*	x	x		x*
<i>Edipa</i> 1793		x								
<i>Xarlem</i> ca.1800		x								x
<i>SteEli</i> ca.1810		x		x						x
<i>Malqu</i> 1808		x		x				x		
<i>DKhi</i> 1812		x					x			x
<i>UskLi</i> 1814	x	x		x			x			x
<i>CatS</i> ca. 1836		x	x	x		x*	x			x*
<i>Khurutch</i> 1838	x			x						x
<i>Medit</i> 1844		x		x*		x*	x			x*
<i>Ip KurBD</i> 1847		x					x			x*
<i>CanBel</i> 1848		x			x					
<i>Etchahun</i>	x	x		x		x	x			x
<i>MaiMarHil</i> 1852		x					x			x*
<i>Myst</i> 1856		x		x						x*
<i>HOrdre</i> 1860	x	x		x*			x			x
<i>EvS</i> 1873		x	x*	x*		x*	x			x*
<i>Epit</i> 1873							x			
<i>Catuchuma</i> 1899				x*			x			

* Izarñoaz markatuek *n* eman dezakete genitiboan, modu eksklusiboan zein *n* gabeko formekin batean (ikus § 1.5.4).

-gatik markaren aldaera morfologikoez denaz bezainbatean, 11. TAULAK corpuseko testu bakoitzaren aukerak biltzen ditu, Etxepare eta Leizarraga ere sarturik, ablatiboaren *-ti & -tik* parearen lekukotzarekin alderatuz. Oro har, aldi historikoan zehar *-gatik* aldaera garbiki gailentzen da, *-gati* erabiltzen duten gehienek *-k-dun* forma ere emanik. Erremarka dezagun *-gati* aldaera ondoko lekukotasunetan baizik ez dela nagusi: Oihenart, Ressegue, *Doctrina Khiristia* eta Etchahun. 11. TAULAK agerian uzten baitu, nekez idoki genezake bi aldaeren arteko banaketaren gaineko ondorio diakronikorik. Nonbait, *-gati & -gatik* parearen lekukotza ablatiboaren *-ti & -tik* parearenari lotua dela pentsatzea logikoa litzateke; etimologikoki ere *-gati(k)* morfemaren sorreran *-ti* prosekutiboa zetzala proposatzea arras egiantzekoa baita. Konparantza eginik, 11. TAULAK ablatiboaren eta motibatiboaren *-k-dun* eta gabeko aukeren arteko banaketa funtsean bera dela erakusten du; guztiarekin ere, *-ti* zaharra aiseago ageri da *-gati* baino; cf. ablatiboazko *-ti & -tik* marken arteko lehia” (cf. II, § 2.2.3).

11. TAULA. *-gati(k)* & *-ti(k)* morfemen aukerak.

	<i>-gati</i>	<i>-gatik</i>	<i>-ti</i>	<i>-tik</i>
<i>LVP</i> 1545	-	20		
<i>Lç</i> 1571	-	X		
<i>O Pro</i> ca.1600	12	5	33	10
<i>Bela</i> ca- 1600	-	-	-	4
<i>Zalgize</i> ca.1600	1	-	5	-
<i>Etchart</i> 1616	-	2	-	19
<i>O Po</i> 1657	14	6	39	14
<i>Tt Onsa</i> 1666	8	24	6	222
<i>PrS</i> 1676	-	18	3	3
<i>Bp</i> 1696	-	24	2	68
<i>CatOlo</i> 1706	1	11	15	45
<i>Othoitce</i> 1734	-	13	5*	16
<i>Mst II & IV</i> 1757	-	35	10	71
<i>IP</i> 1757	-	47	2	8
<i>Ressegue</i> 1758	11	4	21	6
<i>StJul</i> 1770	1	18	27	42
<i>Mercy</i> 1780	-	5	21	22
<i>NLilia</i> 1782	-	12	13	3
<i>Egiat I</i> 1785	-	23	-	356
<i>Edipa</i> 1793	-	2	77	-
<i>Xarlem</i> ca.1800	-	7	37	98
<i>SteEli</i> ca.1810	5	4	43	44
<i>DKhi</i> 1812	15	5	32	6
<i>UskLi</i> 1814	-	18	4	61
<i>CatS</i> ca. 1836	-	27	9*	103
<i>Khurutch</i> 1838	-	4	1*	7
<i>Medit</i> 1844	-	45	3*	denak
<i>KurBD</i> 1847	-	8	1*	13
<i>Etchahun</i>	12	10	47	26
<i>Chaho</i>	-	6	40	68
<i>Archu</i> 1848	-	2	17	57
<i>MaiMarHil</i> 1852	-	7	2	83
<i>Myst</i> 1856	-	10		
<i>Ip Dial</i> 1857	-	X	3	46
<i>HOrdre</i> 1860	2	12	10	40
<i>EvS</i> 1873	8	15	33	69
<i>Epit</i> 1873	-	4	1	18
<i>SGrat</i>	-	-	7	25
<i>Catuchuma</i> 1899	-	3	-	27

**Jagoiti, engoiti, gainti* bezalako forma lexikalizatuak baizik ez.

1.5.4. *-gati(k)* atzizkia, genitibo zaharrari ala berriari erantsia?

Atal honetan oroz gain izenen eta erakusleen pluralean, baina baita erakusleen eta bestelako determinatzaileen singularrean ere ageri den *-egati(k)* motibatiboaren itxura aztertuko dugu, proposamen berri baten formulatzeko.

Orain arte *bekhatiegatik* bezalako formak *n* gabeko genitiboaren morfema zaharraren gainean eratuak direla onartu izan da (FHV 137; Trask 1997: 201; Camino 2008: 140; Martínez-Areta 2013: 293). Hauek bereziki ohikoak eta iraunkorrak izaten dira ekialdeko testuetan: Nafarroa Beherean “motibatiboan *-n-* agertzea XIX. mendeko gertaera berria da” (Camino 2008: 140), eta Zuberoari begira orobat erran daiteke: 1734ko *mundiarengatic* (*Othoitce* 101) bakanaz geroz, Eguiateguyrenganaino itxaron behar dugu motibatiboan *-n-* aurkitzeko, singularrean nahiz pluralean (ikus 10. TAULA), eta XIX. mendean zehar *-n-*dunak han-hemenka ageriko dira, pluralean *-egati(k)* betiere nagusi izanik.

Egungo euskaran ere badugu horren arrastorik: *honengatik*, *horrengatik* & *harengatik* formen ondoan *honegatik*, *horregatik* & *har(e)gatik* seriea erabiltzen da, lehenak determinatzaile portatzen direnean, eta bigarrenak bestelako erabileretan, hala nola lokailu gisara. Erakusleen deklinabidean, absolutiboaz gainerako kasu-marka guztiek tema txandaketa eskatzen dute: *hau/hon*, *hori/hoR*, *hura/har*. ABS-z gainerako kasu guztietan *-e-* “epentetiko” bat azaleratzen da —ez da guri *e* hori egiazki zer den eztabaidatzea; azken proposamenaren arabera lehenagoko morfema bat zatekeen (Lakarra 2016)¹⁵⁵—. Bokal hori paradigma mugatu pluralean orokortu da, eta euskara batuan mugagabetik bereizteko balio du.

¹⁵⁵ Euskara historikoaren kasu sistema garatzen hasi baino lehenagoko morfema litzateke *e* hori. Denborarekin, kasuen morfemak eransten hasterakoan, *e* orokortu zatekeen, morfema aitzineko elementu gisara, nonbait kasu-marka iragarle gisara.

12. TAULA. Erakusleen paradigma: tema txandakatzea eta *-e-* bokalaren agerpena.

ABS	<i>hau</i>	<i>hori</i>	<i>hura</i>
ERG	<i>hone<u>k</u></i>	<i>hor<u>e</u>k</i>	<i>har(<u>e</u>)k</i>
GEN	<i>honen</i>	<i>hor<u>e</u>n</i>	<i>har<u>e</u>n</i>
DAT	<i>honi (on<u>e</u>ri)</i>	<i>hor<u>i</u> (o<u>e</u>ri)</i>	<i>hari</i>
ERL	<i>hone<u>t</u>ako</i>	<i>hor<u>e</u>tako</i>	<i>hartako</i>
INE	<i>hone<u>t</u>an</i>	<i>hor<u>e</u>tan</i>	<i>hartan</i>
ADL	<i>hone<u>t</u>ara</i>	<i>hor<u>e</u>tara</i>	<i>hartara</i>
ABL	<i>hone<u>t</u>arik</i>	<i>hor<u>e</u>tarik</i>	<i>hartarik</i>
INSTR	<i>hone<u>z</u> / <u>e</u>taz</i>	<i>hor<u>e</u>z / <u>e</u>taz</i>	Zub. <i>har<u>e</u>z / hartaz</i>
<i>plurala</i>			
ABS	<i>hauk</i>	<i>horik</i>	<i>hek</i>
ERG	<i>hau<u>e</u>k</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>k</u></i>	<i>he<u>i</u>e<u>k</u></i>
GEN	<i>hau<u>e</u>n</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>n</u></i>	<i>he<u>i</u>e<u>n</u></i>
DAT	<i>hau<u>e</u>(r)i</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>(r)</u>i</i>	<i>he<u>i</u>e<u>(r)</u>i</i>
ERL	<i>hau<u>e</u>tako</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>t</u>ako</i>	<i>he<u>i</u>e<u>t</u>ako</i>
INE	<i>hau<u>e</u>tan</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>t</u>an</i>	<i>he<u>i</u>e<u>t</u>an</i>
ADL	<i>hau<u>e</u>tara</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>t</u>ara</i>	<i>he<u>i</u>e<u>t</u>ara</i>
ABL	<i>hau<u>e</u>tarik</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>t</u>arik</i>	<i>he<u>i</u>e<u>t</u>arik</i>
INSTR	<i>hau<u>e</u>taz</i>	<i>hor<u>i</u>e<u>t</u>az</i>	<i>he<u>i</u>e<u>t</u>az</i>

Puntu honetan, hauxe da pausatu beharreko galdera: zerk behartzen gaitu motibatiboan agertzen den *-egati(k)* sekuentziako *-e-* genitibo zaharraren morfemaren aztarna dela interpretatzera? Hau da, *-e-* hori ez ote liteke kasik paradigma osoan agertzen dena? Bistan denez, orain motibatiboaz gogoetatzen ari garenak berdin balio du *-egana(t)* moldeko adlatiboentzat ere.

Itxura guztien arabera, hastapenean *gati(k)* marka absolutiboari jarraikitzen zitzaion; hots, lehenbiziko fasean *gizona gatik*, *gizonak gatik* edo *gu gatik* bezalakorik baizik ez zatekeen. Erakusleetan *hau* & *hauek* absolutiboa izanik, zergatik ez ***hau gatik* & ***hauek gatik*?¹⁵⁶ Erakusleak berez mugatuak dira, eta *gatic* postposizioa kasu-marka bilakatzean erakusleen tema txandakatzera iragan zatekeen: singularrean *honegati* eta pluralean *hauegati* — genitiborik gabe, *oneri*, *honetan* edo *hauetako* bezalakoetan genitiborik ez den bezala—. Erakusleen pluralean ere bada tema txandakatzerik, bederen ekialdean: *hauk*, *horik* & *hek*

¹⁵⁶ Izan ere, Zuberoako corpusean *hau gatic* behin lekukotua da: *oren hau gatic jinic niz*. (EvS 12, 27); cf. *populu bat gati* (EvS 11, 52).

absolutiboan vs. *haue-*, *horie-* & *heie-* gainerako kasuetan. Hau da, epentesi edo dena delako gisara analizatzen dugun *-e-* hori, zergatik ez da temarena (hori da emaitza, behintzat)?

3. graduko erakusle singularrean bada *hargati* & *haregati* & *harengatik*. Azkena modernoa da, baina testu zaharretan *hargati* & *haregati* txandakatzen dira. Zergatik *hargatik* (ABS),¹⁵⁷ baina ez ***horgatik*? Ergatiboeko formen kari, Martínez-Aretak dardarkari bakunaren medioz esplikatzeko du *-e-* gabeko *hark* forma, vs. *hoRek* edo *honek* (2013: 293) —halere, ekialdean bada *harek*—. Testu zaharretarik badira *zergati* & *zerengati* bezalako bikoizketak (Etxeparerengn, kasu). Beharbada, *gati* hastapenetik genitiboari lotzeko zenbait testuingurutan, aukera librean (izenordainetan); cf egungo *hori dela kausa / horren kausaz* parean.

Bada, zilegi bekigu proposatzea *honegati*, *horregati* & *haregati* formen gibelean ez dela genitibo zaharraren morfemarik, deklinabide paradigma osoan azaleratzen den *-e-* hori baizik, izan dadila epentesia, lehenagoko beste morfema baten arrastoa ala beste zein-nahi. Analisi berriaren alde ondoko argudioak formula genitzake:

- i. Benefaktiboan ez da ***horretzat* bezalakorik ezagutzen, ez eta ***hoietzat* ere, *horrentzat* & *horientzat* baizik, marka hori berrikiago erantsi baitzitzaiokeen genitiboari. Bestenaz, komitatiboaren marka ere genitibo zaharraren gainean eraikia izan bazen, zergatik ez da *-(ar)eki(n)* → *-(ar)enki(n)* aldaketa gertatu? Hau da, motibatiboa genitibo zaharraren gainean eraiki bazen, zerk eragozten zuen *-n* gabeko itxurek irautea, komitatiboan gertatu den bezala? Menturaz hiztunek *gizonareki(n) = gizon + arekin* analisia egin zuketean, jatorrizko morfemen segida blokatuz.
- ii. Onartzen badugu *horiegati* bezalako formetan genitibo zaharra datzala, orduan motibatiboaren marka hastapenetik bi oin desberdini erantsi zitzaiokeen, kategoriaren arabera: erakusleetan GEN + *gati*: *honegati*, *hoRegati* & *haregati* —baina *hargati* ere bai—, izenetan ABS + *gati*. Aldiz, bestela interpretatuz, motibatiboaren marka hastapenean absolutiboari jarraitzen zitzaion.
- iii. Zergatik lekukotzen ditugu *haregati*, *hauegati*, *gizonegati*, etab., edo *deusegati*, *zoinegati*, *bategati*, *zerbaitegati*, baina ez ***zeregati* edo ***noregati*? Galdera ifrentzuz ere formula genezake: zeren lekukotzen dugu *zergati* edo *norgati*, baina ez ***zoingati* (ez

¹⁵⁷ Bere berreraiketan, Irigoyenek bi eta hiru gradutako erakusleen sisteman **har* forma postulatu du (1981); horren arabera, *hargatik* posible litzateke, baina ez ***horgatik*. Hau da, **har* absolutiboazkoa zatekeen, baina ez ***hoR* edo **hon*.

eta ***hongatik*), ***batgatik* edo ***zerbaitgatik?*¹⁵⁸ Halaber, hala *zergatik* & *zerengatik* nola *norgatik* & *norengatik* pareak ezagunak dira. Orobat erran liteke *Jesusegatik* edo *Judasegatik*. Funtsean, datu hauek agerian uzten duten asimetrikotasuna aiseago esplika liteke arau fonologikoen medioz *-e-* hori genitiboaren morfema kontsideratuz baino.

- iv. Izenordain indartuetan badugu *cihaurgatic* (Bp I 153), *nihaurgatic* (Mst IV 17, 3), *beraurgatic* (Mst III 54, 7 & *CatS*), baina erakusleetan ez da ***hau(r) gati* edo ***horigati*. Nola esplika *ciegatic* forma (Mst IV, sarrera)? Hau ere genitibo zahararen ganean eraikia litzateke? Zeren, badakigu 2. pertsonako plurala garapen berria dela, eta, besteetan ez bezala, ez dugu genitibo zaharra lekukotzen duen haren fosilik. Gure ustez, Maisterren *ciegatic* forman ez da genitiborik, hots, *zū-ek*, *zū-er*, *zū-en*, *zū-etan*, *zū-egatik* etab. bezala analizatu beharko genuke.
- v. *Last, but not least*: pluralean *-egatik* agertzen da, baina mugagabeen ez dugu behin ere genitibo + *gati(k)* segida atzeman, ez *-(r)egati(k)*, ez eta *-(r)engati(k)* itxuran ere.

Euskara osoaren datuak kontuan izanik, erran daiteke genitiboaren morfema klarki duen *-enga(i)ti(k)* motibatibo pluralak arras bakan eta berankorrek direla;¹⁵⁹ ikusienez, ekialdean diren bezain berankorrek. Testu zaharrenen garaian motibatibo pluralean bi aukera ageri dira: *-ak ga(i)ti(k)* & *-ega(i)ti(k)*, lehena absolutiboari jarraikiz, eta bigarrena deklinabide mugatuko *-e-* azaleratuz. Gure interpretazioan, lehena da zaharrena, *ga(i)ti(k)* postposizio hutsa zeneko arrastoa, eta bigarrena *-ga(i)ti(k)* deklinabide sisteman sartu zenekoa, bereizkuntza funtzional hori egin badaiteke.

13. TAULA. Motibatiboaren markaren erabilpenaren bilakaera.

	I. fasea	II. fasea	III. fasea
SING	<i>gizona gati</i> <i>bekhatua gati</i>	<i>gizonagati(k)</i> <i>bekhatuagati(k)</i>	<i>gizonarengatik</i> <i>bekhatuarengatik</i>
MGG.	<i>*gizon gati</i> <i>bekhatu gati</i>	<i>gizonegati(k)</i> <i>bekhatugatik</i>	<i>gizonengatik</i> <i>bekhatuarengatik</i>
PL.	<i>gizonak gati</i> <i>bekhatuak gati</i>	<i>gizonegati(k)</i> <i>bekhatuegati(k)</i>	<i>gizonengatik</i> <i>bekhatuengatik</i>

¹⁵⁸ Corpusean behin ageri da *ezdeus gatic* (*Medit* 79), grafikoki berezia.

¹⁵⁹ Mendebaldeko euskarari so, *EKC*-k *-gaiti(k)* markaren 2.700 emaitza inguru eskaintzen du, eta haien artean dozena bat agerralditan baizik ez da *-engaiti* sekuentzia: *animengaiti*, *zerungaiti*, *lurrengaiti* (*Billafranka*, K. Otaegi), *arengaitik* (*Tolosako dotrina*), *gaiztakeriengaitik*, *bagekoengaitik*, *zuengaitikan* (*Iztueta*), *ezbearrengaitik*, *isekaengaitik* (*Orixe*), *orrengeitikan* (*Antero*), *Riktrudisengaitik* (*Agirre*), *bestengaiti* (*Azkue*) & *orrengeitik* (*Arrese*). Are bakanagoa da *-egaiti* sekuentzia: *Ydasegaiti*, *Judas-egaiti*, *bategaiti(k)*, *orregaiti(k)*, *zeinegaitik* (sing.), *onegaitik*, *ezegaitik* (*Mateo Zabala*); *onegaitik* (*Uriarte*).

13. TAULAKO ereduak sinplifikazio handia suposatzen du, hurbiltze gisa baizik ez baititu motibatiboaren aukerak ilustratzen, edo haren joera nagusiak seinalatzen. Beraz, testuen errealitatean eskema horrek agerrarazten ez dituen *gizonak gatik* edo *gizonengati* ager daitezke —eta agertzen dira—. Bestenaz, bilakaeraren kronologia ez da bat eta bera singularrean eta pluralean, ez eta euskalki guztietan.

1.5.5. Katearen azken begia: benefaktiboaren atzizkien hedakuntza semantikoa

1.5.5.1. Abiaburuak

Azken mendeetan, Iparraldeko mintzoetan aldaketa bat obratu da motibatiboaren adierazpenean: *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* markak, berez benefaktibozkoak, *-(aren)gati(k)* ordezkaten hasi dira. Zehazkiago, benefaktibozko morfemen balioak frantsesaren *pour* preposizioarenetaratu hurbilduz joan dira. Badakigu lapurteraren tradizioan kanbiamendu hori XVIII. mendean abiatu zela, XIX.era aski gauzatua izanik (Pikabea 1993: 158). Guhurrek mendebaldeko behe nafarreraz idatzia den *Kadet eta Bettiriño* testuan (Hazparne, ca. 1750) deskribatu dugu ordezkate hori, *-(ar)entzat* markak *-(aren)gatik* osoki ordezkaturia zuela ondorioztatuz (Padilla-Moyano 2011: 74); bertan benefaktibozko markak motibatiboa ez ezik (201)-(203), denborazko balioa ere adieraz dezake (204).

- (201) *Comeitatu zayeyan guizon edo presuna pherestuen etchetan sartzeco, eta handic edozoin gauza charentzat ez ilkhitzeco. (KadBet 85)*
- (202) *Bainan abaraziosac diruarentzat comuzqui eguin ez dezaqueyenic ez den bezala. (KadBet 171)*
- (203) *Ardit batentzat mila guezur erranic. (KadBet 175)*
- (204) *Zeren ez dira fidel ez leyal hazi admira garri huni dembora labur batentzat baizin. (KadBet 71)*

Pikabearentzat *norbaitentzat herra/higuin izan* bezalako egiturak frantsesari egindako kalko baten ondorio lirateke, lapurtar zaharrenek (Lç, Ax) *norbaiten kontra herra/huguin izan* idazten baitzuten:

XVIII. mendean, berriz, frantsesaren “avoir de la haine pour”, “avoir de la haine pour le vice, pour le péché” egitura dela medio, zenbait lapurtarrek, hala ES, Ch, Hder edo Mihurak *-(r)en* kontra *higuintza* ordez *-(r)entzat higuintza* itzulia erabiliko dute. Aldi berean, frantsesaren “concevoir du mépris pour quelqu’un” egiturak eraginda edo *norbaitentzat aierkunde, mesprezio, herra, hodio... konzebitu* ere irakurriko da, Haranederren obran esaterako. (1993: 148)

Orobat XIX. gizaldian *norbaitentzat higuintza ukan, zerbaitentzat herra hartu, zerbaitentzat higuintza bethe...* esapideak irakurriko dira segurki Duhalde, Joannategi, Duvoisin, Laphitz edota Hiriart-Urruty nafar-lapurtarren testuetan. [...] Beraz, frantsesaren eraginpeko egitura berria XVIII. mendeko lapurtarren obretan ikusterik badagoela esan genezake, hedapen zabalagoa izanik XIX.ean. (1993: 149).

Jarraian, Pikabeak *-(r)en kontra haserre* vs. *-(r)entzat haserre izan* lehia iruzkintzen du. Ber gauza gertatu da: Leizarragak edo Axularrek *-(r)en kontra haserre izan, ibili, koleran egon*, etab. idazten baldin bazuten, XIX. mendean *norbaitentzat sutan jarri, errabian izan*, etab. ageriko dira (1993: 150). Arrazoia eskapatzen bazaigu ere, Pikabeak *-(e)n / -(r)entzat beldur izan* egitura beste atal batean iruzkintzen du, hots, *motif* delakoan (1993: 155). Baina *norbaiten beldur / errespektu / higuin*, etab. izatea, edo sentitzea, ez ote direa ber multzoan sailkatzeko? Lapurdin, bederen, horiek guztiak *-(r)entzat* markaren domeinura iragan ziren XIX. mende inguruan.¹⁶⁰

Errana dugu, euskararen benefakzio marken hedakuntza ez da motibatiboan gelditzen, oro har frantsesaren *pour* preposizioak adierazten dituen bestelako balioak ere har baititzakete. Eta hori bera gertatzen da prolatiboarekin. Pikabearen deskripzioan *-tzat hartu* XVII, XVIII eta XIX. mendeetan erabili izan da, eta *-(r)entzat hartu* XIX. soilik (1993: 152). Beraz, benefaktiboaren marka berri-berria litzateke prolatiboaren adierazpenean; ondoko balizko garapenaz, ikus 165. oin-oharra.

Mugaz haraindiko euskalkietan prolatibo kasu marka hegoaldean bezala erabili izan ohi da mendeetan zehar. Halere, XIX. gizaldiko autore zenbaiten artean destinatibo atzizkia prolatiboa gisa ere usatua izango da behin baino gehiagotan: *ez-deusarentzat burua eduki*. Prolatibo kasu honi buruz Ithurryk bere gramatikan hiru ñabardurak azpimarratu zituen.¹⁶¹ (Pikabea 1993: 151)

¹⁶⁰ Halere, *beldur izan* egituraren kasuan Lapurdin XVIII eta XIX. mendean ere genitibo soilarekiko erabilpena lekukotzen da (molde berria XVIII. mendean azaleratzen da). Pikabeak erramoldekako azterketa egiten du, baina kasu gehientsuenetan erramolde horiek ber egituraren aldakiak baizik ez dira. Beraz, ber ondoriora etortzen da aldi bakoitzean: XIX. mendean gauzatzen dena frantsesaren *pour* preposizioa duten erramoldeen kalkoa da, hots, *pour* → *(r)entzat* egokitzapena azaleratzen da. Eta ez da estonatzekoa: ikusi dugunez (§ 4.1, § 4.2 & § 4.4), genitiboaren bidez adierazten ziren benefaktiboak *-(ar)entzat* marka berrira hertsatu dira, Lapurdin lehenago, eta gero ekialdean.

¹⁶¹ Baina Ithurryk “prolatif” deitzen duenaren “hiru ñabardurak” azterturik, ez da hala: Ithurryk *-tzat* morfema ageri den hiru testuinguru diferenteak “prolatif” etiketa pean biltzen ditu: lehena komunzki *prolatibo* deitzen

Bestenaz, *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* markek denborazko balioa adieraz dezakete, (204)-ko adibidean ikusi den bezala. Pikabearen azterketan XVI eta XVII. mendeetako lapurteran *zazpi egunez*, *milla urthez*, eta abar; hots, instrumentalarekiko denborazko egiturak nagusi ziren.

XIX.ean, aldiz, ez da ildo beretik joko, frantsesaren *pour six mois*, *pour deux ans* ‘pendant’ itzuliaren eraginez edo idazle nafar-lapurtar askotxoren lanetan *zenbait egunentzat urrundu*, *aphur batentzat hetsi* eta antzerakoak jaso ahal izan baititugu. Nolanahi ere egitura berri honen erabiltze zabalak ez du, inolaz ere ez, XIX. mendean zaharra erabat saihesturik geratuko dela esan nahi. (Pikabea 1993: 153)

Gure ikuspegian, euskara zaharrean genitiboak bere baitarik adieraz zezakeen denborazko balio hori (ikus § 1.4.3), eta instrumentalaz baliatzea ere posible zen. Gero, benefaktiboaren marka berri eta espezifikoen hedakuntzarekin batean, *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* atzizki konplexuek denborazko balio hori adierazten hasi ziratekeen enpexamendu handirik gabe. Frantsesak identifikazio horretan lagundu ote zukeen? Bai, dudarik gabe. Pikabeak XIX. mendean kokatzen du *-(r)entzat* morfemaren denborazko balioaz erabiltzea.

Bestalde, Lapurdiko tradizioko idazle zaharrek *-tan saldu*, baina berriek *-(r)entzat saldu* erabiltzen dute (Pikabea 1993: 154). Deus berririk, beraz; gure gustuko, erabilpen hori motibatiboaren barnean koka daiteke: *vendre pour / vender por*. Azkenik, Pikabeak *-(ar)entzat* motibatiboa aztertzen du, erran nahi baita “*-gatik, -(r)en alde, -(r)entzat egin*”.

Hegoaldean bezala *zuregatik, egiaren alde...* zerbait egitea komunzki irakur zitekeen egitura dugu XVI. eta XVII.eko testuetan. Hurrengoan jokabide bera ikusiko dela lapurtarren artean uste bada ere, mende amaiera aldera frantsesaren *faire quelque chose pour* itzulia dela medio bestelakorik —*Jesuentzat pobre egin*, adibidez— irakurriko da Mihuraren obran. (Pikabea 1993: 156)

duguna, bigarrena *-kotzat* —ez helburuzkoa, bi morfemak izenki batean segida hutsean agertzen direnean baizik—, eta hirugarrena *-(ar)entzat* motibatiboa:

Il faut remarquer la différence qui existe dans la signification du cas prolatif ; 1° du nom ou de l'adjectif primitif ; 2° des adjectifs relatifs ; 3 de l'adjectif possessif. Dans le premier cas, le nom ou l'adjectif primitif est pris dans un sens indéfini. Ex. : *urtzat hartu dut*, ‘je l'ai pris pour eau’, c'est-à-dire, j'ai cru que c'était de l'eau. Dans le second cas, ‘pour’ signifie ‘pour le lieu ou le temps de’. Ex. : *urekotzat hartu dut*, ‘je l'ai pris pour (le lieu de) l'eau’. Dans le troisième cas ‘pou’ signifie ‘pour l'intérêt de’. Ex. : *urarentzat hartu dut*, ‘je l'ai pris pour (l'intérêt de) l'eau. (Ithurry 1895: 21)

Destinatibo kasu marka idaztearen aldeko joera gure iritziz erabat zabalduko da XIX. mendeko autore nafar-lapurtarren artean; lapurtarren *zerbaitentzat egin, eman, erran, erre, bizia eskaini, oinhaze hartu, eske ibili, odola ixuri, zernahi jasan...* frantsesaren “il ne faut pas brûler ses compatriotes pour des arguments”, “offrir sa vie pour un idéal”, “j’ai versé telles gouttes de sang pour toi”, “souffrir pour la justice”, “parler pour qqn, en sa faveur”... eta antzerako esapideen pareko edo gertatuko lirateke. (1993: 157)

Esan daiteke, beraz, axola handiko aldakuntza dakarrela XIX. mendean —*pour* frantses preposizioak eraginda— sail honek, gure ustez maiztasun handiagoz ikusiz gainera egitura berria zaharra baino. Honenbestez, bilakaera historikoaren ildotik honako ikuspegi orokorra genuke: (*ib.* 157)

	XVII. m.	XVIII. m.	XIX. m.
<i>-gatik, -(r)en alde egin</i>	x	x	(x)
<i>-(r)entzat egin</i>	-	(x)	x

Pikabea 1993: 158

Finitzeko, *-z, -gatik othoitz egin* vs. *-(r)entzat othoitz egin* konparantza dakar Pikabeak (1993: 158-160), guk motibatiboaren adiera *hertsian* sartu duguna (ikus § 1.5.1 eta 146. oharra).

1.5.5.2. *-(ar)entzat & -(ar)entako* motibatiboaren adierazpenean

Puntu honetan, beraz, gure eginkizuna honakoa da: ea Lapurdiko tradizioan *-(ar)entzat* markaren alde deskribatu den kanbiamendua Zuberoan ere gertatu den aztertzea, bistan denez, *-(ar)entako* aukera ere gogoan erabiliz. Lehen hurbiltze batean *zerentako* galdetzailearen lekukotza dakargu.¹⁶² Badirudi Zuberoan *zerentako* galdetzaile kausalaren lehen agerraldia 1746koa dela (205); bestalde, markatzekoa da horren adibide gehienak tradizio mistoko testuetakoak izatea. Fartsa batean *zendako* forma higitu eta “manexa” ageri da (215).

¹⁶² *Zerentako* (*zerentako, zendako, zentako*) galdetzaileak bi adiera nagusi ditu: lehenean ‘por qué’ kausalaren balioa du, eta bigarreanean ‘para qué’ helburuzkoa (*OEH* s.v.); *-(ar)entzat & -(ar)entako* marken hedakuntza semantikoa gogoan, helburuzkoak behar luke zaharrena izan, eta kausala berriena. *Norantz* proiektuaren datu baseak emaitza interesgarriak eskaintzen ditu: frantsesezko *Je ne sais pas pourquoi Maddi a menti à son père* perpausa euskaratzean, 59 lekukoetarik 18k baizik ez dute *zergatik* erabiltzen, eta gainerako guztiek *ze(r)tako* (17), *zendako* (19), *zerentako* (1) ala *zentako* (4) ematen dute. <http://www.norantz.org/web/bilaketa/galdera/406>

- (205) *G. Cerentaco credoaren articulu haur azkenic eçariada? / I. Ceren eta bethy iragnen dian bicitcia beita goure azken urhenburia, eta gincoaganic egurikiten dugun saria. (CatOlo2 46)*
- (206) *Badakizü zer konbeni den, bat bederari eman izan dakion: eta eztüzü guri eman, zerentako batak aphürrago, bestiak haboruago ükhen dian jüjatzia; bena bai zuri, zük izartürik beütütüzü bat bederaren mereximentiak. (Mst III 22, 3)*
- (207) *Mundu hountan direno / hayec eztukie phausuric. / Eta hory cerentaco? / Creon erreguiac causaturic. (Edipa 042)*
- (208) *By princen discourdia / umen beituçu cherkatcen; / cerentako algargana / dutuçu oray erakharten? (Edipa 690)*
- (209) *Aphezai sei erresistro / ükhen ditzot galthatü, / bena enia zerentako nien / ezteot phüza salhatü. (Mehaçü eta Venus 4)*
- (210) *Bai pürü hik, / diable bugresa, / zerentako üsten hin / paseüra alhaba. (Bala 27)*
- (211) *Ikhüsiren düzie orano / Ferragus kolera handian, / Belxitinak Kaniko / zerentako jo dian. (CanBel 19)*
- (212) *Zerentako abiatü niz / berritan ezkuntziari, / emaztia ükheitekoz / nihauren büüzagi? (CanBel 202)*
- (213) *Lodi zen / Eta ghizen, / Zerentako / Gainkoak bere honak beütü igorten / Diener Jeinkotiartzen. (Archu 43)*
- (214) *Zelietako Jinko Jauna, zütaz nüzü estonatzten / Zerentako hain desbardin güüzün heben egiten (Etch “Ahaide delizius huntan”)*
- (215) *Petit-Hunek galthaturen deo cognati / kapotiaren pairia, / eta zendako ezteon eman erranen / dendariari askaria. (Petitun 31)*

Corpusaren emaitzak ikusirik (216)-(269), badirudi Zuberoan benefaktibozko marken hedakuntza semantikoa Lapurdin baino berankorragoa dela. Ondoko adibide sorta aztertuta, *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* markek *-gatic* ordezkutzen ahal dute, baldin eta honek lehen motibatiboaren balio *hertsia* deitu duguna adierazten badu —hots, *motif* adierazi behar duelarik, eta ez *cause*; ikus 146. oharra—. Fenomenoaren lehen testigantza soltea 1734koa da (216). Ondoren, Eguateguyren kasua guztiz markagarria iruditzen zaigu (218)-(229): erran daiteke harengan benefaktiboaren markek motibatiboaren adieraztea ohikoa dela, *-gatic* ere erabili arren. (231)-eko eta (259)-ko pasarteetan, *-gatic* & *-(ar)entako* batera dira emanak, guztiz baliokide gertatuz. Oro har, XIX. mendeko testuetan fenomenoaren maiztasuna goiti doa.

- (216) *Gouretçat othoi eguiçu. (Othoitce 67, 12 aldiz)*
- (217) *Bena cer emanen dut ordari Jincouari, gracia hounentaco; cer caritate hagn baliouarentaco? (Mst IV 13, 3)*
- (218) *Ihize güziak zientzat dirade habiatzen ta hüme egiten. (Egiat I 2)*
- (219) *Bi lan hek die bi jende süerte seinalatzen, Egiaren ta banitatearentzat ari diradianak. (Egiat I 9)*
- (220) *Min harentzat haren landan filosofoek bi mila ta berrehün urthez ari dirade nahiz helgaitz khozütsü hau sendotü. (Egiat I 11)*
- (221) *Bere haurrentzat mündüko aita hil kürütian. (Egiat I 14)*

- (222) *Hitzeman hebentik aitzina pausian dükala ütziaren ta bakiarentzat egiok pota. (Egiat I 15)*
- (223) *Behatü behar zütiala ta arrazo zianarentzat Jinkoa othoitü, leitzon barkha bere bekhatiak. (Egiat I 15)*
- (224) *Uste zialakoz zatekiala bere mereximententzat haren landan Enberador. (Egiat I 18)*
- (225) *Güziertzat arien niz orozbat. (Egiat I 20)*
- (226) *S. Matheu-ian mintzo da apezen eta profeten bilguraz hil otoientzat. Erregen laugerrenian, Saulen arimarentzat mintzo da S. Paol ere Korinthiener lehenian, berezita 15gerrenian, hilentzat behar ginandiala bilguratü dio ta Makabeen bigerrenian dio santü ta salbagarri dela hilentzat othoitzia. (Egiat I 23)*
- (227) *Nere büüzagisak zor dereit zortzi peseta edo üngürünia, othoi detzan jar, ez ene khörpitzaren, ezialakoz behar batererik bena bai arimarentzat. (Egiat I 23)*
- (228) *Hil gitian berdhiüdan gure anaientzat ta eztezagün lohizta gure gloria. (Egiat I 27)*
- (229) *Berarentzat giozn güziak hilik ziradiala. (Egiat I 30)*
- (230) *Biciren nuçu çouretçat. (Medit 26)*
- (231) *Hala nahi dü zaldünak zaldia zer eder eta azkar ez kabaliaren gatik bena berarentako, hartakoz ezta lehenaren pare ta bekhandi daude biak ber bihotzian algarreki. (Egiat I 28)*
- (232) *Crima belz horrentaco / cer dut egurukiten? / Beguiac idoky eta / nihaur niz urkhaturen. (Edipa 371)*
- (233) *Çoure laner jarraiqui cite lachukeriaric batere eguin gabe, eta çoure bekatién satisfactionetaco Jincouari offritçacoçu. (UskLi 66)*
- (234) *Bekhatu mortal çombaitentaco affectione conservatcen badugu. (UskLi 85)*
- (235) *[...] bekhatia eguin ahal duta, hain gayça esdeusentaco? (UskLi 103)*
- (236) *Bai: abundanki arraparatü dizü Jinkuaren eretzian, bai eta guretçat. (CatS)*
- (237) *Zertako diozü abundanki arraparatü diala guretçat bekhatia? (CatS)*
- (238) *Zer ütziüliko deizüt züre hunki ororentat zugü gaintika eman beiteiztatzü. (CatS)*
- (239) *Hanitch hoztarçun eta sendimentiac abantçu hilic Jaunac eguin deiztadan hounki ororentçat. (Medit 47)*
- (240) *Guiçon gucientçat ichouri ukhen duçu çoure odol adoragarria. (Medit 118)*
- (241) *Eta batac bestiarentçat othoitce eguitia. (Medit 175)*
- (242) *Kabasturu bat hirurgherenak / Harentzat eghin zuen. (Archu 16)*
- (243) *Zaharrek diote, izurri denboran, / Besterentzat norbait hil dela batzutan. (Archu 42)*
- (244) *Behar bada arren / Besterentzat ni niz hilen. (Archu 42)*
- (245) *Txipienak besterentzat lanetan / Ari ghira. (Archu 46)*
- (246) *Gastu eta despendio horiek guzientzat, bere ontasun malurusak ez dio, [...] ehuneko bia eta erdi edo gorena hirur baino gehiago emanen. (Chaho AztBeg IX)*
- (247) *Guretçat othoi egizü. (Etch “Gure jaun apesküpia”)*
- (248) *Gouretçat othoitce eguiçu. (MaiMarHil 3, eta beste 37 aldiz)*
- (249) *Guiçon guciençat offritu cian sacrificio houra. (MaiMarHil 121)*
- (250) *Contricionezco acte bat esprabietan eguin hutsentaco. (MaiMarHil 55 & 85)*
- (251) *Cer utçulico deiçut çoure hounki ororentçat [...]? (HOrdre 99)*
- (252) *Houna noun niçan belharicaturic çoure aitcinian, çoure misericordiaren eske niharentçat eta purgatoriouan diren arimentaco. (HOrdre 159 & Myst 104)*
- (253) *Erreglaren contre eguinen dutian hutxentaco comeni datekian guisan satisfatcia. (HOrdre 7)*
- (254) *Complitu mancatu dutukien gaicentaco emanen içanen ceitcen penitenciac. (HOrdre 29)*

- (255) *Eta haïn gaiça gutientaco! (HOrdre 45)*
 (256) *Eguin dutukien huxentaco. (HOrdre 63)*
 (257) *Ene aurrhide direnen bekhatientaco eskentcen deitçut lurren gagnen soffritu dutianac oro. (HOrdre 82)*
 (258) *Guiçounen ororentaco eskentu cian sacrificioua. (HOrdre 85)*
 (259) *Gouregati guiçoun eguin cira, eta gouretaco eguin duçu sacrificio amiragarri hau. (HOrdre 96 & Myst 59)*
 (260) *Çor den penitentiarentaco edo bekhatu benialentaco, jouanen beita celialat. (Myst 9)*
 (261) *Sinhesten dit, calbarioco mendian, guiçounen ororentaco eskentu cian sacrificioua bera dela. (Myst 45)*
 (262) *Dejadanic ordonaturic mundia creatu beno lehen, bena aguertia azken demboran cientaco. (Epit I 1, 20)*
 (263) *Jesus-Christec soffritu dialacoz gouretaco. (Epit I 2, 21)*
 (264) *Ceren Jesus-Christec soffritu du bekhatiarentaco, justouac injustouentaco, goure eramaiteco Jincouari. (Epit I 3, 18)*
 (265) *Jesus-Christec gouretaco araguian soffritu dianaz gueroz. (Epit I 4, 1)*
 (266) *Emanen dut ene bicia çouretaco. (EvS 13, 37)*
 (267) *Çoure bicia eman cinio enetaco? (EvS 13, 38)*
 (268) *Eta santificatcen niz nihau haientaco. (EvS 17, 19)*
 (269) *Maria Santa, Jincoæn Ama, zuc othoiz egizu, gu, bekhatoosen tzat, orai, eta goure hiltzeco orenian. (Catuchuma 20)*

(216)-(269) adibide sortan *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* markek motibatiboa adierazten duteneko agerraldi kasik guztiak bildu ditugu. Orotara, benefaktibozko marken hedakuntza 65 aldiz lekukotu dugu corpusean eta, espero ez bezala, 65 horietan *-(ar)entzat* atzizkia maizago ageri da *-(ar)entako* baino. Gure ustez, Zuberoan benefaktiboaren adierazpenean minoritarioa den *-(ar)entzat* marka erabilpen berezi honetan gailentzeak badu azalpenik: usantza berria kanpotik sartua dateke, erran nahi baita Lapurdiko tradizioetik, edo honen eragipena jasotzen duten egile zenbaiten eskutik. Kronologiak hala iradokitzen du: Pikabearen azterketan (§ 1.5.5.1) klarki ageri da Lapurdiko tradizioan *-(ar)entzat* atzizkiaren hedakuntza semantikoa XVII. mendean abiatu zela, XIX. menderako *-gatic* atzizkiaren ordezkatzeari gauzaturik izateko; aldiz, Zuberoan prozesua nabarmen berankorragoa da, eta justuki *-(ar)entzat* markari estekatua, hastapenean bederen. Gure corpusa heltzen den punturaino, ezin erran daiteke Zuberoan benefaktiboaren atzizkiek *-(aren)gatic* motibatiboa ordezkatu dutenik, gehienez ere XIX. mendean prozesua abian dela baizik. Bestenaz, behin *-(ar)entzat* marka prolatibozko balioaz ageri da (270).

- (270) *Dügiin lehenik jende handiak adiskidegoari elirokiela har txipiarentzat. (Egiat I 29)*

Bestalde, Pikabeak aztertu zenbait egituraren konparantza egin nahi genuke. Horrela, Lapurdiko tradizioan *-(r)en kontra higuintza* ordez *-(r)entzat higuintza* aldaketa ageri bada

(Pikabea 1993: 148), Zuberoan ez dugu molde zaharraren ordezkatzearen zantzurik atzeman (271)-(273).

- (271) [bekhatu] mourtalen hugungoua eta loxa. (Medit 38)
- (272) emadaçut [bekhatu] ororen hugungouaric handiena. (Medit 139)
- (273) Ahatz içatçu ene arrachut igaranac, emadatçut hen hugungoua. (Medit 153)

Haina *ükhen* perifrasiarekin, ordea, benefaktibozko bi markak ageri dira, beste hiru aukerekin batean: *-(r)en kontre* (275), *datiboa* (276), *genitiboa* (278), eta oraino *-(r)en kontre* + *-(ar)entako* molde pleonastikoa (277).

- (274) [...] çoure semiarentaco / *handy duçula haina*. (Edipa 514)
- (275) Galdu behar dutun oray / ene countre utian hainac oro. (Edipa 829)
- (276) Eztit ez hainaric ihouri. (SteEli 1564)
- (277) Ez hainaric ukhen / contre çoure jugentaco. (SteEli 1561)
- (278) Menturaz çoure hainan eta exaigouan nintçalaric. (Medit 136)
- (279) *Demonioua, gouretçat dian bekhaisteriac eta hainac* [...] (Medit 45)

Azkenik, *amodio ukhen* hiru modutara aurkitu dugu: *genitiboz* (280)-(281), *datiboz* (282)-(283) eta *benefaktiboaren markaz* (284).

- (280) Haren amudioa deabruak onsa atakatu zian. (Tt Onsa)
- (281) Zeren düt hainbeste amodio / emazte debriü horien. (Malqu 130)
- (282) Ükhen izozie bethi Jesüsi amodio. (Etch “Bi berset dolorusik”)
- (283) Atxiki zazu bethi populiaren amodiua bihotzian. [‘l’amour pour le peuple’] (Chaho AztBeg XI)
- (284) Zeren hanbat amodio / *nik beitiüt züretako*. (Saturna 329)

14. TAULAK motibatiboaren aukerak biltzen ditu, genitiboaren morfema hutsarekin has, eta benefaktibozko marken hedakuntza semantikoarekin buka. Garai historikoan gaindi, Zuberoko testuek *-gati(k)* morfema abantailatzen dute motibatiboaren adierazpenerako. XIX. mendean ere, *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* atzizkiek balio hori adierazten ahal dutenean, *-gati(k)* marka maizago erabiltzen da.

14. TAULA. Motibatiboaren adierazpena Zuberoan (*zeren*, eta abarrekoen landara): genitibotik benefaktibozko marken hedakuntza semantikoraino.

	<i>-(r)en</i>	<i>-gatik</i>	<i>-(ar)entzat</i>	<i>-(ar)entako</i>
<i>O Pro</i> ca.1600		17		
<i>Zalgize</i> ca.1600		1		
<i>Etchart</i> 1616		2		
<i>O Po</i> 1657		20		
<i>Tt Onsa</i> 1666		32		
<i>PrS</i> 1676		18		
<i>Bp</i> 1696		22		
<i>CatOlo</i> 1706	2	12		
<i>Othoitce</i> 1734		12	1 x 12	
<i>Mst (II & IV)</i> 1757		35		2
<i>IP</i> 1757		47		
<i>Ressegue</i> 1758	2	15		
<i>StJul</i> 1770		17		
<i>Mercy</i> 1780	1	5		
<i>NLilia</i> 1782		12		
<i>Egiat I</i> 1785		23	20	2
<i>Edipa</i> 1793	1	2	-	1
<i>Xarlem</i> ca.1800		7		
<i>SteEli</i> ca.1810		9		
<i>Malqu</i> 1808		3		
<i>DKhi</i> 1812		20		
<i>UskLi</i> 1814		19	-	3
<i>CatS</i> ca. 1836		27	3	
<i>Khurutch</i> 1838		4		
<i>Medit</i> 1844		45	3	
<i>KurBD</i> 1847		8		
<i>CanBel</i> 1848		3		
<i>Etchahun</i>		22	1	
<i>Chaho</i>		6	1	
<i>Archu</i> 1848		2	4	
<i>MaiMarHil</i> 1852		7	2	1
<i>Myst</i> 1856		10	-	4
<i>Ip Dial</i> 1857		(lokailu)		
<i>HOrdre</i> 1860		14	2	8
<i>EvS</i> 1873	10	23	-	3
<i>Epit</i> 1873		4	-	5
<i>Catuchuma</i> 1899		3	1	-
Orotara	16	528	49	29

Egungo nafar-lapurteran motibatiboaren adiera hertsian *-gatik* morfemaren ordezkatzeari gauzatu baldin bada, eta Zuberoako corpusak XIX. mendean benefaktiboaren markaren hedakuntza semantikoaren hasikinak baizik ez baditu lekukotzen, hau da pausatu beharreko galdera: Zuberoako testuetan azaleratu den joera berria orokortu da XX. mendean? Duda hori gogoan, interesgarria da *Norantz* proiektuaren datu basearen emaitzei soño bat egitea. Inkestaren galtoen artean badira bi *motibatibo* itema jasotzeko, bizigabe eta bizidunentzat, hurrenez hurren. Halere, bietan galdegiten dena *kausa* da, eta ez *motiboa*; hortaz, 69 erantzunetan gehientsuenek *-gatik* morfema darabilte.¹⁶³ Aldiz, datu base horrek zantzu argiak ematen ditu azken mendean *-(ar)entzat* markaren hedakuntza semantikoak aitzina egin duela ondorioztatzeko, baina ez mintzo guztietan hein berean. Horrela, Akitaniako egungo euskaldunek *-(ar)entzat* & *-(ar)entako* atzizkiak usu erabiltzen dituzte hala denborazko balioan¹⁶⁴ nola, batez ere, prolatiboan.¹⁶⁵

1.6. Komitatiboa

1.6.1. Abiaturuak

Komitatiboak ekintza edo gertakizun batean bi partaideen arteko laguntza adierazten du, eta bi partaide behar du: lagundua dena (*accompañee*) eta laguntzen duena (*companion*); gainera bada *relator* delakoa, euskaraz *-(r)ekin* kasu-marka. Euskalaritzan *soziatibo* terminoa baliatu

TRATALANT / TRATÜLANT. Erratorri honen oina anbiguo gertatzen da, *tratü* izena zein *trata* aditza izan baitateke, kasuan kasu. Hitza XVIII. mendean datatua izan den *Chiveroua eta Marceline* fartsan ageri da, gehi XIX. mendeko zenbait testutan:

XVIII. mendea: *Jalki tratalanta eta m.* (*Chiveroua* 272); *Enziin diñat kunbersa, / estakiñat gezüra ala egia, / tratalantbat eta Xiberu / bethi hiri etxeka zirela.* (*Chiveroua* 282); *Tratalant batheki bazin / kanberabat afermatüirik* (*Chiveroua* 300).

1844: *Laborari baniz lur lanez behar niz ocupatu; tratalant baniz, noure negociaz* (*Medit* 105).

1848: *Langhilia, tratulanta aberaxerazten* (Archu 18).

1.6.3.3. Kronologiaz

Kronologiaz denaz bezainbatean, hemen interesatzen diren ondorioetara iritsi ahal izateko, hots, *-ant* atzizkiaren sorrera eta garapenaren datatzeko, batetik *-ant* duten maileguen lehen agerraldien datak, eta bestetik *-ant* atzizkia erakusten duten eratorrien lehen agerraldiak erkatu behar dira.

-ANT BUKAERA DUTEN MAILEGUEN KRONOLOGIA

1571: *brigant* (Lç).

1616: *inportant, marxant* (Etcharten gutunak).

1666: *bidejant, bijilant, galant, gormant, ignorant, lotenant, pasant, poxant/puxant/puisant, sabant, trionfant* (Tt Onsa).

1672: *friant, tirant* (Tt Arima).

1676: *arrandant* (PrS).

1734: *abondant, xarmant* (Othoitce).

1770: *brillant* (StJul).

1785: *komendant, komediant, intendant* (Egiat I).

1788: *sarjant* (Jouanic Hobe).

1793: *arrogant, gi(g)ant* (Edipa).

1810: *reprezidant* (SteEli).

1814: *pasajant* (UskLi).

1848: *konfidant* (Chaho).

1852: *almirant(e), emigrant, errepresentant, fabrikant, negoziant* (Chaho).

1860: *parropiant, postulant (HOrdre)*.

XIX. mendea: *trafikant, xalant (Saturna eta Venus, Etchahun)*.

-ANT ATZIZKI ERATORLEA DUTEN HITZEN KRONOLOGIA

1757: *ogendant, phartelant (Maister eta IP)*.

1785: *kargülant, (h)obedant (Egiat I)*.

XVIII. mendea: *tratalant/tratülant (Chiveroua eta Marceline)*.

1.7. -ot atzizkia

1.7.1. Abiaburuak ²⁶⁶

Gutxi erran da -ot atzizkiaz. Zubereraren eta biarnesaren arteko kontaktuaren ondoriozko elementuen bere zerrendan Coyosek ez du aipatzen (2008: 929-933). Hona Caminoren hurbilpena:

Txikigarrietan -ot aipa daiteke, gaskoiaren mailegu dena: *bañot* erako adibideak eragin ditu, baina Ipar Euskal Herrian hedadura zabala du; Zuberoan Larrasketen *labürrot* adibidea aipa daiteke; *etxano* dagoen legez *etxanot* ere. Jean-Pierre Otsibarrek *txipitot* dakar (Davant 2009: 89) (2009: 198).

Beraz, badirudi gaskoiaren -òt ez dela soilik Zuberoan sartu, baizik gaskoiarekiko ukipen egoeran egon diren Lapurdiko eta Baxenafarroako mintzoetan ere. Ikusiko denez, morfema honen mailegatzeak zerikusia duke onomastikarekin. Bestalde, ezin ahantz dezakegu morfema hau frantsesez ere badela, eta haren jatorriak, azken buruan, latinera igortzen duela:

Le suffix -ot/-ot(t)e vient du latin -ottu, -otta, variant de -ittu, -itta. Il est productif dès l'ancien français (au XIII^e s.: *chariot, culot, linotte*; au XIV^e s.: *billot*; au XV^e s.: *ballot, chènevotte, marotte, menottes*; au XVI^e s.: *caillot, culotte, gélinotte*, etc.). Il a souvent remplacé le suffixe -et/-ette et continue d'être productif de nos jours, mais on le rencontre plus souvent, au masc., sous la var. -o*. (TLFi s.v. -ot)

²⁶⁶ Baliteke -ot atzizkia gaskoitik mailegatu den txikigarri bakarra ez izana. Larrasquetek *hegiol* forma jaso du (1939 s.v.): "Mot actuellement disparu; conservé dans le nom d'une maison. Il signifiait, sans doute, *petit sommet*, comme *hegiñi* ou *hegitto*."

1.7.2. *-ot* atzizkiaren ezaugarriak

1.7.2.1. Forma fonologikoa

Atzizkiaren forma fonologikoa argia da: /ot/, eta kontsonantez (*zaharrot*) zein bokalez (*zikirot*) finitzen diren oinei eranstean ahal zaie. Ohartarazi behar da *-ot* atzizkiak *-a* & *-e* bukaerak kanbiantzen dituela: *borda* > *bordot*, *phala* > *phalot*, *bide* > *bidot*, etab.

1.7.2.2. Kategoria ezaugarriak

Euskaraz *-ot* atzizkiak ez du kategoria aldaketarik eragiten,²⁶⁷ eta nagusiki izenei eranstean zaie, baina baita izenondoei ere. Eratorpen oina izen berezia izan daiteke (antropónimo maskulinoetan: *Joanikot*, *Enekot*) edo arrunta (*zikirot*), biziduna (*haurrot*) nahiz bizigabea (*phalot*). Izenondoak ez dira hain ohikoak, baina *eskasot* edo *labürrot* bezalako batzuk lekukotu dira. Finean, Caminok Amiküzen baliatzen den *bañotek* ‘bakar batek’ forma pleonastikoaren berri eman digu (2015: 20). Bestalde, *-ot* atzizkia forma deia erratorriei erants dakieke, halako morfema konplexuak sorraraziz (eta hiruetarik bitan argiki pleonastikoak):

- *-kilot* (*-kil* + *-ot*): Zuberoan *jaunkilot*, *haurkilot* (mespretxuzko balioaz; cf. Larrasquet 1939 s.v.).
- *-skot* (*-sko* + *-ot*): Zuberoan *xixariskot*, *mothikoxkot* (Larrasquet 1939 s.v.); *mintzajexkot* (Maidier Bedaxagarren komunikazio pribatua).
- *-(t)xoot* (*-txo* + *-ot*): Oztibarren *zahartxoot*, *gatzexoot*, *haundixot* (Camino 2015: 25).

Camino *-xkot* segidaz mintzo zaigu, iduriz Zuberoan baizik ez datzana:

-xkót txikigarria dugu, zentzu gaitzesgarria ere izan dezakeena, eta Zuberoatik kanpo kausitzen ez dena: *alhorxkot*, *emaztexkot* edo *mothikoxkot* dakartza Larrasketek eta Gameraen *soroxkot* (Otsibar 2003: 17), *haxexkot* (57) ageri dira; Guillaume Eppherrek

²⁶⁷ Frantsesaren *-ot*, *-ot(t)e* atzizkiak (« formateur de substantifs et d'adjectifs auxquels il donne le plus souvent une valeur diminutive ») oinaren kategoria kanbiantzen dezake. Euskaraz sartu den *cachot* ‘ziega’ izena, adibidez, *catcher* ‘ezkutatu’ aditzetik eratorria da, eta orobat erran daiteke *roulotte* eratorriaz (← *rouler*).

saldokot darabil (Davant 2009: 112) eta Casenave-Harigilek *aizexkot* (18), *lanxkot* (2). Guk Sarrikotapean *ogixkot* bildu dugu. (Camino 2009: 173)

1.7.2.3. Balio semantikoa

-ot atzizkiak balio txikigarria du, euskararen *-ño*, *-txo* edo *-to* atzizkien pareko eta, ikusi bezala (§ 1.7.2.2), tarteka horien indartzeko ere baliatua. Aldiz, forma hipokoristikoen egiteko jende-izenei eransten zaielarik, izen horiek maskulinoak behar dute izan, hizkuntza emailean bezala.

1.7.3. Zuberoako testuen testigantza

1.7.3.1. *-ot* onomastikan

Jadanik XV. mendean biziki ongi lekukotua dugu *-ot* morfema. Mende hartan egin zen erroldan (Cierbide, Grosclaude & Orpustan 1994: 232-257) *-ot* txikigarria duen hainbat antroponimo ageri da. Gehientsuenak biarnes jende izenak dira, baina bizpalau formatan *-ot* txikigarria euskal formei erantsia da: *Argassiot* —hutsa ote (← *Urgassiot*)?—, *Berascot*, *Hariscot* & *Urgassiot*.²⁶⁸ Hona antroponimo horien zerrenda, XV. mendeko Zuberoan arrunt entzuten ziratekeen *-ot* atzizkidun formen erakusgarri:

- XV. mendeko datu haietarik halako *Amiguot*, ostau d: IV. Barcuys.
- Argassiot, Arnaut Santz d: IV. Mauleon.
- *Auricot*, un affiuzament apres: IV. Mauleon.
- Berascot, ostau de: IV: Bielenabe.
- *Condexot*, ostau de: IV. Barcuys.
- *Guilhemot* deu Peyrier, ostau de: IV. Mauleon.
- Hariscot deu Borc, place de: IV. Mauleon.
- Hariscot, ostau de: IV. Mauleon.
- Johanicot deu Cauterer, ostu de: IV. Mauleon.
- *Martoc*, ostau de: IV. Mauleon.

²⁶⁸ Espero bezala, euskal antroponimoetan bestelako atzizki txikigarriak ere lekukotzen da: *-to* (*Garciato*), *-ko* (*Johanco*) edo *-xe* (*Johancoxe*). Hutsa ez bada, *-et* ere ageri da (*Johanet*).

- *Monguilhot*, ostau de: IV. Mauleon.
- *Morot*, ostau de (Fe.): III. Xeraute.
- *Peyrot* de Socorlatzsse, ostau de: IV. Mauleon.
- *Peyroton* deu Cauterer, ostau de: IV. Mauleon.
- Urgassiot, ostau d: IV. Mauleon.

Ondoren *-ot* atzizkiaren testigantzak jauzi luzea egiten du: herri antzertiko pertsonaietan aurkituko da, eta bereziki fartsa xaribarikoenetan. Pentsa liteke hiruzpalau mendetako jauzi luze horrek *-ot* atzizkidun izenek zuketzen kutsu herrikoiarekin zerikusirik izatea; menturaz tradizio idatziko autoreek saihestsi zuten. Bestalde, arrazoï pragmatikoak ere aipa daitezke: hipokoristikoak berenez hizkuntz erregistro informaleko bati dagozkio — hain zuzen, asto lasterrek hain ongi lekukotzen dutena—.

Azkenik, hizkuntza emailea frantsesa ala gaskoia den ere gogoan izan behar da. Badakigu *-ot* atzizkia bi erromantze horietan existitu dela, baina frantsesez aspaldi ihartu bazen, gaskoiaz emankor iraun du. Zuberoako euskaldunak zein erdarari so egin dioten ere garrantzizkoa da puntu honetan (cf. ATALASEAN, § 3.4.4.6). Kronologiaren aldetik, argi dirudi zuberotarrek biarnesetik hartu zutela *-ot* atzizkia —halere, hitzak banaka aztertu beharko lirateke—. Errana dugu, XV. mendeko erroldatik kasik XIX. mendera arte iguriki behar da jende izenetan *-ot* bukaera berriz ikusteko:

- XVIII. mendea: *Paiot* (*Chiveroua eta Marceline*-ko pertsonaia)
- 1788: *Peirot* (*Jouanic Hobe* 141)
- 1807: *Belot, Malqu eta Malqulina & Saturna eta Venus* fartsetako pertsonaia.
- *Pierrot eta Charrot* astolasterra (izenburuan).
- *Aztarot* (*Planta eta Eleonora & Saturna eta Venus* fartsetako pertsonaia).

1.7.3.2. *-ot* maileguetan

BARBALOT ‘zomorroa’. Gure corpusean laido gisara erabilia da, bai eta bere adiera neutroan ere: *Apho barbalot haundia / eman ezadak bakia!* (*Pierrot eta Charrot* 139); *Eltxo phozundinek eta beste hanitz barbalotek tzistatzen dütielakoz egiten die hori* (*Ip Dial* 9).

BARIKOT ‘upela’.

Ni sarthüren nük / eta barikota hartüren. (*Pierris* 150)

Elhestatiüren zide / eta nik barikota betheren, / eta gero diagü / hiruek algareki dringatüen. (Pierris 153)

Pete, behar diat / gaur Pierrisen etxea, / barrikot bat / arduen txerkara. / Hitz eman sitadan / Katixa banon ekharten, / barrikot bat ardu / seitadala emanen. (Piarres eta Catiche 145-6)

Jalki Andres barikota biskarin / Andresek hüstü egin eta m. (Pierris 160di)

BUTIGOT. “(Enfant) espiègle. Empr. béarn. *boutigue* + *-ot*” (Larrasquet).

KAXOT ‘ziega’; cf. fr. *cachot*, biarn. *cachòt*. Mailegu hau Iparraldean ezaguna da, Haranederrek, Baratciartek, Hiribarrenek edo Elissamburuk baliatua (OEH). Zuberoan XIX. mendean lekukotua dugu, *Charlemagne* trajerian lehen, eta gero Etchahunengan:

Eta çuq disborsa orai / Aceta Eçadaçut / Bestela cachot çolan / hirotu behar duçu (Xarlem 725)

Kunplitü nütianin, hogei eta zaspi / emastis nündin aitak, delonza erazi / ene müble kabalik, aurridek edeki / ni nahis ene hunen, exaier edeki / kaxota xilatüirik, kanpulat eskapi (Etch “Etchahunen bizitziaren khantoria”).

KÜSKÜLLOT “sonnaille” (Larrasquet); cf. gask. *couscoulhe* “coquille, coquillage” & *couscoulhét*, *-lhòt* “petit coquillage” (Palay). Gure corpusean ez, baina OEH-k zubererazko testu baten lekukotza dakar: *Metale, tzintzari, txintxa, txintxirxkot eta küsküllot jesaitea* (GH 1931, 469).

MANTXOT. “Manchot’. Empr. béa” (Larrasquet). Gure corpusean ez da ageri.

MARXANDOT. *Martxant* hitzaren txikigarria; OEH-k adibide bakarra jasotzen du, *Sen Grat* testutik. Guk dakigula, testu horretatik kanpo ez dago lekukotua: *Hetaric bati galthatu nian, noula ezagutu cien Sen Grat. Erran ceitan: martchandot batez. (SGrat 17) & Martchandota zeluti gin bat bezala ikhoussiric izan zuzun. (SGrat 18).*

MELILOT. “Plante fourragère, légumineuse, dicotylédone (de la famille des Papilionacées), dont les fleurs jaunes et mellifères, disposées en grappes, sont employées en pharmacie et en parfumerie” (TLFi). Behin ageri da: *Cominoz, erramu aciz eta / camamila liliz, melilot eta / haietaricq orotaricq. (StJul 1280).*

PEILLOT 1. “Persona sin iniciativa” (Azkue *apud OEH*); “Nigaud, niais” (Larrasquet).
Nourc daki nounti benturaz gin peillot bati behatuz, moutico gazte zoumbaitec solaz bat ezari cien Sen Graten processioniac igaran behar cian plazabat etan. (SGrat 22-23).

PEILLOT 2. “Mauvais jupon” (Duvoisin *apud OEH*, Bardozen kokatzen duena); “empr. béa. *pelhot* jupon” (Larrasquet).

PHORROT. “Soupe au lait avec de la métüre (pain de maïs)” (Larrasquet). *OEH*-k adibide bat dakar: *Hobeki egin hio orano aurthen phorrot gathülta hun eli bat jan bahitza* (J.B. Mazéris *GH* 1932, 505).

PIERROT. “Rouleau à emotter les champs labourés, mais on dit dans la moitié des familles *trunko* et non pas *pierrot*” (Larrasquet).

PÜRKOT. “Diminutif de *puerko*. Sale, « saligaud ». Empr. béa. *pourcot*, pourceau. *Zer egin dük, purkota?*” (Larrasquet).

TERRIXOT. “Vase en terre dans lequel on fait cuire le lait” (Lhande); *OEH*-k Zuberoan du kokatzen. Gure corpusean behin ageri da: *Emaiten zioziün terrixot bat / esne egosirik, / hüra zela emazten zankhartekua / erraiten zeolarik.* (*Saturna eta Venus* 84).

TRIPOT. ‘Odolki, odoloste’. *OEH*-ren arabera Iparraldean ez ezik, Pirinioetako mintzo nafarretan ere sartua da hitz hau. Gure corpusean behin ageri da: *Hek, hik, hek, hok! / Mestiüra dük millok! / Ekhar ezadazie ehün lükhainka / eta bi ehün tripot.* (*Pierrot eta Charrot* 220)

XIXANGLOT. “Sangsue < béa. *chichangle*, lézard gris” (Larrasquet).

ZIBOT “et non *zibota*, que donnent Azkue et Lhande [...] Toupie < béa. *sibot*.” (Larrasquet).

Bestalde, hizkuntza emaleetan *-ot* atzizkia izan gabe zuberotarren hautematean [ot] ahoskera duten maileguak aipa genitzake. Atzizkiarekiko inolako loturarik gabe *inpot* edo *debot* bezalakoak ditugu, baina ez bakarrik. Nolabait, frantsesaren *-aud* biarnesaren iragazkitik *-aut* / *-ot* iristen zatekeen zuberotarren beharrietara, *-ot* bukaera zuten maileguen maiztasuna goitituz, morfema izan ala ez. Bihoa pare bat etsenplu:

KRAPOT (< *crepaud*): *Sebadina, eta hor zer ariz, / krapot xar horeki (Petit Jean 15).*

RENOT (< *Rennaud*): Renot, *Charlemagne* trajeriako pertsonaia.

BIGOT “Dont la dévotion étroite se fourvoie dans des manifestations formelles et/ou superstitieuses” (*TLFi*). Tartasek badu hitz hau: *Bada bertze jende batzu, falsu, ipokrita eta biguot batzu (Arima).*

1.7.3.3. -ot euskal oinetan

-aje eta -dant/-lant atzizkiekin bainoago, -ot aski emankor azaltzen zaigu zuberera historikoan. Ondoan jasotzen diren formak modernoki baizik ez dira lekukotu. Larrasqueten hiztegia iturri nagusia izan da, baina baita Caminoren lanak (2009 & 2015) eta *OEH*.

ALHORXKOT (Camino 2009: 173).

BAÑOT (Camino 2009: 198).

BIDOT “1° petit chémin. 2° Nom de familles et de maisons, assez fréquent en Pays Basque et dans le Béarn (en région béarnaise, il est probable que ce nom est d’importation basque : car il est peu croyable qu’il soit un diminutif de *bidau - vital - peuplier - coccineelle*, en béarnais)” (Larrasquet 1939 s.v.).

BORDOT ‘borda’ (der).

EMATXOT (Coyos 2008: 933). “(S), mujerzuela, mujer de mala fama” (*Azkue apud OEH*); cf. *ematxar*.

EMAZTEKOT. Zuberoan baizik ez da ezagun (Camino 2009: 173). Larrasquetek “femmelette” erran-nahia dakar.

ESKASOT. XXI. mendean lekukoturik : *Arren zonbat ote zidee / Hirur organta zikiot / Zonbait adar oker eta / Beste hainbeste eskasot! (Alienor 104).*

ETXANOT / ETXENOT. Camino (2009: 198). *Haren etxenota gure etxetik hüllan zen. Picochet GH 1927, 251 & Bere etxanot ttipian lanian ariz bizi zen (GH 1929, 421 apud OEH).*

GAZTEXOOT. Oztibarren lekukotua (Camino 2015: 25).

HAUNDIXOT. Oztibarren lekukotua (Camino 2015: 25).

HAURKILOT. “Forme méprisante, comme nous dirions en français: *sale petit garn[...]*ment. < *haur* + *ki* + epenthèse + *-ot*. Le sf. *-ot* est emprunté au béarnais” (Larrasquet).

HAUROT. “Petit enfant’, sans sentiment de mépris” (Larrasquet).

HAXEXKOT. Otsibar 2003: 57 *apud* Camino 2009: 173.

JAUNKILOT. “Dim. de *jaun* petit Monsieur (avec sentiment de mépris)” (Larrasquet).

KOKILOT. “Empr. béa. *coquilhòt* ‘petit gâteau’ (on en a fait en basque le diminutif de *koki*, qui est le béa. *couqui*)” (Larrasquet). Beraz, zuberotarrek mailegu honen gaineko berranalisia egin dute, halako berrezazpen lexikala gauzatuz: “Farceur, méchant vaurien”. Chahok eta Azkuek jaso zuten hitza, *OEH*-k ondoko adibideak jasorik: *Muthil gazte andana batek igurikatu zituen Miarritzar kokillotak. Barb Piar I 172; & Debrü Kaloka kokillot harek, aurthen sabel zilua barnatto ükhen behar dik*. GH 1932, 505.

LABÜRROT. (Camino 2009: 198).

MOTHIKOKOT. “Méprisable petit jeun homme” (Larrasquet, XIXARIXKOT sarreran azaldua); forma honek *-xko* + *-ot* segida erakusten du.

PHALOT. *Phala* hitzaren txikigarria (Larrasquet).

SOROKOT. Otsibar 2003: 17 *apud* Camino 2009: 173.

THARRAPOLOT. Ez dugu hitz hau hiztegieta aurkitu, baina ez dirudi deus positiborik adierazten duen : *Ale hiçan beçalaco / tharrapolot mithiria! / Eta eny comparitceco / baduca coragia?* (*Edipa* 239).

TXIPITOT. Jean-Pierre Otsibarrek erabilia du (Davant 2009: 89 *apud* Camino 2009: 198).

XIXARIXKOT. “Péjoratif de *ver* (*de terre*). Cf. *mothikoxkot* méprisable petit jeun homme” (Larrasquet).

ZAHARROT. *Haatik iparralde hontan, nor behatzen da orano Euskaltzaindiaren aholküer eta ni bezalako zaharroten erraner?* (Davant 2006).

ZAHARTXOOT. Oztibarren lekukotua (Camino 2015: 25).

ZIKIROT. Jean Michel Bedaxagarrek erabilia du: *Arren zonbat ote zidee / Hirur organta zikiot / Zonbait adar oker eta / Beste hainbeste eskasot!* (Alienor 104).

1.8. -sa atzizkia ²⁶⁹

1.8.1. Sarrera

Onartua da euskarak ez duela genero gramatikalik, bederen izenkiez ari bagara; halere, deklinabidean izen bizidunek eta bizigabeek portaera diferentea dute (Trask 2003: 115-116) —ezaguna da, halaber, aditz morfologian badela generoaren araberako markatzea, molde alokutiboari lotua—. Izen sintagman bereizkuntza morfologikorik ez den arren, historikoki euskalki gehienek —ez bada guztiek— hainbat pare lexikotan maskulino/femenino bereizi dute, nabarmenki -sa atzizkiaren edo gaztelaniari mailegatutako -o / -a oposizioaren bidez.

-sa atzizkia egoera konplexu batean kausitzen da. Alde batetik, iritzi garbizaleenentzat euskal gramatikari zein hiztunen senari arrotz litzateke, eta beraz ez luke zentzurik haren mailegatzea. Beste aldetik, hiztun eta arauemaile zenbaitek hizkuntzaren usadio sexistekin lotzen dute -sa atzizkia, eta horregatik ostrazismora kondenatu dute. Hein batean, -sa beharrik gabeko *alien* gisa begiratua da, eta halako kutsu sexistaz hornitua (cf. Davant 2006). Horren ondorioz, euskararen estandarizazioak atzizkia baztertu, edo bederen aski mugatu du. Testu zaharrak, aldiz, erabilpen zabalago baten lekuko dira. Paraleloki, sortzezko bekatu bikoitza lukeen -sa atzizkia aldarrikatze baten sujet izan da azken hamarkadetako Zuberoan. Nonbait, gau eskolako *irakaslesak*, herri etxeko *idazkarisak* eta are errugbi taldearen *zūportersak* kolore berezi bat ematen diote euskarari, hots, xiberotartasunarena. Halako formak *pürki xiberotar* bezala hautemanak izateak atzizkiaren emankortasun berri batera bulkatu duke.

Atal honetan euskarak garatu dituen genero bereizkuntzaren hasikinak azterkatuko ditugu (§ 1.8.2), haiek dakartzaten ondorioen garrantziaz bi hitz erranez (§ 1.8.3).

²⁶⁹ Atal hau moldiztegian den argitalpen batean ageriko da, ondoko izenburuaz: “Atzizki barbaro, patriarkal eta premiagabe baten gorabeherak”, in Aritz Irurtzun & Urtzi Etxeberria (arg.), *Xarles Videgaini gorazarharre* [Lapurdum-en II. ale berezia], IKER UMR5478 (CNRS), Baiona.

Ondoan, *-sa* atzizkiaren eratorpen ereduak eta ñabardura semantikoak aipatuko dira (§ 1.8.4). Testu zaharretan sartuz, lehenik zuberera historikoaren corpusaren lekukotzari eskainiko diogu arreta (§ 1.8.5), eta gero *OEH*-k ematen duen informazioari (§ 1.8.6). Haren hala-moduzko estatusaz aritu ondoan (§ 1.8.7), azkenik *-sa* polemikoaren egungo irautearen testigantza batzuk bilduko ditugu (§ 1.8.7.3).

1.8.2. Mailegatzea, genero gramatikalaren enbrioi

Aspaldidanik, euskarak maskulino/femenino generoen araberako hitz pareak mailegatu dizkie inguruko erromantzei. Ekialdeko mintzoetan gaskoiaren *-er / -èra* saileko pareak sartu ziren (*koziner/kozinera*), bai eta bestelakoak ere (*bastart/bastarda*, *pandard/pandarda*, *kokĩ/kokina*, *fripũ/fripuna*). Hegoaldean ohikoa izan da *-o / -a* bukaeren araberako pareen mailegatzea.²⁷⁰ Lehenbiziko zantzuak Erdi Aroko datu onomastikoetan aurkitzen ahal dira (*Onneca*). Lazarragaren eskuizkribuan *linda damea* (1143r), *ene lindacho maitea* (1164v) edo *çu laco donzella bat ain lindaric* (1186r) usu agertzen dira. Egungo mintzoetan *-o / -a* oposizioa bizia da: *guapo/guapa*, *lixto/lixta* edo *tipo/tipa* moldeko maileguak komunzki baliatzen dira.

Eratorbidean Lafonek balio femeninozko *-ña* atzizkia aipatzen du: *astaña* “anesse ; femme sotté” (Lafon 1947: 263); Azkuek Zuberoan, Erronkarin eta Zaraitzun kokatzen zuen, *-ño* diminutiboarekin lotuz (Azkue 1905 s.v. *-ña*). Erabiliago eta hedatuagoa dugu *-sa* atzizkia, ogibide, funtzio edo egoera soziala adierazten duten izen multzo batean: *laborarisa* “paysanne”, *okhintsa* “boulangère” edo *alharguntsa* “veuve” (Lafon *op. cit.*). Atzizki honen jatorria berriz ere erromantzei mailegatutako hitz pareetan datza: *printze/printzesa*, *duke/dukesa*, *konde/kondesa*, eta abar. Lafonek seinalatzen duenez (*ibid.*), mailegua ez bide da arras goiztiarra, zeren bestela txistukari bizkarkariaz sartu baitzatekeen (*-za* eta ez *-sa*).

²⁷⁰Leizarragak *sposo/sposa*, *adulteroàc/adulteràc* bezalako pareen emateak (Lafon 1947: 262) ñabarrago egiten du *-o / -a* oposizioaren jatorria. Aldaketa nahi bada tipologiko hori mendebaldean ere gertatzen da, beste berrikuntza baten medioz. Izan ere, Hegoaldeko mintzoetan genero bereizkuntzaren hasikin bat ageri da, *-o / -a* oposizioa arestian aipatu diren *guapo/guapa* bezalako pare mailegatuetarik euskal erro zenbaitetara iragaitzarekin. Azkuek (1923 § 293) *mamelo* “homme adroit, rusé” / *mamela* parearen ematen zuen, eta egungo euskararen halako batzuk aipa genitzake: *potolo/potola*, *potxolo/potxola*, *txotxolo/txotxola*, *mozolo/mozola* ‘ergel’ edo *xurro/xurra* (← *zuhur* ‘zikoitz’).

Printze/printzesa bezalako eraginaz, hiztunek *-essa* → *-sa* berranalisia eginen zuketena, *-sa* izen femeninoen marka gisara interpretatuz. Datatzeko zail den memento batetik aitzina —menturaz Erdi Aroaren azken partean—, *-sa* akabantza aipatutako maileguetarik euskal erro zenbaitetara iraganen zatekeen, atzizki izaera bereganatuz. Reguerok *-sa* atzizkiaren erabilera goiztiar baten zantzuak ikusten ditu Nafarroan:

Erdi Aroan, oso zalantzazkoak izan arren, *-sa* atzizkiaren erabileraren aztarnak aurkitu ditugu. [...] Honatx adibideok: *Arceyca* eta *Maytessa*, biak 1366 urtean. *Arceica* < **artzai* + *sa* izan liteke eta onargarri dirudi, emakume bati egiten baitio erreferentzia: *Arceyca* *llamada* *Oneca*. Alabaina txistukari bizkarkaria da, ez apikaria. Bigarren kasuak zalantza gehiago eragiten digu. *Maytessa* < **maite* + *sa* izan litekeen arren, gizonetako bati egiten dio erreferentzia: *Miguel Periz* *Maytessa*. Beharbada atzizki femenino bera izan dezakegu *Ortissa de Enassurieta* (SJuan, 1230) antroponimoan ere.²⁷¹ (2012: 134-135)

1.8.3. Ezaugarri morfologikoen mailegatzeaz

Genero gramatikalik ez zuten hizkuntza batzuek ezaugarri hori garatu dute ukipen egoera baten ondorioz. Horrelakoa da tagalo, ilokano edo txamorro hizkuntzen kasua, aldaketa gaztelaniak eragin baitzuen (Iván Igartuaren jakinarazpen pribatua). Euskarak bezala, estonierak ere ez du genero gramatikalik, baina bikote lexiko batzuetan forma femeninoak eratorpen atzizki baten medioz markatzen dira. 33. TAULAK estonierak dituen pare lexiko bakanetakoak biltzen ditu; erremarka bedi *-anna* / *-inna* atzizkia ez duten forma femeninoak mailegatuak direla, edo bestelako erabide baten ondorio. Estonieraren ahizpa den suomierak *-tar* atzizkia baliatzen du antzeko kasuetan: *kuningatar* ‘erregina’, *jumalatar* ‘jainkosa’, *herttuatar* ‘dukesa’ (← *kuningas*, *jumal*, *herttua*). Ez da gure xedea atzizki horien etorkiaz aritzea; halere, beroiek hartzen dituzten izenei so bat egitea aski da euskararekiko paralelotasunaz ohartzeko.

²⁷¹ *Arceyca* formaren irakurketa ‘artzeisa’ izatera, *artzaintsa* (ustezko) modernoaren lehenbiziko agerraldia XIV. mendera aitzinatu beharko genuke. Bestalde, *Maytessa* gizonetako baten izenean aurkitzea korapilatsuagoa izan arren, deituraren sorburua emazteki batengan izateak azal lezake. Bi hauei Reguerok *Ursoxa* forma gaineratzen die; honen arazoa toponimoa izatean datza, *vallis quae Ursoxa dicitur* (García de Cortazar *et alii* 1979: 71 *apud* Reguero 2012).

33. TAULA. Estonieraz genero bereizkuntza duten zenbait bikote lexiko.

<i>kuningas</i> ‘errege’	<i>kuninganna</i> ‘erregina’
<i>jumal</i> ‘jainko’	<i>jumalanna</i> ‘jainkosa’
<i>müüja</i> ‘saltzaile’	<i>müüjanna</i> ‘saltzaile (fem)’
<i>preester</i> ‘apaiz’	<i>preestrinna</i> ‘apaiz (fem)’
<i>herstog</i> ‘duke’	<i>herstoginna</i> ‘dukesa’
<i>parun</i> ‘baron’	<i>paruness</i> ‘baronesa’
<i>direktor</i>	<i>direktriss</i>
<i>luuletaja</i> ‘poeta’	<i>luuletaja/poetess</i> ‘poeta (fem)’
<i>õpetaja</i> ‘errejent’	<i>näisõpetaja</i> ‘errejentsa’ (cf. <i>naine</i> ‘emakume’)

Zenbatenaz ekialderago, hiztunek hainbatenaz modu sistematikoagoan erabiltzen dute *-sa* atzizkia (Trask 2003: 117). Beraz, euskarak mailegatu duen *-sa* atzizkiak (eta horrekin batean genero bereizkuntzak) gaskoiarekiko ukipenaren aipatzera garamatza. Bada, zubereraren eta biarnesaren arteko harreman azkar bezain mendeetan egonkorrak hizkuntz-ukipen intentsiboaren mailan koka daitezke (cf. ATALASEAN, § 3.4.4.6). Azkenik, eta tesi honen aztergaia ez bada ere, Euskal Herriko mendebalean errotzen hasi den *-o* / *-a* oposizioa ere ukipen azkar eta luze baten ondorioa da (ikus 270. oharra), eta gehiago: inflexio-morfologiako mailegatze batez mintzo gaitzke, mailegatzeko zailen gertatzen diren hizkuntz egituren elementuetako bat (Comrie 2008).

1.8.4. Eratorpen arauak eta semantika

1.8.4.1. *-sa* har dezaketanak

Errana dugu, *-sa* atzizkia partikularzki lanbidea, funtzioa edo egoera sozial adierazten duten izenei eransten zaie, baina ez bakarrik: herritargo izenkien femeninoen eratoritzeko (*xiberotarsa*, *mauletarsa*) edo zenbait animalia-izenen emeen izendatzeko ere baliatu izan da —azken honetarako euskarak bide propioak ukan arren—: *basurdesa*, *lehoina*, *tigresa*, *tximinoa*.

Hitzen kategoriak direnaz bezainbatean, pentsa liteke soilik bizidunen izenek dutela *-sa* hartzen ahal. Testuetan, alta, ikusten dugu bestelako hitzak ere eratorpen oin bihurt daitezkeela, hala bizigabeen izenak (*ostatiisa* ‘emakume ostalari’ ← *ostati*) nola izenondoak ere (*lehenesa* ‘printzesa’, *euskalduntsa*). Bestalde, erator oin gisara hartzen diren hitzak jada eratorriak direlarik, *-sa* honako atzizkiei erantsirik gerta daiteke: -ANT

(*brigantsa, komediantsa*), -AR (*egoiliarsa, etxetiarsa*), -ARI (*arartekarisa, laborarisa, taharnarisa*), -DUN (*euskalduntsa*), -ER (*bulanjersa, kozinersa*), -GIN (*emagintsu, okintsu*), -KO (*arartekosa*), -ORE (*bekhatoresa, enperadoresa, prioresa*), -TAR (*larraintarsa, mauletarsa, xiberotarsa*) eta -ZAIN (*artzaintsa, eiherazaintsa*).

1.8.4.2. -sa-dun hitzetarik eratorriak

-sa-dun hitzek bestelako atzizkirik hartzeak bide bat eskaintzen du -sa atzizkia hizkuntzan noraino errotu den neurtzeko. Bestela erraiteko, genero bereizkuntza duten pareen gaineko eratorriak genero bereizkuntzaren estatusaren adierazgarritzat har daitezke. Beraz, *alhargüntsatu* aditza ageri den hizkeretan *alhargüntsua* izenaren “osasuna” ona dela pentsa dezakegu: *Monseigneur, alhargunxatu niçan guero / nahi dit kitatu mundia (Sainte Elisabeth de Portugal 1016); Hiriko emaztiac citiagu / sarri alhargunxa eraciren! (ibid. 680).*

Mutatis mutandis, orobat gertatzen da beste aditz honekin: *erregiñatü* ‘erregina bilakatu’ ← *erregiña*. OEH-k Eguiateguyren adibide bat ematen du, eta honatx Eskiulan datatua den *Sainte Elisabeth de Portugalen* kausitu dugun bestea: *Eta balin eta ni / ahal baniz erreguetcen, / çoure baicic erreguignatcera / ihouren eztit phenxatcen (1453).*²⁷² Edo *saintü/sainta* parearen ondoriozko *saintütärzüna* vs. *saintatarzüna* bereizketarekin, berriz ere *Sainte Elisabeth* trajerian: *Saintatarçuna bera / çuçun horren bihotcian (SteEli 1325)*. Testu berean genero bereizkuntzarik gabeko izenetik ere eratorria ageri da: *saintutarçuna* (198, 826 & 1021); guztiek Elisabeth erreginari erreferentzia eginik, pentsatu behar da *saintutarçun* ez-markatua dela.

Laburzki, genero bereizkuntzaren ondoriozko hitz baten gaineko eratorriak ez dira anitz. Halere, azaleratu direnak genero bereizkuntzaren ondoriozko izenki multzo murriz baten sendotasunaz mintzo dira.

²⁷² Perpausaren interpretazioa: ‘zure beste inoren [TOGEN] ez dut erreginatzea [= erregina ezartzea] pentsatzen’.

1.8.4.3. Semantikaz bi hitz

Printzipioz, *-sa* atzizkiak ‘X emakume’ erran nahia emanen lioke bere bidez sortutako hitz eratorriari. Praktikan, aldiz, *-sa-dun* batzuek bestelako kutsurik hartu dute. Bada, *kapitainsa* ez da ‘emakume kapitain’, baizik eta ‘kapitainaren esposa’, eta orobat erran daiteke *harginesa* edo *zapataginesa* hitzez. Hona hemen 1780an zer den *sakristainsa* bat: *Badate orano sacristainsa bat, linge sacristaignac remetituco deronaz soeing ukheiteco* (Mercy 36).

Familia izenekin *-sa* atzizkiaren erabilera hautazkoa bide da Zuberoan: “*Xilo*, M. Chilo; *Xilosa*, la femme de Chilo. Mais on dit mieux *Xiloren emaztia*, la femme de Chilo” (Larrasquet 1939 s.v. *-sa*). Larrasqueten hitzetarik konprenitzen da *-sa* atzizkiak konnotazio negatibo bat karreia dezakeela. Ekar dezagun horren adigarri bat: XX. mende hastapeneko Frantzian Caillaux izeneko ministro baten esposak kazetari bat hil zuen. Honatx gertakizuna, Hiriart-Urrutyk aipatua (*Eskualduna*, 1914-03-20): “*Ministrosa*, Caillausa delako Madama moda berrikoak hor hil duen gizona kazetari bat zen, *Figaro* deithu paristar kazeta handiaren egile buruzagia, Calmette izena zuena.”

1.8.5. Zuberoako testuen lekukotza

Euskal mintzo guztietan hedatuak direnak alde batera utzirik (*printzesa*, *dukesa*...), Zuberoan testu zaharrenetarik aurkitzen dugu *-sa* atzizkidun izenkirik. Tartas lehenbizikoa da, honakoak lekukotuz: *avocatussa* (*Onsa* 173), *bekhatoria eta bekhatoressa* (*Onsa* 12), *bekhatoriari eta bekhatoressari* (*Onsa* 22), *bekhatoriac eta bekhatoressac* (*Onsa* 100) & *Ordian duqueçu arima burçaguissa, eta gorpitça nescato* (*Arima* 85).²⁷³ Belapeirek *arartecossa* (I 150), *confrai confraissec* (I 147) eta *profetessa* (II 105); ohart bedi Belapeirerentzat *alhargun* bali dela emazteentako: *Santa Anna alhargun perestu, Profetessa, eta barour eguilé handia* (II 105) —izan ere, *alharguntsa* formaren lehen agerraldia 1793koa dateke—. 1706koa den Oloroeko katiximan *buruçaguissa* soila ageri da (10), eta Maisterrengan *burçaguissa* (III 55, 6).

²⁷³ Orain arteko adibide guztiak bizidun emeenak dira. Tartasen *arima buruzagisak* urrats bat gehiago ematen du, *arimak* erromantzez duen *genero gramatikala* barneratzen baitu.

Eskiulan datatuak diren itzulpenei doakienean, Resseguek *konfrais* du: *confray eta confräisec* (5) & *confray eta confräisser* (6). Mercyk *avocatussa* (2), *confrayssa* (dozena bat aldiz) eta *sacristainsa* (36) dakartza, gorago aipatua den erran nahiaz (§ 1.8.4.3). Eskiulan datatua da, halaber, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeria (1750), agian *-sa* moldeko formen lekuko oparoena: *arartekossa* (1002), *buruçaguissa* (318, 323 & 1225), *guiharrabassa* ‘amaginarreba’ (1248, 1253 & 1275) —maskulinoan *guiharreba* (174)—, *ostatussa* (227) eta *protetorssa* (1313). Azpimarkatu behar da *giharrabasa* ‘amaginarreba’ ez dela beste testuetan aurkitzen (salbu Gèzeren hiztegian), eta *protetorssa* hapax absolutua dela. Hori ez ezik, lehen erran den bezala (§ 4.2), *Sainte Elisabeth*-en genero bereizkuntzaren ondoriozko formetarik eratorriak ageri dira: *alhargüntsatiü*, *erregiñatiü* ‘erregina bilakatu’ eta *saintatarziüna*.

Herri antzertian, beraz, ez da arraroa *-sa*-dunik edireitea. 1770ekoa den *Saint Julien d’Antioche* trajeriak *buruçaguissa* (1013) eta *arartecossa* (436) bana du, *Edipa* pastoralak (1793) *alhargunxa* (310) hitzaren lehen agerraldia, eta *Charlemagnek* (ca. 1800) *paganosa* hapaxa (1074). Irri antzertiko lanek *bügres*a, *deabriüsa* edo *diablesa* lekukotzen dituzte (*vid. infra*), ohiko *alhargüntsaz* edo *bür(ü)zagisaz* gain. *Planta eta Eleanora* astolasterrak *laborarisa* (4) formaren lehen agerraldia dakarke — antzerkiaren datazioa ez da oso zehatza—, eta *Saturna eta Venus*-ek *ostatiüsa* bakana (326).

1785ean Eguiateguyren lehen liburuak *aizosa* ‘auzo.fem’ hapaxa ematen du (I 30), *artzaintsa* formaren lehen agerraldia (I 14), gehi *bürüzagisa* (5 agerraldi). Azkenik, XIX. mendeko erlijio testuek *-sa* atzizkidun formen erabilera moderatuagoa erakusten dukete. *Alhargüntsa* eta *bür(ü)zagisa* ohikoetarik landa, mende hastapeneko *Uscara libriak arartecarissa* (62) hapaxa dakar, eta 1860koa den *Heren-Ordreco escu libriak artçainxa* (35). *-sa* atzizkiak haratago, zenbaitetan hau bezalako pasarteak aurkitzen ahal ditugu: *Sainta Elisabeth Hongriacoua*, *alhargunxa*; *Heren Ordreco emazten patrouna*. (*HOrdre* 40-41), non *Sainta*, *alhargunxa* eta *patrouna* izenki femeninoak baitira.

Ondoko zerrendako forma batzuk Zuberoan baizik ez dira lekukotu: *abokatiüsa*, *arartekosa*, *bügres*a, *bürüzagisa* († 1860), *konfrais*a († 1780) eta *ostatiüsa*. Beste zenbait *hapax legomena* dira, Zuberoako testu batean edo bestean atzemanak: *aizosa*, *arartekarisa*, *giharrebasa*, *paganosa*, *protetorsa* eta *sakristainsa*.

- ABOKATÜSA (Tt *Onsa* 173; *Mercy* 21 & 30).
- AIZOSA (*Egiat* I 30).
- ALHARGÜNTSA (*Edipa* 310; *Malqu* 386 & 407; *Saturna* 163; *UskLi* 227; *Medit* 217; *Archu* 40; *MaiMarHil* 120; *HOrdre* 33, 35 (2), 36, 37 (3), 39 (2), 40).
- ARARTEKARISA (*UskLi* 62).
- ARARTEKOSA (Bp I 150; *StJul* 436; *SteEli* 1002).
- ARTZAINNTSA (*Egiat* I, XIV; *HOrdre* 35).
- BEKATORESIA (Tt *Onsa* (12, 22 & 100).
- BÜGRESIA (*Bala* 16, 25 & 27; *Pierris* 67 & 120; *Planta* 96, 102 & 105; *Saturna* 70, 94 & 149; *Malqu* 355).
- BÜR(Ü)ZAGISA (Tt *Arima* 85; Bp I 23 & 27; *CatOlo* 10; *Mst* III 55, 6; *StJul* 1013; *Egiat* I (5); *SteEli* 318, 323 & 1225; *Malqu* 245 & 328; *Boubane* 53, 103 & 158; *Medit* 194; *HOrdre* 61, 72 & 83).
- DEABRÜSA (*Malqu* 197 & 222).
- DIABLESA (*Bala* 19 & 20).
- GERRIERSA (*Baküs* 52)
- GIHARRABASA (*SteEli* 1248, 1253 & 1275).
- KONFRAISA (Bp I 147; *Ressegue* 5 & 6; *Mercy* 5, 6 (2), 7 (4), 8, 35 & 38 (2)).
- LABORARISA (*Planta* 4).
- OSTATÜSA (*SteEli* 227; *Saturna* 326).
- PAGANOSA (*Xarlem* 1074).
- PRINTZESA (Tt *Onsa* (2) & *Arima* (41); *Egiat* I (2); *Othoitz* 69; *StJul* 107 (2); *Edipa* 20 & 597; *Xarlem* 9, 118 & 142; *SteEli* 16).
- PROFETESA (Bp II 105; *Ip* 1854).
- PROTETORSA (*SteEli* 1313-1314).
- SAKRISTAINSA (*Mercy* 36).

Bistan denez, *-sa-dun* formen kideak ere kontuan izan behar dira. Kasu batentzat, *arartekari/arartekarisa* (*ararteko/arartekosa*) pareak ez da sistematikoki erabilia izan, hainbat testutan *arartekari*, *ararteko* formak ez-markatuak izanik. Ama Birjinari erreferentzia egiten dioten agerraldi guztiak bildu ondoan, forma ez-markatua ondoko testuetan ageri da: 1676ko pronua (*Ararteco eçarten deriocielaric Virginia ama saintia; PrS* 29), 1782ko *Noelen Lilia huscarez (Jesus-Christ[en] ama saintia / Arartecary balia*

cite; *NLilia* 14), Inperioko katixima (*Dezagun othoi Maria Virgina dohaxia arartecari cerbutcha daquigun Gincouaren eretcian*; *DKhi* 9), 1844ko meditazioeak (*Virgina eta Alhargunxac oro, hounen arartecari içan citeye*; *Medit* 217), 1852ko *Maiatza edo Mariaren Hilabetia* (*Ama dukiana arartecari salbaturen du semiac*; *MaiMarHil* 15, gehi 16, 22, 99 & 107) eta 1860ko *Heren-Ordreko escu librian* (*arartecari photerexia*; *HOrdre* 83). Belapeirek *arartecari* (I 147) zein *arartecossa* (I 150) baliatzen ditu, eta beste hiru testutan femenino markatuko formak ageri dira: *arartekosa* (*StJul* 436; *SteEli* 1002) eta *arartecarissa* (*UskLi* 62). 34. TAULAK aipatu formek emeari lotuak dituzten agerraldi guztiak biltzen ditu.

34. TAULA. *Ararteko/arartekosa & arartekari/arartekarisa*: forma markatua eta ez-markatua femeninoan erabiliak.

	<i>ararteko</i>	<i>arartekosa</i>	<i>arartekari</i>	<i>arartekarisa</i>
<i>PrS</i> 1676	1			
<i>Bp</i> 1696		1	1	
<i>SteEli</i> 1750		1		
<i>StJul</i> 1770		1		
<i>NLilia</i> 1782			1	
<i>UskLi</i> post 1785				1
<i>DKhi</i> 1812			1	
<i>Medit</i> 1844			1	
<i>MaiMarHil</i> 1852			5	
<i>HOrdre</i> 1860			1	

1.8.6. *OEH*-ren testigantza

ALARGUN TSA sarreran, *OEH*-k *-sa* atzizkiaren jatorri eta orainarekiko aipuak uztartzen ditu: “Derivado con el suf. *-sa* (*-tsa*), de origen románico (cf. *jainkosa* ‘diosa’, ya SP, seguramente cultismo), de uso sólo en el extremo (nord)oriental del País. Es reciente su extensión inmoderada a otras palabras”. *OEH*-k lautan hogeitik goiti *-sa* atzizkidun forma biltzen du. Haien artean hango eta hemengo euskalkietakoak badira ere, Iparraldeko mintzoen nagusitasuna begien bistakoa da. Ondoan *-sa*-dun sarrera-buruak bildu ditugu (azpimarkaturik, gure corpusak ere lekukotzen dituenak). Kopuruak ez duke altuegia iduri, baina testu zahar eta ez hain zaharretan aurkitzen dugunaren lekuko fidela da.

abadesa	<u>buruzagisa</u>	<u>konfrais</u>
<u>abokatusa</u>	dantzarisa	kozinertsa
<u>alarguntsa</u>	<u>deabrusa</u>	<u>laborarisa</u>
amaginarrebasa	diakonisa	lehenesa
amoresa	dizipulusa	lehoisa
andresa	dukesa	maestresa
<u>arartekarisa</u>	egoiliarisa	markesa
<u>arartekosa</u>	eiherazaintsa	medikusa
artxidukesa	emagintsa	mixkandisa
artzaiesa	enperadoresa	neskisa
<u>artzaintsa</u>	erizaintsa	okintsa
atezaintsa	errientsa	ostalerts
<u>auzosa</u>	eskoliersa	ostatesa
aztisa	euskalduntsa	<u>ostatusa</u>
banpiresa	etxetiartsa	<u>paganosa</u>
baronesa	fidelsa	<u>printzesa</u>
barontsa	gaiztagintsa	prioresa
bartolomesa	gizontsa	<u>profetes</u>
basurdesa	harginesa	sakristausa
bateronsa	infirmierts	[<u>sakristainsa</u>]
<u>bekatoresa</u>	jainkosa	sazerdotisa
bertsolarisa	judusa	sorgintsa
bizkondesa	kantiniersa	tabernarisa
bolanjersa	kapitanesa	tigresa
botikariosa	kiskilsa	tximinosa
brigantsa	kokintsa	ugandderusa
<u>bugresa</u>	komediantsa	umantesa
buhamisa	kondesa	zalduntsa
zapataginesa		

Gure corpusak 83etarik 17 baizik ez du lekukotzen; ifrentzuan, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerian *OEH*-k jaso gabeko bi forma bildu dugu: *giharrebasa* ‘amaginarreba’ (1248, 1253 & 1275) & *protetorsa* (1313); eta *Bakiüs* fartsan *gerriersa* (52). Horietaz gain *Bala eta Bilota* astolasterrean *diablesa* ageri da (cf. biarn. *diabliesse*), pertsonaia elebidun baten ahoan (19 & 20).²⁷⁴ Baina *OEH*-tik idoki zerrenda horrek “-sa afera” deituko dugunaren bilakaeraren laburbiltzeko bide ematen digu. Bada, *OEH*-k euskalki guztietako formak biltze hutsak ez du, gure ustez, desoreka hori azaltzen —edo ez haren osotasunean bederen—. Beraz, ardatz diakronikoari pentsatu behar zaio: zubererarentzat bildu dugun corpusak 1879. urtean du akabantza, *OEH*-k jasotako anitz -sa-dun forma berriagoak direlarik. Beraz, *OEH* XX. mendean gertatu den -sa atzizkidunen emendatzearen isla bide da.

Datuen artean ez da komeni ahanztea Larramendi, betiere hizkuntzak eskaintzen zizkion baliabideez oharturik, -sa atzizkiak baliatu zela bere neologismo batzuen eratzeko. Horietakoak dira *bateronsa* ‘erregina’, *lehensa* ‘printzesa’ edo *umantesa* ‘emakume heroi’.

1.8.7. -sa atzizkiaren hala-moduzko estatusaz

1.8.7.1. Genero ideologiaren oihartzuna

Eusko Jaurlearien *Emakunde* institutuak hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren gida karrikaratu du; -sa atzizkiaren sortzezko bekatu bikoitza berriz gelditzen da agerian:

Atzizkia daramaten hitz batzuk, bestalde, berriak dira edo maileguak. [...] Baliteke hedatze hori politikoki zuzena izateko joerarekin lotuta egotea eta gaztelanian eta frantsesean emakumeak izendatzeko aldarrikapenekin zerikusirik izatea, baina bide hori ez doa euskararen izaerarekin bat eta hizkuntzak ez du estrategia hori behar. (Barquín 2008: 28)

Barquín-en analisiak -sa atzizkiaren erabileraren hedakuntzaren arrisku potentzial bat seinalatzen du: “atzizkia erabiltzeak ondorio bat dauka: -sa atzizkirik gabeko izena maskulino bihurtzen du” (*ibid.*). Juanena ere genero gramatikalaren ondorioez mintzo da:

Hizkuntz sexismoaz ihardun dutenek genero gramatikalaren arriskua azpimarratu dute batipat: horrelako hitzak erabiliz gero, eta diskriminazioa saihestu nahi baldin bada, biak errepikatzea

²⁷⁴ *A diablesa flambesa / Et que mas getat / Lou toupin you crei / belein houradat!* [= Ah, diabliesse, flambesse ! / et tu m'as geté / le pot, je crois bien / Je l'ai percé] (*Bala eta Bilota* 20). *Flambesa* hapaxa zer den ez da argi. Iduri luke *flambàr* “homme fringant, qui fait « de l'épate »” (Palay s.v.). *Diablesa flambesa* sintagma berean atzemanik, bokatibo batean, zentzuaren ideia bat eman dezake.

eskatzen da: *aktore-aktosesak, alkate-alkatesak*, eta abar. Gauza da euskarak ez duela berez horrelako bereizketarik eskatzen, zenbait kasu konkretutan ezik. Eta larriago dena, kasu konkretu horietan, erdararen eraginez orain ere, galtzen hasi da euskal hiztunak errekonozitu ohi duen pare kidetasuna: *seme-alabak, osaba-izebak* eta antzeko hitz elkartuak elkartasuna hasi dira galtzen. (1991: 98)

1.8.7.2. Araugintzaren herexa

Azken hamarkadetako araugintzak eta *hizkuntzaren erabilera sexista* delakoaren gaineko kontzientzia berriak —apika elkarren lagun— ondorio praktikoak izan dituzte. Horrela, *Egungo Euskararen Hiztegia* LEHENDAKARISA xerkatuz gero honakoa ageriko da: “(*Euskaltzaindiaren gomendioetan baztertzen dira -sa atzizkia duten formak*) iz *ipar* emakumezko lehendakaria”. Soilik *jainkosa* bezalako forma bakan batzuk salbuetsi dira *-sa* atzizkiaren kondena orokorretik. Bistan da, Euskaltzaindiak egin du gaitzespena; beraz, *Hiztegi Batuak* halako aholkuak ematen ditu, adibidez ALARGUNTSA sarreran: “h[obe] alargun”.

Ber maneran, interesa du ikustea euskaraz lan egiteko software-arekin gertatzen dena, zeinaren erakusgarri ona Microsoft-en euskara zuzentzailea baita. Bada, Word programa baliatzean, *OEH*-ko 84 formentarik 17 baizik ez dira onarturik izanen: *abadesa, alarguntsa, artxidukesa, artzaintsa, atezaintsa, baronesa, bizkondesa, dizipulusa, dukesa, errientsa, jainkosa, kantiniersa, kondesa, lehoisa, markesa, ostalertsu & printzesa*. Ez dezakegu erran Microsoft-en pekoei zein irizpideak baliatu zaizkien; batetik, iduri du ongi errotutako maileguak errespetatu dituztela —eta bereziki nobleziako tituluak— (*abadesa, dukesa, printzesa*), bai eta gehien erabili diren euskal errodunen arteko batzuk ere (*alarguntsa, artzaintsa, jainkosa*). Baina nola esplikatu *dizipulusa* onartzea eta ez *profetesu*? Ezen, bi-biak Leizarragarengan lehenbiziz lekukotuak izanik, lehena ez baitzen *Testamentu Berritik* jalgi, eta bigarrena hamaika egileren testuetan aurkitzen ahal dugu. Zergatik *lehoisa* baina ez *tigresa*? Bestalde, argi da ez dela, kontzienteki ala ez, *-ari* edo *-gin* atzizkien bidez eratorrien gaineko *-sa*-dun formarik onartu; bai, aldiz, *-er* akabantzako ogibide-izen batzuekin (*kantiniersa, ostalertsu* baina ez *bulanjersa*). Atal honen finitzeko, J.L. Davanten gogoeta dakargu, *-sa* atzizkiaren hedatzearen gainean:

Jokolarisa: hara egün hauetan ikasi düdan hitz berria. Eüskal media batetik zen, emazteen arteko errügbi partida baten (komentario) iruzkinean. Beraz txorien gripa bezain laster hedatüko zaigü, *kantarisa* eta *lehendakarisa* egin zaizgün bezala. *Dendarisa* ere entzün üken düt zonbait aldiz, *dendaria* beti anderea delarik alta, jostüna denean. Norat ari gira hola? Noizko arren *emaztesa, andersa*, eta zeren ez *amasa*?

Emakunde deitzen den erakunte feministak hortara deitürrik, Eüskaltzainak *-sa* atzizki horren hedatzea baztertzen dü üsatü hitzetarik harat. Sexista da, diskriminazalea, bereizlea. Eüskaraz ez da maskülino (ar) eta feminino (eme) generorik, salbüespen horik ekialdeko eüskalkietan düttügü haboroenik, hots behenafarreraz eta zübereraz, dela herritargoan (*eüskaldüntsä, xiberotarsa*), dela ofizio elibaten izenetan [...].

Erran delako *-sa* atzizki hori üsatüz kanpo erabilten dügularik eüskaldün zaharrek, ez da konplimentüz. Hala nola Bordabeherako etxekandereaz erraiten delarik *bordabeherasa*, ez da haren goratzeko, aitzitik emazte arrunta dela erraiteko da, agian züzen kontre. Bena mintzajeaz ari niz heben, eta ez beste zerbaitez, bereziki ez andere baten balizko mail eskasaz. Haatik iparralde hontan, nor behatzen da orano Euskaltzaindiaren aholküer eta ni bezalako zaharroten erraner?²⁷⁵ (Davant 2006)

1.8.7.3. *Ancora vivo e in salute*

Badirudi ekialdeko egungo hiztunek (bereziki zuberotarrek), *-sa* atzizkiaz denaz bezainbatean, muzin egiten diotela Euskaltzaindiaren aholkuari. Horrela, han-hemen entzun eta irakur daitezke haren bidez sortutako femeninozko formak. Zuberoako AEK-k antolatutako ikastaldiko inpresioak kontatzean, Aurkenerenak irakasleak bere burua aurkezten dueneko mementoa dakar: “Nor hiz hi? Eta nor bestea? Ni Odette Mohorade irakaslesa nük eta hau Jean Claude Sehebiague, eta horko hori Jüje Etxebarne. Eta bihar Junes Casenave jinen dük!” (2003: 23). Bestenaz, *Herria* aldizkarian ez da batere arraro *-sa* formarik aurkitzea; hona 1990eko hamarkadako lau etsenplu:

- *Joan ditela, haize hegoa lagun, gure pilotarisak. Gora atxik dezatela gure omena eta oroz gainetik izan ditela, gal edo irabaz, plaza-andere.* (“Emazteak Munduko Xapelgoan”, *Herria*, 1990-10-25)
- *Hogeita-hamar bat aizalek irautsi die lehiaketa hortan, bi epaile aitzinean, Ernest Alkat bertsulari famatüa eta Itxaro Borda eleberri izkiribazalea eta olerkarisa, biak Basa Nabarrakoak.* (“Xiberoko Botzaren besta”, *Herria*, 1993-5-13)

²⁷⁵ 2011. urtean Davant *Ahotsak* proiektuan elkarrizketatu dute, “*-sa* atzizki femeninoari buruz” izenburua duen bideoan ikusgai delarik (<http://www.ahotsak.eus/urrustoi-larrabile/pasarteak/ula-002-015/>). Atzizkiaren erabileraren inguruan Iparraldean dagoen “anarkiaz” mintzo da. Ondoko aipamenak, Jean Pujo ikastetxearen webgunetik hartuak, anarkia horren adigarri on dirateke: “Argitalpen zuzendaria: Nadine Ambielle anderea, ikastetxeko zuzendarisa” (“Legezko abisuak”, <<http://college-pujo.11vm-serv.net/articles.php?lng=eus&pg=15>>, eta “Ikastetxeko kirol elkartearen zuzendarisa M. Monga anderea da, eta kiroleko erakasle den Aurelie Boudes jaunak du animatzen” (“Ikastetxeko bizitza. Kirol Elkartea”, <<http://college-pujo.11vm-serv.net/articles.php?lng=eus&pg=29>>) [azken kontsulta: 2015-05-02].

- *Buberreki beste langile bat bada, idazkarisa (sekretarisa) bat, ekoizpeneko azken lanak egiten düitianak ere.* (“Made in Euskal Herria marka duen ekoizteak”, *Herria*, 1995-6-1)
- *Eskandala sortu da lehen ministroaren erantzun bati esker, bortizki mintzatu delarik Boutin andere diputatuaren kontra (ez dut idazten diputatusa). Andere diputatua hurtu da nigarrez eta gero xutitu eta joan da lehen ministroaren gana, baina uxerra hor ziren bidearen hesteko.* (“Telebixta leihotik”, *Herria*, 1998-12-10)

Zuberoako oraiko literaturan ere usu ageri dira *-sa* atzizkidunak. Etsenplu batentzat, bihoa Bedaxagarren *Alienor* pastoraleko lekukotza: *Beti herritik jin dira / Zaldünak eta zaldüntsak!* ‘chevaliers et amazones’ (80) & *Zaldüntsa arrahent honek / Ederrik ditu biloak!* ‘cavalière’ (194).

Kostaldetik hurbilago ere, eta guztiz gure denboran, *-sa*-dunik ageri da: “Lau jokolari eta jokolarisa bat aldizka gizon edo emazte diren pertsonaia batzuentzat. Irrealiterat jauste bat hasten dugu seriozki” (*Les Translatines* antzerki jaialdiaren egitaraua, Baiona, 2009). Ber hitza Hendaian ere: “Jokolarisa, margolari eta musikari baten inguruan, publikoa testu bidaia baten bizitzera gomitatua izanen da, hiri erdietatik urrun” (*Mai du Théâtre – Antzerkiaren Maiatza* jaialdiaren egitaraua. Hendaia, 2015).

1.9. Eratorpenezko morfemen mailegatzeaz: ondorioak

Euskarak eratorpen morfema sorta bat mailegatu die latinari eta geroko erromantzei. Azken mendeetako ukipen azkarreko egoera luzearen ondorioz, Zuberoako euskarak hainbat morfema hartu dio biarnesari; tesi honetan horietako batzuk baizik ez ditugu aztertu: *arra-*, *-aje*, *-dant/-lant*, *-ot* eta, beste maila batean, *-sa* atzizkia.

XVII. mendeko Zuberoan *arra-* aurrizkia arras ongi sartua ageri da. *Arra*-k errepikapenaren ideia adierazten du, bere etimoak bezala (lat. *re-*, Biarnoko gaskoiak iragazia). Aurrizkiaren eratorpen oinak izenak (*arraseme*), baina batez ere aditzak izaten dira (*arrasortu*). Hiztegiak Baxenafarroan ere kokatu dute *arra-*; aldiz, Lapurdin ez dateke erabili. Zuberoako euskara zaharraren corpusak honakoak erakusten dizkigu: a) zaharrago ala berriago izan, *erre-* hastapeneko hitzak oro maileguak direla; b) *arra-* hastea dutenen artean biarnesetikako mailegu andana bat dela, bai eta c) mailegu horien analisiaren ondorioz sortutako *arra-* aurrizkia duten euskal hitz eratorriak ere. Hainbatetan, zuberotarrek mailegatu formak azken buruan frantses hitzak dira, baina biarnesetik iraganak eta, beraz, gaskoiaren arau fonologikoetarik iragaziak. Morfemaren indarrari doakionean, *arra-* emankorra da aldi

historikoan gaindi, bereziki literatur tradizioan; izan ere, atzizki ugaritasuna lotua izaten ohi da literatur hizkuntzaren garapenari (cf. Sarasola 1986).

Zuberoako euskaran arras ohikoak dira *-aje* akabantza duten maileguak, hizkuntza emaileetan *-age* & *-adge* atzizkiei dagozkienak. Haietarik batzuek *-aia* aldaerak dituzte Zuberoatik kanpo, baina maizenik halako hitzak Zuberoan baizik ez dira usatuak. Mailegu multzo horren maiztasun altuak (corpuseko lehenbiziko testutik) Zuberoan *-aje* euskal atzizki bihurtzea justifikatzen du (*ondoraje*, *zurtaje*), iduriz Lapurdin eta Baxenafarroan gertatu ez dena, baina bai Penintsulako mintzo batzuetan: *adaje* ‘cornamenta’, *zuraje* ‘maderamen’ (cf. Azkue 1925: 22) —dena den, testuetan *-aje* atzizkia ez da biziki emankorra—.

KONTSUMITÜ *StJul* 967.

***MESKABI** ‘meskabatu’. Lhandek izenki huts gisara ematen du, *meskabo*, *meskabü* aldaerekin batean: “1° détérioration; 2° malheur, accident; 3° mésaventure” (s.v. “meskabi”). Guk dakigula, biarnesez ez da **mescabà* aditzik, *mescap* / *miscap* izena baizik: “Méchef, malehur, accident; ennui sérieux; déception, empêchement” (Palay s.v.). Aldiz, Larrasquetek aditz bezala jaso du: “[mésskábi] vint, être victime d’un accident, se détériorer (chose). Morph: *meskabi* inf. (*meskabien* et *meskabiko*, inf. fut) *meskabirik*, état qui suit l’action achevée. Fam: *meskabü* (dér)”. Aditz bezala, gure corpusean ez du agerraldirik, baina OEH-n XX. mende hastapeneko etsenplu bat datza: *Ürhent dakiola* [lanthareari hazkurria] *lürpian delarik, llabürski meskabiren da* (*Eskualduna* 30-10-1908, 4).

***PORROKI** ‘phorrokatu’. “La única forma documentada en la tradición septentrional es *p(h)orrokatu*, con excepción de part. *phorroki* en un texto suletino de *GH* (OEH s.v. “porrokatu”). Peillenentzat ñabardura semantiko bat egin daiteke *porrokatu* eta *porroki*

parearen artean: “PORROCATU: Gaur ez du «déchirer» adierazia, azken hori *ürratü* bailizateke; *porrokatü* ‘zaitu’ da eta *porroki* ‘itsuski zatikatu, zauritu, desegin’, adibidez: *begithartea phorrokirik, etxiak, artoak phorroki*” (1983a: 132).

PHORROKATÜ *StJul* 066 & 700; *Boubane* 48 & 50; *SteEli* 1150 & 1504; *UskLi* 223; *Meditacioniac* 179; *Ip Dial* 13.

SÜSTENGI ‘sostengatu’. *OEH*-n ez da agerraldirik; Lhandek ez du jaso, baina bai Larrasquetek: “*süstenga, süstengi, süstengatü, soutenir; - süstengien, süstengiko, süstengatiën, süstengatüko, devoir soutenir; - süstengiik, süstengatüik, soutenu, ayant soutenu. Empr: béarnais susténgue, soutenir.*” Gure corpusean agerraldi bakarra du: *Uskal-herrian bada erran zahar bat; Egiazko gizonak zuzen justua behar dila sustengi edo hil* (Chaho “Herritar ezinago maitiak” *AztBeg* XII) (Ariel, 1849-10-16). Chahok erran zaharra dela dioenean, noizkoa ote da? Errantza horretan *süstengi* zen, ala forma aldatu da? Ezin jakin. Nolanahi ere, Chahorena *süstengi*-ren lehenbiziko agerraldia da. Corpusetik kanpo beste hauek atzeman ditugu: *Goure egin ahalaz behar da sustengi / Ouhoure egiteko uchkal herriari.* (Lahuntsegoity: “Khantatzen hasten nuçu ez aratzou gabe”, *Eskualduna*, 1906, 48. zkia); *Harek bethi eta manera oroz sustengi dian gobernamentia* (“Altzuruku”, *Eskualduna*, 1915-1-22, 2. or.); *Behar duke sustengi behar orduko tzinkha houn horrek?* (“Behar orduko indarra”, *Eskualduna* 1915-2-26) & *Adosean larri eta, honhartü düe, eta antolazaleak ere beren maneran süstengi* (“Lakarrin kantari”, *Herria*, 1990-4-28, 1. or.).

SÜSTENGATÜ *Mst* I 13, 2; III 14, 2; III 26, 4 & III 35, 3; *IP* 5; *Mercy* 13; *Edipa* 639 & 853; *Xarlem* 3, 31, 67 & 554; *SteEli* 1118 & 1183; *Ip KurBD* 18.

***XEHEKI** ‘xehekatu’.

XEHEKATÜ *Mst* IV 2, 5; *UskLi* 123; *HOrdre* 204; *SGrat* 18 & 22.

49. TAULA. -i sail berriko partizipioak testuz testu.

		<i>akabi</i>	<i>arrabaski</i>	<i>arramarki</i>	<i>ataki</i>	<i>desaloki</i>	<i>deskanpi</i>	<i>enplegi</i>	<i>esprabi</i>	<i>esteki</i>	<i>ezkapi</i>	<i>kontserbi</i>	<i>süstengi</i>	
~1600	<i>O Pro</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
~1600	<i>Bela</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
~1600	<i>Zalgize</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1616	<i>Etchart</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1657	<i>O Po</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1666	<i>Tt Onsa</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1672	<i>Tt Arima</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1676	<i>PSing</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1696	<i>Bp</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1706	<i>Catolo</i>	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
1734	<i>Othoitce</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1757	<i>Mst (osorik)</i>	6	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	8	
1757	<i>IP</i>	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
1758	<i>Ressegue</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1770	<i>StJul</i>	-	-	-	1	-	-	-	-	-	8	1	10	
1780	<i>Mercy</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1782	<i>NLilia</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1785	<i>Egiat I</i>	6	-	-	-	-	-	2	-	-	12	-	20	
1788	<i>Bala</i>	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1	
1793	<i>Edipa</i>	4	-	-	1	-	-	-	-	-	3	-	8	
?	<i>Chiveroua</i>	-	-	-	1	-	-	-	1	-	-	-	2	
?	<i>Recoquillart</i>	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-	2	
?	<i>Pierris</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
?	<i>Pierrot</i>	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1	
?	<i>Planta</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	3	-	3	
?	<i>Saturna</i>	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1	
~1800	<i>Xarlem</i>	4	-	-	5	-	-	-	2	4	15	-	30	
~1805	<i>SteEli</i>	1	-	-	-	-	-	-	-	-	8	-	9	
1807	<i>Malqu</i>	-	-	1	1	-	-	1	2	-	-	-	5	
1812	<i>DKhirist</i>	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
1814	<i>UskLi</i>	1	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-	3	
1838	<i>Khurutch</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
1844	<i>Medit</i>	3	-	-	7	-	-	6	2	3	-	4	25	
1847	<i>Ip KurBD</i>	1	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	2	
1848	<i>CanBel</i>	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1	-	2	
XIX.	<i>Etch</i>	1	-	-	1	-	-	-	-	1	1	1	5	
1848	<i>Chaho</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1	2
1848	<i>Archu Fab</i>	1	-	-	-	-	-	-	2	-	3	-	-	6
1852	<i>MaiMarHil</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
1857	<i>Ip Dial</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1860	<i>HOrdre</i>	-	-	-	-	-	-	1	-	1	-	-	-	2
1862	<i>Myst</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1872	<i>CatS</i>	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	3
1873	<i>Urruty (dena)</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2
1879	<i>SGrat</i>	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1899	<i>Catuchuma</i>	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
		34	1	1	20	1	1	11	10	10	58	9	1	157

Azkenik, 50. TAULAK forma berrien eta beren *-tü* kideen arteko banaketaren bilakaera laburbiltzen du: i) XVII. mendean zehar ez da *-i* sail berriko formen agerraldirik; ii) XVIII. & XIX. mendeetan forma berriak azaleratzen dira, eta *-tü* kideekin batean erabiliak dira; ta iii) prozesuaren burutzeak banaketa osagarria eramaten du, zeinaren arabera *-i*-dun forma berriak partizipio perfektiboaren eta prospektiboaren funtzioak beteko dituzten, eta *-tü* saileko kide zaharrek aditzoinarenak eta partizipio inperfektiboarenak.

50. TAULA. *-i* sail berriko formen eta beren kide zaharren banaketa.

	XVII. m.	XVIII - XIX. m.	emaitza
ADITZOIN	<i>akaba</i>	<i>akaba</i>	<i>akaba</i>
PART. PERFEKTIBO	<i>akabatü</i>	akabi/ <i>akabatü</i>	akabi
PART. INPERFEKTIBO	<i>akabatzen</i>	<i>akabatzen</i>	<i>akabatzen</i>
PART. PROSPEKTIBO	<i>akabatuko</i>	akabiko/ <i>akabatüko</i>	akabiko

3.4. Hurbiltze diakronikoa: *-i* berria vs. *-tu* lehia

Orotara, *-i* sail berriko partizipio guztietan lehen agerraldia 1706koa da: *akavi* (*CatOlo* 92). Behin azaleraturik, partizipio berriek ez zituzten *-tu* saileko kideak berehala ordezkatu. Tarte batez *-i* & *-tu* moldeetako partizipioak lehiatuko ziren, aditz batzuetan luzeago besteetan baino. Ordezkatzearen klarkiago ikusteko, hobe da aditzoinaren formak baztertzea, *-i* partizipio berriak salbuespen bakanekin baizik ez direlako aditzoin gisara agertzen (agerraldi guztien %1,5etan inguru). Horrela neurtuz, 1706-1879 bitartean partizipio berriak garatuko dituzten aditz guztiendako halako oreka bat ikusten dugu: *totum revolutum* batean, 160 bat agerraldi *-i* partizipio berrientzat eta 180 bat *-tu* kideentzat.

Agerraldi horiek garaika kokatzean ohartzen gara *-i*-dun berriak pisua hartuz doazela XVIII. eta bereziki XIX. mendean gaindi. Nolanahi ere, bilakaera garbiago sumatzen da aditz batzuetan bestetan baino: *akabi* 1706an azaleratzen da lehenbiziz (*CatOlo* 92) eta *akabatu* azken aldiz 1734an lekukotzen dugu (*Othoitze* 7); *esteki* XIX. mendearen hastapenean hasten da agertzen (*Xarlem* 928), eta *estekatu* 1873 artino (*EvS* 18, 12) aurkitzen ahal da. Zenbaitetan *-i*-dun forma berria are berankorragoa da; horrelakoa da *phorroki*-ren kasua: gure corpusean *phorrokatu* baizik ez da ageri —*phorroki* corpusetik landako bi testu berankorretan atzeman dugu—. ³⁰³

³⁰³ Eztirok egin dantzarik, / bizkarra eta menbriak oro / joka ditit phorrokirik (Baküs 340); Hiruak gütie phorroki / erremisione gabe (Baküs 419); Oro phorrokirik nün / eta ezin erremedia (Baküs 586); Gaixkigile elibatek

Azkenean, erran daiteke *-i-dun* partizipioen multzo berria azken mendeetako zubereraren berrikuntza dela, egun inguruko herri batzuetan forma bat edo beste lekukotu delarik. Multzo oso ugaria ez bada ere, bilakabide arrakastatsua gertatu da, zeren garai berriago batean eredu zenbait euskal partizipiotara ari baita analogiaz hedatzen: *phorroki* ‘phorrokati’ & *xeheki* ‘xehekatü’ ez dira gure corpusean, baina bai zenbait testu berankorretan (§ 3.3). Gauzak horrela, ezaugarriak gure egunetaraino iraun du, menturaz azkarrago: “Egun ere adibide ugari entzuten da Zuberoan: *akabi*, *arrabaski* ‘arrabaskatu, xehatu’, *desaloki* ‘dislokatu’, *enplegi* ‘baliatu’, *esprabi* ‘proba egin’, *esteki*, *erremarki* ‘ohartu’, *porrokhi* ‘porrokatu’, *xeheki* ‘xehekatu’. Egungo mintzoan Amikuzeko Bithiriñan *espaakiik* ‘eskapaturik’ bildu dugu guk” (Camino 2014 § 2.4.5.5); *deskargi* forma ere ageri da Amiküzen: (Camino 2016: 405).

51. TAULA. Partizipio berrien lehen agerraldia eta *-tu* kideen azkena.

1706	<i>akabi</i>	<i>akabatü</i>	† 1734
~1750	<i>esprabi</i>	<i>esprabatü</i>	† 1873
1770	<i>ataki</i>	<i>atakatü</i>	† 1800
1757	<i>ezkapi</i>	<i>ezkapatü</i>	† Pierris (?)
1770	<i>kontserbi</i>	<i>kontserbatü</i>	† 1873
1785	<i>enplegi</i>	<i>enplegatü</i>	† 1812
1788	<i>desaloki</i>	<i>desalokatü</i>	?
XVIII.	<i>deskanpi</i>	<i>deskanpatü</i>	† 1836
~1800	<i>esteki</i>	<i>estekatü</i>	† 1873
1807	<i>arramarki</i>	<i>arramarkatü</i>	† 1814
1848	<i>arrabaski</i>	<i>arrabaskatü</i>	† 1869
1849	<i>süstengi</i>	<i>süstengatü</i>	[bizirik]
XIX.	<i>phorroki</i>	<i>phorrokati</i>	† 1857
XX.	<i>xeheki</i>	<i>xehekatü</i>	† 1879
1904	<i>meskabi</i>	<i>meskabatü</i>	[bizirik]

phorroki dütiela Maulen (Herria, 1969-10-30); Plastre gaixua bortizki io dü, eta untsa phorroki (Herria, 1972-7-20).

3.5. Partizipio berrien jatorriaz

Zuberoako *-i* aditz sail berriaren jatorriak esplikabide posible bat baino gehiago du. Aukerak azaldu ondoan hipotesi bat formulatuko dugu.

3.5.1. Euskararen barneko garapena

3.5.1.1. Euskal partizipio zaharrekiko analogia

Ideian sakondu gabe, hizkuntzalari batzuek *-i*-dun partizipio berriak *-i*-dun aditz zaharrekin lotu izan dituzte. Haritschelharrek ez zuen preseski adierazi: “Bien qu'en général les participes en *i* soient issus de radicaux préromans dans la plupart des dialectes basques, le souletin construit en *i* des radicaux romans” (1969: 87). Caminok bi hipotesi aipatu du: “Bearnesearen eraginez izan dela pentsatu da, baina euskarazko *-i* partizipio atzizkiaren balizko analogia ere gogoan izan liteke” (2011: 126), eta geroko lan batean zehatzago mintzo da: “Biarnesean ikusi da berrikuntzaren hazia, eta *-i* erako euskal partizipioek ere lagundu dukete gara dadin” (2014 § 2.4.5.5). Lotura hori egiteak *-i* berria euskal aditz zaharrekiko analogiaz ageri datekeela dakar inplizitu: *ebili, egorri, estali* gogoan (bai eta, menturaz, *iduki, idoki, urthuki* bezalakoak ere),³⁰⁴ hiztunek *akhabatu, atakatu, enplegatu* → *akabi, ataki, enplegi* bidea egin dute.

Hipotesi horri arazo batzuk ikusten dizkiogu. Lehenik, multzo berri honetako *-i* ez da kentzen ahal aditzoinaren formarik sortzeko. Bigarrenik, *akabi, ataki & enplegi* bezalakoak agertzen direnean, funtsean XVIII. mendean, *-i* sail zaharra aspaldi ihartua zen —Oihenarten *aberatsi* ‘aberastu’ salbuespen arras bakana da, Caminok ohartarazi bezala (2011: 126)—. Aitzinekoari lotuz, fenomeno zergatik mugatzen da dozena bat aditzera? Hau da, historikoki aditz gehienak *-tu* atzizkidunak dira, eta haien saila baizik ez da emankor. Eta gehiago, zubereraz gainerako euskalkietan *-i* sailean iraun duen zenbait aditz zahar *-tu* sailera iragan da: *irakurtü, eskentü, (h)erakitü*. Hirugarrenik, hipotesi horrek ezin du azaldu zergatik *-i* sail zaharrekiko analogia ez den Zuberoatik kanpo gertatu.

³⁰⁴ Iparraldeko hiztunek *-ki* morfemadun aditzak *-i* sailekoak bailiran berranalizatu dituzte, *iduk, idok, urthuk* bezalako aditzoin forma berriak kreatuz. Fenomeno hori *-i* partizipio berrien kasik garaikidea da (cf. § 2.3).

3.5.1.2. *-ki* atzizki izen sortzailearekiko analogia

Beste aukera bat da *-i* berria *-ki* atzizki izen sortzaileari lotzea. Horren arabera, eta formalki partizipio bezala portatu arren, *akabi*, *esteki* & *ezkapi* moldeko formek nolabaiteko izen-tasuna lukete, hastapenean bederen; horrek inplikatzan du *ezkapatu da* & *ezkapi da* pareak garai batean ñabardura semantikoak zituzkeela. Azken buruan, ideia honek *ezkapi da* gehiago aditz perifrasi ala kopula den gogoetatzera garamatza. Ekialdeko euskararen atributuen eta kopularen mugagabearen emateko joerak aski ilun dezake afera: *Hounki gin ciradiela* (*SteEli* 1099 & 1426) formularen badakigu *hounki gin* ‘bienvenu’ atributu dela, eta *ciradiela* ‘soyez’ aditz nagusia.

Corpuseko adibideak aztertu eta, ez dugu *-i* multzo berrikoen eta haien *-tu* kideen arteko diferentzia semantikorik atzeman; gehienez ere, aditz bakanetan argudia liteke zerbait.³⁰⁵ Erran den bezala, *-i* berriaren forma guztiek ez dute ber bilakaera (§ 3.4); *-tu* partizipioa guztiz ordezkatu denean (*akabi*), pentsatzekoa da forma berriaren izen-tasuna ezin dela mantendu. Beharbada, *-i*-dun forma berrien izen-tasuna sorburuan proposa liteke, haien bilakaerak aditz-tasun osoa hartzera eramane baino lehen. Hein batean, horrelako zerbait gertatzen dateke beheiti iruzkinduko den zenbait lokuziotako osagai nominalekin (§ 3.6).

3.5.2. Euskaratik kanpoko eragina

Gure ikusteko maneran, *-i* sail berriko partizipioak geografikoki hain eremu dialektal batera mugatu, funtzionalki hain mailegu konkretuetara hertsatu, eta diakronikoki hain berri izateak beste zerbaitetara seinalatzen du. Bada, biarnesaren eragina aipatu izan da *-i* berriaren azaltzeko (Camino 2011: 126 & 2014 § 2.4.5.5; Padilla-Moyano 2013a: 272). Izan ere, proposa daiteke *-i* berri honen jatorria gaskoiaren aditz morfologian datzala, zehazki indikatiboaren orainaldiko 1. pertsona singularraren morfeman. Hau da, biarnesez —gaskoiaz oro har, baina ez okzitaniara osoan— *acabar*, *atacar*, *emplegar* edo *conserbar* aditzak honela jokatzen dira aipatu forman: *acabi*, *ataqui*, *emplegui*, *conserbi*. Erran behar da *-i* desinentzia hiru aditz sailei komuna dela (*-ar*, *-er*, *-ir*), III. sailekoek aldi berean atzizki inkoatiboa hartzen badute ere: *mourir* → *mourisqui*.

³⁰⁵ Peillenek aldea ikusten du *phorrokati* & *phorroki* parean: “Porrocatu: Gaur ez du «déchirer» adierazia, azken hori «ürratü» bailitzateke; porrokatü zatitü da eta porroki «itsuski zatikatu, zauritu, desegin»; adibidez: begithartea phorrokirik, etxiak, artoak phorroki.” (1983a: 132).

52. taula. *-i-dun* partizipio berriak: biarnesaren eragipena.

Gaskoiaren infinitiboak	1. pertsona	Zuberoako forma berriak
<i>acabar</i> ‘achever’	<i>acabi</i>	<i>akhabi</i>
<i>arravascar</i> ‘ravager’	<i>arravasqui</i>	<i>arrabaski</i>
<i>arremarcar</i> ‘remarquer’	<i>arremarqui</i>	<i>arramarki</i>
<i>atacar</i> ‘attaquer’	<i>ataqui</i>	<i>ataki</i>
<i>conservar</i> ‘conserver’	<i>conservi</i>	<i>konserbi</i>
<i>desalogar</i> ‘disloquer’	<i>desalògui</i>	<i>desaloki</i>
<i>descampar</i> ‘décamper’	<i>descampi</i>	<i>deskanpi</i>
<i>emplegar</i> ‘employer’	<i>emplegui</i>	<i>enplegi</i>
<i>espravar</i> ‘éprouver’	<i>espravi</i>	<i>esprabi</i>
<i>estacar</i> ‘attacher’	<i>estaqui</i>	<i>esteki</i>
<i>escapar</i> ‘échapper’	<i>escapi</i>	<i>ezkapi</i>
<i>susténguer</i> ‘soutenir’	<i>sustengui</i>	<i>süstengi</i>

3.5.3. Gure hipotesia

Euskararen barneko garapenari doakionean, *-i-dun* partizipio zaharrekiko analogiaren hipotesiak ahulgune nabarmenak ditu (§ 3.5.1.1), bederen faktore bakar gisara proposatua izateko. Hizkuntzaren barneko logikari pentsa, gure ustez *-ki* atzizki izen sortzailearen erakarpenak pisu handiago luke, horri ere zerbait oposa dakioketarik (§ 3.5.1.2). Azaldu dugun hirugarren hipotesia garatuko dugu orain, hots, biarnesaren eragipena postulatu duena.

Azken mendeetako biarnes-zuberera hizkuntz ukipen azkarrean kokaturik, Zuberoako euskaldun anitzek biarnesa ikasi dute, eta euskarari ukipen horren ondorioak nabarmenak dira maila guztietan (cf. ATALASEAN, § 3.4.4.6). Orainaldiko 1. pertsona singularra maiztasun altuko elementua izanik, biarnes batekin tratatzean zein-nahi zuberotarrek maizen entzuten zituzkeen *acabi*, *ataqui* & *emplegui* bezalakoak. Biarnesaren agerpen nabarmena duen *Chiveroua eta Marceline* izeneko fartsan ondoko berseta irakur daiteke:

Que men fouti de tout! [= Je m’en fiche de tout]

enaiq idequiren etche hountariq,

Marcelina beharbitut jcousi

jalqui gabe hebetiq. (269)

Elebidun izan gabe ere, logikoa da pentsatzea zuberotar anitzek halako perpauk puskak ikasiko zituztela, eta baliatuko, *que m'en fouti de tout* 'denetaz futitzen naiz' bezala — bidenabar, euskarak *fouti* formaren bidez mailegatu duke *futitu* aditza.³⁰⁶

Bestalde, biarnesaren eraginaren hipotesia guztiz koherentea da Penintsulako euskararen gertatu den fenomeno paralelo batekin, haren helmena oraingoz mugatuago bada ere. Ezen *akabo*, *eskapo*, *espero*, *fio* eta *paso* bezalakoetako *-o* gaztelaniaren adizkeraren bidez esplikatzeko ahal da.³⁰⁷ Horrela, AKABO sarreran honakoa dio OEH-k: "Parece que se trata, en último término, de rom. *acabó*, 3.^a sing. del indefinido" (s.v.). Beste forma batzuetan etimologiek orainaldiko 1. pertsona singularrera seinalatzen dute: "Badirudi sorreran gazt. *fío* dela, *fiar* 'fidatu' aditzaren indikatiboko orainaldia, lehen pertsona singularreko forma; cf. *espero*, *ameto*. (*Euskararen Hiztegi Etimologikoa*, s.v. "fio").³⁰⁸ Zerrenda luza daiteke: *kitto*, *paso*, *planto*, eta beharbada *inbido*.³⁰⁹ Dena den, ezin ahantz daiteke Urgellek (2016a: 296) sail honetako formak atzeranzko eratorpenaz azaldu dituela, *-atu* bukaeradun partizipioetarik.

³⁰⁶ Frantsesezko kidea aski diferentea da: *foutre* aditza "Ne pas se soucier, se moquer (de quelque chose, de quelqu'un). *On s'en fout; ils se foutent de nous*" (TLFi s.v. *foutre*). Biarnesezko *que m'en fotti de tot* frantsesera bihurturik: *je m'en fous de tout*.

³⁰⁷ Kasu honetan ere inork proposa lezake euskararen barneko bilakabide bat, *-o* bokalismoa agertzen duten aditzekiko analogiaz (*igo*, *irago*, *emon*...). Gure ustez lotura hori ahulegi litzateke: Zuberoako *-i* sail berria azaltzeko *-i* partizipio zaharrekiko analogia baino ahulago, bederen.

³⁰⁸ Gaztelaniari mailegatu adizkia iraganaldiko 3. pertsona ala orainaldiko 1.a den beharbada formaka aztertzekoa da, argudio pragmatikoetan oinarrituz. Hau da, *akabo* edo *eskapo* formetan 3. pertsonaren hipotesiak pisu handiagoa badu (< *se acabó*, *se escapó*), *espero* edo *fio* formen mailegatzea sinesgarriagoa da 1. pertsonatik abiatuta (< *espero*, *me fio*). Nolanahi ere den, *-o*-dun formekiko paraleloaren indarra aditz forma jokatuak izatean datza.

³⁰⁹ Penintsulako euskalkietan mailegatze molde honek bizirik irauten du. *Paso egin/eman/izan* lokuzioez gain, adibidez, hiztegiek oraino jaso ez duten *paso egin* 'futitu' erabiltzen da gazteen artean (cf. gazt. *pasar de*); orobat erran daiteke *eskapo egin* lokuzioaz, oraino OEH-tik absente.

53. taula. 1. pertsonako forma jokatuaren mailegutza mendebaldeko euskaran.

gaztelania	euskal aditz perifrasiak
(yo) <i>acabo</i>	<i>akabo izan</i> ‘achever’ (cf. zub. <i>akabi</i>)
(yo) <i>admito</i>	<i>ameto izan</i> ‘admettre’
(yo) <i>escapo</i>	<i>eskapo izan</i> ‘échapper’ (cf. zub. <i>ezkapi</i>)
(yo) <i>espero</i>	<i>espero izan</i> ‘avoir de l’espoir’
(yo) <i>me fío</i>	<i>fio izan</i> ‘avoir confiance’
(yo) <i>paso</i>	<i>paso egin</i> ‘s’en ficher’
(yo) <i>me planto</i>	<i>planto egin</i> ‘s’arrêter’

Hori erranik, *-i* eta *-o*-dun formak ez dira guztiz parekagarriak. Batetik, *-o*-dun multzoko forma batzuk Zuberoako *-i*-dun partizipio mailegatuak baino zaharragoak dira, eta haietarik batzuk orokorrak ere (cf. Ip. *akhabo*); bestetik, *-o*-dunen multzoak ez du oraino aditz-tasun osoa erdietsi, hots, *light verbs* edo erranbide gisara erabiltzen dira, *egin/eman/izan* aditzekin konbinaturik. Nolanahi ere den, Hegoaldeko *eskapo* eta Zuberoako *ezkapi*, gure ustez, bi fenomeno guztiz paraleloren emaitzak dira.

Azkenean, Zuberoako *-i* molde berriaren sorrera biarnesaren eraginaren bidez azaltzea proposatzen dugun arren, deusek ez du galarazten hizkuntzaren barneko logikak ere nolabaiteko indarra eragin lezan, Caminok dioenez (2014 § 2.4.5.5). Beraz, guk biarnesaren eraginaren hipotesiari emanen diogu lehentasuna, hiru arrazoitan oinarriturik: i) euskalkien artean zubererak jaso du gaskoiaren eraginik sakonena, azken mendeetan bederen —hots, aztertzen dugun ezaugarria ageri den garaian; honek, hein batean, esplikatzeko du zergatik *-i* sail berria ez den apenas Zuberoatik kanpo ageri—; ii) indikatiboaren orainaldiko 1. p. singularra maiztasun handiko elementua da, pisu aski duena berrikuntzaren sorrera justifikatzeko; eta c) Penintsulako euskalkietan fenomeno bera gertatu bide da: *akabo*, *ameto*, *eskapo*, *espero*, *fio*, *kitto*, *paso* & *planto* bezalakoetako *-o* gaztelaniaren adizkerak eragin duke.

3.6. Bestelako *-i*-dunak: *bali*, *bezt*, *dependi*, *fini*, *jelosi*, *parti*, *plañi*

Puntu honetan Akitaniako euskaran ohikoak edo ez hain ohikoak diren beste *-i*-dun formak iruzkinduko ditugu. Oro bildurik ekarri arren, halako formak prozesu desberdinen ondorio dira eta, beraz, azalpen diferenteak behar dituzte.

FINI. Euskaraz *-itu* akabantza duten zenbait aditzek *-i* moldeko formak dituzte lehian, beren aditzoinetarik abiatuak izan ala ez. Iparraldean *fini* normalean partizipioa eskatzen duten testuinguruetan baliatzen da: “Expr. equivalente a *se ha terminado, se acabó*” (OEH s.v.); “Fini, adj. *fini, akabo* (invariables)” (Lhande s.v.), maiz FINI IZAN lokuzioan erabilia.

Formaren jatorria fr. *fini* partizipio edo adjektiboa izan daiteke. Laguntzaile iragangaitz ala iragankorrez jokaturik, *fini*-ren balioak bat egiten du *finitu* partizipioarenarekin: *Orai, fini duta?* (Larz “Herriko bozak”, 3. gert.) & *Lamiaren kondaira hortan dut finitu* (Bordel “Segeturik ez”).

PLAÑI. *Fini* formaren antzekoa da: bada *plainitu / pleinitu / plañitu* partizipioa, baina *pleinu / pleini* izan lokuzioa ere existitzen da (zub. *plañu / plañi* izan): *Zure eta ene amodioa plañi düzü mündia* (Michel 1857: 428); *Enük plañi deusetan, / enezala khexa erazi, / eztükek hire profetia / eta ene erranetan bai* (*Cabalçar eta bere familia* 38); *Ihue ezta plañi traje tzirrista bat bizkarreti gainti ükhenik* (J.B. Mazéris *GH* 1933, 303 *apud OEH* s.v. “pleinu”). Lokuzio honetako osagai nominala *plainu/pleinu/plañu* izena da, baina zergatik ageri da *-i* bukaera? Pentsa liteke aditzoinaren forma hartu dela edo, bestela, zubereran *plañu* (det. *plañia, plañiak*) → *plañi* berranalisia gertatu dela?³¹⁰ Azkenik, ezin da biarnesaren eragina baztertu: *planher > plañitu* etimologia gardena da, eta berriz ere baliteke *jo que planhi* ‘pleinitzen naiz’ → *plañi niz* mailegatze zuzena ere.

DEPENDI. Egungo Iparraldean aski hedatua da *dependi izan*, molde iduriz berria. Ez *OEH*-k, ez *EKC*-k, ez dute adibiderik jaso; agerraldirik ez, halaber, gure corpusean.

BEZTI. Aldiz, *bezt* (*izan, egon, ibili...*) arazorik gabe aurkitzen ahal da testuetan: *OEH*-k Harismendy, Argaignarats, Hiribarren, Elissamburu, Zalduby, Larzabal, Xalbador eta Casenave-Harigile idazleengan lekukotu du, eta *EKC*-k gutxienez Duvoisin eta Lafitterengan ere —zerrendak hedadura geografikoaren berri argia ematen du—. Zuberoan, egun, Maider Bedaxagarrek lau aldiz baliatu du pasarte berean: “*Bena ez dira horregatik gizonez bezt: argazkian ageri den bezala, oro arropaz bezt dira. Hérellek idazten dü: « gizonez bezt diren emazteek arropa llabürrak dütüe, belhainetara heltzen direnak, [eta] emaztez bezt direnek aldiz, arropa lüzeak dütüe, lürrela artio heltzen direnak »*”. (Bedaxagar 2014: 9).

PARTI. *Partitu* aditzarentzat, *parti* forma inoiz partizipioaren funtzioan aurkitu da: “La forma de participio *parti* se documenta en un texto baztanés del s. XVIII” (*OEH* s.v. “partitu”).

³¹⁰ Mota honetako berranalisia ezagunagoak dira kontrako norabidean. Hau da, Zuberoako eufonia bokalikoa direla medio, hitz bukaerako *-i, -e* & *-ü* bokalak *-i* bihurtzen dira deklinatzean edo beste zenbait atziki eranstea; ondorioz, hitzunek elearen jatorrizko itxuraren kontzientzia gal dezakete, berranaliaren bidezko formak kreatuz: *infame, konforme, triate* (*infamia, konformia, triatia...*) → *infamu, konformu, triatu*. Beraz, temak *-i* duenean gerta daiteke beste bokal batean berranalizatzea, baina maiz zaila da aipatu fenomenoala *i – ü > ü – ü* harmonia gertatu den erabakitzea: *zübi, üzki, hazkürrü* → *zübü, üzkü, hazkürrü*.

Beharbada, pentsa liteke *fini* arrakastatsuaaren parekoa izan zitekeela *parti*, baina arrakastarik gabe. Hau da, nonbait *je suis parti, il est parti...*

BALI (*bali izan* “ser válido, valer”; *OEH* s.v.) erranbidearen kasua diferentea da, ez baita **balitu* aditzik. *OEH*-ren arabera, lehenbiziko agerraldia 1766koa dateke, eta sustut XX. mendean lekukotzen da: Bali *bekit gaur zuri, koplá ematea, / ene egon-tokiari, agur egitea* BertsZB 144. *Aita Saindu berri baten hautatzea deliberatu zuten, mementokoaren hautua bortxazkoa zelakotz etzela* bali. Zerb IxtS 107. *Ba... Zure kofesioa* bali *da, eta hura berritz eni ez aipha*. Larz Senper 38. Gure corpusean behin baizik ez da ageri, 1807koa den fartsa batean: *Hüra badien, bali ala ez, / ahal dakizü ingoiti* (*Malqu eta Malqulina* 541), eta *EKC*-ren emaitzak ere urriak dira: Larzabal (lau agerraldi), Uriarte (behin) eta Lafitte (behin).

JELOSI. Azkenik, *jelosi* formak, *jelosi izan* lokuzioan erabiliak, bi azalpen onartzen du. Lehenean, *-i* bat erantsi da (cf. gask. *jelous* → eusk. *jelos*), menturaz *-i-dun* bestelako aditz lokuzioekiko analogiaz: *bali izan, fini izan, plañi izan* → *jelosi izan*. Bigarreanean, bidea *jelosia* → *jelosi izan* daiteke. Forma hori jada Leizarragak ematen du: *Çueçaz ielossi dirade* (*Lç Galat* 4, 16) & *Ecẽ ielossi naiz çueçaz Iaincoaren ielosgoaz* (*Lç Cor II*, 11, 2). Zubereraren corpusean bildu ditugun etsenpluak XIX. mendekoak dira: *Eni eman abantailas / Jelosi beitçiren* (*Xarlem* 1255); *Emaztia xalanteki, harez nintzan jelosi* (Etch “Bi berset dolorusik”); *Ni han nintzanez jelosi* (Etch “Ahaide delizius huntan”) & *Bihotçaren jelossi da* (*Meditacioniac* 114). Aldiz, *-i* gabeko agerraldi bakarra dugu corpusean: *Bena jelos düütüzü* (*Saturna* 283).

Ikusi denez, azken puntu honetan bildu ditugun *-i-dun* formak ez dira *akabi, esteki & ezapi* sailekoen parekoak: ez dira partizipioak eta, beraz, ez ditzakete *-ko, -ren, -rik & -a* atzizkiak har. *Bali, beztí, dependi, fini, parti, plañi & jelosi* Zuberoan ez ezik, Iparraldeko mintzo guztietan hedatu den molde baten isla dira. *Akabi, esteki, ezkapi* moldekoekin loturarik egitekotan, beste forma hauek —eta bereziki ere *jelosi*— partizipio berrietako *-i-ren* jatorri nominalaren hipotesia indartzera letozke.

3.7. Ondorioak

XVIII. mendetik Zuberoako euskarak *-i* bukaerako partizipio sail berri bat garatu du. Forma berri horiek *-ko, -ren, -a & -rik* atzizkiak onartzen dituzte, partizipio perfektiboaren, part. prospektiboaren eta erresultatibozko formen funtzioak betetzeko. Bi aldiz aditzoin gisa ere lekukotu dira. Aditz multzo berrian biarnesari mailegatu zaizkion aditzak biltzen dira: *akabi, arrabaski, arramarki, ataki, desaloki, deskanpi, enplegi, esprabi, esteki, ezkapi, kontserbi, süstengi* eta agian *kontsumi*; orok beren kidea dute *-tü* sailean. Bi sailen arteko lehia XVIII.

eta XIX. mendeetan gaindi deskribatu dugu, lexemaka; lehiaren norabidea *-i-dun* berrien aldekoa da.

Ez dugu uste fenomeno hau euskararen barneko garapen hutsa den, *-i* atzizkidun euskal partizipioekiko zein *-ki* atzizki izen sortzailearekiko analogiaz, proposatu izan denez. Gehienez ere, *-i* sail zaharrak joera berria indartuko zukeen, hedakuntza berankor eta mugatu batera bulkatuz: *phorrokatu, xehekatu* → *phorroki, xeheki*. *-Ki* atzizkiarekiko analogiaz denaz bezainbatean, baliteke *-i* berridun formen sorrera ekialdeko euskararen barneko logika batek indartua izan zedin, *-i* forma berriak halako izen-tasuna atxikiz: zuberera historikoan anitzetan ez da argi egun [AD. NAGUSI + AD. LAGTZ.] hartzen duguna ez ote den gehiago [ATRIBUTU + AD. NAGUSI] egitura. Horrela izatera, *ezkapi* bezalakoak izen gisa erabiltzen hasi ziratekeen, eta denborarekin aditz-tasun osoa bereganatuko zuketena, gehienetan *-tu* saileko kideak osoki ordezkatzu.

Forma berrien jatorria biarnesaren eragipenaz azaldu dugu, hain zuzen ere gaskoiaren indikatiboazko orainaldiko 1. pertsona singularraren *-i* morfemaren bidez (*acabi, ataqi, emplegui*, etab.). Proposatu dugu, halaber, horren paraleloa bide dela Hegoaldeko euskararen, gaztelaniaren aditz joskeraren *-o* zenbait formatan azaleratuz: *akabo, ameto, eskapo, espero, fio, kitto, paso, planto*, etab.

-i-dun partizipio berrietarik landa, Iparraldean badira beste zenbait aditz perifrasi *-i-dun* osagaiekin. *Bali, bezti, dependi, fini, jelosi, plañi* formatako *-i* agerrarazi duten eraginak seguruenik ñabarragoak dira *akabi, esteki & ezkapi* bezalakoentzat argudiatu ditugunak baino.

4. Zenbait ohar partizipio imperfektiboaren formez

- 4.1. Sarrera
- 4.2. Partizipio imperfektiboaren formak
- 4.3. *-keta* atzizkia
- 4.4. *egorraite*
- 4.5. *-te* & *-tze* atzizkien arteko lehia
 - 4.5.1. Abiapuntua
 - 4.5.2. Kontsonante ozena + *-i* aditzak
 - 4.5.3. *-ki* aditz multzoa
- 4.6. *-n* multzoko aditzak
- 4.7. Ondorioak

4.1. Sarrera

Deus baino lehen, komeni da argitzea tesi honetan *partizipio imperfektibo* terminoa lehenetsi dugula.³¹¹ Sistemaren ikuspegitik aditzoinaz landako hiru formei *partizipio* deitura esleitzea koherente iruditu zaigu: part. perfektiboa, part. imperfektiboa eta part. prospektiboa. Atal honetan hauxe dugu xedea: Zuberoako testuetarik idoki daitezkeen datu interesgarrien ekartzea, eta haietarik ondoriozta litezkeen hipotesien edo aieruen proposatzea; ez gehiago, ez gutxiago. Iturri nagusiak Trask 1990, 1996 & 1997 eta, batez ere, Urgell 2006 dira. Imperfektibozko formen gaineko jakingarriak bildu ondoan (§ 4.2), honako puntuak jorratuko dira, Zuberoako testuetan xerkaturik: *-keta* atzizkia (§ 4.3), *-aiten* atzizkia (§ 4.4) eta *-te* & *-tze* atzizkien arteko lehia (§ 4.5).

4.2. Partizipio imperfektiboaren formak

Inperfektibozko formez denaz bezainbatean, Urgellen 2006ko lana abiapuntu ezin utzizkoa da. Bertan ordura arte genekiena bildurik, eta euskalki guztietako testu zaharren corpus zabal batean oinarriturik, autoreak deskripzio sistematikoa eta ondorio aberatsak eskaintzen dizkigu. Ideia orokorrak gogoratuko ditugu, gure lanaren iparrorraz gisara:

- Euskara historikoan inon ez da part. imperfektiboa atzizki bakarrarekin eratu.

³¹¹ Euskaritzaren tradizioan hauxe da barreiamendu terminologiko handiena pairatu duen forma jokatuabea. Euskarazko lanetan *aditz-izen* terminoa gailendu arren (Euskaltzaindia 2002), erdaretan bestelako ordainak baliatu izan dira: *gerund* (Trask 1995 & 1997), *imperfective participle* (Hualde 2003), *gérondif* (Lafitte 1944), *nom verbal à l'inessif* (Mounole 2006), *participe présent* (Mounole 2011). Afera terminologiko honen kontu zehatzago batentzat De Rijk-en azken lanera igortzen dugu.

- Eremu zabal batean (erdialde gehi ekialdean) *-te* & *-tze* atzizkiak baizik ez dira erabili.
- Garai historikoan *-te* ez da emankor, eta haren bilakaera errezesiboa da.
- Mendebaldeko hizkeretan bada polimorfismo ñabarra: *-eta*, *-keta*, *-te*, *-tze*, *-tzaite* gehi *-tu+te*, *-i+te*, *-i+tze* & *-tu+tze*.
- Partizipio inperfektiboa garapen modernoa da, Erdi Aroan kokatzekoa (Trask 1995 & 1997).

4.3. *-keta* atzizkia

*Cer koeinta dudan higati
En' ixil, eta
Maiz pensaketa,
Egonak siotsan nigati.*

1. IRUDIA. Oihenart 1657: 10

Mitxelenak (1971: 245) eta Urgellek (2006: 934) jatorri berekotzat jo dituzte *-eta* & *-keta* atzizkiak; aldiz, ez da segurua bietako zein den bigarrenkaria, *-keta* izatea egiantzekoa bada ere (cf. *FHV* 247-248). Manterolak (2015: § 4.6) **hetan* ikusi du bien jatorrian, hots, 3. graduko erakuslearen inesiboa, posizioaren arabera hasperena galdua (*-etan*) edo herskari bihurtua (*-ketan*). Urgelli jarraikiz, eta gure lanaren eremuari eragiten diolarik:

Es conocido que la forma *-keta* del sustantivador tiene una variedad de funciones en la zona septentrional y pirenaica que es en buena parte desconocida en el resto del País. No nos debería extrañar, pero no se suele encontrar citado, que haya un ejemplo prístino 'base verbal + *-keta*' (desde luego, en locativo) en Oihenart (*pensaketan*). Nos reafirma en la creencia de Trask de que fue extensión analógica a bases verbales lo que hay en el origen de las formas del gerundio, y en concreto de *-keta*. (2006: 935-936).

Bada, *-keta* atzizkiak badu nolabaiteko agerpena Zuberoako testuetan. Hasteko, Urgellek seinalatu *pensaketa* forma, Oihenarten testigantzarekin has (1)-(2) (ikus 1. IRUDIA) eta XVIII. mendean datatua den fartsa batekin buka (3).

- (1) *Nik dudan lana, / Ezin errana, / Zer koeinta dudan higati: / En'exil, eta / Maiz pensaketa, / Egonak ziotsan nigati.* 'Le tracas que j'ai ne peut se dire, ni le souci que j'éprouve à cause de toi. Mon silence et mon attitude souvent pensive parlent de toi.' (O *Po* III 4)
- (2) *Morroina beh' aurkintzetan / Baitzauten, aldarte hetan, / Zer egin ziroen, oldar bat, / egon zedin pensaketan.* 'Le jeune homme, qui les écoutait dans les parages, réfléchit un instant à ce qu'il pouvait faire dans ces circonstances.' (O *Po* XXVI)

- (3) *Igan triatila eta so orotarar eta jar kaidaran eta phensaketa. jaiki eta minza. (Caballar eta bere familia 9-did; Urkizu 1998: 121)*

OEH-k bi adieratan jasotzen du *phensaketa*. Lehena gerundiotik hurbil legoke: “Pensando. « En réflexion » *VocBN*; « En train de réfléchir, méditer. *Pentsaketa zagoen, il réfléchissait* » *Lhande*”. Hau Iparraldeko tradizioari dagokio, eta Zuberoatik kanpoko adibideak ondoko egileenak dira: Goyhetché 30, Etchamendy 203, Lafitte *Murtuts* 18, Jean Etchepare 69, 64, 68, 69, 95 & 108 eta Ardoy *SFran* 235. Aldiz, bigarren adieran *phensaketa* izenki huts litzateke: “Pensamiento, acción de pensar”.

Pentsaketaz gain, atzizkia beste hitz batean aurkitzen ahal da. Oihenartekin jarraituz *elhaketa* ‘solosaldua’ aipa dezakegu. *OEH*-k *eleketa* aldaera hautatzen du sarrera-buru: “Documentado desde el s. XVII (*elheketan* en Axular y *elhaketan* en Oihenart) en autores septentrionales; en el XX también lo usan algunos meridionales”. Honek ez luke aditz baliorik, baina *OEH*-k *eleketan* azpisarrera “conversando, hablando” dakar, eta horixe da Oihenartek lekukotzen duena (4). Zuberoatik kanpo Axularrek eta Duhalde, gehi XX. mendeko zenbait egilek osatzen dute lekuko zerrenda.

- (4) *Lagun-artean, / Hel nadinean, / Elhaketan, erhogoan, / Eznun dostatzen, / Eznun mintzatzen, / Hi beti, beti, aut gogoan. ‘S’il m’arrive d’être en compagnie, au milieu des bavardages et des folies, je ne m’amuse pas, je ne parle pas ; c’est à toi que toujours, toujours, je pense.’ (O Po III)³¹²*

4.4. Egorraite

Zubereraren corpusean partizipio imperfektibo irregular bat ageri da, guk dakigula beste inon lekukotu gabea: *egorraiten/igorraiten* ‘igortzen’. Forma hau lehenbizi Tartasengan aurkitu dugu (5), baina bereziki Eguateguyren lanetan ageri da (6)-(15), bai eta fartsa xaribariko batean (16), *Uscara Librian* (17) eta Chahoren izkribuetan ere (18); azkenik, XX. mendeko testu batean ere atzeman dugu (19). *Egorraiten* forma, beraz, urrun da hapax izatetik; halere, *OEH*-k ez du jaso. Aditz-izen forma honekiko bi aipamen irakurri dugu. Lehenbizikoa Darricarrèrek egin zuen (1911: 22), baina haren analisi makurra da.³¹³ Bigarrena Eguateguyren testuaren edizioan agertzen da, azalpenezko ohar batean: “*igorraiten*: (Z. zah):

³¹² Lafonen itzulpena (1955a: 7) aski librea izanik berdin hauta zezakeen frantsesaren gerundioa; ediziorako oharretan bere hautuaren berri ematen du: “*Elheketa* est pris ici dans une acception péjorative. Lhande, comme Azkue, donne pour ce mot les deux sens de « conversation » et de « loquacité ». *Elhe* peut signifier « discours vains, paroles en l’air, contes » (Lhande)” (1955b: 66).

³¹³ “*Igorraiti-a*, « envoyer », « le envoyer ». Le suffixe du substantif verbal *-iti-a* « le faire » se détache ici du tronc verbal *igorra* « le-envoi »” (1911: 22).

gaur *igorten*, bidaltzen” (Peillen 1983b: 170);³¹⁴ hori ez ezik, *igorrainen* da Peillenek Eguiateguyren euskara Pettarrako kutsua duela argudiatzeko aipatzen dituen bost hitzetarik bat (*ibid.* 10). Preseski gaztigitzen dugu gure corpusean *-aite* bukaera ez dela *egorri/igorri* aditzaz kanpo ageri.

- (5) *Ororen azquen chedia, eta basterra da herioa, hantic harat deusen eré ezquira veldur içanen, eta Iencoac eguiten ahaldian gratiaric handiena da, bere cerbutcariari herioaren, gratian igorrainia.* (Tt Onsa 172)
- (6) *Zeren aitoren semek ezütien ünñüdiak hobeki haitatzen? Zeren, ditian bezaiñ sarri sorthü kanporat igorrainen?* (Egiat I 4)
- (7) *Müindia doa itxasoaren pare, düttiano bagak botxiala porrokatzera igorrainen, Izariak gütü herioari, gure gora beheren botxia denari igorrainen, gure arhabüñkeriaz erri dü egiten, ta guk akabailla ezin sinhets heltüren dela.* (Egiat I 21)
- (8) *Bena profeta handiak bere psalmü 134ian dio Jinkoak bere thesauratik düttiala aiziak igorrainen.* (Egiat I 26)
- (9) *Dü bihotza haiñ tinko herxatzen nono odola igarain ezinez flakatürrik betago, hantik ere berze bizkaiak ere tenkatürrik, beren odoletik die laister bihotzaren zokhorriala igorrainen ta pairamen harez da begithartia [...].* (Egiat I 35)
- (10) *Athenaseko akadoiak hil erazi zian haiñbat zialakoz belier begiak ziskatzen, ta plazergei ütsütü zütianian hegaltaz igorrainen.* (Egiat I 38)
- (11) *Eriak hantik Frantziala airia arhinago delakoz düttia egorrainen ta han dirade sendotzen edo beren herrilat hiltzera berriz ethortzen.* (Egiat II 232)
- (12) *Franko ja ni azotatürrik, adioak ere erranik, ezagützen eztienetara dütt igorrainen eta esparantzan nago eskernio dereitzenetarik eman* (Egiat II 244)
- (13) *Eskelegoa ezta gizontziaren behar bat, bena bai mügaldia beldürrik erran behar e'lirokiana ezi pikarrai mündiala girade jiten ta mihise txar batetan trozatürrik hantik abiatzen, hantik Jinkoak güttiala eskele igorrainen ta deitzen dago proba, egiazki arren eskelegoaz zertakoz güñuke beldür* (Egiat II; Peillen 2011: 113)
- (14) *Hartakoz errumenak ziradianian 50 urtheğerrenean beren etxetarat zütien egorrainen.* (Egiat II 262-263)
- (15) *Berze errege hanitzek ere oberta izigarriak zütien tenplo hari igorrainen, alabadere pagano ziradian güziak.* (Egiat II 354)
- (16) *Hori dela kausa, Agremon eregia, / egorrainen nizü ziegana, / egiteko hori jüstizian / pleiteiatü behar düziela.* (Jouanic Hobe 74 & 112)
- (17) *Certaco ezteiztaçu amenx çoure berriac igorrayten?* (UskLi 221)
- (18) *Jauna, argiz eta loriaz beztiturik ziradiana, beha zite zure zerbutxariaren othoitzari, eta kunpli ezazu ene hobetan, zuri igorrainen dutudan deithoriak;* (Chaho AztBeg XIV: “Preces Sancti Nersedis Cantabrice” 24)
- (19) *Jaun erretor batek komitatzen zian bere! giltzaiña iganteoraz bazkaritara. Goxoki han biek büürüz-bürü bazkari egiten zien eta bizpahiru dritxo solasen alkarri igorrainen.* (Herria, 1974-11-21)

³¹⁴ Eguiateguyren bigarren liburukiaren edizioan, aldiz, Peillenek “bidaltzen” erran-nahiaren azalpen hutsa ematen dio irakurleari (2011: 12).

Bitzaitüren ‘berpiztuko’ forma iruzkintzean, Peillenek honakoaz gaztigitzen du: “Orain Z. *phiztüren*, *biztuko*. -*Aitü* aditz itxurak Eguiateguyk gogoko ditu; beharbada, eztakigun konnotazioa daukate -*tu* atzizkidun aditzek ez dutena (ikus *ikuraitü*, *igorraitü*, *ükhaitü*, etab.)” (1983b: 186). Bada, forma horiek miaturik, ikusten dugu -*aite* itxurako inperfektibo bakarria *igorraite* dela: besteak perfektibozko formen pean dira emanak.³¹⁵ Galdera pausatzen da: nola esplikatu *igorraite* formaren bukaera? Lot liteke *-tzaite* atzizki konposatua (Urgell 2006: 938-939) erakusten duten formekin? Ez dirudi. Gainera *igorri* aditzak ez luke piztuko silaba bakarreko aditz batzuek sorraraz dezaketen formaren luzatzeko beharra. Izan liteke “-*n* class of verbs” (Trask 1990) direlakoekiko halako analogia bat (*emaite*, *erraitte*, *igaraite* → *igorraite*)? Menturaz. Peillenek markatu bezala (*vid. supra*), Eguiateguyk bazuen halako joera -*aitü* partizipioen emateko, harengandik kanpo atzeman ez duguna; erran daiteke partizipioak “erregularatu” nahi izan zituela *ukhaiten* bezalakoen arabera (*ukhaite*-tik *ukhaitu*). Horretatik kanpo, *igorraite* formaren lekukotza zabalagoa da. Nolanahi ere den, testu gehientsuenek *egorte/igorte* erregularra dute ematen, -*te* ala -*tze* atzizkiekin:

- IGORTE- (Etchart 03, 1v; *CatOlo* 31; Mst IV 18, 3; Ressegue 17; *StJul* 514; *Xarlem* 295; *SteEli* 23; *DKhi* 80; *UskLi* 102; *CatS*; Chaho *AztBeg* IV; *Medit* 75; Ip *KurBD* 20; Archu *Fab* “Aitzin-Beghi”; Etchahun “Ahaide”; *CanBel* 175; *MaiMarHil* 54; Ip *Dial* 11; *HOrdre* 187; *EvS* 13, 20; *SGrat* 17)
- EGORTE- (*Edipa* 329)
- IGORTZE- (*Malqu* 483; Chaho *AztBeg* IV)
- EGORTZE- (Chaho *AztBeg* VIII)

4.5. -te & -tze atzizkien arteko lehia

4.5.1. Abiapuntua

Euskara Arkaikoaren eta bazterreko mintzoen geroko lekukotzatik ondoriozta daiteke -*te* atzizkia **e*-erro-*i* moldeko aditz zaharrei zein -V bukaeradunei eransten zitzaiela, bost enbor

³¹⁵ Eguiateguyk gutxienez behin ematen du *ukhaitü* ‘ukan’ (I 1), baina inperfektiboan beti *ükhaite/ükheite*, hots, -(*i*)*te* atzizkia baizik ez dio eransten. Antzekoa dateke *ikhuraitürik* (Egiat I “Hitzauria”), Peillenen oharrean “probatürik” gisara esplikatua (1983b: 33) —aldiz, *OEH*-n atzeman duguna *ikurazi* da—, eta orobat erran daiteke *bitzaitüren* ‘berpiztuko’ formaz (Egiat I 24), zeinari *OEH*-k sarrera bat eskaintzen baitio Eguiateguyren bi adibideetan oinarriturik. Bestenaz, ez dakigu zer den *pharaitü* (Egiat II 330), Peillenek “pairatu?” iradoki arren. Azkenik, Eguiateguyk maiz baliatzen du *kaltarraitü* aditza, Larramendiren “perseguir”, baina espero ez bezalako inperfektibozko formarekin: *kaltarraiten* (Egiat II 325 & 353).

motatara eramaten gaituena: 1) *-n* (*edate*); 2) *ozen + -i* (*irakurte*); 3) *txistukari + -i* (*ekuste*); 4) *-V* (*ozterate*); eta 5) *-gi/-ki* (*jalgite*) (Urgell 2006: 928). Lehenbiziko testuetarik *-te* atzizkiaren bilakaera errezesiboa da, haren lehiakide nagusiak *-eta* & *-tze* izanik mendebaldean eta ekialdean, hurrenez hurren. Bigarrenari dagokionez, Urgellek (*ibid.*) honela definitzen du berrikuntzaren gunea: hego nafarrera (Berriain), Garazi (Etxepare) eta Lapurdi (Etxeberri Ziburukoa eta Axular) bertize hartzen dituen triangelua. Ereku horretan 1545-1645 bitartean prozesua burutua da, emaitza egungo euskara baturako onartu den banaketa izanik: *-te* soilik *-n* eta *-S* bukaeradun enborrei eratzikitzen zaie. Ifrentzuan ekialde genuke eremu gordetzaileena, Aturrialdetik Zuberoaraino: bertan *-i* morfema hartzen duten gainerako aditzei ere *-te* eransten zaie (*ebilte*, *erorte*).

Ereku berritzaile eta gordetzaile horien arteko halako ebakidura bat deskribatzen du Urgellek, ekialdeko bi berrikuntzek definitua: a) [*-S + -te > i + S + -te*] irristariaren txertatzea (*egoizte*); eta b) *-S + -tze* (*hautse*). Bestalde, mendebalde eta ekialde bat datoz *-te* atzizkiaren indarraz, salbu puntu batean: ekialdean \emptyset partizipio marka duten aditzek *-tze* hartzen dute, baina mendebaldean *-te* (Urgell *ibid.*).

Orain arterainokoa da, *grosso modo*, *-te* & *-tze* atzizkien banaketa, 54. TAULAK erakusten baitu. Ekialdeaz denaz bezainbatean, bi puntu argitu beharra dukegu: 1) egiazki [*R + -i*] bukaeradun aditz guztiek beti *-te* hartzen duten; eta 2) egiazki \emptyset partizipio marka dutenek *-te* hartzen duten, bereziki *-ki* azpimultzokoek —Urgellek beste mintzoetarako aipatzen ditu, hala nola Otxoa Arinen *idukitze*—.

54. TAULA. *-te* & *-tze* atzizkien banaketa orokorra.

	mendebalde	erdialde	ekialde
<i>-n + \emptyset</i>	<i>emoite</i>	<i>emate</i>	<i>emaite</i>
<i>-S + -i</i>	<i>ikuste</i>	<i>ikuste</i>	<i>ikuste</i>
<i>-R + -i</i>	<i>erorte</i>	<i>erortze</i>	<i>erorte ?</i>
<i>-ki + \emptyset</i>	<i>edukite</i>	<i>edukitze</i>	<i>edukite/edukitzen ?</i>
<i>-V + \emptyset</i>	<i>betete</i>	<i>betetze</i>	<i>bethatze</i>

4.5.2. Kontsonante ozena + *-i* aditzak

Ezaguna da ekialdean *erori* & *ebili* aditzen partizipio imperfektiboak *erorte* & *ebilte* direla, hurrenez hurren. Caminok honela deskribatu du ezaugarriaren bilakaera Nafarroa Behereko euskararentzat:

-tu ez den beste partizipio atzizki bat duten aditzek ez dute Nafarroa Behereko euskara zaharrean aditz-izena *-tze* egiten, *-te* baizik; XIX. mendean ematen du nagusitzen dela *-tzen*; Nafarroa Behereko ekialdean, oraino ere bada *-ten* egungo ahozko mintzoan. (2008: 134).

Pare horretaz gain, erroaren bukaera kontsonante ozenean (praktikan dardarkari) duten aditzak ez dira anitz gure corpusean: *egari*, *ekharri*, *eragari*,³¹⁶ *erakharri*, *erori*, *ezarri*, *jarri*, *jezarri*, *ixuri*, *egorri/igorri* & *irakurri*. Bada, Zuberoako testuetan aditz hauen inperfektibozko formek kasu gehientsuenetan *-te* atzizkia dute. 55. TAULAK haien agerpena biltzen du, adizka. Espero dugun *-te* morfemadunentzat ez ditugu agerraldi guztiak zerrendatu, baina bai forma bata ala bestea lekukotzen duten testuak eta egileak; aldiz, *-tze* morfemadun guztien erreferentziak agerrarazi ditugu, gutxiengoan baitira.

55. TAULA. *-R + -i* aditzen partizipio inperfektiboaren formak Zuberoan.

<i>-R + -te</i>	<i>-R + -tze</i>
EBILTE: Oihenart <i>Pro & Po</i> , Tartas <i>Onsa</i> (<i>e-</i> / <i>i-</i>) & <i>Arima</i> (<i>i-</i>), Belapeire (<i>i-</i>) <i>Igantçtaco Pronoua</i> , Maister, <i>Saint Julien</i> , Eguiateguy (<i>i-</i>), <i>Edipa</i> , <i>Xarlem</i> , <i>Doctrina Khiristia</i> , <i>CatS</i> , Chaho, Archu (<i>i-</i>), Etchahun, <i>CanBel</i> , <i>MaiMarHil</i> (<i>i-</i>), <i>Mysterio</i> , <i>HOrdre</i> (<i>i-</i>), Anna Urruty, <i>Sen Grat</i> .	EBILTZE: Tt <i>Onsa</i> , <i>Pierrot eta Xarrot 203</i> (<i>i-</i>), <i>HOrdre 86</i> (<i>e-</i>), <i>EvS 6, 19</i> (<i>e-</i>).
EGARTE: Tt <i>Onsa & Arima</i> , Bp, <i>CatOlo</i> , Mst, Egiat, Inchauspe (<i>Kurutchiaren Bidiaren Debozionia & Elhestaldiak</i>), <i>HOrdre & Myst</i> .	ERAGARTE (<i>ez</i>)
EKHARTE O <i>Pro & Po</i> , Tt, Bp, <i>Othoitce</i> , Mst, <i>StJul</i> , Mercy, Egiat, <i>Edipa</i> , <i>Xarlem</i> , <i>SteEli</i> , <i>Malqu</i> , <i>DKhirst</i> , Chaho, <i>CatS</i> , <i>Petitun</i> , <i>CanBel</i> , <i>Khurutch</i> , <i>Medit</i> , Archu, Etchahun, Ip <i>Dial</i> , <i>HOrdre</i> , Urruty, <i>SGrat</i> & <i>Catuchuma españoul</i> .	EKHARTZE: Chaho <i>AztBeg IX</i> .
ERABILTE (<i>ez</i>)	ERABILTZE: Chaho <i>AztBeg IX</i> .
ERAGARTE: <i>HOrdre 195</i> .	ERAGARTZE (<i>ez</i>)
ERAKHARTE: Tartas <i>Onsa & Arima</i> , <i>CatOlo</i> , <i>Othoitce</i> , Mst, <i>StJul</i> , <i>Bala</i> , <i>Jouanic Hobe</i> , <i>Edipa</i> , <i>CatS</i> , <i>HOrdre</i> , Urruty.	ERAKHARTZE: Mst III 34, 2.

³¹⁶ *Egari* ‘jasan, pairatu’ aditzaren forma kausatibo hau *hapax legomenon* batentzat har daiteke, agerraldi bakarra 1860koa izanik: *eragartez* (*HOrdre 195*); ikus § 6.3.2.3.

ERORTE: Oihenart <i>Po</i> , Tartas <i>Olsa & Arima</i> , <i>PrS</i> , Belapeire, <i>CatOlo</i> , <i>Igantçtaco Pronoua</i> , Maister, <i>StJul</i> , Egiat, <i>Edipa</i> , <i>SteEli</i> , <i>DKhirst</i> , <i>UskLi</i> , Chaho, <i>CatS</i> , <i>Petitun</i> , <i>CanBel</i> , <i>Khurutch</i> , <i>Medit</i> , <i>Ip KurBD & Dial</i> , Archu, <i>MaiMarHil</i> , <i>HOrdre</i> , <i>Myst</i> , Urruty & <i>Catuchuma</i> .	ERORTZE: <i>Pierrot</i> 199, Chaho <i>AztBeg IX</i> , Archu 38 & 39.
ETHORTE (<i>ez</i>)	ETHORTZE: Egiat I 21, Chaho <i>AztBeg VI</i> .
EZARTE: Etchart, O <i>Po</i> , Tt <i>Arima</i> , <i>PrS</i> , Bp, <i>CatOlo</i> , <i>IP</i> , Mst, Ressegue, <i>StJul</i> , Mercy, <i>NLilia</i> , Egiat, <i>Edipa</i> , <i>Bala</i> , <i>Xarlem</i> , <i>Malqu</i> , <i>SteEli</i> , <i>DKhirst</i> , <i>UskLi</i> , Chaho, <i>CatS</i> , <i>Khurutch</i> , <i>Medit</i> , <i>Ip KurBD & Dial</i> , Archu, <i>CanBel</i> , Etch, <i>MaiMarHil</i> , <i>HOrdre</i> , <i>Myst</i> & Urruty.	EZARTZE: Chaho <i>AztBeg IX</i> .
IGORTE: Etchart, Bp, <i>CatOlo</i> , Mst, Ressegue, <i>StJul</i> , <i>Edipa (e-)</i> , <i>Xarlem</i> , <i>SteEli</i> , <i>DKhirst</i> , <i>UskLi</i> , Chaho, <i>Medit</i> , <i>Ip KurBD & Dial</i> , <i>CanBel</i> , Archu, Etch, <i>MaiMarHil</i> , <i>HOrdre</i> , Urruty & <i>SGrat</i> .	IGORTZE <i>CatOlo</i> 34, <i>Malqu</i> 483, Chaho <i>AztBeg IV (i-) & VIII (e-)</i> .
IRAKHURTE ³¹⁷	IRAKHURTZE
ITZURTE: BP II 106.	ITZURTZE (<i>ez</i>)
IXURTE: Mst, Ressegue, Mercy, Egiat, <i>DKhirst</i> , Chaho, <i>CatS</i> , <i>Khurutch</i> , <i>Medit</i> , Etch, <i>Ip Dial</i> , <i>HOrdre</i> & Urruty.	IXURTZE Bp I 76 & II 22, Mst III 49, 1, <i>NLilia</i> 13, Archu 24 & 45.
JARTE: O <i>Pro & Po</i> , Tt <i>Olsa & Arima</i> , Bp, <i>CatOlo</i> , Mst, <i>StJul</i> , Egiat, <i>Xarlem</i> , <i>Malqu</i> , <i>SteEli</i> , <i>DKhirst</i> , <i>UskLi</i> , Chaho, <i>CatS</i> , <i>Medit</i> , Etch, <i>Ip Dial</i> , <i>HOrdre</i> , <i>Myst</i> , Urruty, <i>SGrat</i> & <i>Catuchuma</i> .	JARTZE: O <i>Po XXIII</i> 1, <i>Malqu</i> 340, 388 & 402, <i>Pierrot</i> 200, <i>CatS</i> .
JEZARTE Chaho <i>AztBeg XVI</i>	JEZARTZE (<i>ez</i>)

Datu hauen arabera pentsa daiteke Zuberoan [R + -i] multzoko aditzek kasik oro *-te* eta *-tze* atzizkien bitartez eratzen dutela beren partizipio inperfektiboa, *-tze*-dunak minoritarioak izan arren. Aldiz, lekukotasunen zerrendari xehekiago erremarkaturik, gutxienez hiru aditzek

Euskarak badu hainbat bide kausazioaren adierazteko. Kasurik sinpleenean, perpaus iragangaitzetako subjektua (S) perpaus iragankorreko objektua (O) izatera pasatzen da, sintaktikoki eragilea agente gisa agertzen delarik (A), (1) adibideak erakusten baitu. Aldiz, kausatiboak perpaus iragankor bati eragiten dionean argumentuen jokia konplexuago izaten da. Euskarak datiboa baliatzen du (2), baina munduko hizkuntzetan aukerak ñabarragoak izaten dira.

- (1) *Ane etorri da.* → *Amak Ane etorrarazi du.*
 S A O (arazia)
- (2) *Anek erosketak egin ditu.* → *Amak erosketak eginarazi dizkio Aneri.*
 A O A (eragile) O A (arazia)

Ukronia suerte batean erorita, euskarak garatu dituen kausazio estrategia honakoak lirateke:

- Aditz iragangaitz bat iragankor jokatzea; ikus (1). Bide honi kausatibo lexikala deitzen zaio (Oyharçabal 2002; Ortiz de Urbina 2003).
 - Aditz batean *-ra-* morfema kausatiboaren txertatzea: *ibili* ‘marcher’ → *erabili* ‘faire marcher’.
 - Oinarri aditzari arazi gehitzea: *Desmartxak egin ditut* → *Desmartxak eginarazi dizkidate*. Eta *arazi* aditz ala atzizki kontsideratzen dugun arabera, hori kausatibo sintaktikotzat ala morfologikotzat har daiteke, hurrenez hurren.
 - Bestelako “aditz arazleak”: **eradutsi*, *eragin*.
 - Kausa adierazten duen aditza predikatu nagusi bezala erabiltzea, osagarri funtzioan doan perpaus bat sarraraziz egin aditzaren medioz (3).
 - Kausatiboak adierazten duen gertakizun edo ekintza perpaus nominalizatu batean ematea (4).
- (3) *Ikastekoak ikas nitzan egin zuen.* ‘He made me learn the lessons’ (Ortiz de Urbina 2003: 595).
- (4) *Liburu guztiak irakurtzea eginerazi zidan.* ‘He made me read all the books’ (*ibid.*).

Ortiz de Urbinak (2003: 592) hiru kausatibo mota dakuski euskarari: lexikoak, morfologikoak eta analitikoak. Kausatibo lexikoetan txandakatze ergatibo/inkoatiboak eragiten dituen aditz bakunak sartzeko dira: *hil*, *sartu*, *atera*, *zabaldu*, *jantzi*, *galdu*. Goiko zerrendako b) eta c) aukerak kausatibo morfologikoetan sailkatzen ditu, eta e) zein f) kausatibo analitikoetan. Tesi honetan hastapeneko zerrendako b), c) eta d) aukerei eskainiko zaie arreta, erran nahi baita kausatibo morfologikoei.

6.2.2. *-ra-* morfemaz

Euskara historikoan *-ra-* morfemak, kausatiboaz gain bestelako baliorik izan badu ere,³²⁸ hemen kausatibora mugatuko gara. Hasteko, ohartarazi behar da *-ra-* morfema kausatiboa

³²⁸ Euskararen historiaurrean, Aldaik (2012) balio adlatibo edota destinatiboak seinalatzen ditu *-ra-* morfema kausatiboaren sorreran. Garai historikoan Fernándezek (2012), kausatiboaz aparte, morfema aplikatibo bezala definitzen du **eradun* laguntzaile ditransitiboarentzat, hau da, Traskek (1977) *dative flag* gisara euskalaritzan sartu zuen kontzeptuaren balioidea, Rebuschirentzat (1984) *affixe pré-datif*. Aldaik (*op. cit.*) ere beste balio

**e-* aurrizkia duten aditz zaharrekin lekukotzen dela beti, maiz **e-ra-CVC* egituretan: *erabil*, *erak(h)uts* & *erak(h)ar*, besteak beste. Halere, forma hauek guztiek ez dute balio kausatibo zaharra ber maneran atxiki: **e-ra-gin* arras gardena bada, haren semantika ere gardena izanik —eta lekukotua—, **e-ra-zi* lexikalizatua eta gero gramatikalizatua agertzen zaigu. Bestalde, egin aditzaren forma kausatibo bat baino gehiago ditugu: *eragin* bera, *eginerazi*, *egineragin*, eta are *eraginerazi* —gure corpusean lekukotua: *UskLi* 101— (Ortiz de Urbina 2002: 594). Hauek balio dute, halaber, *egin*-en gainean eraiki *light verbs* direlakoetarako: *negar eragin*, *ihes eragin*, etab. Euskara orokorraz mintzo, Hualdek *-ra-* morfemaren gaineko jakingarriak biltzen ditu:

A handful of old causatives have a prefix *e-ra-*. More precisely, old native verbs have a prefix *e-* in their nonfinite forms (which has become *i-* or *j-* in certain contexts) and, in the causative, another prefix *-ra-* is inserted between the prefix *e-* and the root. This way of forming causatives is not productive. In the case of most of these verbs the original link with a non-causative verb has been lost or obscured by a shift in meaning. Productive causatives are formed with *-arazi*. (2003: 350)

64. TAULAK *-ra-* morfema kausatiboa erakusten duten aditz batzuk biltzen ditu, beren oinarri aditzen ondoan.

horretaz ohartarazten gaitu, “marcador de valencia” terminoa erabilia: *-ra-* morfema kausatiboa ihartu zenean, euskalki batzuetan *balentzia iragarle* gisara berranalizatua izanen zen. Hain zuen, erdialdeko eta ekialdeko **eradun* zein hego nafarreraren **erazan* laguntzaileek *-ra-* morfema bera dute, forma ditransitiboetan balentziaren gehitzearen markatzeko (edo datiboaren sarrarazteko).

64. TAULA. Kausazioa: euskararen zenbait aditz pare.

Oinarri aditza	Forma kausatiboa
<i>egin</i> ‘do’	<i>eragin</i> ‘cause’
<i>ikus(i)</i> ‘see’	<i>erakuts(i)</i> ‘show’
<i>ikas(i)</i> ‘learn’	<i>irakats(i)</i> ‘teach’
<i>entzun</i> ‘hear’	<i>erantzun</i> ‘answer’
<i>jaik(i)</i> ‘rise’	<i>eraik(i)</i> ‘build’
<i>ekarr(i)</i> ‘bring’	<i>erakarr(i)</i> ‘attract’
<i>joan</i> ‘go’	<i>eraman, eroan</i> ‘take’
<i>ibil(i)</i> ‘walk about’	<i>erabil(i)</i> ‘use’
<i>ebaki</i> ‘cut’	<i>erabaki</i> ‘decide’
<i>jantz(i)</i> ‘dress’	<i>erantz(i)</i> ‘undress’

Iturria: Hualde 2003: 350

Guretzat bi galdera dira pertinente: 1) *-ra-* morfema noiz arte izan den produktiboa; eta sustut 2) *-ra-* morfemadun aditzek noiz arte atxiki duten beren jatorrizko balio kausatiboa. Menturaz lehen galderari erantzutea ez da gure esku, jadanik testu zaharretan *-ra-* ihartua agertzen delako, eta seguruenik horrelakoa zen aspaldidanik, haren emankortasuna datatu izan delako: “en tiempos relativamente lejanos (aunque tampoco demasiado lejanos; es decir, tal vez a principios de la era cristiana” (Aldai 2012: 106). Hiru argudiotan oinarritzen da: i) garai historikoan *-ra-* ihartua da; ii) aditz pare batzuen semantika idiosinkrasikoa eta ezin aurreikusizkoa da; eta iii) agian *-ra-* morfemaren kokapena erroaren ezkerrean. Aldiz, Zuberoako testuetarik datu interesgarriak atera daiteke bigarren galderari ihardesteko.

Beraz, *erakutsi* ‘to show, to make see’, *irakatsi* ‘to teach, to make learn’, *eragin* ‘to cause, to make, to affect’, *erantzun* ‘to answer’ bezalakoetan jatorrizko balioaren eta egungo adieraren arteko lotura gardena da, oinarri aditzekiko lotura gardena den bezala. Beste zenbaitetan erran-nahiaren aldaketak gehiago ilundu du oinarri aditzarekiko lotura semantikoa: *erabili* ‘to use’ ← *ibili* ‘to walk’, *eroan* ‘to carry’ ← *joan* ‘go’, *erantzi* ‘to undress’ ← *jantzi* ‘to dress’. Ortiz de Urbinaren hitzetan:

This strategy is no longer productive in the language, but some of the resulting causative verbs have remained as independent lexical items. It is not clear to what extent their meaning is causative, i.e., their subject is usually an agent as opposed to a causer. However, the original causative meaning may be reconstructed for some of them, although they are opaque to contemporary speakers. (2003: 592)

6.2.3. *Arazi/erazo/erazi* kausatiboez bi hitz

Euskaltzaindiaren gramatikak “aditz erazle” deitzen ditu *arazi/erazo* bezalakoak (EGLU II: 60), honako argumentuak bereiziz: ERAGILEA (ergatiboz), EGILEA (datiboz) eta OBJEKTUA (absolutiboz). Euskaran bada aldakortasun diatopikorik *arazi/erazo* multzoari doakionean; aldakortasun horrek ARAZIA (Fernández 2012) (esp. *causando*, Aldai 2012; ing. *causee*) delakoaren markatzea ere hunkitzen du.³²⁹ Gutaz denaz bezainbatean, ekialdeko mintzoei hertsatuko gatzazkie, Zuberoako testuetan lekukotzen diren *erazi*-dun formen bilakaeraren deskribatzeko, eta beroien eta *-ra*-dun kausatibo zaharren arteko lehiaren berri emateko —lehiarik izan bada bederen—.

Ikuspegi diakronikotik, *arazi/erazi/erazo/arazotu/eragin* aditzak dira, denborarekin lexikalizatu eta gramatikalizatu badira ere. Ortiz de Urbinak “causative suffix” gisa definitzen ditu (2003: 593), eta egungo ortografiak oinarri aditzari loturik idaztea manatzen du: *etorrarazi*, *eginarazi*, *sarrarazi*, etab., forma kausatibo hauek unitate bakar gisara hautemanak direlako seinale. Baina historikoki *erazi* eta *erazo* aditz beregain gisara lekukotuak dira (Mounole 2012: 149): “Elles signifient « faire faire, provoquer, causer ; inciter à ». On l’aura compris, *erazi / erazo* lui-même semble être issu de la dérivation causative à partir du verbe *jazo* « survenir, arriver » par adjonction du préfixe causatif *ra-* présenté ci-dessus (Lafon 1943-I : 428 ; Trask 1997 : 231)”. Mounolek (*ibid.*) adibide hauek ematen ditu: *Erazo eikiozuz zeure biotzari iru gauza oneek (DGV-OEH, Añibarro, EL2 54) & Eske-mesede guzti oneek mugitu ta erazoko ez gaitu bere izen santua santifiketara (DGV-OEH, Añibarro, Mis. E 43)*. Aldaik bestelako jatorria proposatzen du: “Su verbo base podría haber tenido el mismo origen que el actual auxiliar transitivo de no-indicativo de raíz *-za-*” (2012: 107).

Hastapen batean, *erazi/erazo* klausula biko egitura batean ageriko ziratekeen (Mounole *ibid.*), eta denborarekin oinarri aditzarekin batu zatekeen, predikatu bakar batean. Ikusiko baitugu, Zuberoan joera grafikoa gordetzaileria izan da, XIX. mendean ere *erazi* bereiz aurkitzea ez ohikoa izanik. Bestenaz, garai historikoan zehar, kausatzen den aditzaren forma aditzoina izan bada ekialdean, mendebaldean aldaketa bat gertatu da, aditzoinaren formaren galerari lotua: testu zaharrenetan [aditzoin + *erazo*] lekukotzen da, baina XVIII. mendean [part. + *erazo*]

³²⁹ Aditz inakusatibo, inergatibo, monotransitibo eta ditransitiboetan mendebaldeko eta ekialdeko mintzoei era diferentetan markatzen dute; kontu errendatze zehatz batentzat ikus Ortiz de Urbina 2003.

(Mounole 2012). Kausatibo hauek aspektuaren adierazpena karreiatzen dute: *erazi/erazo* perfektiboa, *erazten* inperfektiboa eta *eraziko* prospektiboa.

Jada testu zaharrenen denboran *erazi/erazo* kausazioaren adierazpide nagusia da. Era guztietako oinarri aditzekin lekukotua da, birtualki erromantzei mailegatutako guztiekin bezala euskal jatorrizko aditzekin ere, zaharrenak barne. Leizarragaren testigantza (8)-(11) argigarria da, *-ra-* morfemadun parerik duten oinarri aditz multzo bat *erazi*-rekin baitu errendatzen (8)-(11); aditz horiek banaka azterkatuko dira (§ 6.3.2).

- (5) *Statu [...] hunetan iraun eraci ahal ceçaqueon moiena.* (Lç “Advertimendua”)
- (6) *Hayen resumaren triumpha eraciteco berce populu gucien artean hayen valentiaz aippa eta lauda eraciteco: Mesisas handi hunetaric recebitzeco cituzten gratia miraculuzcoetaric cerbeit goço moien harçaz sendi eraci liecençat.* (Lç “Advertimendua”)
- (7) *Spiritu Saindua, ceinec sinhets eraciten baitraucu Iainco Aita baithan.* (Lç “Testamentu çaharrac eta berriac...”)
- (8) *Haren desohoretaco den dotrina gucia eçagut eraciric.* (Lç “Heuscalduney”)
- (9) *Adulterio eguin eraciten draucala.* (Lç Mt 5, 32)
- (10) *Eta igor ceçan Ioannesi presoindeguian buruären edequi eracitera.* (Lç Mt 14, 10)
- (11) *Gorrey ençun eraciten draue, eta mutuac minça eraciten ditu.* (Lç Luc 7, 37)

6.3. Forma kausatiboak Zuberoako testuetan

Atal honetan kausazio morfologikoa aztertuko dugu Zuberoako testuetan gaindi. Lehen orokorki arituko gara, eta ondoren *-ra-* morfema kausatiboa dakarten aditzen agerpenaren berri emanen dugu. Horretarako, aditz horiek jatorrizko balio kausatiboa atxiki dutenetako agerraldiak bilduko dira, adizka, hurrenkera alfabetikoan. Zenbaitetan adiera bigarrenkariko etsenpluei erkatuko zaizkie; aldiz, ez dira aditz horien adiera posible guztien kontu emanen. Aditz bakoitzeko *-ra-* kausatiboaren indarrari begiratuko zaio, bai eta delako aditza *erazi*-ren oinarri ageri den, nola, eta noiz. Banakako deskribapen horren ondoren, *-ra-* morfemaren eta *erazi*-ren bilakaerak aipatuko ditugu Zuberoan.

6.3.1. *Erazi*

Leizarragarekin agitu bezala (cf. § 6.3.3), eta nezesarioki mende bat berantago, Zuberoako testu zaharrenek ez dute *erazi*-ren batere mentzik (12)-(20). Belapeirek usu baliatzen du (73 aldiz 2. liburukian), are *-ra-* morfemadun kausatibo zaharren ordez (20), edo horiekin batera (17), nonbait *erazi*-ren gailentasunaren seinale argia dena *-ra-*dun kausatibo morfologiko zaharren aitzinean. Aipatzekoa iruditzen zaigu Belapeirek *erazi* beti bereiz idaztea —oro har XVIII. mendean zehar bereizketa grafikoa mantenduko da (21)-(25)—, *erazi* hitz beregain gisa hautemana zelako seinale.

- (12) *Ohoin handiak urkaerazten ditu xipiak.* (O Pro 657)
- (13) *Hementic harat heyer bicieracitzeco.* (Etchart 1, 1v)
- (14) *Çortci egunetan barnen batheya eraciten eztutienac.* (PrS 26-27)
- (15) *Hoyen ikhastera eliçala gin eraciz.* (Bp II 5)
- (16) *Beldur guiren haren justicia boroga eraciren dericunaren.* (Bp II 15)
- (17) *Çognec Jesusen goratarçuna eracoux eraci baitié.* (Bp II 24)
- (18) *Herodes khechiaren ihessi, çognec hil eraci nahi baitcian.* (Bp II 32)
- (19) *Etciana deüsec jakin eraci Jesus Christen gitia?* (Bp II 33)
- (20) *Heben Catechima erran eraciren dianac nori beré Patron saintiaren verthuté berheci çonbait cegnharaturen deritcé, çoin haurrer onsa ikhas eraciric, goça eraciren baiteritcé.* (Bp II 133)
- (21) *Halaco zelo batec eticiana pphiz erazten ahal gouria!* (CatOlo2 iv)
- (22) *Ikhous ditcen eta ikhous-eraz* (Ressegue 20)
- (23) *Lehen beno lehen / prepara eraz eçaçu.* (StJul 653)
- (24) *Behar duçu igorry / oihanneko oxouer / eta han içaneracy.* (Edipa 042)
- (25) *Eta huillant eras itçaq / ore lagunaq oro hounat* (Xarlem 354)
- (26) *Espiritu santia, compreni eraci eçadaçu, / Explicatcera çouaçana, / Eta praticaeراز eçadaçu, / Eracaxten deitaçuna.* (DKhi 4)
- (27) *hanko jaun jüjetara, zen emastia jin / han perieras nenzen her othoiak egin* (Etch “Etchahunen bicitciaren khantoria”)
- (28) *Ceren ezteiciegu eçaguteraci Jesus-Christ goure Jaunaren photeria eta jitia gordeca sararacico beituçie doctrina galgariac, eta errenontciaturic Jaunari çougneç arra erosi beituçu, erakharacico beitie beren gagna galtce laster bat.* (Epi II 2, 1)

Erazi-ren formez denaz bezainbatean, erran behar da aditzoinaren forma zaharra erazi dela, eta imperfektibozkoa *eraziten*, eta hala erakusten dute testu zaharrenek. Aldiz, XVIII. mendetik aitzina *eraz* & *erazten* azaleratuko dira eta nagusituko, 65. TAULAK jasotzen duenez. Azalpen batentzat, ikus § 2.4.

65. TAULA. *Erazi*-ren formen bilakaera Zuberoan.

	PERF.	PROSP.		INPERF.			ADITZOIN		oro
	<i>erazi</i>	<i>-ren</i>	<i>-ko</i>	<i>-itze</i>	<i>-ite</i>	<i>-zte</i>	<i>erazi</i>	<i>eraz</i>	
O <i>Pro</i> ca. 1600	2	-	-	-	3	1	-	-	6
Etchart 1616	-	-	-	1	-	-	-	-	1
O <i>Po</i> 1657	2	-	-	-	2	-	1	?	5
Tt <i>Onsa</i> 1666	11	-	-	-	10	-	3	-	24
Tt <i>Arima</i> 1672	5	-	-	-	6	-	-	-	11
<i>PrS</i> 1676	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Bp 1696	51	11	-	-	57	-	10	-	129
<i>Catolo</i> 1706	4	1	-	-	5	-	1	-	11
<i>Othoitce</i> 1734	1	4	-	-	2	-	10	-	17
<i>CatOlo2</i> 1743	7	1	-	2	4	5	1	-	20
Mst II & IV	4	4	-	29	-	-	17	-	44
<i>IP</i> 1757	4	-	-	3	1	-	2	-	10
Ressegue 1758	1	10	-	-	-	10	-	1	22
<i>Petit Jean</i> 1769	-	-	-	-	-	-	-	1	1
<i>StJul</i> 1770	1	17	-	1	5	10	-	3	37
Mercy 1780	1	3	3	1	-	9	-	-	17
<i>NLilia</i> 1782	2	1	-	-	-	-	-	1	4
Egiat 1785	42	8	-	-	52	2	7	-	111
<i>Bala</i> 1788	-	-	-	-	1	-	-	-	1
<i>Jouanic</i> 1788	-	1	-	-	-	-	6	-	7
<i>Boubane</i>	-	1	-	-	1	1	2	-	5
<i>Chiveroua</i>	4	1	-	-	-	1	-	-	6
<i>Edipa</i> 1793	3	8	-	1	1	1	-	-	14
<i>Xarlem</i> ca. 1800	30	7	1	-	2	1	8	1	50
<i>SteEli</i> ca. 1810	29	32	1	-	3	10	8	3	86
<i>Malqu</i> 1808	7	1	-	-	-	2	1	-	11
<i>DKhi</i> 1812	4			-	-	7	3	6	20
<i>UskLi</i> 1814	14	2	-	-	9	4	5	-	34
<i>Petitun</i> 1836	1	-	-	-	-	-	-	-	1
<i>CatS</i> ca. 1836	8	-	-	-	12	31	-	7	58
<i>Khurutch</i> 1838	3	-	-	-	-	3	-	4	10
<i>Medit</i> 1844	22	4	4	-	2	35	-	14	81
Ip <i>KurB</i> 1847	4	-	-	-	-	3	-	1	8
<i>CanBel</i> 1848	2	3	-	-	-	3	2	1	11
Etch	46	4	-	1	3	11	-	5	70
Chaho <i>AztBeg</i>	5	-	-	-	-	5	-	1	11
Archu 1848	7	3	-	-	1	10	-	-	21
<i>MaiMarHil</i> 1852	15	3	-	-	-	18	-	10	46
<i>Myst</i> 1856	7	2	-	-	-	13	-	10	32
Ip <i>Dial</i> 1857	4	-	-	-	-	10	-	-	14
<i>HOrdre</i> 1860	13	5	-	-	-	6	-	11	25
<i>EvS</i> 1873	20	-	4	-	-	12	-	1	37
<i>Epit</i> 1873	5	-	2	-	-	-	-	-	7
<i>SGrat</i> 1879	3	-	-	-	-	7	-	2	12
<i>Catuchuma</i> 1899	-	-	-	-	-	1	-	-	1

6.3.2. *-ra-* morfemadunak vs. *erazi*

6.3.2.1. *Erabaki*

“Factitif de ebak, ebaki, n’est plus usité que dans le sens figuré de juger, décider” (Dv *apud OEH*). Guk ere ez dugu balio kausatiboaren aztarnarik atzeman, agerraldi guztietan —direnak oro Eguateguyri zor— ‘decidir’ adiera berria agertzen baitu (29)-(31); egile horrez gain, *OEH*-k Inchauspe aipatzen du.

- (29) *Erabaki beitzian [...] berze medioz obratiiren ziala* (Egiat I 30)
- (30) *Bena Khorteko isterbegiek hilerazi behar ziela erabakirik [...]*. (Egiat I 39)
- (31) *Zialarik Erregiñak erabaki lehen gaian algarreki etziradiala etzanen.* (Egiat I 39)

6.3.2.2. *Erabili*

Aditz honen adiera kausatiboa, “mover, hacer moverse; hacer andar” (*OEH* s.v.), corpusean zehar aurki daiteke (32)-(43). Gainera, burua erabili “cabecear” adiera ere (Landuccio *apud OEH*) balio horren barnean sartuko genuke (33)-(38). Maisterrek erabil erazi pleonastikoa darabil egiazko balio kausatiboaren adieraztean (34). Norabide berean, erran nahi baita *-ra-* morfemaren lexikalizazioaren bidean, XIX. mendean forma kausatibo zaharra ordezkatzeko duen *ebilerazi* atzeman dugu (44).

- (32) *Harri erabilik eztu biltzen oroldirik.* (O *Pro* 211)
- (33) *Buria chuchen erabili gabe behar da etheki.* (CatOlo 103)
- (34) *Üsantxa gaixtuak, [...], mihia ezaxolatiiki erabil erazitzen deizü.* (Mst I 10, 1)
- (35) *Zeren eta, [...] itxas mareak untzi bat horrat hunat erabilten beitiü.* (Mst I 13, 5)
- (36) *Coky Julien hory, aldiz, / burdin khatenaz carga eçacie, / eta kharrica orotan therresta / erabil eçacie.* (StJul 699)
- (37) *Çamari baten bustanian / esteca eçaçie bertan / Nabiaco carriquetan / erabil istantian.* (Xarlem 1348)
- (38) *Behar da buria chuchen ethequi erabili gabe.* (DKhi 62)
- (39) *Ikhouş deçagun [Jinco Salvaçalia] soldadobaten colera impacientaz crudelki erabiliric eta herrestaturic.* (Ip KurBD 25-26)
- (40) *Phixtako olha die jentek hun egiten, / Kabalik beitiitie untsa erabilten.* (Etch “Phixtako olha”)
- (41) *Galupa bazter batetik bestiala erabilten cian.* (MaiMarHil 117)
- (42) *Irina biltzen die lilien gañen gibekeko aztaparren herresta erabiltez.* (Ip Dial 2)
- (43) *Erabiliren ait therresta, / bilhüetarik hartürrik.* (Saturna 104)
- (44) *Gincouaren desseigna [...] etcen ene ebileracitia lurreco hounen, plazeren eta aisen ondotic.* (Medit 17)

6.3.2.3. *Eragari*

Guk dakigula, *egari* “soportar, llevar una carga; aguantar, padecer” (*OEH* s.v.) aditzaren forma kausatiboa lekukotu gabea zen. 1860koa den *Heren-Ordreco escu librian* ageri da

(197); gure ustez *eragari* kausatiboaren zentzua perpausarena bezain argia da: ‘ez zuen kulparik hari [proximoari] pairaraziz, jasanaraziz’. Interpretazio hau zuzen izatera, bi aukera dugu: a) forma kausatibo hau lehenagotik zetorren, lekukotu egon gabe ere; edo 2) *-ra-* morfemaren emankortasunaren azken txinparta litzateke (kasik ezinezkoa), edo agian forma analogiko berria:

- (45) *Proximouari ahalkeric eman dianez, Jenten aitcinian hari bere hutsen arraprotchatuz, edo etcian oguenic hari eragartez. (HOrdre 195)*

6.3.2.4. *Eragin*

-ra- morfema kausatiboa duten aditzen artean, hauxe dateke arreta gehien merezi duena. Batetik, adiera bigarrekarriak garatu arren, bere jatorrizko semantika klarki atxiki baitu mendeetan zehar —bereziki ekialdean— eta, bestetik, bera ere aditz arazle gisa erabilia izan delako (cf. § 6.3.4). *Eragin*-en balio kausatiboa corpusean gaindi lekukotzen da, Oihenartengandik XIX. mendeko bigarren partera arte (46)-(63):

- (46) *Bertze batek, enganatzekotzat, zerbait eragin nahi diola. (O Pro 373)*
 (47) *G. Misterio honec cer eraguin behar dericu? (Bp II 69)*
 (48) *Guiçonac eztu eguin bekhaturic, Deebriac eraguin derionaz gueroz. (Bp I 53)*
 (49) *Salvamentiaren eraguiteco dugun amorioüac. (CatOlo2 iv)*
 (50) *O aita saintia, zük hala eragin düzüü! (Mst III 50, 3)*
 (51) *Eraguin ciztadacien / estudio guciacq. (StJul 240)*
 (52) *Ainguria gin. By flanbeu phitz eta parfum eraguin. (StJul 794di)*
 (53) *Policor, hiq eraguin eçaq / hoien executionia. (StJul 946)*
 (54) *Jaun director edo guidariac eraguinen du iracourte bat. (Mercy 29)*
 (55) *Nor zen sakrilegio haren langilia galthatü ziana edo eragin ziana? (Egiat I 13)*
 (56) *Eri guiradian orori / erremedio deiku eraguinen. (SteEli 200)*
 (57) *Sû bat eraguinic oro /erreraciren çutiet bestela! (SteEli 1388)*
 (58) *Berac Gincouarequi baquia eraguiten deiçu. (DKhi 65)*
 (59) *Ari beihiz eragiten / fin gaistua gizüner. (Malqu 107)*
 (60) *Nurk ere eragin nahi beitezü milla ür hats, egiozu bi milla. (CatS)*
 (61) *Zük eragin düzün krime, beitezüt nik klarki erraiten / Etzükiata tigiak, ez lehuak egin iükhen. (Etch “Complainte Heguilus”)*
 (62) *Erhauts huneki egiten den herxkalliak erratzen dü eta züsüllü eragiten. “L’emplâtre [...] fait lever des ampoules” (Ip Dial 3)*
 (63) *Jaun houna, cihauren chedetan ene lanac oro eraguin itçadaçu. (Myst 43)*

Halaber, *eragin*-en balio kausatiboa ohikoa da *light verbs* direlakoetan ere: *othoitz eragin*, *negar eragin*, *ihesi eragin*, etab.³³⁰ Beharbada aditzaren balio kausatiboa denborarekin

³³⁰ Zenbaitetan [osagarri zuzena + *e(ra)gin*] egituran eta *light verb* delakoaren arteko muga lausoa gertatzen da; halakoetan baliatu zaigun irizpidea mugagabetasunarena izan da, hots, mugatzailearen presentziak osagarri zuzenaren funtzioaren alde egiten luke.

halakoetara mugatuz joan da, zeren *lights verbs* multzo horren pisua gero eta handiagoa da *eragin*-en agerraldi kausatiboetan (64)-(82):

- (64) *Utz zezanak bere alhorra ereiteko xoriegati, bere burua gosez hil zezan xorier barur eragiteagati. (O Pro 477)*
- (65) *Gaizki eragitia, bekhatu mortal, falta, eta kulpa eragitia. (Tt Onsa)*
- (66) *Razon eta satisfactione eraguitera alde huntacoez. (Etchart 5, 1v)*
- (67) *Gincoari othoitz eraguiteco. (Bp I 100)*
- (68) *Eliça saintac [...] penitencia eraguin nahi dericulacoz. (Bp I 112)*
- (69) *Eta hari ihessi eraguiten badeyoçu, [...] *nourganat hersaturen cira?* (Mst II 8, 3)*
- (70) *Julienecq Marcieny / proposatcen derio / bere aphecez leçan / eraguin sacrificio. (StJul 059)*
- (71) *Berriz nigar dereiziet eraginen (Egiat I 22)*
- (72) *Bena hobe diçugu [...] / ezteçagun eraguin / mundiary erririq. (Edipa 899)*
- (73) *Eta guc ere othoitce / fi hartara eraguinen diçugu. (SteEli 382)*
- (74) *Ene bihotceco hasperenec heiagora handiric eraguin ditadacie. (UskLi 119)*
- (75) *Zuñek gure eginbider hüts eragiten beiteikü. (CatS)*
- (76) *Besten penitencia deitaziüt eragin. (Etch “Mundian malerusik”)*
- (77) *Cin eguiten dienec, edo bester eraguiten. (Medit 192)*
- (78) *Ihes eraguin deroc hire Jincouari. (MaiMarHil 72)*
- (79) *Marinelaren corajiac eta animoac erri eraguin ceren lagunec. (MaiMarHil 110)*
- (80) *Estolaco khurutchiari pot eraguitian. (HOrdre 61)*
- (81) *Bere desobedientciatz [...] juramenturic eraguin deïenez? (HOrdre 191)*
- (82) *Bere arçaignaz campo nourbati cunjuru eraguitia. (Myst 24)*

Kausatiboaren pleonasmok ere ageri dira, arras bakanki ageri ere. Hain zuzen, XVIII eta XIX. mendeen artean datatzen den *Uscara Libriak eragin erazi* ematen du (83); paradoxikoki, 1860koa den *Heren-Ordreco escu libriak* pasarte bera dakar, baina pleonasmorik gabe (84). Bestalde, XVIII. mende akabantzan *eginerazi* azaleratuko da; orotara lau agerraldi baizik ez dugu aurkitu (85)-(88).

- (83) *Ppharcamentu ene Gincoua, eguin deitçudan gaiskiez oros eta besteri eraguin eraci dutudanez [...] (UskLi 103)*
- (84) *Pharcamentu ene Jincoua, eguin detçudan gaizkiez oroz eta besteri eraguin dutudanez. (HOrdre 199)*
- (85) *Honek honki egin ezinari, gaitza egineraziten. (Egiat I 2)*
- (86) *Hen gatic othoitciac eguin erazten estutienac. (Medit 194)*
- (87) *Visita solanela ezta eguinic içanen ourthian behin baïcic, ezpadu cerbait necessitatec ussiago eguinerazten. (HOrdre 25)*
- (88) *Bere demboretan eliçaco eguinbiden ez eguineraztia. (Myst 26)*

XVIII. mendearen erditik aitzina Zuberoan *eragin* aditza ‘bastitu’ erran-nahiarekin lekukotzen hasten da (89)-(92), baina ez dirudi adiera horrek errorik eman duen, testu modernoagoetarik absent izanki. *OEH*-ren arabera orokorra da.

- (89) *Templo eder beno ederrago baten eraguiteco. (Mst IV 1, 4)*
- (90) *Eragin barrüki bat taulaz hariz ta ediren güzietaz. (Egiat I 20)*
- (91) *Eliça houra Eraguinen duçu / ahal beçain bertan. (Xarlem 661)*

(92) *Sainta Cleraren icenian arren / nahi dit eraguin comentu bat.* (*SteEli* 1027)
Horrezaz gainera, *eragin* aditzak ‘musika tresna bat jo’ adiera ere har dezake, bederen ezkilekin (93) eta tronpetekin (94)-(96). Guztiz markatzekoa da adiera honen agerpena Zuberoara mugatzea; *OEH*-k ematen duen etsenplu bakarra *Charlemagne* trajeriatic idokia da.

- (93) *Jakineraciren çaye ceïgniaz çoïn eraguin içanen beïta [...] lehenago, cegnu chipittoaz bestalde, çoïn ihourc eraguinen baytu.* (*Ressegue* 19)
(94) *Inutil uqhenen duq [...] / hire trounpetaren / heben eraguitia* (*Xarlem* 357)
(95) *Renauteq troupeta [sic] Eraguin.* (*Xarlem* 382di)
(96) *Renauteq trounpeta eraguin passeia* (*Xarlem* 1365)

66. TAULA. *Eragin* aditzaren agerraldiak, *eragile* (O) & *eragingarri* (Mst) eratorriak barne.

	‘eginerazi’	‘bastitu’	‘musika tresna jo’	‘erazi’	eginerazi
O <i>Pro</i> ca.1600	3				
Etchart 1616	1				
Tt <i>Onsa</i> 1666	2				
Bp 1696	7				
<i>CatOlo2</i> 1746	1				
Mst 1757	11	1			
Ressegue 1758	1		2		
<i>StJul</i> 1770	8				
Mercy 1780	3				
Egiat I 1785	17	2			1
<i>Edipa</i> 1793	2				
<i>Xarlem</i> ca.1800	1	1	3		
<i>SteEli</i> ca.1810	5	2		2	
<i>Malqu</i> 1808	1				
<i>DKhi</i> 1812	2				
<i>UskLi</i> 1814	3				
<i>CatS</i> ca. 1836	5				
<i>Medit</i> 1844	4				1
Etchahun	10				
<i>MaiMarHil</i> 1852	6				
<i>Myst</i> 1856	4				1
Ip <i>Dial</i> 1857	5				
<i>HOrdre</i> 1860	7				1
Orotara	110	6	5	2	4

6.3.2.5. *Eragotxi*

“Arrojar, lanzar; hacer caer”. “Documentado casi exclusivamente en Leizarraga y autores septentrionales del s. XVII” (*OEH* s.v.). Zuberoako testuetan *eragotxi*-ren erran-nahia horretara mugatzen da (97)-(101). Gure iduriko, aditz honen forma kausatiboak ez dakar balentzia gehitzerik, zeren eta (*eragotxi*-ren oinarria den) *egotxi* aditzak agerrarazten duen egitura sintaktiko bera erakusten baitu (102)-(106):

- (97) *Arraina eta arrotza, heren egunak, karatsez, kanpora deragotza.* (*O Pro* 34)
(98) *Cerc eragotci cian lehen guiçona manu haren haustera?* (*Bp* I 53)

- (99) *Bekhatiac Paradussia gal eraciten dericulacoz, eta eragoizten Ifernuco penetara.* (Bp I 67)
- (100) *Guiçonac araguizco bekhatiala eragotci badu, ezconceco hitcen pian.* (Bp I 98)
- (101) *Houra da kantouco harri buruçaguia, harri eragoisle bat.* (Epit I 2, 7)³³¹
- (102) *Tronoua behar derogu / berhalla egotchy.* (Edipa 910)
- (103) *Noula ez nai ifernuco lecialat egotchi?* (Medit 24)
- (104) *Bere exaiac egotchi dutu itchassouaren çolalat.* (Medit 75)
- (105) *Egotchi beitician hourez eta lohiz betheric cen arrolla batetara.* (MaiMarHil 118)
- (106) *Egotchiric içanen da, adar ezdeus bat beçala.* (EvS 15, 6)

6.3.2.6. *Erahatzi

Aha(n)tzi aditzaren forma kausatiboak agerraldi bakarra du corpusean, Oihenarten atsotitz batean; Altuna & Mujikaren azalpenean (2003: 133) hura-hark, “ahantzarazten du”:

- (107) *Gaitza gaitzagoak derahatza.* “Ce qui est pire fait oublier ce qui est mauvais.” (O Pro 174)

6.3.2.7. *Eraidi

Jada Oihenarten denboran **idi* erroaren forma kausatiboak arkaismo handitzat hartzeko dira. Pentsatu behar da **idi* berez arkaismoa dela, Zuberoan inon baino iraunkorrago gertatu dena (ikus VI, § 4.2.3), eta haren forma sintetikoei *-ra-* morfema kausatiboaren eransteak Euskara Arkaikoa baino lehenagoko hizkuntz egoeraren isla behar du izan, XV. mendean kotatzekoa, ez bada lehenago:

- (108) *Arrotzak ez lan daidik, ez deraidik.* “Un hôte ni ne fera aucun travail pour toi, ni ne te donnera le moyen d’en faire toi-même.” (O Pro 37 & Saug 182)
- (109) *Gaitz deritzanak irri deraidik, on deritzanak hasperren.* “Celui qui te hait te fera rire eta celui qui t’aime te fera soupirer.” (O Pro 176)

6.3.2.8. Eraiki

1. Levantar, alzar; (fig.) levantar (el ánimo, etc.). "Faire lever, erakitzea" Volt 81. "(Hacer) levantar" Lar. [...] Tr. Documentado desde Leizarraga, su uso disminuye notablemente al Norte a partir de mediados del s. XVIII, excepto entre los bajo-navarros orientales y suletinos. Al Sur lo encontramos desde el s. XVIII, en textos alto-navarros y guipuzcoanos; su frecuencia parece disminuir en el XX. (OEH s.v.)

³³¹ “En DRA aparece *eragoizle*, en una versión suletina de 1887 cuyo autor no se cita” (OEH); zubererazko lan hori Urruty anderearena baizik ez da izaten ahal.

Zuberoan, bere lehenbiziko agerraldian *eraiki* aditzak “suscitar” adiera du (*OEH* s.v.) (110); halere, ohikoena da *eraiki* bere balio kausatiboaz agertzea (111)-(130). (118)-ko adibideak *jaiki* & *eraiki* uztartzen ditu, ezin klarkiago:

- (110) *Ban'orai, miragarritan, / Hotzak beroa du nitan, / Urak sui'eraikiten.* (O Po 14)
- (111) *Celialat cihaur beitharat eraiki eçaçu ene bihotça.* (Mst IV 16, 2)
- (112) *Ezkutuçu asky azcar / armen eraikiteco.* (StJul 827)
- (113) *Çoury citiçugu, çoury, / beguiacq eraikitcen.* (StJul 1116)
- (114) *Gigantac buria eraiky eta mintça aharraussy bateky.* (Edipa 235di)
- (115) *Othoy eraiki neçaçu / heben utcy gabe / eta ereman barnerat.* (Edipa 770)
- (116) *Çoure guerla gentia / eraiqui behar duçu* (Xarlem 904)
- (117) *Erregueren seme guehienac / armada bat eraiki cian.* (SteEli 32)
- (118) [*Elisabethec eraiki eskutic eta Elisabeth mintça*] / *Jaiki cite bertan / eta ez haboro eni / belharika sekula, / Gincou celukouari baici.* (SteEli 258)
- (119) *Othoitcen niçun bethiere / eraiki litçatçun beguiac* (SteEli 575)
- (120) *Othoitzia da Jinkua ganat gure arimaren eraikitia.* (CatS)
- (121) *Xori dibinuak, presuner poitrina humano hartan, eraiki zin bere ramaje ederra.* (Chaho AztBeg XVI)
- (122) *Hostia saintia eraikitian. [...] Kalitça eraikitian.* (Medit 176)
- (123) *Alo, Buljifer behar tiagü / jaun horik eraiki; / xüiti ebilten orano / ez ahal die ikhasi.* (CanBel 79)
- (124) *Buria eraikiric ikhousi çütian etsaiac orducoz hurrunturic.* (MaiMarHil 112)
- (125) *Zer dira beruak lürretik eraikiten düttian gaiza horik?* (Ip Dial 22)
- (126) *Çoure ganat eraiki ahal ditçadala ene ezku chahiac.* (HOrdre 90 & Myst 52)
- (127) *Hen joiteco besouaren eraikitia.* (Myst 25)
- (128) *Ourthouki çütien, eta etçütien haboro eraikitcen ahal, haimbeste beitzen cargaturic arrainez.* (EvS 21, 6)
- (129) *Gora eraikiric denari ahazten bazaio, zouin aldiz, bere edo berarenen Sortzapen aphala.* (SGrat 9)
- (130) *Jincoari bihotzaen eraikitia eta haren favoren galthatzia.* (Catuchuma 21)

Hori erranik, XIX. mende erditsuan Inchauspek eta Archuk *jaiki* *erazi* kausatibo berria baliatzen dute (131)-(132):

- (131) *Bourreu errabiatu saldobat joz eta thiraz haren crudelki jaiki erazten; hola nahi ukhen deiku merechitu bekhatiaren esclavagiaren petic jaiki erazteco gracia.* (Ip KurBD 16)
- (132) *Neskatoen ohera / Haien jaikeraztera.* (Archu 31)

Eraiki aditzaren erran-nahi bigarrenkaria, egun hedatuena, ‘bastitu’ da. Adiera hori ekialdeko mintzoetarik abiatua da: “Construir. Tr. Usado por algunos autores suletinos y mixanos desde finales del s. XVIII; a partir de principios del XX su uso conoce un importante aumento, tanto al Norte como al Sur” (*OEH* s.v.). Gure corpusean kasik XIX. mendera arte itxaron behar da balio horrekin lekukotzeko (133)-(137), *OEH*-k ezartzen duenarekin bat datorren kronologian. (134)-ko pasartean *bastitu* eta *eraiki* batera agertzen dira; bertan *eraiki* *erazi* segidak *eraiki* forma kausatiboaren lexikalizazioa erakusten duke.

- (133) *Forteresaq Eraiqui dutiela / gascogna orotan (Xarlem 232)*
 (134) *Madama, çoure meciala / gu houna gutuçu, / comentu bat entçunic / nahi duçula bastitu. [...] / Oh, comentu eder bat deiçut / nic eraiki eraciren! (SteEli 1042-3)*
 (135) *Monument elibat eraiki citicien. (Khurutch 4)*
 (136) *Etchen bardin eraikiten delaric, erran beçala, althare bat. (MaiMarHil 11)*
 (137) *Edificia eraikitcen cienec utci dien harria. (Epit I 2, 7)*

Balio horren barnean *eraiki* “fundar, instituir” (OEH s.v. 2) adiera ere uler daiteke (138)-(140):

- (138) *Erran den confrariaren establitcia edo eraikitia. (Mercy 12)*
 (139) *Galthatceco plazer dugun eraiki cien Eskioulaco eliçan confraria devota bat. (Mercy 15)*
 (140) *Bere Eliza nahi ziala eraiki. (CatS)*

Finean, ez da falta altxatzearen ideiarri lotutako bestelako adieren adibiderik: *eraiki* ‘hazi’ (cf. fr. *enlever*) (141) & (142), “levantar testimonio” (OEH s.v. 3) (143)-(144), edo “retirer” (cf. fr. *enlever*) (145):

- (141) *Seiñerren haura dizüt / etxe huntan eraikiten, / Xilloberderen obretarik / oro dira jalkhiten. [Vubane minza Xapelari lothürrik] Pardie, pardie, eztüzü / haboro eraikiren / edo eta eztütüzü / ene izenian izanen. (Boubane 118-119)*
 (142) *Çoumbat haurren khiristiki eraikitceco! (Medit 132)*
 (143) *Ordian eraikiren düzü jügamentia. (Chiveroua 205)*
 (144) *Justo den pleinta eraikiten gunialarik borthizki. (Chaho AztBeg VII)*
 (145) *Morouen bagagiaq / eraiqui behar dutugu / hayen mouyanes Eliça / Eraguinen dugu. (Xarlem 1185)*

6.3.2.9. *Eraitsi / erautsi*

Laguntzaile iragankorraz “bajar, hacer descender” adiera du (OEH s.v.); gure corpusean *eraitsi* balio kausatiboz atzeman daiteke (146)-(152). Halere, laguntzaile iragangaitzaz ‘jaitsi’ adiera du, eta aiseago ageri da horrela (153)-(161), forma kausatiboaren desemantizazioa (*bleaching*) suposatzen duena:

- (146) *Eznez erregala zezan / bere zurati erautsirik. “[II] la régala de lait puisé à sa propre cruche.” (O Po XXVI 17)*
 (147) *Escu escugnaren bolharriala eraistiaz. (Bp I 44)*
 (148) *Curutchetic eraixiric. (Bp II 52)*
 (149) *Haurra eky hiltcen duc, / eraixy behar diagu. (Edipa 128)*
 (150) *Jesusen Khurutchetic eraistia, eta haren Thoumban eçartia. (Khurutch 5)*
 (151) *Jesus Khurutchetic eraisten eta bere amari emaiten Dicie. (Khurutch 34)*
 (152) *Odol adorararri hortaric tchortabat eraixterat utz eçaçu. (Medit 176)*
 (153) *Martyren armada triumphantia [...] çoure hartcera eraisten. (HOrdre 182)*
 (154) *Ikhoussi dut espiritia eraisten celutic urço bat beçala. (EvS 1, 32-33)*
 (155) *Jauna, eztit ihour ere, [...], houriala ourthoukitcen naianic, eta ni eraisten niçan demboran, beste nourbait eraisten çait ni beno lehen. (EvS 5, 7)*
 (156) *Ainguriac bertaric / Gin ciren celuty, / Gugana eraixiric. (NLilia 11)*

- (157) *Nor ere ostiko khaldiz mandoarekila da erautsi.* (Egiat I 17)
(158) *Guitian arren eraixt / bertan çamarietarie.* (SteEli 670)
(159) *Eratchi içan çuçun / celutic lurriala.* (SteEli 1291)
(160) *Spiritu saintiaren eraistiaz orhitceco.* (DKhi 40)
(161) *Çoure seme bakhoitcharen lurriala eraisten icousteco.* (Medit 169)

Eraitsi forma kausatiboaren desemantizazio hori *erazi* hartzen duelarik ere sumatzen da (162); pleonasmorik gabe *jaitserazi* & *jauserazi* pareta ageri da (163)-(164):

- (162) *Familietan gaña eraitseraz litiro benedikzionerik handienak.* (CatS)
(163) *Jaits erazi ezazü gañetik zure grazia.* (Mst III 23, 5)
(164) *Lehenic sarthuren den Turkari buria jauseraciren deroc.* (MaiMarHil 111)

6.3.2.10. *Erakharri*

Oso abundanta da corpusean; agerraldi guztiek “faire venir” edo “faire porter” adieratakoak dira. Hona etsenplu batzuk baizik ez dakartzagu (165)-(170). Urrutyk hala forma pleonastikoa (170), nola oinarri aditza gehi *erazi* (171) erabiltzen du:

- (165) *Bereki ahalaz hontara erakhar ditcen bere haur, mithil eta nescatoac.* (Bp I 22)
(166) *Çoure aitciniala / eracarriren dit.* (StJul 512)
(167) *Siflor, erracarracq / bertan houna Julien.* (StJul 616)
(168) *Ene guerla gentia / çitiat eracarriren* (Xarlem 1037)
(169) *Erreguigna houna / bertan erakhardacie.* (SteEli 564)
(170) *Erakharacico beitie beren gagna galtce laster bat.* (Epit II 2, 1)
(171) *Haren aita eta ama ekharreraci çutien.* (EvS 9, 18)

6.3.2.11. *Erakhatsi*

Aditz hau arras ohikoa da euskalki eta garai guztietan, “enseñar; instruir, educar” adierarekin, eta horrela lekukotzen da lehenbiziz Zuberoan (172). Halere, ekialdeko mintzoetan jatorrizko adiera kausatibotik hurbilagoa den zentzu batekin aurkitzen ahal da, “montrer, faire voir” (OEH s.v. 2), (174)-(180) adibide sortak erakusten duenez:

- (172) *Ahateari igerikan erakastea.* (O Pro 12)
(173) *Behar lükeie eskolier üskara baizik eztakianer libriü huntan irakurten erakatsi.* (Mst I “Iracourçaliari”)
(174) *Haxarretic nuçu minçaturen / eta ene situationia / çoury erakaxiren.* (StJul 238)
(175) *Erregueren calitatiac / erakaxy nahy tut.* (Edipa 815)
(176) *Rempartaren gaignetiç / Eracax eçadaç beguia* (Xarlem 569)
(177) *Dugun has obragia / eta erakaxt goure jakitia.* (SteEli 1058)
(178) *Orai diret erakaxiren / ene bessouaren airia!* (SteEli 1402)
(179) *Franziako populu tristiak phakatzen dutian legarrek orok [...] erakasten deikie egia hau ekhia bezain klar.* (Chaho AztBeg XIII)
(180) *Deçagun eracax Gincouari arragreta haren ofensatuz.* (DKhi 3)

Archuk *ikhaserazle* bitxia erabiltzen du, *-ra-* morfemadun *erakhasle* ohikoagoaren ordezt (181):

- (181) *Uskal-herriko ikhaserazlek behar dutela bere skolierer frantsesa erakutzi* (Archu “Aitzin-beghi”)

6.3.2.12. *Erakhutsi*

Ikusi aditzaren forma kausatiboak nonbait bere balio zaharra iradokitzen du; bistan da, “montrer, faire voir” (SP *apud OEH*) adieren arteko lotura semantikoa estua da. Ez dugu *ikhuserazi* bezalakorik atzeman:

- (182) *Nekez irabazteak derakuske ongi begiratzea.* (O *Pro* 329)
 (183) *Apostoliak, hari nahi bazira behatu, erakhutsiko drauzu zure miseria.* (Tt *Onsa*)
 (184) *Irakourtu ukhen diçu / eta bere khortiar orori / erakhouxi ere badiçu.* (SteEli 832)
 (185) *Harek erakuxi deit / eni hanbat amorio.* (Malqu 125)
 (186) *Erakouts detçacogun goure arimaco çauriak.* (MaiMarHil 15)
 (187) *Erakhoutx eçaçu cer gaizki erran dudan.* (EvS 18, 23)

6.3.2.13. *Eraman / eroan*

Bi forma hauek *joan* aditzaren kausatibo zaharrak dirateke: 1) **e-ra-oa-n* > **erawan* > **eraban* > *eraman*; vs. 2) **e-ra-oa-n* > *eroan*. Zuberoako euskara historikoan bata zein bestea atzeman daitezke. Forma hauek guztiz lexikalizatuak dira, haien adierak ‘llevar / porter’ erran-nahian sailkatzen direlarik. Mounoleren arabera, “Déjà aux 15^{ème} et 16^{ème} siècles les verbes *eraman* et *eroan*, tous deux issus de *joan* « aller, partir » par l’adjonction du préfixe de causatif, ne rendaient pas « faire aller, partir » mais plutôt « emmener » (cf. Lafon 1943-I : 282)” (2012: 149-150).

Halere, gure corpusak *OEH*-k eskaintzen duen informazioa osa dezake: “*eroan* (*eruan*), única forma [en textos suletinos] hasta el s. XVIII, alterna con *eraman* a partir de esta época; hay *eraman* en Oihenart” (s.v. *eraman*). Guk, aldiz, Tartasengan, Belapeirerengan (Bp I 148) eta Oloroeko katiximan ere (*Catolo* 95) aurkitu dugu *eraman*. Bestalde, *OEH*-ren arabera Zuberoan *ereman* aldaera Eguiateguyk baizik ez du ematen, baina egiazki hura baino lehen 1769koa den *Petit Jean eta Sebadina* fartsan aurkitu dugu (111), gehi beste zenbait fartsatan ere: 1807ko *Malqu eta Malqulina* (20, 137, 272, 432 & 446); *Boubane eta Chilhoberde* (70, 76, 88, 89 & 117di); gehi *Pierrot eta Saturna*. Beraz, iduri du Zuberoan *ereman* aldaera bereziki herri tradizioko testuetan baliatua izan dela. Lehenbiziko testuetarik *eraman / eroan* parearen balio kausatiboa ihartua izanik, hemen ez luke zentzurik haren agerraldirik eskaintzea. Aldiz, *joan*-en kausatiboa *erazi*-ren medioz gauzatzen da testuetan:

- (188) *Hantik apart Ioan eraziteko.* (Tt *Onsa*)
 (189) *Ocasione theietara jouaitia, jouaneraztia, halaco hartcia.* (Myst 27)
 (190) *Guizounen herrocan Jouan erazle Aphezac.* (SGrat 24)

6.3.2.14. *Erantzun*

Zuberoan ez dugu *erantzun* aditzaren adiera berria aurkitu, bertako mintzairan *ihardetsi* edo *arraposta eman* bezalakoak erabili izan direlako. Aldiz, haren balio kausatiboa ondoko adieretan igartzen ahal da: “proclamar, dar a conocer, hacer oir”, zein “hacer oir, obligar a oir” (*OEH* s.v. 2). Lehena (191)-(197) adibide multzoan jaso dugu:

- (191) *Berri hon hori, / Dinat goraki eranzunen*. “Je proclamerai cette bonne nouvelle” (O *Po* IX)
- (192) *Hur' ezagutzen duten / Oro haren bertuten, / Goresten, eta bertzer / ari dir 'eranzuten*. “Tous ceux qui la connaissent ne cessent d'exalter ses qualités et de les proclamer aux autres” (O *Po* XII)
- (193) *Zure laidoriua largoki erantzün dezadan zure khorte saintian*. (Mst III 23, 4)
- (194) *Ebanjeliua erantzünik izan den mementotik*. (*CatS*)
- (195) *Hanti duk erantzuten hire kurrunkaren herots ozena*. (Chaho *AztBeg* III)
- (196) *Jenebieba nuren odres, hits falsü hau erranzünin, / Aizuer eta jüstizia, hegilüzila jin zenin*. (Etch “Complainte Heguilus”)
- (197) *Mihi bat estuçü aski çoure hountarçun handiaren erantçuteco*. (*Myst* 40)

Jatorrizko balio kausatiboa lekukotu izan da: *OEH*-k ematen duen etsenplu bakarra Belapeirerena da (198); gure corpusean, horretaz landara, XIX. mende hastapenean ageri da, guztiz arkaikoa gertatzen dena (199):

- (198) *Meça ossoki ençuten eztianac; Aita améc, Burçagui burçaguissec bere haur eta cerbutcharier ahalaz erantçuten eztieneç*. (Bp I 107)
- (199) *Ene beharriari erantçunen dutuçü placerezco eta boztariouzco hitçac*. (*UskLi* 122)

Azkenik, Belapeirek kausatiboaren pleonasma bat darabil (200). XVIII. mendearen erditik aitzina *entzunerazi* azaleratzen da, kausatibo zaharraren ordezkatzeko (201)-(205):

- (200) *Erantçun eraci behar gutianari beçala* (Bp I 62)
- (201) *Entzün erazitzen deiztadzü, Jauna, zure jüjamentiak*. (Mst III 14, 1)
- (202) *Çoure mania / [...] mundu orory / entçun eraciren dit*. (*StJul* 704)
- (203) *Meça saintiaren ençun eracitez*. (*UskLi* 49)
- (204) *Jaunac orai bere botça entçun erazten deiçu*. (*Medit* 97; ikus 161)
- (205) *Meça Saintiaren entçun eraztez*. (*HOrdre* 96 & *Myst* 60)

6.3.2.15. *Eraşi*

Akitaniako mintzoetan nagusiki “hablar, murmurar (peyorativamente)” adieran lekukotzen da. Gure corpusean soilik Oihenartek darabil aditz zahar hau, adiera bigarrenkari hauekin: “hacer ruido (el carro)” (*OEH* s.v.) (206), eta “discourir, faire quelque récit ou narration” (O *VocPo*. *apud OEH*) (207). Bestalde, gogoratu behar da mendebaldean badela *erasan* ‘esanarazi’.

- (206) *Idiak erasi beharrean, gurdiak*. “Ce serait au bœuf de se plaindre, [mais] c'est la charette qui fait du bruit”. (O *Pro* 273)

- (207) *Haurrak athean duena erasi, sukaldean zuen ikasi.* “Ce que l'enfant a raconté hors la porte”. (O Pro 620)

6.3.2.16. *Eratxeki*

Aditz honen agerpena haren lehen adierari hertsatzen zaio: “1. Unir(se), pegar(se), adherir(se); añadir(se); ligarse a. "Arraxaque [...] a vasconico aratxeki, id est quod retinet firmiter" O Not 47. "Pegar una cosa con otra", "añadir" Lar.” (OEH s.v.) (208)-(212). Urrutyk *eratxeki* zein *iratxeki* ematen du (211)-(212):

- (208) *Gracia da celuco dohain bat, çougntçaç espirtu saintiac goure entheleguiari argui bat eretchekiten beitu.* (Mst II 10, 3)
 (209) *Nüri nahi dük horrez / eratxeki külpä?* (CanBel 363)
 (210) *Cerbait elhe gaichtoki eraiki diekienian, damu eretchekitcia.* (Myst 28)
 (211) *Ciec ere, [...] eratcheki eçacie cien fediar berthutia.* (Epit II 1, 5)
 (212) *Johane cen arguiçagui arguitxu bat, eta ciec nahi içan cirade iratcheki.* (EvS 5, 35)

6.3.2.17. *Ertzan*

Ertzan aditzaren kausatiboa, “acostar, hacer acostarse” (OEH s.v.). Euskara Arkaikoan (Etxepare, Lazarraga) eta zaharrean lekukotua (Axular, Haranburu), gero Penintsulako egilerengan aurki daiteke (Mendiburu, Añibarro edo Frai Bartolome, besteak beste) (OEH s.v.). Zuberoako testuen corpusean agerraldi bakarra aurkitu dugu, forma eratorri batean (213). Ez dugu *ertzan* erazi atzeman.

- (213) *Haurren ourthia beno lehen berequi eratçaliac, ithotcen badira.* (PrS 26)

6.3.2.18. *Erauntsi*

Atzeman dugun lehen adiera honakoa da: “golpear; atacar, acometer”, XVII eta XVIII. mendeetako Iparraldeko egilerengan lekukotua, zein XIX. mendeko Bizkaikorengan ere (OEH s.v. 1); Zuberoan XIX. mendean ere ageri da (215):

- (214) *Campaturiq diagoçu / bere apartamentian, / ezticigu bataq ere / eraumxy combatian.* (Edipa 441)
 (215) *Segur da khiristien erreljioniaren foundamen solidoua eztiela secula erauntxiren borthiztarçunec çotukaeraciren, ez eta ere tempesten bouiltec egoitçhiren.* (HOrdre 3-4)

Bestenaz, *erauntsi*-k ‘zerbaitez, okupatu, zerbaitetara dedikatu’ adiera har dezake. Larrasquetentzat “Ce verbe n’a pas d’infinitif futur ni de subst. verbal, ni, par suite, les temps formés de ces derniers” (OEH s.v. 4):

- (216) *Batere herioaladrano ofizio hortan erauntsi direnetarik.* (Egiat I 25)
 (217) *Zeren atzione itxusia / beitie kometitü, / paphakan eraunz düe / eta emastia gehientü.* (Jouanic 12)

- (218) *Eta estiina eran nahi / non etzanik egon hizan / ala borokan erauxi dien / mithil batekilan. Haria [mintza]. Ama eraiten deiziüt / enizala ihon etzan / ez eta eraunxi / ihureki borokan. (Bala 54-55)*
- (219) *Ikhüsiren düzie Malkülina / dolore haunditan, / duelian eraunxirik / büüzagiarekilan. (Malqu 33)*
- (220) *Jesus-Christec berac nahi içan da travaillatu: mayasturugouan eraunci du, St-Josephen boutigan. (Medit 104)*
- (221) *Parisen erauntsi die / aberatsen kuntra; / heben aldiz emaztia / senharrari joka. (CanBel 236)*

6.3.2.19. Erauzi

Jauzi aditzaren forma kausatibo zaharra da hau. *OEH*-k jasotzen dituen beste anitz adieren artean, gure corpusean *erauzi* aditzak bi hartzen du. Lehena “hacer saltar” da, beraz erran-nahi kausatibo zaharra (s.v. *erauzi* 7), Zuberoaz gain Baztanen eta Tolosaldean ere lekukotu izan dena (222). Bestenaz, erran behar da Leizarragaren hiztegiñoan *iraulzkatzea* formaren ordaina Zuberoan *itzulerauzkatzia* elkartua dela, Lhandek ere jasoia (Foix hiztegitik hartua). Bigarren adiera ‘desegin, suntsitu’, “arruinar” litzateke, Gèzen arabera Lapurdin eta Zuberoan baliatua (*apud OEH* s.v. 5). Azkenik, jada XVIII. mendean corpusean bada *jauzerazi*, morfologikoki *erauzi* baino modernoagoa (224):

- (222) [...] *diano bihotzak bere indar güziaz odola igan-erazi nahiz, da erauzten. (Egiat I 35)*
- (223) *Hirien erauztera eta funditzerano. (Ip Dial 23)*
- (224) *Güti saritan orai / jauzerazi nitzirot südüira (Jouanic 40)*
- (225) *Nik defenda eta / zük ützi behar zünina / merexi zünüke / jau erazitia büürüko hüna. (Bala 12)*

6.3.2.20. Erazagütü

Zuberoan *ezagütü* aditzaren forma kausatibo zaharra Belapeirek du ematen (226)-(229). Euskara osoan lekukoen zerrenda ez da oso luzea: Haraneder, Inchauspe, Urte, Duvoisin eta Hegoaldeko egile berankor batzuk. XVIII. mendearen azken partean *ezagiüterazi* berriak ordezkaturako zukeen (230)-(232) —hau da, Leizarragak *ezaguterazi* erabili (8) baino nabarmen berantago—:

- (226) *Escritura saintiac eraçagut litcen. (Bp II 76)*
- (227) *Gouri eraçagutceco, [...] Trinitate Saintuco Lehen persona dela. (Bp I 30-31)*
- (228) *Cegnhare agueri bat, çognec Jesus-Christen manuz eta indarraz eraçagutcen, eta emaiten baitericu Gracia agueri eztena. (Bp I 59)*
- (229) *Eraçagutceco Ama Virginari harentiar niçala. (Bp I 122)*
- (230) *Eçaguteracitcen edo marcatcen bada. (Mercy 13)*
- (231) *O Maria! Eçaguteraz eçadaçu certain huts eguin dudan. (MaiMarHil 32)*
- (232) *Çouign prest beita eçagutaraciric içateco azken demboran. (Epit I 1, 5)*

6.3.2.21. *Erazan

Ezaguna da hego nafarrera zaharrea XVII. mendera arte **erazan* aditza baliatzen zela (Camino 2003b: 444), **ezan*-ekiko banaketa osagarrian: bata forma hirupertsonaletan eta bestea bi pertsonaletan (cf. 328. oharra). Mounoleren hitzetan, “C’est non pas **ezan* mais **erazan* qui est employé dans les constructions triactanciellles. Autrement dit, dans ce cas précis, le préfixe *ra-* permet un élargissement de la valence de type applicatif” (2012: 149). Zuberoan behin ageri da **erazan*, baina ez forma ditransitiboan laguntzaile gisa izan duen espezializazio horretan, **ezan* aditzaren egiazko forma kausatibo bezala baizik. (233)-ko perpausean, **ezan* aditzak adieraz litzakeen hiru argumentuez gainera —zuk, Agustini & despendioak—, laugarren bat agertzen da —Kurutzagari—, eta balentzia gehitze hori *-ra-* morfemaz gauzatua da:

- (233) *Curutchagari baka eraçacoçu bere despendioac Aguostini, eci guertuz pena hartu du gauaz eta egunaz haren amorecatic, hartu nahiz Aguot ohogna* (Etchart 7, 2r).

6.3.2.22. Irabazi

Aditz honen balio zaharrak galdua da testu zaharrenak baino lehenagotik; hortaz, ‘ganar’, ‘conseguir’ adieretan lekukotzen da beti (234)-(239). Aditza horrela lexikalizaturik, ez da harritzekoa azken etsenpluan *erazi* hartzea:

- (234) *Nekez irabazteak derakuske ongi begiratzeta.* (O Pro 329)
 (235) *Fortuna ona, ardietz, eta irabaz ahal gendezan.* (Tt Onsa)
 (236) *Paradusiaren iravazteco.* (Bp I 29)
 (237) *Haren graciën moianez irabaz diroiala egun oroz gloria eternala.* (Othoitce 4)
 (238) *Dakielakoz behar dükiela beren ogia irapaizi.* (Egiat I 15)
 (239) *Lehen victoria horrec beste hanitch irabaz eracico deiçu.* (Medit 93-94)

6.3.2.23. Iradoki

2. (O-SP →A, H). Sacar, hacer salir. "Idarokitea, faire sortir" O-SP 223. "Faire sortir au dehors, tirer dehors, ôter quelque chose de la place qu'elle occupe. Xorikumeak ohantzetik iradoki, avoir fait sortir les petits oiseaux de leur nid" H. *Tronpatzen zütu koki horrek, / xarmatü zütü osoki, / zure zenzü orotarik / zütü iradoki.* StJul 38r. *Oro hiri huntarik iradoki behar tüzü. Abraham (ap. DRA). (OEH s.v.)*

Iradoki aditzak “sacar, hacer salir” (OEH s.v.) jatorrizko balio kausatiboa atxikitzen du Zuberoako testuetan, bestelako adierarik lekukotu gabe. Halaber, OEH-ko adibideen arabera adiera kausatiboa Zuberoara mugatuko litzateke. Halere, XIX. mendean *idokarazi* ageri da (244):

- (240) *Ppharadussuti camporat iradoki, eta infiernietarat egoytci ican cen.* (CatOlo 25)

XIX. mendean zubereraren gramatikagile nagusiek ere optatiboa jaso zuten. Chahok «conditionnel abstrait» etiketa pean bildu zuen (1836: 158), eta horri jarraiki zitzaion Belsunce (Mounole, 2003: 341-342). Inchauspek *votif* bezala sailkatu zuen, bi aldi bereiziz: 1) geroaldia («*ailédi!* - *ailéza!* plut à Dieu qu'il...») eta 2) orainaldia («*ailitz!* plût à Dieu qu'il fut ! - *ailu* plût à Dieu qu'il eut !»). Gèzek ere bi aldi horiek eman zituen, **edin* & **ezan* laguntzaileekin eratuei potentzialaren ñabardura esleituz: «*aikína* plût à Dieu que nous fussions - *aikínte* puissions-nous être» (1873: 95); orobat egin zuen Van Eysek (1879: 232). Bonapartek paradigmarik osoena eskaini zuen (ikus 89. TAULA). Ithurryrentzat, azkenik, «Le *votif* est formé du suppositif [= baldintzazkoa] en remplaçant *ba* initial par *ai*. Ex. : *Ailego*, plaise à Dieu qu'il restât (actuellement)» (1895: 63). Ithurryk orainaldikoa zein burutua bereizi zituen: «*Ailu eramaten*, plaise à Dieu qu'il l'emporte ; *Ailu eraman*, plût à Dieu qu'il l'eût emporté» (*ibid.*, 76), **edin* laguntzailearekiko formak ere jasoz (*ibid.*, 94); beste pasarte batean optatibozko perpausen sintaxi markatuaz ohartarazi zuen: «Dans les phrases affirmatives à tous les temps (à part le *votif*), les infinitifs se placent, en général, devant les verbes auxiliaires» (*ibid.*, 383).

89. TAULA. Optatiboa Bonaparteren lanean (1869 I: 7. taulatik egokitua).

	présent	<i>ailitz erorten!</i> 'tombât-il !'
	parfait	<i>ailitz erori!</i> 'fût-il tombé !'
Optatif du conditionnel	parfait absolu	<i>ailitz eroririk!</i> 'fût-il déjà tombé !'
	parfait antérieur	<i>ailitz erori izan!</i> 'fût-il tombé !'
	parf. ant. absolu	<i>ailitz izan eroririk!</i> 'fût-il déjà tombé !'
Optatif du pot. conditionnel	futur	<i>ailedi eror!</i> 'tombât-il !'
	futur antérieur	<i>ailedi izan eroririk!</i> 'fût-il déjà tombé !'

XX. mendean ere optatiboa bildua izan da. Bonaparteren ildotik, Gavelek eta Lacombekek zortzi aldi proposatzen dituzte optatiboarentzat: «présent simple : *ailu* | présent en action : *ailu ikusten* | parfait : *ailu ikusi* | parfait composé : *ailu ikusi ukan* | présent propositif : *ailu ikusiren* | parfait propositif : *ailu ikusi ukanen* | futur présent : *ailleza ikus* | futur parfait : *ailleza*

³⁸⁰ «Optativum duo producit tempora, scilicet iunctum participio præsentis, præteritum *Imperfectum Optativi*, ut *ainins egoiten* utinam manerem; iunctum verò participio præteriti producit præteritum *perfectum*, ut *egon ainins* utinam mansissem» (Oihenart, 1656: 68).

ikusi ukan» (1937: 60). Larrasquetentzat bi aldien arteko desberdintasuna denborazkoa litzateke: orainaldian eta geroaldian «*ainendi abia* plaise à Dieu que je parte», eta iraganaldian «*ainintz abiatu* plût à Dieu que je fusse parti(e)» (1939: 36-37). Casenave-Harigilek oraineko eta geroaldiko formak eman ditu, soilik joskera perifrastikoan (1993: 492, 507, 522 & 535). Azkenik, Caminoren arabera optatiboa «balizko adizkerekin, **edin* eta **ezan* aditz laguntzaileekin eta aditz trinkoekin baliatzen zen, eta denboraren aldetik, oraina, iragana nahiz etorkizuna adieraz zitzakeen» (2013: 121).

Laburbilduz, euskararen optatiboa aditz jokadura mailan gauzatzen da, pertsona guztietan joka daiteke, eta soilik igurikimen eta desioen adierazpenerako baliatzen da; horrela, Dobrushinak, Van der Auwerak eta Goussevek (2013) kategoria horrentzat ezarri hiru murriztapenak betetzen ditu. *Ai(t)*- aurrizkia harturik, optatibozko formek sintaxi markatua agerrarazten dute: perpausaren hastapenean, eta aditz laguntzailea forma jokatugabearen ezkerrean. Joskera perifrastikoan, gramatikagileek gutxienez bi aldi bereizi dituzte optatiboaren baitan, lehena *izan* & **edun* laguntzaileekiko, eta bigarrena **edin* & **ezan* parearekiko. Beraz, aditz nagusia gutxienez bi formatan ager daiteke: partizipioa — perfektiboa nahiz inperfektiboa— eta aditzoina.

2.2.2. *Ai(t)*-dun optatiboa testuetan

Beharbada optatiboa deskribatu duten gramatikagileak Zuberoako euskaraz ari zirelako, edo haren formek lurralde horretan iraun dutelako luzeenik, bertako euskararen ezaugarritzat hartua izan da. Halere, Zuazok erremarkatu bezala (1989: 636), jada Van Eys ohartu zen Leizarragak eta Axularrek optatibozko formak baliatu zituztela (1879: 501), eta Lafonek ere beste zenbait adibide bildu zuen (1944 I: 494-495). Beraz, *ai(t)*-dun adizkiak ongi lekukotuak dira Lapurdiko testu zaharrenetan (11)-(16):

- (11) *Ailitez trenca çuec trublatzen çaituztenac*. ‘À la mienne volonté que ceux qui troublent vostre repos fussent retranchez’. (Lç Gal 5, 12)
- (12) *Ainençaçue supporta appurbat neure erhogoán*. ‘À a mienne volonté que vous me supportissiez vn petit en ma folie’. (Lç Cor II 11, 1)
- (13) *Aitzineçate regna, guc-ere çuequin batean regna deçagunçát*. ‘À la mienne volonté que vous regnissiez, afin que nous aussi regnions avec vous’. (Lç Cor I 4, 8)
- (14) *Baceaquizquiat hire obrác, ecen ezaicela ez hotz ez eraquin: aihinz hotz edo eraquin*. ‘Je sais tes œuvres, que tu n'es ni froid ni brouillant : à la mienne volonté que tu fusses froid ou brouillant’. (Lç Apok 3, 15)
- (15) *Hauc dira (eta Iaincoac aillioṡsa liren asco) haraguiaren beccatuan ez erortceco [...]* behar diren erremedioric principalenac. (Ax 419)

- (16) *Eta gaixtoeneko contuan, aillequitça hec ere, edo hec bedere gueldi.* (Ax 173)³⁸¹

Adierazgarriago dena, mendebaldeko testu arkaikoetan ere ageri da optatibozko formarik (17)-(18); bigarrena ez da segurua, baina guri hala iruditzen zaigu.³⁸²

- (17) *Eder baliz, on ez eiliz.* ‘Fuese hermosa y no buena’ (Garibay, A56), «referido a los que buscan en los matrimonios hermosura más que virtudes» & *Ederra bai liz, ona ez ei liz.* ‘Si fuese hermosa, nunca fuese buena’ (Garibay, B10, *apud OEH*, s.v. *ai(t)-*).
 (18) *Ay joat gauraya / [...] Ayt joat gabiraia.* (*Perutxoren kanta*, 4 & 7, TAV 104)

Beraz, Euskara Arkaikoan *ai(t)-* moldeko optatiboa gutxienez Aturri aldean zein Mondragoen lekukotua da. Ondoren, Lapurdin Axularrek (15)-(16) eta Etxeberri Ziburukoak (19) *ai(t)-* aurrizkidun optatiboa baliatu zuten,³⁸³ baina bereziki Pouvreaux, forma gehien eman duen idazleak³⁸⁴ (20)-(36). Haien artean *izan* & **edun* (20)-(27) zein **edin* & **ezan* laguntzaileekikoak (28)-(29), edo Jainkoari lotua den *ailiotsa* forma³⁸⁵ trinkoa (30)-(33) aurki

³⁸¹ Hona Axularren bi optatibozko formei egin zaizkien iruzkinak. AILEKITZA: «Aditzaren aurrizki hunek (*ai-*) gogo bat edo nahi bat aditzera ematen du. Ikus R. Lafon (1944 I: 394). Beherago dator beste kasu bat: *ailiotsa*, 271. Oihenartek hunela itzultzen du: ‘pleust a Dieu qu’il dit’ (*RIEV* 4: 225)» (Villasanteren oharra, *apud* Urgell, 2015: 96); «beraz, ‘oxala geldi balekizkio...!’» (Urgell, *idem*). AILLIOTSA «ailezaio (opa)! ai balezaio!» (Urgell, 2015: 236, Lekuonaren oharra jasorik). Azkenik, aipa dezagun Larramendik bere *Suplementon Jainkoak* → *Jainkoari* zuzendu zuela, seguruenik aditzaren *io* datibotzat harturik (Urgell, 2000: eranskinak 303). Forma honetaz, cf. 385. oharra.

³⁸² “*Ay joat gauraya*, v. 4. *Ayt joat gauraya*, v. 7. Todos parecen inclinarse por la primera lección, que daría una interjección y una forma bipersonal de imperativo, que no parece estar directamente atestiguada en otra parte, “Ay, véteme, gavilán”. De mantener *ayt*, se podría pensar en el prefijo *ait(t)-* (vizc. ant. *ei*) de “votivo” [...]. Pero esto exigiría una forma verbal distinta (de “pasado”) y en todo caso el sentido vendría a ser aproximadamente el mismo” (Mitxelena TAV 104). Gure ustez, badira bigarren irakurketaren aldeko argudioak. Batetik, *ayt* ez optatibozko aurrizki, baizik eta auhenezko *ai* interjekzio gisara irakurtzeak inprentako huts baten zuzenketa inplikatzeko, zeinetan okerreko karakterea kasualki *t* bailitzateke. Bestetik, Mitxelenak *ayt joat* formak optatiboa izateko iraganaldiko adizkia behar zukeela zioen arren, orainaldikoa ere izan liteke —cf. *Acto* 262, (37) adibidean edo, beste maila batean, Pouvreauxenak, (34)-(36) adibideetan—; nolana ere, ez litzateke harriztekoa bere azkenetan den ezaugarri baten aitzinean hitzunez halako zalantzarik ager lezaten. Azkenik, lehen irakurketak ere lekukotu gabeko forma bat eskatuko luke.

³⁸³ Lafonen arabera, Harizmendik ere *ai(t)-* moldeko optatiboa ezagutzen zuen (1944 I: 73); halere, guk ez dugu halakorik atzeman.

³⁸⁴ Pouvreaux optatiboaren hemeretzi agerraldi ematen ditu, ordura arteko gainerako egile guztiengan lekukotu ditugunak baino gehiago. Ezin ahantz daiteke Pouvreaux euskaldun berria zela eta, beraz, idatzizko molde ikasiak erabiltzen zituela. Haren hiztegiaren iturri nagusien artean Oihenarten idazkiak dira; hori ez ezik, badakigu Pouvreaux Oihenartengana jo zuela laguntza eske: «aintzakotzat hartu behar da XVII. mendean euskaldun peto asko ez bide zirela gai izango Leizarraga baten hizkuntza arkaizantea, Etxeberri baten bertsogintza bihurria eta Axular baten prosa joria ulertzeko» (Etxagibel, 2014: 555). Hortaz, Pouvreaux «Oihenart izan baitzuen gidari nagusi eta ia bakarra» (*ibid.*, 580), optatiboaren maiztasuna mauletarraren eragipenari zor zaiola postula genezake; cf. 385. oharra.

³⁸⁵ *Ailiotsa* adizkia Axularri hartua izanik ere, Pouvreaux Oihenarti galdegin zion forma horren erran-nahiaz: «AILLIOTZA, veut dire pleust a dieu quil dit» (Urquijo, 1910: 225). Gure ustez, Oihenarten erantzuna forma bere

daitezke; halere, markagarriena orainaldi morfologikoaren gaineko formarik eratu izana da, *-(e)la* edo *-(e)n* atzizkiez horniturik (34)-(36).

- (19) *Aitnetça* *hec [zure manu sainduak] /vngui guarda / Iauna ona, bethiere.* (EZ Eliç 207-208)
- (20) *Aininz* *baso zuri egun bateko bedere serbitzurik zuri egiteko dagotzun bezala.* (SP *Imit* III 10, 4)
- (21) *Aigine* *mundu hunetan egun batez bedere prestuki ibilli.* (SP *Imit* I 23, 2)
- (22) *Aitzine* *halakoa, aitzine* *etorri zeronek zure buruaren ez maitatzeko, bainan ere keinura xoilki behatzeko.* (SP *Imit* III 32, 2)
- (23) *Zein laster iragaiten den munduko loria! Ailitzaio* *hekin bizitzea ardietsi zuten iakintasunari.* (SP *Imit* I 3, 6)
- (24) *Ailitzaiku* *egun hura ilki! Ailute* *hemengo kauza guziek fin hartu.* (SP *Imit* III 48, 1)
- (25) *Ailu* *Iainkoak nahi munduan diren guziak salba ahal banetza.* (SP *Dotrina* «*Quinque puncta ante vel post missam vtilissime dicenda*»)
- (26) *Ailu* *Iainkoak nahi halako beharrik ezpaliz, bainan arimako othuruntzatzerik xoilki baliz nolakorik, helas!* (SP *Imit* I 25, 9)
- (27) *Aitzendu* *merezi zerbaiten pairatzea Iesus-en izenagatik!* (SP *Imit* II 12, 13)
- (28) *Hala ere aineza* *oren erditsu hura bedere behar bezala iragan.* (SP *Imit* IV 1, 4)
- (29) *Aitzinitzat* *serbitza ahal bizi naizen egun guziez!* (SP *Imit* III 10, 4)
- (30) *Iainkoak ailliotza* *haren seme maitea gonbidatua lizen eztei guzietara.* (SP *Phil* 38. kap.)
- (31) *Iainkoak ailliotza* *bertuteen aitzinamendua elizen osoki loakartu zure baitan.* (SP *Imit* I 18, 6)
- (32) *Ailiotza* *zure ontasunak nahi sobera hagitz kexa enendin etorkizuneko kasuak gatik.* (SP *Imit* III 39, 1)
- (33) *Ene kalteak egin nau iakinsun, eta Jainkoak ailliotza* *zure ontasunak nahi hala gertatu lizen.* (SP *Imit* III 45, 4)
- (34) *Ainadilla* *bada bizi egin merezi eta behar bezala.* (SP *Imit* III 15, 2)
- (35) [...] *egin ere bedi hala, eta ainadin* *meregidun gertha.* (SP *Imit* III 56, 4)
- (36) *Berdin pairatu behar dut, eta aidezadan* *emeki paira.* (SP *Imit* III 29, 2)

Hegoaldeko testu bakanetan ere lekukotua da *ai(t)*- optatiboa. Mendebaldean, Garibay eta Perutxoren kantaz geroztik (17)-(18), XVIII. mendean beste forma bat aipatu behar da, *ei* bokalismoaz (37). Forma horren apartekotasuna azpimarkatu beharretan gara, orainaldiko adizki baten gainean eraikia izateagatik. Izan ere, *Pouvreau* salbuespentzat harturik —puntu honi doakionez bederen haren euskal senaz duda egin liteke; cf. 384. oharra—, orainaldiko formetarik abiatu optatibozko adizkien naturaltasuna eztabaidatua izan da (Oyharçabal, 1997: 62, 8. oharra); Mounolek XVIII. mendeko garapen gisa ikusten du (2011: 217).

testuingurutik kanpo hartzetik datorke, **io* ‘erran’ gisara harturik. Nolanahi ere den, *ailiotza* adizkiaren gibelean datzan erroa ez dugu segur identifikatu; iduri luke **io* izatea: beste kasu batzuetan gertatu den bezala, *ailiotza* datibodun adizkia izan zatekeen, gero ergatibodun bilakatua; bidenabar, horren paraleloa izan liteke *Jinkoak ailema/ ailemo* (cf. § 2.3.8).

Guztiarekin, beharbada orainalditik abiatu optatibozko formak existitu dira: *Pouvrearenez* eta *Acto*-koaz gainera, Perutxoren kantako *ayt joat* halakoa dela defendatu dugu (ikus 382. oharra). Bestenaz, XVII. mendeko Nafarroa Garaian agerraldi bat aipa dezakegu (38), *-n* bukaera duen iraganaldiko aditz batean.

(37) MARI GABON: *Edan eitegi adinon*. (*Acto* 262)

(38) *O Cometa Guizonen / Lotzazale bortiza / Ioan aitziñan Turcoaren / Buru cruela guenzera* «Fueraste, ò cometa vago / astro espurio a la otomana / cabeza cruel tirana / digna solo desde estrago». (*Gure Erregue Philippe Andiaaren heriotzean* 27, in *TAV* 137)³⁸⁶

Zuberoako euskara denaz bezainbatean, *ai(t)*-dun optatiboen agerpena guztiz ezohikoa da. XIX. mendera arte soilik Oihenarten olerkietan eta *Noelen Lilian* (1782) atzeman dugu halako formarik; Lopezen itzulpena gehiturik, ekialde hertsiko mintzoetan orotara lau adibide ekar dezakegu (39)-(41). Diferentzia Inchauspek markatzen du: bere idazlan goiztiarretan optatiboaren adibide bakarra eman arren (42), *Le verbe basque* lanean modu horri ematen dion presentziak bere isla duke geroko ekoizpenean, eta bereziki *Imitacionian* (44)-(53). Horrek bide ematen digu pentsatzeko a) optatiboa bereziki presente zela Inchausperen mintzoan; edo b) Inchauspek forma horien aldeko hautu bat egin zuela.³⁸⁷ Bistan da, Maisterren itzulpenean agiantza eta dolua bestelako adierazpideren bitartez adieraziak dira; cf. 388. & 389. oharra.

³⁸⁶ «Un arcaísmo interesante es *ioan aitziñan*, v. 27, que, con Vinson (quien estampa *ailziñan*, pero *aitziñan* en el comentario), hay que interpretar como una forma de “votivo” (“¡Ojalá hubieras venido!” [...]), aunque de pasado. O ¿se tratará de *altziñan*, de valor equivalente?» (Mitxelena *TAV* 138). Bada, Vinsonek eta Mitxelenak ez bezala, guhaurrek koplaren iturria den 1666ko liburuaren ale baten kontsultatzeko parada izan dugu, New Yorkeko Hispanic Society of America delakoaren liburutegian gordetzen dutena —gaztelaniazko «perifrasia» hortik dugu transkribatu—. Bertan garbiki *ailziñan* irakur daiteke, baina uste dugu inprintako hutsa dela. Hona Vinsonen iruzkina, *ailziñan* → *aitziñan* zuzendurik: «*aitziñan* “puisses-tu être” (ces formes en *ai* préfixé sont rares dans les dialectes modernes)» (Hovelacque, Picot & Vinson, 1880: 203).

³⁸⁷ Iduri luke Inchauspek *ai(t)*- optatiboa ikasia zuela; horren seinale dateke (48) adibideko *aicintzaket* forma corpuseko *-ke*-dun optatibo bakarra izatea.

- (39) *Egundan ez-ailiz jaio gaxtagina / Ederza, nezkato onaren zegina, / Edo jai -eta, berhala / Hil ailiz, inhar bezala. «Plût au ciel qu'il ne fût jamais né, le scélérat qui fit Beauté servante de Richesse, ou que, à peine né, il se fût éteint, comme une étincelle !» (O Po VI 4)*
- (40) *Sobera guihaur beithan poroança diici otoitzçaren dugun beharras, eta ailira poroança suerte horiec becanago. (AR 97)*
- (41) *Amac Jesus beitaduca / Hersy besouen artian / Bat-bederac baleduca, / Alleduca, alleduca, / Bihoz erdian! (NLilia 9)*
- (42) *Aikunu Mariak bezala begiratu lehen grazia houra! Elas! elas! (Ip Hil 16)*
- (43) *Badakitza zure egitaiak, etzirela ez hotz ez bero, aizina hotz edo bero! (Ip Apok 3, 11; cf. Leizarragaren itzulpena, (14) adibidean)*
- (44) *Aikunu egun bat berbera ounxa igaran mundu hountan! (Ip Imit I 23, 2)*
- (45) *Oh! ezpaçunu beharric ez jan, ez edan, ez loic eguin! bena ai-cina bethi Jincoaren laidatzen, eta çoure arimaren espiritualki errekeitatzen! [...] Aikina beharrune horic gabe, eta ezkunu beste arrancuratic arimaren errekeitatzia baicic! (Ip Imit I 25, 9)*
- (46) *Ai-cina cerbaiten sofritzeco houn Jesusen icenagatic! cer ouhouria liçatekian çouretaco! (Ip Imit II 12, 13)*
- (47) *Hortan bacina! Ai-cina heltu çoure ciharen amourioaz bilaztera, eta ene eta Aitataco eman deiçudan ene Aitaren nahiar çoure buriaren uztera. (Ip Imit III 32, 3)*
- (48) *Aicintzaket cerbutza ene menteco egun oroz! ainintz capable egun bakhoitz batez berere, behar beçala çoure cerbutzateco! (Ip Imit III 10, 4)*
- (49) *Haur naiçula, coure cerbutzaria, prest nuçu orotara; ezpeiniz nahi bici enetaco, bena bai çouretaco; ainendi ounxa eta çuc merechi beçala! (Ip Imit III 15, 2)*
- (50) *Sofritu beharra badit; aineça pacentziareki, iraçarria igaran artio eta haro houna utzul artio! (Ip Imit III 29, 2)³⁸⁸*
- (51) *Ikhasi dit ene khostuz; ainitz heben-harat ohartiago eta ez ertzago! (Ip Imit III 45, 4)³⁸⁹*
- (52) *Eta aineça orano oren erdi houra berere ounxa igaran! (Ip Imit IV 1, 4)*
- (53) *Ainentzaçu coure presentziaz ossoki susta, erra eta cihaurtara khambia! (Ip Imit IV 16, 3)*

Orain arteko agerraldi guztiek agerian utzi dutenez, Zuberoan *ai(t)*- optatiboaren lekukoak oro idatzizko tradizioko idazleak dira. Alderantziz erraiteko, herri antzertiaren tradizioan ez dugu behin ere halako formarik atzeman, eta datu hori oso adierazgarria da. Nolabait, iduri luke zenbait idazlek, zenbait autore jasok, aditzaren joko optatiboaren gaineko kontzientzia atxiki lezaten; kontzientzia horrek halako jarraipena ukan du XX. mendean, ondoko atalean ikusiko denez.

³⁸⁸ Maister Jinkoak baletsa formulaz zerbitzatzen da pasarte honen itzulpenean: Behar citit segurki soferitu, Jincouac balexa, pacentziareki liçan, iraçarri haur igaren, eta thempora hobe bat jin artio.

³⁸⁹ Hemen ere Maisterrek ets erroa baliatzen du: Ene khostuç hori ikhasi dit, eta Jincouac dexala, eni gougoua haboro har eracitceco den, eta eç erhokeriala eiçteco.

2.2.3. Optatiboa XX. mendeko literaturan

Garai berrienetan, idazle batek *ai(t)*-dun optatiboak baliatu baldin baditu, idazle hori Jean Mirande da (54)-(61); erabili eta, zenbait kasutan, analogiaz sortu ere (61).

- (54) *Edozein leialtasunen zamaz aileki halaber bere burua askatzen.* (Mde Haur 1.)
- (55) *Lurra eta gizonak gazteago ziren aspaldiko adin horietan ailira bizi izan biok!* (Mde Haur 4.)
- (56) *Ailitz betiko sorgor egon!* (Mde Haur 4.)
- (57) *Zuen bitartez hunki ailitza zorioneko egoitzak Ortzi-Thor edo Akher Beltzari nik dagiodan othoitzak.* (Mde «Sanguis Martyrum»)
- (58) *Ai! goragotik ethorri-haizeek ailezate jo ene landetan et eiharraraz!* (Mde «Lili bat»)
- (59) *Morturik etorri sinesmen arrotza Euskal Herritikan aizinezate ken.* (Mde «Euskaldun laminei»)
- (60) *Aineza gal bizia goiz batez [...] Ainendi hil gazterikan, nihaur.* (Mde «Eresi»)
- (61) *Aineza gal bizia goiz batez / [...] / Aininderor gaztaroan, nerau / ikurriñik et' ikurrik gabe / [...] / Ainitza gal hats, arima, odol.* (Mde Po 53)

Mirandez gain, joan den mendeko beste zenbait idazlek optatiboazko formarik erabili dute. *Eskualduna* agerkarian argitaratu zubererazko testu bat izan ezik (62), eta menturaz Etienne Decrepten kasuaz apart (63), ez da dudarik gainerakoak optatiboaren tradizio *naturaletik* kanpo direla, hots, egile landuen ekoizpenaz ari garela (64)-(67). Hegoaldeko idazle eta euskaltzale multzo ikasia da, eta haietarik batzuk elkarlan estuan aritu ziren —Zaitegi eta Ibiñagabeitia, kasu; ez ahantz Miranderekiko harremanak ere izan zituztela—.

- (62) *Eta ailetze ogendiñek ororek, beren hütsak aithort, ni orai egitera noan bezain lañoki.* (*Eskualduna* 1913-2-14, *apud* OEH, s.v. ai-)
- (63) — PATZIKU: (hirriz) *Ongi zuak, hi bahau atxikitzaile!* — XANXIN: (begiak zerurat) *Aileza bertzerik! Behatzalliak hirriz.* (Decrept *Amatxi* 2. zathia)
- (64) *Iturriñoa bezela ainintz! / mundu otzari igesi.* (X. Peña *Iturria*, OEH)
- (65) *Oi, naiago berriz ailitzait yoana.* (Tapia Perurena, «Neskato utzia»)
- (66) *Onuntz erakarri gaitun zaldun aitor-seme au ikusi al izatea, Yainkoren batek ai-lizu emango!* (Zaitegi *Sof* 137 (136 ai-nintz), OEH)
- (67) *Zuen arteko ai-nintza, artzai edo zoritu mats-biltzaile.* (Ibiñagabeitia *Virgil* 63, OEH)

Zein helburuz baliatu zuten *ai(t)*- optatiboa? Jantziago egiteko ote? Badakigu idazle horiek, batzuek behintzat, iparraldeko tradiziotik edan zutela, *-i buruz* moldearen erabilpenak erakusten duenez (cf. OEH, s.v. *buru*). Halaber, postula daiteke Miranderen lana ezagun zutela; beraz, idazleen arteko eraginen mailako fenomeno baten aitzinean ginateke. Azkenean,

Miranderi gorazarre iduri dute idazle zenbaitek azken hamarkadetan idatzi olerkiek (68)-(69):³⁹⁰

- (68) *Baina, ai, ainendi berriz gaztea / Eta aineza neskatila hori ene besoetan!* (J. Sarrionandia, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ener poemak*, «Politika»)
- (69) *Aineza pentsa: dena ez da galdu. Ainendi berriz zure ispilu, bidaztiarena aintzira den bezala.* (K. Uribe, *Bitartean heldu eskutik*, «Urrun izanik»; cf. Miranderen *Eresi* olerkia, (60) adibidean)

2.2.4. Eremuaz eta iraupenaz

Zuberoako euskararen deskripzio lanetan ageririk (Oihenart, Chaho, Inchauspe, Belsunce, Gèze, Larrasquet, Casenave-Harigile, Zuazo, Etxegorri, Etxebarne), optatiboa zubereraren ezaugarritzat hartu izan da, nonbait euskalki *batuarena* bezala. Ikusi denez, *ai(t)*-dun formak egile arkaiko, zahar eta ez hain zaharren ekoizpenean lekukotuak dira, mintzo guztietan. Beraz, ez da dudarik *ai(t)*- optatiboa behiala hizkuntza osoaren elementua izan zela (Lafon 1944 I: 73; Zuazo 1989: 636; Mounole 2011: 102). Bestelako kontua da ezaugarri horren egiazko eremuaren garai batean edo bestean definitzea. Testuei lotuz, mendebaldeko euskararen hirutan ageri da optatibozko formarik; nafarrerazko egile batengan, Lapurdiko laurengan eta ekialdeko laurengan (ikus 90. taula). Dena den, ezaugarriaren maiztasuna oso baxua da: XIX. mendera arte, orotara 50 bat agerraldi bildu ahal izan dugu.

³⁹⁰ Kirmen Uriberen olerkia (69) aski zabaldu da Mikel Urdangarinen bertsio kantatuari esker, eta menturaz horren eragipenaz *ainendi* forma da *Literatura, Antzerkia, Euskara, Gizartea, Sexua, Estintoreak...* bigarren izenburu duen blogaren izena: <<http://ainendi.blogariak.net/>>.

90. TAULA. Optatibozko formen agerpena testuetan.

	forma perifrastikoak				forma sintetikoak	
	<i>izan, *edun</i>		<i>*edin, *ezan</i>			
	ALEGIA	ALEGIA	ORAIN	IRAGAN	ALEGIA	oro
Perutxoren k. 1536	-	-	-	-	<i>ayt joat</i> (ORAIN)	1
Leizarraga 1571	-	3	-	-	<i>aihintz</i>	4
Garibay 1591	-	-	-	-	<i>eiliz</i> (2)	2
Etxeberri Z. 1627	-	1	-	-	-	1
Axular 1643	-	1	-	-	<i>ailiotsa</i>	2
Oihenart 1657	2	-	-	-	-	2
Pouvreau 1660	7	2	3	-	<i>ainintz, aitzine, ailitzaio, ailiotsa</i> (4)	19
Aleson 1666	-	-	-	1	-	1
Barrutia 1755	-	-	1	-	-	1
Lopez 1782	-	-	-	-	<i>ailira</i>	1
<i>NLilia</i> 1782	-	-	-	-	<i>aileduka</i>	1
Ip <i>Apok</i> 1858	-	-	-	-	<i>aizina</i>	1
Ip <i>Imit</i> 1883	2	4	-	-	<i>ainendi, ainintz</i> (2), <i>aizina</i> (2), <i>aikina/ezkunu</i>	13
Ip <i>Hil</i> 1894	1	-	-	-	-	1
<i>Eskual.</i> 1913-2-14	-	1	-	-	-	1
Oro	12	12	4	1	22	51
Mirande	2	5	-	-	<i>aileki, aininderor</i>	9
Decrept	-	2	-	-	-	2
X. Peña	-	-	-	-	<i>ainintz</i>	1
Tapia Perurena	1	-	-	-	-	1
Zaitegi	1	-	-	-	-	1
Ibiñagabeitia	-	-	-	-	<i>ainintza</i>	1
Oro	4	7	-	-	4	15

Menturaz, optatiboak egiazki noiz arte iraun duen ebaztea da punturik zailena. Testu zaharrak oro bil, ikusi dugu horren maiztasuna ez dela batere handi eta, gehiago dena, Zuberoan biziki agerraldi gutxi atzeman daitekeela —Lapurdin baino anitzez gutxiago, Inchauspe alde batera utzirik behintzat—. Oyharçabalen erremarkari lotuz (1997: 56), zergatik Tartasek, Belapeirek edo Maisterrek ez zuten behin ere *ai(t)*-dun formarik erabili? Eta zergatik herri antzertiko lanetan ez dugu behin ere aurkitu? Ezen, bada halako kontrastea gramatikagileek deskribatu paradigmaren eta testuen lekukotza bakanaren artean. Guztiarekin ere, agerraldi *natural* berankorrenak ekialdeko testuei dagozkie.

Pentsa dezakegu XVII edo XVIII. menderako *ai(t)*- optatiboa ihartua zela, edo bederen ez zela aski erabiltzen, hizkuntzak bestelako bideak baitzituen igurikimen eta desioen adierazteko. Mounoleren azterketan, XV. eta XVI. mendeetan forma horiek «*peu nombreuses*» dira (2011: 102): XVIII. mendean Barrutiaren etsenplua baizik ez du biltzen, eta XIX. mendean «[elles] ne semblent exister qu'en souletin [...], et selon le témoignage de

Videgain (*ap.* Oyharçabal, 1987 : 512, note 1), elles étaient toujours usitées au 20^{ème} siècle, du moins dans certaines variétés de ce parler» (2011: 218). Beraz, XIX. mendean optatiboa soilik Zuberoan erabiltzen zen: «Temps n'appartenant qu'au dialecte souletin» (Bonaparte, 1869 II: 8 & *hh*). Oyharçabalentzat, Chahoren gramatikako lekukotasuna garrantzi bizikoa da, *ai(t)*-dun formak ahozko mintzairatik ezagut baitzitezkeen (1997: 56).

XX. mendean, Gavel eta Lacomberentzat «Il [l'optatif] n'est plus employé en labourdin, mais n'a pas complètement disparu du souletin» (1937: 48). Lafitteren gramatikan optatiboak «archaïque» etiketa darama (2008 [1944]: §§ 640 & 642); «Tout cela n'existe plus qu'en Soule» (*ibid.*, § 722). Eta Lafonek iraugintzat ematen du: «En souletin actuel, les formes de votif ne sont plus employées : elles ne figurent pas dans les tableaux de formes verbales du *Basque Souletin Nord-Oriental* de M. J. Larrasquet. Aucun des Souletins que j'ai interrogés ne les emploie ni ne les connaît» (1944 I: 495). Orobat ondorioztatzen du Clément de Jaureguiberry zuberotarrak: «Le votif dont le chanoine Inchauspe donne la conjugaison complète semble s'être perdu en Soule dans ces 100 dernières années» (1957: 76).

Aldiz, Casenave-Harigileren oharretarik idokitzen ahal da *ai(t)*- moldeko formak XX. mendean erabili direla, santagraztarrak bere bizian entzunak dituzkeelako.³⁹¹ Berrikiago, Etxegorrirentzat «Eskiula eta Jeruntzen zubereraren egiazko opazkoa entzun omen daiteke» (2003: 269), eta ondoko lan batean omenka aritzeari uzten dio: «Eskiulako aldean opazkoak bizirik dirau. Oso hedapen txikia dauka zaharkeria [sic] honek, ez baita Barkoxera ere heltzen! Erabilpen arruntak Jeruntzen eta Eskiulako herri barnan jaso ditut. Orainaldian: *ailedi mintza!* 'mintzatuko ahal da!', *aileza ikus!* 'ikusiko ahal du!'. Iraganaldian: *ailitz mintzatü!* 'mintzatuko ahal zen!', *ailü ikusi!* 'ikusiko ahal zuen!'"» (2007: 75-76). Beraz, testigantza desberdinak plazaratu badira ere, klarki ezar daiteke guztiz iraungi arte, euskararen optatibo zaharrak Zuberoan iraun duela berantenez.

³⁹¹ «*Aizinae* & *aizintee*: ahozkoa *aiziné*, *aizinté* (azkardüra azken hizkian)» (1993: 492); «*aitzintzeitae*: mintzatzean, entzüten da ere: *aitzintzeitae*» (*ibid.*, 507).

2.2.5. *Ai(t)*- aurrizkiaren jatorriaz

Optatibozko *ai(t)*- aurrizkiak badu *ei(t)*- alomorfoa mendebaldean. Mounolerentzat alomorfo horren eta *ei* partikula modalaren jatorria bat eta bera dirateke: «Il se pourrait fortement que cette particule adverbiale et le préfixe de votif *ei-* soient d'origine commune» (2011: 101). Lotura egiantzekoa izan arren, *ai(t)*- optatibozko aurrizkiak badu partikularitasun bat, ezen aditzari eranstea aldaketa fonetikoak eragiten baititu: *aiginte* & *aizinte* baino maizago *aikinte* & *aitzinte* bezalakoak aurkitzen ditugu,³⁹² Barrutiaren etsenpluan ere *t*-dun aldaera datza: *edan eitegi* (= **aiteza*).

Perutxoren kantako *ayt joat* formaz landara (18), XVI. mendeko testuetan *ait-* bakarra genuke: Leizarragaren *aitzinezate* (13), Lafonendako optatibozko formen aurrizkia *ait-* dela suposaraz lezakeena —halere, *bait-* eta *albait-* aurrizkidun formekiko analogiaren esplikabidea hobetsi zuen (1944 I: 495)—. Zehaztu behar da *t*-dun aldaeraren agerraldi bakar hori isla grafiko posiblea duen testuinguruaren agerraldi bakarrari doakiola; hots, *t* ager zitekeen kasu bakarrean ageri dela, zeren *hintz*, *litez* edo *nenzazue* formei lotzean, *ait-* aurrizkiak *t* galduko bailuke, *bait-* aurrizkiak galtzen duen bezala. Beraz, Leizarragaren *aitzinezate* ez litzateke salbuespen, arau morfonologikoaren grafikoki islatzeko aukera bakarraren agerpena baizik.

Bestalde, ikusi dugunez, ondoko mendeetan *t*-dun formak nagusi dira. 91. taulak *ai(t)*- aurrizkiaren agerpen *t*-dun nahiz gabea jasotzen du, *t* horren isla grafikoa posible den inguruneetan. Orotara *t* gabeko zazpi etsenplu baizik ez dezakegu ekar, haietarik bi Pouvreaurenak, eta gainerako bostak Inchauspereenak —egile horiek kontrakoa ere lekukotzen dute—. Halaber, beste bi datuk aurrizkiaren forma *ait-* delako hipotesiaren alde egiten dute: bata, 1536koa den Perutxoren kantan *ayt joat* agertzea (18), eta bestea Etxeberri Ziburukoak *aitnetza* forma ematea, menturaz grafia etimologikoz (19). Aurrizkia, beraz, *ait-* da garbiki, eta ez *ai-*: lekukotasunek hala bermatzen dute, kuantitatiboki ere, nahiz eta *OEH*-k dioen «La forma *ai-* predomina claramente sobre *ait-*» (s.v. *ai(t)*-).

³⁹² Chahok *aikina*, *aikunu*, *aitzuntu* bezala *aizina*, *aizunu* ere jasotzen ditu (1836: 158). Inchauspere (1858: 106-113) eta Gèzeren (1873: 95 & 123-124) tauletan aldaketa fonetikoak sistematikoak dira. Bonapartek hori du esplizitatzen: «Cette syllabe *ai* peut produire en outre des changements initials [sic]» (1869 II: 158). Egungo Zuberoan Casenave-Harigilek *t* gabeko formak ematen ditu (1993: 492, 507, 522 & 535), salbu 2. pertsonako *aitz-* afrikatu zenbait. Azkenik, Etxebarnek *aigina/aikina* aukerak ematen ditu (2011: 7. taula).

91. TAULA. *ait-* aurrizkiaren *t* edo haren eraginpeko aldaketa fonetikoaren lekukotza, beroiek agerraraz ditzaketan inguruneetan.

	<i>t</i> -dunak	<i>t</i> -gabeak
Leizarraga	<i>aitzinezate</i>	
Pouvreau	<i>aitzine</i> (22) <i>aitzendu</i> (27) <i>aitzinitzat</i> (29)	<i>aigine</i> (21) <i>aidezadan</i> (36)
Aleson	<i>aitziñan</i> (37)	
Barrutia	<i>eitegi</i> (37)	
Inchauspe	<i>aikunu</i> (42) & (44) <i>aikina</i> (45)	<i>aizina</i> (43), (45), (46) & (47) <i>aizintzaket</i> (48)

Zer ote datza *ai(t)-* aurrizkiaren jatorrian? Guk dakigula, lehenbiziko hipotesia Van Eysena izan zen, *ai* aurrizkia *adi* batetik eratorririk³⁹³ (1879: 233). Lafonek *ai* auhenezko partikula zekusan, *t*-dun formak analogiaz azalduz:

Ai existe comme interjection marquant la douleur (Azkue) et aussi la surprise (Lhande). Sans doute le *ai-* des formes de votif et des expressions telles que *ai baletor* était-il originellement identique à l'interjection, et celle-ci a-t-elle été réservée par la suite à l'expression de la douleur et de la surprise. En tout cas, ce n'est pas à cet *ai-* que les formes de votif doivent leur valeur modale, mais au fait qu'elles sont des formes du second groupe exprimant l'éventualité. *Ai*, quelle que soit son origine, ne servait sans doute d'abord, comme *albait-* dans les formes dites de prescriptif, qu'à préciser la valeur de la forme verbale à laquelle il était joint. [...] L'équivalence de soul. *banéki !* et de guip. et bisc. *ai baneki* montre que le préfixe des formes de votif n'avait à l'origine qu'une valeur d'appoint (1944 I: 495).

Lafonek eta Oyharçabalek (1997: 57) proposatu analogia baztertu gabe, beste aukera da pentsatzea optatiboaren *ait-* aurrizkia *bait-*etik etor litekeela. Hipotesi hori mendebaldeko datuekin zerbait korapilatzen da, ezen *eit-* aldaeraren bokalismoa ez baitator Lafonek (1944: 485) eta Lakarrak (1986: 655-656) bizkaiera zaharrarentzat deskribatu duten *bai(s)t-* aurrizkiarekin bat. Hipotesiaren alde, mendebaldeko *eit-* aldaerak eta *ei* partikula modalak balio desberdinak dituzte. Ekialdeari begira, *ait-* eta *bait-* aurrizkien arteko loturak

³⁹³ «*Ai* pour *adi* pourrait avoir pris la valeur d'un impératif "puisse" & plutôt en français "veuille"; *ai-nintz* signifierait alors : "veuille que je fusse", c'est-à-dire : "puisse-je". *Nintz* est la flexion syncopée pour *nintzake*, imparfait de l'optatif (aujourd'hui conditionnel) de *izan*» (Van Eys, 1897: 233).

koherente dirudi: Zuberoako *beit-* aldaera berria da, optatiboa emankor egon zitekeen garaietan testuek *bait-* ematen dutelarik.³⁹⁴

Euskararen optatiboaren baliabide morfologikoa aurrizki bat izatea guztiz nabarmentzekoa iruditzen zaigu, horrek garai zahar batera igortzen baitu. Izan ere, hizkuntzaren aurrizki bizi bakanetakoa izan da *ai(t)-*, aditz morfologiaren beste gutxi batzuekin batean: *ba-*, *b-*, *l-*, *d-* edo *bait-* bera. Bistan denez, *ait-* moldea mintzo guztietan lekukotu izanak ere garai zahar horri begira paratzen gaitu, hots, zatiketa dialektala baino lehenagoko hizkuntza egoerari.

Ikuspegi tipologikotik, optatiboaren gramatikalizazio bideak definitzea zail gertatzen da. Agintera hizkuntza gehientsuenetan existitzen da, baina igorleari orientatu gainerako modalitateak —erran nahi baita optatiboa, hortatiboa, prohibitiboa edo admonitiboa— anitzez bakanagoak dira, eta horrek aski zailtzen du halako hipotesien formulatzea (Bybee, Perkins & Pagliuca, 1994: 211). Haatik, pentsa daiteke optatiboaren gramatikalizazio bideak geroaldia, baldintza, subjuntiboa eta agintera direla (Sadock & Zwicky, 1985: 164); ikuspegi zabalagotik, hainbat hizkuntzatan egitura desideratiboek geroaldia, helburua edo beharra ere adierazten ahal dute (Musi 2016). Gauzak horrela, morfologiaren aldetik postula genezakeen **(b)ait-* aurrizkiak balio horietako bat adierazi behar zukeen Euskara Batu Zaharrean. Horri lotuz, ez da komeni ahanztea historikoki *bait-* aurrizkiak baldintzazko balioa ere hartu duela.³⁹⁵

Munduko hizkuntzei soño bat eginez, badirudi leku batzuetan optatiboa ezaugarri areala izan daitekeela, edo hizkuntz ukipenaren ondorioa. Hala nepalieraren nola Kaukasoko bi hizkuntza

³⁹⁴ Zuberoako testu zaharrenetan *bait-* baizik ez da ageri (Oihenart, Zalgize, Etchart); Tartas eta Belapeirerengan *bait-* da ohikoena, eta *beit-* han-hemenka azaleratzen da. Aldaketa XVIII. mendean gauzatuko da: 1734ko *Othoitce* testutik aitzina bi aldaeren arteko proportzioa ifrentzikatzen da, eta XIX. mendean *bait-* desagertzen da *beit-* berriaren faboretan; xehetasunendako, ikus II, § 2.5.3.1.

³⁹⁵ «In some texts *bait-* is used instead of the more usual conditional morpheme *ba-*. This is most frequent in Axular and Maister (but attested also in Aranbillaga, Gasteluzar, Pouvreau, Etxeberri Ziburukoa, Beriain and Belapeire). Even though present tense verbs can also take the conditional *bait-*, it is particularly common with hypothetical verb forms and especially in the expression *bait- ... bezala* ‘as if...’» (Krajewska, 2016: 261); cf. *OEH* s.v. *bait-*. Lafonek, halere, ez du *bait- ... bezala* baldintza gisa analizatzen: «La construction employée par Axular s'explique aisément. Les formes à préfixe *bait-* équivalent parfois à des formes relatives ou à des formes à suffixe *-la* indiquant la manière ou les circonstances. Les formes d'éventuel à préfixe *bait-* employées par Axular ont une valeur analogue. Combinées à *bezala* [...], elles signifient littéralement ‘comme quelque chose que vous auriez à vous, fait par vous’ [*zeurea, zeure egina baitzendu bezala*], ‘comme qui aurait parlé au cordonnier’ [*zapataginarekin berarekin mintzo izan bailliz bezala*]» (1966: 227). Beste maila batean, *bait-* aurrizkia *albait-* preskriptibo zaharraren osagai morfologikoa da, eta *ala bait-* harridura edo auhenezko egituraren parte ere.

turkikoren optatiboak inguruko hizkuntzen eragina izan litezkeen bezala,³⁹⁶ menturaz guk azalbide horren ifrentzutik begira genezake euskararen optatiboaren galera. Hau da, euskara hein batean modelatu duten erromantzeek optatiboa peitu izateak ez duke hizkuntza hartzailea den euskarak kategoria hori atxikitzen lagundu. Aldiz, azken mendeetan optatibo zaharra ordezkatu duten egitura gehienek (§ 2.3) paraleloak dituzte inguruko erdaretan; are gehiago, haietarik batzuk mailegatuak dira.

2.3. Igurikimen eta desioaren bestelako adierazpideak

Betiere esperantzaren eta desioaren adierazpenaren eremuan, atal honetan euskaraz optatiboaz landara baliatu izan diren aukera morfosintaktikoak laburzki azterkatuko dira, ekialdeko euskalkien lekukoei lehentasuna emanaz. Oro har, mendebaldean ala ekialdean, agiantzaren eta doluaren adierazpideen iturriak ohikoak dira munduko hizkuntzetan:

- Baldintzazko egiturak: *ba-* aurrizkia, *alba-* aurrizki konplexua, *balinba* partikula — jatorrian baldintzazkoa— edo *aments ba-* egitura.
- Aginterazko egiturak, euskararen kasuan jusiboak: *Jainkoak detsala*, *Jainkoari nahi dakiola*, besteak beste;³⁹⁷ hemen, arrazoi pragmatikoengatik, «Jainkoari lotu formulak» etiketa pean bilduko dira.
- Geroaldiko perpausak: [PART. PROSPEKTIBOA + *ahal*] egitura.

2.3.1. *Ba-* aurrizkia

Baldintzazko protasiek hipotesiaz kanpoko balioak har ditzakete, hala nola igurikimen eta desiraren adierazpena. Halako egituretan, perpaus nagusiaren ezabatzea ohikoa da munduko hizkuntzetan, *insubordination* deitua den prozesuaren medioz. Landucciok *oxala = validi* baliokidetza argigarria dakar (299 *apud* Mounole, 2011: 102). Optatibozko formen

³⁹⁶ «Whether the Caucasian optative is a phenomenon due to areal contact or to a common origin is not clear, in part because the genetic affinity of the Northwest and Northeast languages is still under discussion. Interestingly, both Turkic languages of the Caucasus, Karachay-Balkar and Kumyk, have a full personal paradigm of a morphologically dedicated optative, which is untypical of Turkic. A second area that seems to be characterized by the morphological optative is northern India and Nepal. The optative occurs in some of the Tibeto-Burman and Munda languages, and interestingly, the only Indo-Iranian language we found to have a morphological optative is Nepali (Korolev 1965: 80), probably as a result of the influence of neighboring Tibeto-Burman languages» (Dobrushina, Van der Auwera & Goussev, 2013).

³⁹⁷ Tesi honetan aztertzen ez dugun bestelako egiturarik ere aginterazkoen sailean sartzeko da, hala nola Lekeitioko euskararen deskribatu den formula desideratiboa: *Etxera joatea daukala!* (*jutia daukola*) (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003: 296-297); jusiboa izateaz gainera, *jutia daukola* formak ahalerazko balioa du.

baldintzazkoez ordezkatzeari, beraz, gauza ohikoa da. Lafittek (1944 § 721), *ba-* aurrizkiaren balioez ari, *éventuel* delakoari estekatzen dio; baldintzaz landara (*supposition*), konpletiboa ere adieraz dezake (*nahi nuke jin baladi*), bai eta desira. Lafittek balio desberdinak esleitzen dizkie aldiei (cf. 2.1.1 ataleko azalpen orokorra):

Il faut bien distinguer entre l'optatif de futur (potentiel), qui marque un vrai souhait (*Ah! Ethor baledi!* Ah ! Plaise à Dieu qu'il vienne !), et l'optatif du présent ou du passé (irréal), qui exprime le regret (*Hemen balitz* Que n'est-il ici !, *Leher egin balu* Que n'a-t-il crevé !, *Bere eginbidea bethetzen balu* Que ne fait-il son devoir !). L'éventuel des verbes forts ne marque que le regret (*Banaki!* Si je savais ! —mais je ne sais pas—) (*idem*).

Zuberoako testuetan ez da horren adibiderik falta (70)-(72); Lafittek erremarkatu desberdintasuna —agianza vs. dolua— hauteman daiteke Jokastaren (71) edo Elisabeth erregina santaren (72) auhenetan.

- (70) *O Jesus crucificatu içan dena, goure bihotziala jin baledi; ala beikintçake bertan ikhas, gaiça jakin behar dutugunak oro!* (Mst I 25, 6)
- (71) *Secula ikhousy ezpanu, / oh crudel destinatia! / Maradicatu da enetaco / sorthu nintçan mementoua. / Arguy gabe içan baliz / ny sorthu ninçan eguna / edo sabelian ninçala / hil baliz ene ama!* (Edipa 92-93)
- (72) *Ene haurren artian / possible baliz unionia! / Ah, othoi lagunt neçaçu, / ene salbaçale maitia!* (SteEli 1220)

2.3.2. Ai ba- egitura

Auhenaz gainera, *ai* interjekzioak desioa ere adieraz dezake: «*ai baletor* ‘plût au ciel qu'il vînt !’ et *aineki* ‘plût au ciel que je le susse !’, qui peuvent être simplement ‘oh ! s'il venait !’, ‘oh ! si je le savais !’» (Lafon, 1944 I: 495); interjekzio horren eta *ai(t)-* aurrizkiaren arteko loturarentzat, ikus § 2.5. *OEH*-ren hitzetan, «En oraciones con el verbo en modo hipotético, exclamación que expresa un deseo irrealizable» (s.v. *ai* 1). *Ai ba-* egituraren adigarri, *OEH*-k mendebaldeko idazleak dakartza XVIII. mendetik —Aguirre Asteasukoa, Mogeldarrak, Lardizabal edo Arrese Beitia, besteak beste—, eta XX. mende hastapenetik aitzina ekialdekoak ere (75)-(78). Zuberoan ez dugu molde horren agerraldirik aurkitu, baina bai *ah!* interjekzioarekikoarenik (79)-(81).

- (73) *Ai! eta baziñaki, nolako perillean zauden!* (AA III 498)
- (74) *Ai baleude aitatu ditudan bezelako jakitunak!* (VMg 90)
- (75) *Ai! nik ere, bai, banik / hik dukan gozoa!* (Zby RIEV 1908, 769)
- (76) *Ai, balute bazterretan aste guzia lanarekin borroka bizi diren gizon nekatzale guziek beren etxean zu bezalako emazte bat.* (HU Zez 185)
- (77) *Ai! Maria, Maria! Oihanburuan egon bahintz, hire xokoñoan!* (Barb Sup 85)
- (78) *Ai orok mihi hori bridatzen balute!* (Etcham 144)
- (79) *Ah cerbutcha ahal bacintçat ene menteco egun oroç!* (Mst III 10, 4)

- (80) *Gogouan erabilten niçun, / ah, çu jçan bacina! (Chiveroua eta Marceline 248, in Urkizu, 1998: 147)*
- (81) *Ah! Hori izan ahal baledi! (SGrat 6)*

2.3.3. *Aments ba-* egitura

XVIII. mendeko Zuberoan *aments* aditzondoa *ba-* aurrizkidun formekin konbinatua azaleratzen da, desirazko balioaz. Egitura horrek paralelo ezagunak ditu inguruko erdaretan, eta harago; cf. fr. [*si au moins/ seulement* + SUBJ], esp. [*si al menos* + SUBJ], ing. [*if only* + SUBJ] edo errus. [*если бы только* + SUBJ], besteren artean. *Aments* aditzondoa gaskoiari mailegatu zaio (← *au ments*) eta Zuberoan eta Nafarroa Behereko ekialdean erabiltzen da. (82)-(85) adibideetan hauteman daitekeenez, *aments ba-* batez ere dolu edo erregretaren adierazpenari lotua ageri da. Mendebaldean, *sikiera ba-* molde baliokidea lekukotzen da (OEH, s.v.).

- (82) *Alo, Julien, erran bahu amenx / emazte gaiztouc senhar gaistoury beçala: / «preparady guero behar tugun / horien emaitera» (StJul 632)*
- (83) *Ah Olimpia, ala nic beitutut / sofritcen phena handiac, / amenx ezpalirade / bataillan ene semiac. (Edipa 424)*
- (84) *Sendo eracy ahal banitça / jhourq jkhousy gabe / amenx berrien sortceko / ounxa sendo balite. (Boubane eta Chilloberde 9, in Urkizu, 1998: 107)*
- (85) *Amenx ezpaledi gin orano eraunxi hori! (SGrat 8)*

2.3.4. *Alba-* aurrizki konposatua

Alba- aurrizkia desioen adierazpeneko beste aukera da (← *ahal* + *ba-*). Lafonek «potentiel de suppositif» gisara sailkatu zituen *alba-*dun formak, zeinen artean alegiazkoek «peuvent servir à exprimer un désir, un souhait, un regret» (1944 I: 477). Euskara Arkaikoari doakionean, Mounolek Etxepareengan baizik ez du lekukotu (2011: 102), eta beranduago 1729koa den nafarrerazko lehen predikuan (*ibid.*, 218). Leizarragak ere *alba-* ematen du, baina orainaldian. Ondoko mendeetarako *EKC*-k datu interesgarriak eskaintzen ditu, zeinetarik hautapen bat baitakargu (86)-(98). Ohart bedi zenbait adierazpideren konbinazioez: doluzko *helas* + *alba-* (86), auhenezko *o/ oi/ ai* + *alba-* (90), (94), eta desirazko *oxala* + *alba-* (95).

- (86) *Elas yzul albaneça yraganden denbora. «Ah ! si je pouvais faire revenir le temps passé» (E VI 21)*
- (87) *Albanerra eguya nyc dut pena handia (E IX 47)³⁹⁸*

³⁹⁸ «Il est difficile de dire si ce vers se compose de deux phrases dont l'une exprime un souhait (*si je pouvais dire la vérité !*) et l'autre une réalité, ou s'il forme une phrase dont le second membre exprime ce que dirait celui qui parle si la condition énoncée dans le premier était réalisée» (Lafon, 1944 I: 478).

- (88) *Ordean satisfatçeco ossoqui gutitia / Badut, obran albaneça eman neure nahia.* (EZ Man II 75)
- (89) *Hura handi den arauaz, / Nic solas albanegui.* (Hm 83)
- (90) *Oi eta atera albanegiz beren lekutik Señora oni beardanezko koroe bat egiteko! [...] Oi eta albanegi oñazpikotzat ezarri aren oñazpietan! [...] Oi eta zeure argi-errañuetatik epaki albanegio geure Ama mindun oni manturik ederrena!* (Lar SermAzc)
- (91) *Milla bizi, albanitu, nik zugatik [...]* (Cb Eg II)
- (92) *Albanei ni or egon joateko paseatzera atso ura eztegu erango bakarrik joan bear gara.* (Gamiz)
- (93) *O albanezkike erran bear den bekala uskaras sanduaren itzak!* (LE Urt «Serm. 5. De peccato, ut contra Deum. ann. 1771»)
- (94) *O urtu albanegiz ene begietako negarrakaz leen eginak!* (Añ EL)
- (95) *Ojala itzegin albaneza nik gai andi onek eskatzen duan eran!* (AA III)
- (96) *Sendatu albazentza nik daukadan miña, nere biotz gaixoak a zer atsegiña!* (Izt Po)
- (97) *A paper ontan gogo detana albanezaioke jarri!* (EA NereB)
- (98) *Urtiak baduazi, urratsik eztager, Non galtzen dira-edo? Albaneukaz uler!* (Laux BBa)

Goiko adibide sortak erakusten duenez, bakarrik alegiazko formekin *alba-* ekialdeko behe nafarrera arkaikotik bizkaiera modernoraino lekukotua da, lapurtera, nafarrera, arabera eta gipuzkeratik iraganez; aldiz, Zuberoako testuetan ez dugu haren herexarik ediren. Lafonek *alba-* aurrizki konplexua dialekto guztietan existitu izanaz duda egin zuen (*ibid.*, 478), eta Oyharçabalentzat hegoaldeko testuetako *alba* ez litzateke aurrizki bat, bi morfemen metatzea baizik.³⁹⁹ Hala ere, nahi bada, hegoaldeko *alba-* segidak iparraldeko *alba-* aurrizkiak adieraz ditzakeen balio berak adieraz ditzake, tartean desirarena, baina batzuetan balio horiek ez dira aise bereizten ahal; cf. (87) adibidea eta bertako oharra.

2.3.5. *Balinba* partikula

Menturazko balioaz gain (cf. *OEH* s.v. *balidinba*), *balinba* edo *balima* partikulak agiantza ere adieraz dezake, betiere indikatibozko perpausetan. Horren erran-nahia: «Interj. exprimant un souhait ardent» (*VocBN apud OEH*); «Exclamation de désir, d'espérance» (Gèze 1873: 242); «Exclamation de désir, d'espérance, d'imprécation» (Ithurry 1895: 362); «Synonyme de *oxala*

³⁹⁹ Hona arrazoia: «Ez Leizarragak ez Etxeparek ez dute sekula silaba bakarreko eta aspiraziorik gabeko formarik erabiltzen *ahal* adierazteko, salbu *alba-* morfoarekin»; ezezko formarik lekukoturik bageneza, *ez* non agertuko zen ikusirik afera trenkatzen ahalko genuke, baina ez dugu horrelakorik (Oyharçabal 1997: 47). Alabaina guretzat, iparraldekoek *ahal* partikularen bi itxura fonologiko diferentetan emateak *alba-* aurrizkia dela bermatzen duela onarturik ere, horrek ez du kentzen hegoaldeko testuetan ere —kasu batzuetan bederen— *alba-* aurrizki izatea zeren, hasperena galdurik, hegoaldekoek ez baitzezaketen halako bereizkuntzarik egin.

(esp. *oxala, ojala!*) plaise à Dieu» (Haritschelhar 1969: 386). Ithurryrentzat, Leizarragak eta Axularrek desirazko balioaz erabili zuten *bal(d)inba* (99)-(100):⁴⁰⁰

- (99) *Eta orain ichilic campora egoizten gaituzte? ez balimba: baina beréc ethorriric idoqui gaitzate.* ‘Plaise à Dieu que non’ (Lç Act 16, 37)
- (100) *Baldinba ez ahal naiz hunen gatik ifernurako* ‘Il faut espérer que je n’irai pas en enfer pour ceci’ (Ax 57 *apud* Ithurry, 1895: 362)⁴⁰¹

OEH-n *balinba* lekukotzen duten testuen artean badira Zuberoakoak (Maister, *Xarlem*, *Mustafa*, *Chants Populaires* eta Etchahun) nahiz Akitaniako gainerako euskal herrietakoak: Gazteluzar, Hiribarren, Laphitz, Hiriart-Urruty, Zalduby, J. Etchepare eta Barbier. Hegoaldean XX. mendeko bi idazle ikasi lekuko dugu: Goikoetxea *Gaztelu* eta K. Mitxelena. *Balinba* desirazkoaren lehenbiziko agerraldia Axularrena bada (100), ekialdean, gisa guztiz, XVIII. mendean hasten da hedatzen. Gure corpusean Maisterrengandik ageri da, eta bereziki herri tradizioko testuetan (101)-(107).

- (101) *Eçtuçu balimba ihessiric eguinen çoure arimari hagnbeste abantalla ukhen eraci ahal dirouan iracourte baliouari.* (Mst xx).
- (102) *Comfidancha handireky / dut othoycia eguinen, / eta balinba Gincouac / benay ençunen.* (StJul 1146)
- (103) *Balima batailla hountan / biçia du galduren / haren plaça niq beitut / aspaldian desiratçen.* (Xarlem 1288)
- (104) *Hoxt guitian arren, / isseiatsu nahi nuçu; / eta hara artino / balima helturen nuçu.* (SteEli 1233)
- (105) *Çaude errephausuqui, anderia, / eztuçu çure aldi. / Ez ahal ceçu balinba / guibelturen engoiti.* (Malqu eta Malqulina 555, in Urkizu, 1998: 263)
- (106) *Balinba zure gaitza etziüzün, gaixua, / Arauz gaiertitako zerena gaxtua.* ‘J’espère’. (Etch 376).
- (107) *Esker deiçut, Ama houna, çoure eracouspenez. Balinba çoure exenpliec phitzeraciren naic.* (MaiMarHil 71)

2.3.6. *Oxala* partikula

Esperantza eta desiraren beste adierazpide bat dugu *oxala*, Penintsulako erromantzei mailegatua, eta azken buruan Espainiako arabieratik datorrena (< *law šá lláh* ‘Jainkoak nahi badu’). Mounolek 1729ko nafarrezko predikuan (108) eta Urteren gramatikan atzeman du

⁴⁰⁰ Alta, gure ustez ez da batere segur Leizarragarenak balio hori adieraz dezan. *OEH*-k bi adieratan jasotzen du Leizarragaren *balimba* hori: lehenbizi «ciertamente; seguramente» erran-nahiaz: «In [sic] ne sera point ainsi» (s.v. *baldinba* 1), eta ondoren balio desideratiboz, Ithurryren itzulpenarekin: «Plaise à Dieu que non» (s.v. *baldinba* 2).

⁴⁰¹ Egiazki, Axularrek honela dio: *Baldinba*, ez ahal naiz hunengatik, hunein gauza aphurratik, eta hunein erraxki egin dudangatik ifernurako?

(2011: 218); haren arabera, hurrengo mendeetan *oxala* esperantza eta desioen adierazpide nagusi bihurtuko da. Lafitteren ustez, egile modernoek sartu dute «Pour distinguer le *si* conditionnel du *si* votif» (1944 § 722). Zuberoako testuek ez dute *oxala* lekukotzen,⁴⁰² eta behe nafarreran ere ez bide da sartu, bederen *EKC*-ren emaitzei begiratuta. Oyharçabalek ohartarazi bezala (1997: 57), Leizarragak (14) —eta harekin Inchauspek (43)— *ai(t)*- optatiboa baliatzen duen pasartean Haranederrek *oxala* darabil (108). Ondoko bi adibideetan *oxala* partikula jusibozko forma batekin eta *ba*- aurrizkiarekin erabilia da, hurrenez hurren:

(108) *Ojala estaiela arla izan* (Lehenbiziko sermoia nafarreraz 7)

(109) *Badaquizquit çure eguitateac. ez çaretela ez hotz, ez bero. Ochala hotza baçiñe edo beroa.* (He Apok 3, 15)

2.3.7. *Ahal* partikula

Ezaguna da mendebaldeko euskaretan *ahal* partikula balio desideratiboz erabiltzen dela, partizipio prospektiboarekiko egituran (Zubiri & Zubiri 2000: 578; Euskaltzaindia 2002: 445; Hualde & Ortiz de Urbina 2003: 315).⁴⁰³ Molde horren lehen agerraldia XVII. mendekoa dateke (110). *OEH*-k ondokoetan ere lekukotzen du: Urquizu (111), Larramendi (112), Cardaberaz, Larreguy (113), J. A. Mogel, Aguirre Asteasukoa, J. J. Mogel, Hiribarren (114), Duvoisin (115), Elicegui, Soroa, Arrese Beitia eta Mocoroa.

(110) *Laster etorri nadin guraco aldoçu* (*ConTAV* § 5.1.4)⁴⁰⁴

(111) *Nunbaita orain amaituko al dau / bere betiko egarriia.* (Urqz 82)

(112) *Agur, Aita nerea, ta gogoango al nazu zure otoitzetan.* (Lar, carta a Mb 281)

(113) *O! zuek egia erdiragarri hauk irakurtzen eta entzuten ditutzuenak, sarthuko ahal zarete zuen baitan.* (Lg II 191s)

(114) *Ez ahal du sekulan yauna ahantziko.* (Hb Esk 237)

(115) «*Emanen ahalko daut ene saria*, ‘puisse-t-il me donner ma récompense’. Ici le sens optatif du basque ne peut être rendu en français» (Dv *apud OEH*, s.v. *ahal*)

Beraz, XIX. mende inguruan [PART. PROSPEKTIBO + *ahal*] egitura desideratiboa Lapurdin ere lekukotzen hasten da (113)-(115). Ekialderago, madarikazio batean atzeman dugu, 1807an

⁴⁰² Anekdotikoa bada ere, Etxebarnek «Opazko (Oxala!)» baliokidetza dakar (2011: 7. taula).

⁴⁰³ Desirazko *ahal* eta galderazko *al* partikulak jatorri berekoak dira (< *ahal*). Bigarrena Gipuzkoan kokatzen da (Zubiri & Zubiri 2000: 578), eta estandarizazioarekin hedatzen ari dateke (Jendraschek 2003: 269). Euskara batuan *ahal* / *al* grafiek bi balioak bereizten dituzte.

⁴⁰⁴ «No nos parece correcta la traducción de Satrústegui [1987], que da a *al* un valor interrogativo, valor que sólo toma dicha partícula en guipuzcoano y en textos más modernos. Nos inclinamos por darle un valor desiderativo, con el sentido de la estrofa» (*Contr* 89-90).

datatua den fartsa batean (116); halere, ez da komeni ahanztea Zuberoan egitura horren baliorik ohikoena geroaldiko ahalera dela (117)-(119).⁴⁰⁵

- (116) *Khurutçhia deitaqua orai / eni aiphatçen heben? / Larria elkhiren ahal çeiq / etçhera beno lehen. (Malqu eta Malqulina 430, in Urkizu, 1998: 253)*
- (117) *Enganatuko bide zira / gaurger', orano bezala, / baduz' uste zure begira / Egonen ahal nizala, / Hautuagorik zu bano / deiez ondolik dautano. 'Vous vous tromperez sans doute si vous croyez qu'à l'avenir je pourrai, comme je l'ai fait jusqu'à présent, rester à vous attendre pendant que de plus distinguées que vous m'invitent à les suivre' (O Po XXIII 2)*
- (118) *Jesus çoureki bada, exayec batec ere eçteçu oguenic eguien ahal. (Mst II 8, 2)*
- (119) *Badabila cien ungurian lion bat orrouatuz beçala, tcherkhatuz çougn iretxico ahal dian. (Epit I 5, 8)*

Bestenaz, Akitaniako euskararen desirazko *ahal* partizipio prospektiboarekiko egituratik kanpo ager daiteke, galderazko perpausetan: «La particule *ahal* placée entre la négation *ez* ou encore l'affirmation *ba* et la forme personnelle du verbe donne à la phrase une nuance d'interrogation rassurée à sens optatif. Ex. : *Ez ahal nute ikusi ?* Ils ne m'ont as vu, j'espère ? *Ba ahal da bertze holako joiarik ?* Il y a bien, je pense, d'autres perles de ce genre ?» (Lafitte 1944 § 222). Zuberoan ez dugu usadio horren lekukorik.

2.3.8. Jainkoari lotu formulak

'Nahi' edo 'maite ukan' erran-nahia duten erro zaharrak ohikoak dira Jainkoaren pean adierazten diren igurikimen eta desioetan. Optatibo gramatikalean ageri den *Jainkoak ailiotsa* (15) & (30)-(33) erranbidearen baliokidea da *Jainkoak baletsa*, optatibotik baldintzara iraganik.⁴⁰⁶ Zuberoan, aditzaren erregimen zaharra —datiboa, iragangaitz—testurik zaharretan ageri da (120). Geroztik, Maisterrek du formula hori gehienik baliatu (121)-(129); azken etsenpluak trajeria zahar batean (130) eta 1856ko pietate liburu batean atzeman ditugu (131).

⁴⁰⁵ Zuberoako testuen corpusean ahalerazko balioa 38 aldiz ageri da, eta desirazkoa behin baizik. Bestenaz, preseski adierazi behar dugu Zuberoako testuetan ez dela *ahalko* edo *ezinen* bakar bat ere, *EKC*-ren emaitzekiko koherentzian: *ahalko* Lapurdin eta Nafarroa Beherean lekukotzen da, baina ez Zuberoan. Beraz, *ahal/ezin* parearekiko perifrasi berrietan —i.e., *izan* & **edun* laguntzaileekikoetan— geroaldia partizipio prospektiboaren bidez adierazia da. Horrek, hein batean, ekialdean *ahal* partikularen gramatikalizazioa beste eremuetan baino gibelatuago dela iradoki lezake.

⁴⁰⁶ Ez dakigu forma hauek zehazki zein errorri dagozkion. Lafitterendako *baletsa* «suppositif de *etsi*, juger bon (si au moins Dieu jugeait bon)» litzateke (2003 [1948]: 745).

- (120) Baletsa jaungoikoari / *Har nezan zerbitzari / Hark er', eta leristan / hanbat on zein nik hari.* «S'il plaisait à Dieu qu'elle me prît pour serviteur et qu'elle m'aimât autant que je l'aime» (O Po XIII 25)
- (121) *Nitçaç dena beçambat, Jincouac balexa, enian ukhen beste dessegnic batere.* (Mst xvi)
- (122) Jincouac balexa *hen bicitcia, jakitiaren araur ičan ličan!* (Mst I 3, 6)
- (123) Jincouac balexa, *deboten hanitch exemplu ikhous oundouan, goure berthutian aitcinatceco desira lo elagouen ardura.* (Mst I 18, 6)
- (124) Jincouac balexa, *egun bakhoitç bateç, ounxa bici ičan guinen mundu hountan!* (Mst I 23, 2)
- (125) Jincouac balexa, *halaco beharric eliçan, eta arimac behar lutian errekeitiac gogouan ukhen guintçan!* (Mst I 25, 9)
- (126) *Behar citit segurki soferitu, Jincouac balexa, pacentciareki liçan, iraçarri haur igaren, eta thempora hobebat jin artio.* (Mst III 29, 2)
- (127) Jincouac balexa, *enendin esteca guero jin behar dien gaicer, eta çoure boronthate hounari, berankeriaric gabe, oberenda neçan ene buria.* (Mst III 39, 1)
- (128) *O Jincouac balexa, egun houra jin liçan, eta mundu hountaco gaiça themporalac oro acabi liren!* (Mst III 48, 1)
- (129) Jincouac balexa *aldi bakhoitç bateç ere oren erdiaren araoua behar den beçala emplegatcen jakin nian!* (Mst IV 1, 4)
- (130) *Har eçaçu behar den armada / eman behar baduçu ere guerla / Celuco gincouac balexa / ukheitez Çuc Victoria (Jean de Paris 85)*
- (131) Jincöac baletsa *bihar liçatekian egun houra.* (MaiMarHil 95)

Lafittek zerbait iruzkin egin zuen erramolde honetaz: «La vieille formule *Jainkoak baletsa...* plaise à Dieu, nous paraît plus locale, mais elle n'existe presque plus. [...] On rencontre une formule analogue dans les écrits de Hiriart-Urruty : *Jainkoak ailema* Que Dieu accorde...» (1944 § 722). Beste formula hori, (*Jinkoak*) *ailemo edo ailema*, ez da Zuberoako testuetan ageri. Bestenaz, erro bera aurki daiteke jusibo gisara jokatua, datiboan nahiz ergatiboan (132)-(140); egitura horrek eta *Jainkoak baletsa* formulak ber kronologia dute.

- (132) Iencoari datsala, *eguitecoa erditi Ioan dadin.* (Tt Onsa 78)
- (133) Iencoari datsala *pensamendu saindu hura cian beré gogoan.* (Tt Onsa 124)
- (134) *Ene khostuç hori ikhassi dit, eta Jincouac dexala, eni gogoua haboro har eracitceco den, eta eç erhokeriala eiçteco.* (Mst III 45, 4)
- (135) Jincouac daxala *gracia hori merechi deçadan.* (Mst III 56, 5)
- (136) *Oroc behar diçugu hil / çoure espousa maitiac beçala, / houra beçain justoky / Gincouac dexala.* (StJul 466)
- (137) *Parropia hortaco fidelac gin balite indigne içatera confrariaco dohaignen —Gincoac eztatsala— bere condutaz.* (Mercy 18)
- (138) *Eta Jinkuak detsala Erregetiar traidore hoiek profeita eztitian, berek erakharri dien estatu miserable hunez.* (Chaho AztBeg V)
- (139) *Egün hun, künpañä ederra, / bai eta iliüstria; / Jinkuoak detsala harzara berriz / alkhar salüta erriz.* (CanBel 101)
- (140) Jincöac detsala *liburu hau iracourriren dienec bere salbamentiaren eguin beharrez antsiatziago ičan ditian.* (MaiMarHil 7-8)

2.4. Ondorioak

Euskara historikoan, igurikimen eta desioen adierazpena zenbait baliabide morfosintaktikoren medioz gauzatu izan da; horietan bereziena da *ai(t)*- aurrizkiaren bidez jokatzen den modu optatiboa. *Ai(t)*- aurrizkidun formak aski bakanak izan arren, ongi eta segurki lekukotuak dira euskararen geografia osoan: mendebalde, erdialde zein ekialdeko testuetan ageri dira. Beraz, optatiboa dudarik gabe euskararen behialako ezaugarri orokorra izan zen, hots, zatiketa dialektala baino lehenagokoa.

Optatiboak Zuberoan iraun du inon baino luzeago, testigantzen arabera XIX. edo XX. mendera arte, *ekialdeko ekialdean* —Biarnoko Eskiulan eta Jeruntzen— gordea omen delarik. Ideia horrekiko kontraste bizian, *ai(t)*-dun optatiboak arras gutxitan ageri dira Zuberoa eta aldirietako testuetan: XVIII. mendera arte orotara lauzpabost agerraldi bildu dugu. Hizkuntza osoari pentsa, ondoriozta daiteke XVIII. mendean optatiboa aski galdua zatekeela euskal herri gehienetan: idazle ikasiak alde batera utzirik, kasik adibide guztiak Euskara Arkaiko eta Zaharrekoak dira. XIX. mendean Inchauspek agerraldi andana bat ematen du, oroz gainetik bere *Imitacionian*, gure ustez hautu batengatik. Azkenik, XX. mendeko zenbait idazlek *ai(t)*- aurrizkiarekiko jokoa berpiztuko dute, halako estilema bihurtuz.

Lekukotasunek erakusten dutenez, euskararen modu optatiboa ezaugarritzatzen duen morfema *ait-* da garbiki, eta ez *ai-*. Mendebaldeko *ei(t)*- alomorfoa *ei* partikula modalarekin lotua izan bada ere, guretzat ez da batere seguru *ai(t)*- eta *ei* sorburu berekoak izan daitezen. *Ai(t)*- aurrizkiaren jatorriaz denaz bezainbatean, bi aukera kontsideratu dugu: i) *ai* auhenezko interjekzioa, *aikünu* & *aitzina* bezalako aldaketa fonetikoak *bait-* & *albait-* aurrizkidun formekiko analogiaz azaldurik; edo ii) **bait-* zahar bat, beharbada baldintzazko balioaz hornitua. Kronologikoki, *ai(t)*- aurrizki bizi bakanetakoa eta mintzo guztietakoa izateak Euskara Batu Zaharrera igortzen du.

Esperantzaren eta desioaren gainerako adierazpideei doakienean, aldi historikoan baldintzazko egiturak hedatuz doaz. Horietan sinpleena da *ba-* aurrizkiarekiko adizkia baliatzea, zenbaitetan *ai* interjekzioaz lagundurik. Testu zaharrenetan *alba-* aurrizki konplexuak ere balio bera adieraz dezake. Jada Axularrengan lekukotua, *balinba* (*balima*) partikula ekialdean hedatzen da XVIII. mendean, bereziki herri tradizioko testuetan. Paraleloki, Penintsulako erromantzei mailegatu *oxala* partikula XVIII. mendean azaleratzen da, Lapurdira ere hedatuz —baina ez, XIX. mendera arte bederen, ekialderago—. Bestenaz, XVIII. mendetik aitzina, Zuberoan *aments ba-* moldea lekukotzen da. Mendebaldean, XVII. mendean *ahal* partikula desirazko balioaz hasten da lekukotzen, partizipio prospektiboarekiko

egituran, eta XIX. menderako iparraldera ere hedatzen da —Akitaniako mintzoetan egitura horretatik kanpo ere ezagun da, galderazko perpausetan—. Azkenik, hizkuntza gehienek bezala, euskarak ere Jainkoari lotu formulak garatu ditu: *Jinkoak datsala/ baletsa/ ailiotsa/ ailemo*.

Gure ustez, *ai(t)*- moldeko optatiboak Zuberoako testuetan egiazki izan duen agerpen arras marjinalak ez du justifikatzen XX. mendean sortu den irudia, zeinaren arabera adizkera hori zubereraren ezaugarri gisara aipatzen ohi baita, zenbaitetan bereizgarri ere. Aldiz, euskal optatiboa tipologikoki elementu bakana, eta diakronikoki komun eta zaharra izateagatik, ordu zuen, hizkuntzaren ezaugarrien artean, bere garrantzia aitor geniezaion.

3. Baldintzazko zenbait egituren azterketa

- 4.1. Sarrera
 - 4.2. Orainaldiko baldintza erreala: [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] perifrasiak
 - 4.2.1. Abiapuntua
 - 4.2.2. Zuberoako testuen lekukotza
 - 4.2.3. Aditzoin eta imperfektibozko perifrasiaren arteko lehia
 - 4.3. Hipotetiko ez-iraganeko baldintzak
 - 4.3.1. Abiapuntua
 - 4.3.2. [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] perifrasiak Zuberoako testuetan
 - 4.3.3. Hiru perifrasiaren arteko lehiarik? Aditzoin / imperfektibo / prospektibo
 - 4.3.3.1. [inperf. / prosp. + *izan*, **edun*] perifrasiak Zuberoan
 - 4.3.3.2. Hipotetiko ez-iraganeko protasiak, baliokideak ote?
 - 4.3.3.3. Aditzoin vs. imperfektibo lehia Zuberoako testuetan
 - 4.4. Ondorioak
- Post scriptum:* frantsesaren eragin literario batez

3.1. Sarrera

Tesi honetan ez dugu baldintzazko perpausen azterketa sistematikorik eginen, baizik eta bi alderdi zehatzena. Lehenik “orainaldiko subjuntibozko baldintza” deitua, hots, aditzoinaren gaineko protasia hartzen duen baldintzazko egitura aztertuko dugu (§ 3.2), **edin* & **ezan* laguntzaileekiko (*jin badadi* / *egin badeza*), historikoki perifrasi berrien gainean eratu baldintzek egin dioten lehiari erremarkatuz (§ 3.2.3). Bigarrenik, hipotetiko ez-iraganeko baldintzei emanen diegu arta, bereziki aditzoinarekiko protasia duenari (§ 3.3.2) eta, azkenik, aditzoin (*jin baledi*) / imperfektibo (*jiten balitz*) / prospektibozko (*jinen balitz*) protasiaren arteko lehia aztertuko dugu (§ 3.3.3).

Gisa guztiz, hala aditz trinkoen gaineko protasiak, nola bestelako perifrasiaren gainekoak azterketatik kanpo gelditu dira, eta orobat erran daiteke apodosiez.⁴⁰⁷ Ikuspegi osoago batentzat, hala baldintza sistemaren aldetik nola hizkuntzarenetik, Oyharçabalen (1987) eta Mounoleren (2011) azterketetara igortzen dugu; bi lan horien kontzeptualizazio eta ekarpenetan datza gure abiapuntu teorikoa.

⁴⁰⁷ Heinek handienez, Zuberoako testuetan orainaldiko baldintzen apodosien aukerak bat datoz Mounolek deskribatuarekin (2011: 223), baina hipotetikoan ez da ber gauza agitzen.

3.2. Orainaldiko baldintza errealak: [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*]

3.2.1. Abiapuntua

Euskara historikoan baldintza errealaren protasia 92. taulak biltzen dituen bost egituratan ezaguna da: 1) orainaldiko aditz trinko; 2) [inperfektiboa + *izan*, **edun*] perifrasiak; 3) [aditzoina / perfektiboa + **edin*, **ezan*, *egin*] perifrasiak; 4) [prospektiboa + *izan*, **edun*]; eta 5) [perfektiboa + *izan*, **edun*] (Mounole 2011: 105-108). Lehen hiruren artean (hots, orainaldi burutugabeko baldintzetan) ez bide da desberdintasun funtzional, ez semantikorik.⁴⁰⁸

92. TAULA. Baldintza errealaren protasiak.

trinkoa	<i>badoa</i>	<i>badagi</i>
inperfektiboa	<i>joaten bada</i>	<i>egiten badu</i>
aditzoina	<i>joan badadi</i>	<i>egin badeza</i>
prospektiboa	<i>joanen bada</i>	<i>eginen badu</i>
perfektiboa	<i>joan bada</i>	<i>egin badu</i>

Hemen orainaldiko baldintza errealaren protasi baten azterketa lehenetsiko dugu: aditzoinaren gainean eraikia. Lafonentzat [aditzoin + **edin*, **ezan*] orainaldiko baldintzak “Sert à exprimer une hypothèse envisagée d’une façon ferme, comme quelque chose qui est « à venir » soit actuellement, soit plus tard, mais qui n’est pas la réalité présente” (1943 II: 53-54).

Hizkuntza osoari begira, orainaldi burutugabeko baldintzaren adierazteko tenorean [aditzoin + **edin*, **ezan*] perifrasiak —bai eta mendebaldeko haren baliokidea den [perfektiboa + *egin*]— erabiliena da XV. eta XVI. mendeetako testuetan (Mounole 2011: 106). XVIII. mendean, aldiz, forma hauek arkaismo bihurtuko dira: “Bien qu’elles soient très fréquentes dans les écrits de Etxeberri de Sare, ces périphrases restent très marginales dans les autres textes du 18^{ème} siècle” (*ibid.* 223). Gure corpusak XV. mendea ments izanik, eta XVI.a atsotitzak gibelerat proiektatuz baizik ez duela ordezkaturik, galdera da aditzoineko perifrasi honek zer indarra duen Zuberoako testuetan, eta noiz arte izan den erabilia.

Orain arte genekiena kasik prozesu baten emaitza baizik ez zen. 93. TAULAK XVIII. mendeko Lapurdiko eta Zuberoako idazle banaren aukerak jasotzen ditu, orainaldi burutugabeko

⁴⁰⁸ “Nous n’avons pu déceler de différence sémantique ou fonctionnelle entre les formes employées en protase de conditionnel réel inaccompli [...]. Dans les textes des 15^{ème} et 16^{ème} siècles, elles expriment toutes le suppositif d’un procès présent ou futur. Les exemples où elles sont employées conjointement confortent cette impression d’équivalence” (Mounole 2011: 109).

baldintzen adierazpenari doakionean. Konparantza minimo horretatik idoki daiteke Maisterren sistema berritzaileago dela Etxeberri Sarakoarena baino, edo *vice versa*. Mounoleren corpuseko gainerako egileak hurbilago dira Maisterrengandik Etxeberri Sarakoarengandik baino, Barrutia (eta beharbada Arzadun) salbuespen izanik.

93. TAULA. Orainaldi ez-burutuko protasiak XVIII. mendeko Iparraldean.

	trinko	aditzoin	inperfektibo
Etxeberri S.	22	20	27
Maister	26	1	84

Iturria: Mounole 2011: 225

3.2.2. Zuberoako testuen lekukotza

Gure corpusak ongi lekukotzen du [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] orainaldiko protasia, maiztasun altueneko itema izan gabe ere. Adibideak bitan multzokatuko ditugu: aditz iragangaitzenak (direnak oro: (1)-(27) eta iragankorrenak (hautapen bat: (28)-(49). Iragangaitzetan, espero ez bezala, bitan gertatu da inperfektiboa eta **edin* laguntzailea batera agertzea (2) & (9). Etchartengandik aitzina agerraldi gehienak Tartasenak dira; Belapeirek etsenplu bat ematen du (25), eta Maisterrek biga (26) & (27).

- (1) *Eta hallacoric hel badadi, iguor deçadaçu informacioniac edo provançac, eta nic eguinen dut neure bidia eta carguia gaistoen contre neure iurisdictionian.* (Etchart 7, 2r)
- (2) *Dangeretan contestatione eta desordre hec continuatzen badite, berce gaitz handiagoric gin eladin, guc, ordian, manatu çuntugun cherka eta ediren ceneçan expedient eta remedio hunagoric eta behar beçalacoric, arrestatzeco desordre guciën coursa.* (Etchart 1, 1r)
- (3) *Handik harat gure gorputza Ioanen dela, xixarien tripara eta lurthuko, eta herraustuko dela, eta gure arimaren ostatu zerua, edo Ifernua izanen dela eta haren ostatu lagunak edo demonioak, edo Aingeruak izanen direla, gratian parti badadi, Ienkoa segur, bekhatian badoa deabrua harenzat, infaillible.* (Tt Onsa)
- (4) *Bere galtzia uste du reparatuko diala, urtia jin badadi aberatz, eta prospero.* (Tt Onsa)
- (5) *Gutixe dela gaizkirik ez egitia, bat bedera, ezpadadi enseia obra onen egitera.* (Tt Onsa)
- (6) *Soldadoa ezpadadi onsa governa, [...] nork eztu erranen, soldado hura ingratu, dela bihotz gabia, poltroiña, eta lege gabia?* (Tt Onsa)
- (7) *Gure arimak hatzen, entertenitzen, eta saintifikatzen ditu, gu nor bagira, gutan ezpada faltarik, digneki presenta bagite ber mahai sakratu hartara.* (Tt Onsa)
- (8) *Jin dadian, ezpagite egon presto gratian haren aiduru eta beha, , etsaia oren oroz bortan dugu.* (Tt Onsa)
- (9) *Ezpagite obra honez hilziaz, eta herioaz orhitzen, gure arimak bertze mundian gosiak hilen ditu.* (Tt Onsa)
- (10) *Bere zerbutziak rendatuko drautzu leku orotan hanbat fidelki, non hari beha bazite, ezarriko baitu zure arima zure etsai bisible, eta inbisible ororen despit, zeruko gloria eetrnalian.* (Tt Onsa)
- (11) *Ezpalin bazite egon bijilant, eta iratzarririk, jinen nuzu zugana, ohoinbat bezala.* (Tt Onsa)

- (12) *Onsa hil bazite, Parabisua zure gaixki hil bazite Ifernua zure hartakotz errandu ederki, eta zuhurki Apostoliak mundu guziet.* (Tt Onsa)
- (13) *Bataz orhit bazite, bertzia, etzauzu ahatzeko, bata duzunian gogoan, biak han dirate.* (Tt Onsa)
- (14) *Edukazu hon ene pena, eta travaillia, ezta galdu izanen, zuk zuria har badezazu ene ordoen, zure arimaren salbatzeko, herioaz orhiturik, onsa bizirik onsa hil bazite.* (Tt Onsa)
- (15) *Egunian behin paseia bazite bide hartan, hanbat sobera izanen zira Iesus haren adeskide eta hura zure.* (Tt Onsa)
- (16) *Neure adeskidia, IESUS zure adeskide honaz orhit bazite, bide honian zira, zure azken orenaz orhiturik, onsa hilen zira.* (Tt Onsa)
- (17) *Ora drano bezala bekhatian egon bazite, bekhatian usikirik, bekhatian ianen zutu.* (Tt Onsa)
- (18) *Ezpazite egon iratzarririk, jinen nuzu zugana ohoinbat bezala.* (Tt Onsa)
- (19) *Zauria eta miña ezpadite bertan sendo.* (Tt Onsa)
- (20) *“Iauna, zelurat igan banadi, zu han zira; ifernurat ieusten baniz, han present zira; zu orotan zira”. (Tt Arima “Non egin otoitz”)*
- (21) *“Lege berriko sakrarnendiek emaiten baitute Iinkoaren gratia bekatore orori, bekatorearen aldetik espada faltarik», digneki presenta badadi haien rezebitzian”. (Tt Arima)*
- (22) *Barura prinzesa eder bat da eta poxant bat, molde honian egin badadi ber.* (Tt Arima)
- (23) *Inxensiak, ezpadadi iar inkaz bizian, ezta emaiten kerik, ez urrinik.* (Tt Arima)
- (24) *Eztugu ukhenen koroarik zelian, ezpagite konbati jeneroski lurrian.* (Tt Arima)
- (25) *Eta Igante eta Bestez eracax decen Cathechima goiçan pronoaren ondoan; edo vezperetan, hobekien uduri çaikeyen beçala: eta noicic behin predica, guciz Besta handietan, çointara berac ecin hel badite, çonbait besté Apez iakinsu bere lekhotan minça eraci decen.* (Bp I 19)
- (26) *Eçtitçake ihourc celuco gaiçac enthelega; gaitcen soferitcera Jesu Kristen amourecatic, ezpadadi.* (Mst II 12, 14)
- (27) *Ezin bazite mementokal zure büriaren ezagützian sar, sar zite aments zunbait aldiz, eta gütienetik egünian behin, erran nahi beita goizan edo arratsen.* (Mst I 19, 4)

*Ezan-ekiko agerraldiek *edin-ekikoak bikoizten dituzte: oro bil 61, hauetarik gehientsuenak berriz ere Tartasenak izanik (45 Onsan eta 8 Ariman). Objektu pluraleko formak lau aldiz ageri dira (28), (43)-(45). Tartasez gainerako agerraldiak ondoko testuei dagozkie: Bela, Oihenarten atsotitzak, Etchart, Ressegue, *Sainte Elisabeth* eta *Uscara Libria* (bana), Mercy eta Maister (bina). Erremarkatu behar da XVIII. eta XIX. mendeetako agerraldi guztiek potentzialaren balioa adierazten dutela, *ahal/ezin* partikulez eta aditz nagusia eliditua kontsidera daitekeelarik (46)-(49).

- (28) *Ez bere eskasa ez bertzen bortitza, eztauki urguluak, senti ezpaditza.* (O Pro 503)
- (29) *Ekar badeçac orequi, ukenen duc yaurequi.* (Bela 17)
- (30) *Eta reffuza badeçacu emaitera coppia haren, erranen dute gente endelgatuec eta çuhurrec eztuçula maite arrazona edo baquia herrien artian.* (Etchart 7, 1r)
- (31) *Baiña zure gloria behin ikhus badezat, ordian ene arima, bethe, ase, eta konplitu izanenda.* (Tt Onsa)
- (32) *Loak har badeza bada herioa oren oros inguru, inguru gure aldian dago, eta haren beldurra, eta haren memoria galdurik bekhatian barna sarturik lo egin badezagu, erhoak. elgerrak, eta galdiaik eternaliki izanen gira.* (Tt Onsa)
- (33) *Hark atrapa badeza, bizia galdu behar diala.* (Tt Onsa)
- (34) *Ezpadeza bere gida, bere gehiena, onsa ohora, lauda, maita, remerzia, eta orhiturik bere Iaunaren hilziaz, ezpadeza haren hilziaren dolia ekhar, eta eduki bere bihotzian, ezpadeza kontsidera mortal dela, eta hil behardiala, soldadoa ezta handiago*

- Iauna baiño, Iauna hilda, soldadoak ere behardu hil, iuiamendu hura ezpadu, ezdeusbat beno sordeix izanenda nik errandudana izanenda. (Tt Onsa)*
- (35) *Haren memoria galdurik bekhatian barna sarturik lo egin badezagu, erhoak. elgerrak, eta galdiak eternalki izanen gira. (Tt Onsa)*
- (36) *Erran badezagu, bekhaturik eztugula, gure buriak tronpatzen dutugu, eta ezte gutan egiarik. (Tt Onsa)*
- (37) *Eskola hartan lektione on hori, har badezazu gogoan, herioa izanen duzu zure muthil eta zu haren laun. (Tt Onsa)*
- (38) *[Frutu] hetarik ian badezazu, galdu, zira, hil zira. (Tt Onsa)*
- (39) *Zure gogoan eduki badezazu, ezar niro ehun, hamarren kontre, edo mila ehunen kontre deabruaren despit. (Tt Onsa)*
- (40) *Miseriaz hontzaz egunian behin orhitzite, hala egin badezazu, ni sartuko nitz zure berme, hilze honbat eginen duzula, zure orena jin dadinian, mundu hontan, eta bertze mundian bizitze eternalbat ukhenen duzula. (Tt Onsa)*
- (41) *S. Augustinek dio onsa konsidera eta examina badezagu oratione dominikala, [...] eridenen dugula gure oratione ororen bertutia eta hitzak oro han direla. (Tt Arima)*
- (42) *Zuk eta nik ezpadezagu ordu onez eduki miserabliak gututzu eta galdiak. (Tt Onsa)*
- (43) *Hura gure adeskide den bezala, gu ezin beikirate harenak, ezpaditzagu haren maniak onsa begira, eta ezpadugu haren lege saindia, eta berondate saindia konplitzen. (Tt Onsa)*
- (44) *Bekatian bazira, hantik bertan ialgiko zira, hirur prinzesa eder hoiak enplega baditzazu linkoari zure faboretan. (Tt Arima)*
- (45) *Zure penaren, eta tribailliaren rekonpensutan, eta pagutan, Ienkoak ezpadizazu eman Infernia, ogen handibat eta iniurio handibat egin, drauzu. (Tt Onsa)*
- (46) *Ençunen duye ber guisan meça beste egun oroz, ahal badace [sic]. (Ressegue 18)*
- (47) *Eta hori ecin eguiten baduye, gutienetic ere galthatcen eta deytcen duyelaric ahoz, ahal badece, edo bihotcez, ecin badece ahoz, dolumen ecinago handireki bere bekhatiez, eta devoki, Jesusen icen saintia. (Mercy 6)*
- (48) *Ecin badecaçu mihiz / bihotcez othoi eçaçu, / eta phenxamentiac oro / hareki ukhen itçatçu. (SteEli 910)*
- (49) *Bestalde goiçan edo arrax aldin eguiçu ahal badecaçu bidage bat eliçala Jesus-Christi althareco Sacramentu Siantian adoracione baten eguitera. (UskLi 65)*

Interesgarriago dena, Zuberoan orainaldiko protasi hau *iron laguntzaileaz ere adieraz zitekeen. Orotara zazpi adibide atzeman dugu (50)-(56). Honek badu munta, zeren hizkuntza osoaren halako simetriaren aitzinean kokatzen baikaitu: aztertzen dugun egitura mendebaldean *edin, *ezan & egin laguntzaileekin posible izan bada, ekialdean *edin, *ezan & *iron hirukotearekin lekukotzea igurika genezakeen. *Ezan laguntzailearekiko protasiak ahal nahiz ezin partikulez ageri badira (46)-(49), *iron-ekikoak ezezko perpausetan dautza, edo ezintasunaren balioa adierazten dute (52).

- (50) *Evaxia ihorc buhur ezpadiro, cer eguin behar du?* (Bp I 99)
- (51) *Ezpadirozū zure būria ezar zihaurk nahi zūniikian bezala; nula ūkhen dirozū beste bat zihaturen gogarako.* (Mst I 16, 2)
- (52) *Ezin badirozū hañ min txipirik süstenga, nula soferitiüren ahal dütiüzū thormentü eternalak.* (Mst I 24, 6)
- (53) *Eçpalin badiroçu celuco gaiça goretan çoure eçpiritia etheki, phaussa cite Jesu Kristen passionian, eta egon cite gogo houneç haren çauri sacratietan.* (Mst II 1, 4)
- (54) *Ezpadirozū boztarioreki, mendrenetik pazentziareki soferi ezazū.* (Mst III 57, 2)
- (55) *Debotki icentatcen badie, mihiz ezpadiroie ere amenx bihotcez, Jesusen icen säintia.* (Ressegue 6)
- (56) *Isterbegi dianak merexi badü, egin dereiozū honkia eskernio düit zure akadoiari egiten ezpadü merexi zariona, egar ezpadiro dereiozüna bizkarrian ezarri ta honki ezpadü ekarri zuri dikezū zorra ta ez niri harez aipatzia.* (Egiat I 10)

94. TAULAK aditzoinaren gaineko orainaldiko protasiaren agerraldi guztiak biltzen ditu, testuka. Iduri luke baldintza mota honek luzazkiago iraun lezan aditz iragankorretan: *ezan-ekiko azken agerraldia sei hamarkada kentzen dizkio *edin-ekiko azkenari. Halere, XVIII. eta XIX. mendeetako datuen kopuruarekin zail da halako ondorio fermurik ateratzea, zeren aditz iragankorren maiztasun altuagoak ere esplika bailezake. Bestalde, *Uscara libriaren* (1814) egiazko datazioa XVIII. mende akabantzakoa izan daiteke (Padilla-Moyano 2015a: 522). Nolanahi ere den, datu guztiak harturik, Zuberoako testuen lekukotzak kronologia bat iradokitzen du, zeinetan [aditzoin + *edin, *ezan, *iron] baldintzazko egitura ohikoa, bizirik baitzatekeen XVII. mendean, eta ihartua XVIII.ean.

Bestalde, [aditzoin + *edin, *ezan, *iron] orainaldiko baldintza idatzizko tradiziora mugatua ageri da, hartaz gehien baliatu den idazlea, diferentzia handirekin, Tartas izanik (96 agerraldietarik 76 harenak dira). Izan ere, Belaren eta Oihenarten atsotitzak alde batera utzirik —hizkuntzaren arkaikotasunak perifrasi horren agerpena azalduko luke—, *Sainte Elisabeth de Portugal* salbuespen bakarra litzateke (48); halere, trajeriaren pasarteak dotrinaren oihartzunak ditu, eta ezin ahantz errejentak handiki baten ahoan ipintzen duela formula.

94. TAULA. [Aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] oraineko protasiak Zuberoan, lekukotuak diren denbora tarteko testuetan.

	* <i>edin</i>	* <i>ezan</i>	* <i>iron</i>	oro
O <i>Pro</i> ca.1600		1		1
Bela ca.1600		1		1
Zalgize ca.1600				-
Etchart 1616	2	1		3
O <i>Po</i> 1657				-
Tt <i>Onsa</i> 1666	18	45		63
Tt <i>Arima</i> 1672	5	8		13
<i>PSing</i> 1676				-
Bp 1696	1		1	2
<i>CatOlo</i> 1706				-
<i>Othoitce</i> 1734				-
Mst 1757	2		4	6
<i>IP</i> 1757				-
Ressegue 1758		1	1	2
<i>Petit Jean</i> 1769				-
<i>StJul</i> 1770				-
Mercy 1780		2		2
<i>NLilia</i> 1782				-
Egiat I 1785			1	1
<i>Bala</i> 1788				-
<i>Jouanic</i> 1788				-
<i>Boubane</i>				-
<i>Chiveroua</i>				-
<i>Edipa</i> 1793				-
<i>Xarlem</i> ca.1800				-
<i>SteEli</i> ca.1810		1		1
<i>Malqu</i> 1808				-
<i>DKhi</i> 1812				-
<i>UskLi</i> 1814		1		1
Oro	28	61	7	96

3.2.3. Aditzoin eta imperfektibozko perifrasiaren arteko lehia

Bistan da, perifrasi zaharren galera *izan* & **edun* laguntzaileekiko egitura berrien alde gertatuko zen. Zuberoan [inperfektibo + *izan*, **edun*] perifrasiak jada testu zaharretan lekukotzen da orainaldiko baldintzaren protasi gisara (57)-(62); hau espero izatekoa da, egitura ohikoa eta orokorra baita Euskara Arkaikoan (Mounole 2011: 106).

(57) *Badu ere axeriak biloa uzten, bere egitea eztu biluzten.* (O *Pro* 62)

(58) *Nic badaquit cien vice-regue iaunac hori sarri uken diroiela, ciec suppliquatzen baducie behar den beçala.* (Etchart 9, 1v)

(59) *Halaz batzutan / Batzen bazaitut, / Baten lekutan, / Neke biga itut.* (O *Po* XVI)

(60) *Bekhatoria bada, eta bekhatian bizirik, bekhatian hiltzen bada, bere konzientia propiak erratzendu, eta iaten barnetik, eta kanpotik.* (Tt *Onsa*)

- (61) *Batbederac, eriz edo ecinez baratcen ezpada, Parropia Meça ençun behardu hirour Igantetatic batez.* (Bp I 108)
- (62) *Bena Jesus gordatcen baçaye, edo aphur bat eiçten balin badutu; edo mourmouceyatcen, edo descorajatcen dira.* (Mst II 11, 1)

Puntu honetan interesatzen zaiguna da, hain zuzen, perifrasi zahar eta berrien arteko lehia. 3. pertsonako adizki ohikoenetan oinarriturik, 95. TAULAK aditzoinaren eta inperfektiboaren gaineko protasien bilakaeren iduria eskaintzen digu. Ezkerreko zutabeak aditz iragangaitzen datuak jasotzen baditu, erdiko zutabeak aditz iragankorren konparantza du egiten. Eskuineko zutabeak, azkenik, molde zahar eta berria ematen ditu parez pare. Tartasen testigantza arras interesgarria da. Errana baitugu, hura da [aditzoin + **edin*, **ezan*] orainaldiko protasia gehien lekukotzen duen egilea. Baina haren bi testuetako datuak alderantzizko proportziotan agertzen zaizkigu: *Onsan* perifrasi zaharrak nagusi badira, *Ariman* perifrasi berriek gaina hartuko diete —xerkatu ditugun formei doakiela bederen—; honek bide ematen du pentsatzeko bi moldeen arteko lehia Tartasen garaian ebazten ari ahal zela, nonbait **edin* & **ezan* laguntzaileekiko orainaldiko baldintzak gustu zaharrekoak gerta zitezkeenean. Memento hartarik aitzina perifrasi zaharrekiko (orainaldiko) baldintzen agerpena marjinal bihurtuko zen.

95. TAULA. Orainaldiko baldintzaren protasiak: aditzoin vs. imperf. (aditzoinaren gainekoak lekukotuak diren denbora tarteko testuetan).

	adoin. + <i>badadi</i>	imperf. + <i>bada</i>	adoin. + <i>badeza</i>	imperf. + <i>badu</i>	<i>badadi & badeza</i>	<i>bada & badu</i>
O <i>Pro</i> ca.1600				1		1
Bela ca.1600						
Zalgize ca.1600						
Etchart 1616	1				1	
O <i>Po</i> 1657						
Tt <i>Onsa</i> 1666	4	2	14	3	18	5
Tt <i>Arima</i> 1672	3	4	4	11	7	15
<i>PSing</i> 1676						
Bp 1696		7		1		8
<i>CatOlo</i> 1706		3				3
<i>Othoitce</i> 1734		4		1		5
<i>CatOlo2</i> 1743				1		1
Mst 1757	1	9		14	1	23
<i>IP</i> 1757		1				1
Ressegue 1758		2				2
<i>Petit Jean</i> 1769						
<i>StJul</i> 1770		1				1
Mercy 1780		4		1		5
<i>NLilia</i> 1782						
Egiat I 1785		5		9		14
<i>Bala</i> 1788						
<i>Jouanic</i> 1788				1		1
<i>Boubane</i>						
<i>Chiveroua</i>		4				4
<i>Edipa</i> 1793				1		1
<i>Xarlem</i> ca.1800		6		2		8
<i>SteEli</i> ca.1810		10		5		15
<i>Malqu</i> 1808		2		2		4
<i>DKhi</i> 1812		3				3
<i>UskLi</i> 1814						
Oro	9	67	18	53	27	120

3.3. Hipotetiko ez-iraganeko baldintza

3.3.1. Abiapuntua

Hipotetikoko baldintzetan bi multzo bereizi behar dira: iraganekoa eta ez-iraganekoa —*révolu* eta *non-révolu*, hurrenez hurren (Oyharçabal 1987; Mounole 2011)—. Hipotetiko iraganak mintzaldiaren mementoan pasatua den une bati egiten dio erreferentzia, eta hipotetiko ez-iraganekoan mintzaldiaren unea da erreferentzia.

96. TAULA. Baldintza hipotetikoaren protasiak.

Iragana	perfektiboa	<i>joan (izan) balitz</i>	<i>egin (izan/ukan) balu</i>	
	trinkoa	<i>balihoa</i>	<i>balegi</i>	
Ez-iragana	{	<i>aditzoina</i>	<i>joan baledi</i>	<i>egin baleza</i>
		<i>inperfektiboa</i>	<i>joaten balitz</i>	<i>egiten balu</i>
		<i>prospektiboa</i>	<i>joanen balitz</i>	<i>eginen balu</i>

3.3.2. [Aditzoin + *edin, *ezan, *iron] perifrasi Zuberoako testuetan

Atal honetan aditzoinarekiko hipotetiko ez-iraganaren baldintza aztertuko dugu. Protasi egitura hori ohikoa da Zuberoako testuetan (63)-(84) *edin & *ezan laguntzaileekin; aldiz, *iron aditzarekin anitzez ere arraroago gertatzen da, 1844ko testu bakar batek lekukotzen duela (79) & (80). Bestalde, bada aldakortasun puntu bat *edin-en formetan: gehien ageri dena *ledi* itxurakoa bada, testu batzuek —Etchart, Tartas, *Othoitce*, Eguieteguy, *Edipa*, *Malqu* & *Malqulina* eta *Uscara libria*— *ladi* bokalismoa lekukotzen dute.

- (63) *Eztuçula ouste eci, bercela, eguin ahal balady arcorduric, ororen contentamendura ezqueneçan eguin.* (Etchart 9, 1v)
- (64) *Non imposible baizen ohoriaren tenplian nehurse sar ladin, ezpaladi behiri sar, eta iragan bertatiaren tenplatik.* (Tt Onsa)
- (65) *Danjeros belizate haren egilia eror ladin, postura haietan egin baleza bere orationia gizonen aitzinian.* (Tt Arima)
- (66) *Erho behar luke içan gracia horiez ezpaladi cerbutcha bere eguiteco handienian.* (*Othoitce* 4)
- (67) *Eta Jesus galtcen dianac, ecinago hanitch galtcen du, eta haboro, ecieç mundia oro gal baleça.* (Mst II 8, 2)
- (68) *Berhala bethi gracia eman balin baledi, eliro guiçonaren flakeciac houra ounxa egar ahal.* (Mst IV 15, 2)
- (69) *Gu ere cieq beçala / hary gomenda baguinte, / goure behar ordietan / socorry othe guintçake?* (StJul 806)
- (70) *Çombait bazter baledi hari çor dianetic, eluke carguric haboro confrairan, eta casu batçutan idokiric içan leyte ossoki.* (Mercy 37)
- (71) *Zure arima ofizio hortara plega ezpaladi egon zite jauregian handien zerbützietaz paira.* (Egiat I 7)
- (72) *Çoure intressaq eneçaz / comply ahal balite / ene jujamentia berhala / phausaturiq lirate.* (*Edipa* 589)
- (73) *Halaxe agi baladi, / ene abantalla lizate.* (*Malqu* 184)
- (74) *Eta plazer haundi nikezü / kuntenta bazinte zü.* (*Malqu* 497).
- (75) *Eta malurra hel balekit / guero gaiski heltceko, / desouhouria nikeçu / handi ecinago.* (*SteEli* 297)
- (76) *Ene exai batec nountipaitic / baliçat guerla declara, / noula behar liçateke / phenxatu resistatcera?* (*SteEli* 594)
- (77) *Secula malhur hori hel balekigu, o Jauna, ezkitçatçula utci estatu triste hartan.* (Ip KurBD)
- (78) *Eta nahi çunukia ez baliçaçu pharca çoure bekhatia, ez baliçaçu eman bere gracia eta Celia?* (*Medit* 121)
- (79) *Hiltciaren orhitmencha hurruntcen dugu, herioua bera haren ahatcez, hurrun baguiniro beçala.* (*Medit* 48)
- (80) *Beguira ahal baniro ere, hounen çouri errendatcera lehia nintakeçu.* (*Medit* 213)

- (81) *Daigun urthiari buruz Jaon deputatu hoiek fantasi bat har baleze, [...] eztut ikhusten gure herriko errepubliken bastart zunbaitek zer arrapostu lukien emaitako.* (Chaho AztBeg XII)
- (82) *Ihurk e-lüke hetzaz axolik, bortxaz eragin ez-palite.* (Ip Dial 14)
- (83) *Agui baledi, trompaturic, horietaric çoumbaiten erecebitcia, behar lukie hec berhala denonçaturic içan heresiaren cherkhaçaler.* (HOrdre 5)
- (84) *Haren esku misericordiaxia ene egartetic bara baledi, galduric ninçate orozbatcoz.* (Myst 32)

§ 3.2.2 atalean ez bezala, hemen apodosien kontu ere errendatuko dugu. XVIII. mendearen lehen erdian, hipotetiko ez-iraganeko baldintzen apodosiak, Mounoleren azterketaren arabera (2011: 240), hiru hauek izan daitezke: 1) forma sintetiko + *-(te)(ke)*; 2) [aditzoin + **edin*, **ezan* + *-(te)(ke)*]; eta 3) [prospektibo + *izan*, **edun* + *-(te)(ke)*] perifrasi. Zuberoari begira, Maisterrek **iron* preferatzen du iragankorrenzat, eta datibodun iragangaitzentzat *-kidi-* itxura agerrarazten du sistematikoki. Mounoleren hitzetan, “Les dialectes orientaux sont plus conservateurs. Comme aux 15^{ème} et 16^{ème} siècles, le souletin Maister et l’auteur du sermon haut-navarrais semblent ne disposer que de la périphrase [radical verbal + **edin*, **ezan*, **iro* d’hypothétique + *-te / -ke*]” (*ibid.*).

Gure corpuseko datuek Mounolek abertitu aukerak aise gaintzen dituzte, salbu lekukotu gabe gelditzen den hirugarrena: [prospektibo + *izan*, **edun* + *-(te)(ke)*] perifrasi. Exhaustiboki jokatu gabe, ondoko apodosiak aurkitu dira XVII. eta XVIII. mendeetako Zuberoako testuetan:

- Aditz sintetiko + *-(te)(ke)*:

(85) *Çombait bazter baledi hari çor dianetic, eluke carguric haboro confrairan.* (Mercy 37)

- [Aditzoin + **edin*, **ezan* + *-(te)(ke)*] perifrasi, bai eta **iron / -kidi*:

(86) *Hel baledi aldiz lenen hanitxtarziünak eliroien ütsartzerik eman.* (Mst “Irakurçaliari”)

(87) *Beren ukurtetan hel elaidikina, norberak jarraik baleza bere zatua.* (Egiat I 31)

(88) *Sinhetz balinbaleza / gizon harek gure errana, / ezar giniro mementian / iferniaren zolala.* (Boubane 99)

- Inperatibo

(89) *Zure arima ofizio hortara plega ezpaladi egon zite jauregian handien zerbützietaz paira.* (Egiat I 7)

- Orainaldi errealeko formak:

(90) *Belharico iartiaz norbaitec erri eguin baliçaçu, utci behar deya hala othoitcia?* (Bp I 125)

- [Aditzoin + **edin*, **ezan* hipotetikoan] perifrasi:

(91) *Eztuçula ouste eci, bercela, eguin ahal balady arcorduric, ororen contentamendura ezqueneçan eguin.* (Etchart 9, 1v)

- [Inperfektibo + *izan*, **edun* + *-(te)(ke)* hipotetikoan] perifrasi:

- (92) *Ienkoak benedikzione saindu hori, [...] eman baleza, ene tribaillu mendriari, eta appurrari, rekonpensu handiagorik enuke desiratzen lurrian. (Tt Onsa)*
 (93) *Eçar ahal balady / baquia hayen artian / souetatcen niqueçu / segurky ene phartian. (Edipa 555)*

○ [Perfektibo + *izan*, **edun* + -(te)(ke) hipotetikoan]:

- (94) *Erho behar luke ičan gracia horiez ezpaladi cerbutcha bere eguiteco handienian. (Othoitce 4)*

○ [Prospektiboa + *izan*, **edun* orainaldian]:

- (95) *Hel baledi çombait confray haitatietaric ecin assestitcen ličan cerbait arrazou legitimogatic, avertituren du beste çombait. (Mercy 31)*

Maisterren denboratik aitzina xerkatuz gero, badira oraino posibilitate gehiago, hala nola **edin*, **ezan*, **iron* orainaldian.

- (96) *Eta haren bekhatia, jinkuak nula pharkadiro / Igaran baleza ere, nigarres denbora oro. (Etchahun “Complainte Heguilus”)*

3.3.3. Hiru protasien arteko lehiarik (aditzoin/inperf./prosp.?)

97. TAULAK hipotetiko aditzoin eta inperfektiboaren gaineko protasien lehia ilustratzen du Iparraldeko bi mintzotako egile bederarengan. Iduri luke Maisterren hizkeran [inperfektibo / prospektibo + *izan*, **edun*] perifrasiak ezezagun gertatzea, edo bederen ez izatea aukera produktibo —ala gogoko?—. Ber denborako lapurteran, aldiz, erabiliak ziren; gehiago dena, Harrietek eta Urtek [inperf. + *izan*, **edun*] perifrasia sistematikoki baliatzen zuten hipotetiko ez-iraganeko protasietan (Mounole 2011: 236).

97. TAULA. Hipotetiko ez-iraganeko protasiak XVIII. mendeko Iparraldean.

	trinko	adoin.	inperf.	prosp.
Etxeberi Sarakoa	7	11	5	1
Maister	21	23	-	-

Iturria: Mounole 2011: 236

Hizkuntzaren item batek hiru aukera baldin badu lehian, normala da aldakortasun horretatik bestelako banaketa batera iragaitea. Beraz, hipotetiko ez-iraganeko baldintzarentzat hiru protasi baldin baziren, denborarekin mintzo bakoitzak bere hautuak eginen zituzkeen. Izan ere, helmuga badakigu zein izan den: mendebaldeko euskalkietan prospektiboa baizik ez da erabiltzen (*izango balitz*), lapurterak inperfektiboa lehenetsi du (*izaten balitz*), eta soilik ekialdeko mintzoek —hots, zubererak, behe nafarrerak eta hauekin lotu izan diren aezkerak, zaraitzuerak eta erronkarierak— atxiki dute aditzoina (*izan baledi*) (Mounole 2011: 236-7).

3.3.3.1. [Inperf. / prosp. + *izan*, **edun*] perifrasiak

Puntu honetan Zuberoan gertatu datekeen lehia zaigu interesatzen, lehiarik izan bada. Hortaz, argitu beharreko lehenbiziko puntua da Zuberoako testuek hiru perifrasiak egiazki lekukotzen dituztenetz. [Aditzoin + **edin*, **ezan*] perifrasiaren kontu errendaturik (§ 3.3.2), inperfektibozko zein prospektibozko aukeren berri emanen dugu. [Inperf. + *izan*, **edun*] perifrasia erabilia izan da Zuberoan, XVII, XVIII eta XIX. mendeetako hainbat testutan, Tartasekin has eta Anna Urrutyrekin buka (97)-(106). Egia da moldea ez dela Maisterrengan kausitzen, baina bai haren zenbait garaikiderengan.

- (97) *Barur egunian nehor horditzen balis sobera edanik edo sobera janik, bi bekatu mortal kometi liro.* (Tt Arima)
- (98) *Ostia saintia aho garayan lotcen baliz, cer eguin behar liçate?* (CatOlo 103)
- (99) *Eta helcen baliz officier hetaric çombaitec —ala den Prioria, priorepecoa edo bestetariec— lüien bardin votz, bilduren ahal duie berriz haïtatceco votça.* (Ressegue 28)
- (100) *Eta haiecq ecin / balie erreussitcen, / eta harecq Jesus Crist / balin balu othoitcen, / moien harez arguy spirituala / eta corporala emaiten / eçagut leçan Jesus Cristen eta / ginco falxien arteco diferentcia.* (StJul 60-62)
- (101) *Bena amabatec ahazten balu ere bere haurra, çuc segurtatcen naiçu enaiçula ahatceren.* (Mercy 213)
- (102) *Nüla egin dütien / galthatzen bazüntie, / bat pian bestia gañen / erran lirozie.* (Malqu 524)
- (103) *Cer liçate arren berac deitcen baguntu bere ganat, bere palaciouala, eskentcen baleicu bere adiskidegoua, eta hareki bere erresoumaren erdia?* (Medit 91)
- (104) *Eçagutcen bagunu ounxa çougnen maïthagarri den berartan Gincoua, handizki maïtha guiniro.* (Medit 109)
- (105) *Noula beraz ausarta ere othe nainteke, Jauna, esparantça ukheitera, çoure odolac eguiten espalu ene confidantça.* (MaiMarHil 132)
- (106) *Jesusec erran cion: eçagutcen bacinu Jincouaren dohaigna, eta nour den çouri errailia: indaçü edatera, cihauc ere galthatuco ceneion eta emanen çeiçun hour laster batetariec.* (EvS 4, 10)

Azkenik, erran daiteke Zuberoan [prospektibo + *izan*, **edun*] perifrasia ezezaguna dela baldintza hipotetiko ez-iraganeko protasi funtzioan. Corpus osoan adibide bakarra atzeman dugu, Amiküzeri lotua den testu batean (107).

- (107) *Ükhenen bagünü bira tripa, / nahiago günükian, / zeren eta haboro / janen baikünian.* (CanBel 484)

3.3.3.2. Hipotetiko ez-iraganeko protasiak, baliokideak ote?

Bigarren puntua hiru (edo bi) aukeren baliokidetasunarena da. Ezen, lehia bat gertatu bada, orduan aditzoin, inperfektibo eta prospektiboarekiko perifrasiak nonbait trukagarri gertatu behar ziren. Hala izan dea ekialdean? Lafonentzat aditzoinaren eta inperfektiboaren gaineko egiturek ez zuten ber balioa, haien artean ñabardura semantikorik edirenik: “Dès le XVI^e siècle, le type *ikusten balu* sert souvent à exprimer une hypothèse rapportée au présent, par

opposition à *ikus baleza*, qui sert à exprimer une hypothèse relative à l'avenir" (1943 II: 53-54).

Lafittek ere balio desberdinak esleitzen zizkien bi moldeei. Batetik, "éventuel futur": *gal baledi* 's'il se perdait (potentiel)'; bestetik "éventuel présent": *galtzen balitz* 's'il se perdait (irréel)';⁴⁰⁹ azkenik, "éventuel futur ancien": *galduko balitz* 's'il se perdait'. Nafar-lapurterari begira, Lafittek galbidean zekusan *jinen balitz*, hiztunek *jiten balitz* baliatzen zutelako:

Cette formule est presque périmée. On y substitue souvent l'imparfait modal à sens présent. De même qu'au lieu de *jinen bada* on dit *jiten bada* (cf. fr. *s'il vient* au lieu de *s'il viendra*), de même on préfère dire *jiten balitz* au lieu de *jinen balitz*, à condition que la proposition principale exprime assez clairement le futur. (1944: 380)

Halere, Lafittek **edin* & **ezan* hobesten zituen *éventuel futur* delakoaren adierazpenerako: "Les bons écrivains et les beaux causeurs évitent cependant cet à peu près, et utilisent l'imparfait modal de *dadi* et *deza* accompagnant l'infinitif radical du verbe" (*ibid.*). Nonbait bi balioen bereizteko beharra zekusan:

Peut-être faudrait-il distinguer entre les deux systèmes d'éventuel futur. Le système construit à l'aide de *dadi* et *deza* marque certainement l'éventuel potentiel. Ex.: *Ikus baneza, bortzeko bat ona eman nezoke*, 'si je le voyais, je lui donnerais une bonne poignée de mains (il est possible que je le voie)'. (*ibid.*)

Nolanahi ere, Lafitteren ñabardurak ez letozke bat Lafonek deskribatu zituenekin. Azkenik, Etxebarnek aditzoinaren eta inperfektiboaren gaineko protasiak jasotzen ditu bere gramatikan, "baldintza gertagarri" (alegiatzko ez-iragana) gisa izendatuz (2011: 90), baina balio diferentziarik iruzkindu gabe; menturaz adierazgarriena prospektiboaren gaineko protasia ez jasotzea dateke.

Zuberoako euskara historikoaren corpusean zenbait egilek Lafonek erremarkatu ñabardurak (*vid. supra*) adierazten dituzte. Halakoa da Mercy (Eskiula, 1780), aldiei lot dakizkiekeen zehaztasunak erakusten dituen (108).

(108) *Erran den confraria juntaturic baliz oray, edo guero junta baledi beste çombait confraria guehiagori, edo giten bada juntatu edo eçari içatera beste çombait cernahi*

⁴⁰⁹ "Quant au système construit avec *da* et *du*, il semble devoir traduire plutôt l'irréel du futur. Nous avons en tout cas entendu une fois la phrase suivante: *Ez balaut afruntu hori egin, bihar elgarrekin joanen gintazke*, 's'il ne m'avait pas fait cet affront, demain nous partions ensemble'." (1944: 380)

guisatara, lehenac edo beste lettera apostolicouac eztitian deusetaco balia, bena ordiandanac deüsic baliotaco diren. (Mercy 8-9)⁴¹⁰

Egile batzuen hautapen argiagoak goiti beheiti (§ 3.3.3.3), aditzoin eta inperfektiboaren gaineko protasiak manera ñabarrean konbinatzen dituzten pasarteak ez dira arraroak (109).

(109) *Orano, noizpait elkhi banendi presondegui icigarri hountaric, orano, noizpait finitcen balira ene phenac, noizpait hiltcen baliz ni erratcen naian suia, elicæte hain complet ene desolacionia, ez ene suplicioua hain lehezgarri. (Medit 80)*

3.3.3.3. Aditzoin vs. inperfektibo lehia Zuberoako testuetan

Izan & **edun* laguntzaileekiko protasiei doakienean, badakigu inperfektibozko protasia ekialdeko mintzoetan gailendu dela: “Les siècles suivants celle-ci deviendra la principale forme des protases d’hypothétique non-révolu des dialectes orientaux” (Mounole 2011: 115). Laffitek ere inperfektiboaren gaineko protasiaren hedapenaz mintzo da (prospektibozkoaren kalte; *vid. supra*).

Mendebalde eta erdialdeko XVIII. mendeko testuetan prospektibozko protasia hipotetiko *non-révolu* delako testuinguruko egitura bakarra gertatuko da. Etxeparek adibide bat ematen du (cf. Mounole 2011: 115), eta orain badakigu Zuberoako euskara zaharrean egitura hori ez dela lekukotzen, salbuespen deigarri batean ezik (107).

Gauzak horrela, interesa hipotetiko ez-iraganeko beste bi protasien arteko banaketa neurtzean datza. 95. TAULAREN antzo, 98. TAULAK aditzoinaren eta inperfektiboaren gaineko protasien konparantza egiten du, 3. pertsonako forma ohikoenak bildurik, testuz testu, hipotetiko ez-iraganeko baldintzei begira. Bi protasiak XVII. mendetik lekukotuak dira, eta garai guztietan [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] perifrasi inperfektibozkoari nagusitzen zaio (ikus 99. TAULA). Maisterrek ez du [inperfektibo + *izan*, **edun*] perifrasi behin ere erabiltzen, eta haren ifrentzua 1844ko *Meditacioniac* ditugu. Kasu honetan tradizioei so egiteak ere badu interesik, herri antzertiko lanetan inperfektiboaren gaineko protasia ez delako kasik atzeman.

⁴¹⁰ Frantses orijinala: Si la dite confrérie est unie, ou bien dans la suite à être unie à quelqu’autre archiconfrérie, ou si elle vient à être unie ou établie de quelqu’autre manière que ce soit, les premières ou autres lettres apostoliques ne leur servent de rien (Lucuix 1995: 50).

98. TAULA. Hipotetiko ez-iraganeko baldintzaren protasiak: aditzoina vs. inperf.

	adoin. + <i>baledi</i>	inperf. + <i>balitz</i>	adoin. + <i>baleza</i>	inperf. + <i>balu</i>	<i>baledi</i> & <i>baleza</i>	<i>balitz</i> & <i>balu</i>
O <i>Pro</i> ca.1600						
Bela ca.1600						
Zalgize ca.1600						
Etchart 1616	1				1	-
O <i>Po</i> 1657						
Tt <i>Onsa</i> 1666	2		5	1	7	1
Tt <i>Arima</i> 1672		1	1		1	1
<i>PSing</i> 1676						
Bp 1696						
<i>CatOlo</i> 1706		1			-	1
<i>Othoitce</i> 1734	1				1	
Mst 1757	5		5		10	-
<i>IP</i> 1757						
Ressegue 1758	2	1	1		3	1
<i>Petit Jean</i> 1769						
<i>StJul</i> 1770				1	-	1
Mercy 1780	3	1	1	2	4	3
<i>NLilia</i> 1782						
Egiat I 1785	5		5		10	-
<i>Bala</i> 1788						
<i>Jouanic</i> 1788						
<i>Boubane</i>			2		2	-
<i>Chiveroua</i>	2				2	-
<i>Edipa</i> 1793	3				3	-
<i>Xarlem</i> ca.1800						
<i>SteEli</i> ca.1810			1		1	-
<i>Malqu</i> 1808	3				3	-
<i>DKhi</i> 1812						
<i>UskLi</i> 1814	1				1	-
<i>CatS</i> ca. 1836						
<i>Khurutch</i> 1838						
<i>Medit</i> 1844		4			-	4
Ip <i>KurBD</i> 1847						
<i>CanBel</i> 1848						
Etchahun	1		1		2	-
Chaho <i>AztBeg</i>	1				1	-
Archu <i>Alh</i> 1848						
<i>MaiMarHil</i> 1856				1	-	1
Ip <i>Dial</i> 1857						
<i>HOrdre</i> 1860	2	2			2	2
<i>Myst</i> 1862	1				1	-
Urruty 1873						
<i>SGrat</i> 1879	2				2	-
<i>Catuchuma</i> 1899						
Oro	35	10	22	5	57	15

99. TAULA. Baldintza hipotetikoaren protasiak: aditzoin vs. imperf. mendeka.

	adoin. + <i>baledi</i>	imperf. + <i>balitz</i>	adoin. + <i>baleza</i>	imperf. + <i>balu</i>	<i>baledi</i> & <i>baleza</i>	<i>balitz</i> & <i>balu</i>
XVII. m.	3	1	6	1	9	2
XVIII. m.	21	3	14	3	35	6
XIX. m.	11	6	2	1	13	7
Oro	35	10	22	5	57	15

3.4. Ondorioak

Baldintzazko egiturak bi interesguneren arabera azterkatu ditugu: batetik, **edin*, **ezan* & **iron* laguntzaileekiko protasiak —*subjuntibozko baldintza* deituraz ere ezagunak—; bestetik, protasi horiek aldi historikoan bestelako perifrasiari aldetik jasan duketen lehia.

Orainaldiko baldintza errealean artean, [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] perifrasiari aztertu dugu bereziki. Beste inon ez bezala, Zuberoan protasi horiek **iron* laguntzailearen gainean ere eraiki zitezkeen, mendebaldean *egin* erabiltzea posible zen moduan. Perifrasi hori aditz iragankorretan maizago ageri da, bai eta berantago arte ere, iragangaitzetan baino. Orainaldiko baldintza errealeko beste protasiak, [imperf. + *izan*, **edun*] perifrasiari, XVI. mendeko testuetan ageri da. XVII. mendetik aitzina perifrasi berriak gaina hartuko dio zaharrari. Zuberoan aditzoinaren gaineko orainaldiko protasiak XIX. mendean iraungi arren, erran daiteke XVIII. menderako arkaismoa zela.

Hipotetiko ez-iraganeko baldintzaren protasi ager litezkeen hiru perifrasiari artean, Zuberoako testuek biga dute lekukotzen: [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] eta [imperf. + *izan*, **edun*]. Hirugarrena, prospektiboaren gainean eraikia, salbuespen absolutua da: agerraldi bakarria atzeman dugu, Amiküzen kokatua den testu batean. Zuberoan, [imperf. + *izan*, **edun*] protasiari Tartasengandik azalerraten da. Orainaldiko baldintzetan ez bezala, hipotetiko ez-iraganekotan [aditzoin + **edin*, **ezan*, **iron*] perifrasiari ez da zaharkitu, ez desagertu, ez eta behekitu ere: corpusean zehar imperfektiboaren gaineko perifrasiari gailentzen zaio, eta salbuespen bakanak lapurteraren eragipenaren bitartez esplikatu litezke. Aditzoinaren gaineko baldintzaren apodosiei doakienean, Mounolek deskribatu hiru aukerei (2011: 240), Zuberoako corpusaren azterketak beste bost gehitzen dizkie.

Azkenik, Iparraldeko gainerako mintzoetan [imperf. + *izan*, **edun*] perifrasiari guztiz hedatu bada, prospektiboarekiko desagerraraziz ere, Zuberoan lehia soilik [aditzoin + **edin*, **ezan*,

*iron] perifrasiarekiko izan zitekeen, baina bakoitzak bere erabilpen eremuari eutsi dio, bi moldeen artean nolabaiteko bereizkuntzarik egiten dela iduri baitu.

Post scriptum: frantsesaren eragin literario batez

Tartasen *Arimaz* aritzean, Altunak sintaxi bitxi bat seinalatu zuen:

Honen perpaus desberdinak *eta*-k loturik ikustea arras bitxia da gure euskalkietan: *Baina pobre içanic ere biltcen badu egunian behin apairu hon baten eguiteco eta dian indar eta ossagarri hona, tenitu da baruraren complitcera* (II. kap. “Baraua hausteko lau arrazoi”, 81. orr. [egiazki 66.a]). Laburturik: biltzen badu eta dian, alegia, biltzen badu eta baldin badu, bigarren baldintzazko honek *-(e)n*, zubereraz, *-(a)n*, hartu duelarik, baldintzazko balioa atxikiz, noski. (1996: 24)

Altunak halako beste bi etsenplu biltzen du: *Herri batetatic bertcera nihor ioayten denian eta barur eguna den herri hartan eta ez hontan, tenitu deya hementic harat ioayten persona, han barur eguitera? (Arima 75) & Neure honac oro emanic ere prauben entertenitzeco eta eztudan caritatia, eztut batere profiteuric (Arima 113), ondorio argi batera etortzeko: “hiru adibideetan *eta* + *-(e)n* itzulinguruak baldintzazko esanahia hartzen du” (*ibid.*).*

Bada, Altunak azaldu sintaxia arras bitxia da “gure euskalkietan”, bai eta zubereran ere. Hain zuzen, itzulinguru hori ez da Tartasen hizkeraren ezaugarri arraro bat, itzulpenak edo egilearen nahiak ekarri dukeen kalkoa baizik. Ezaguna denez, frantsesez baldintzaren bi protasi lotzen direlarik, lehena indikatibozkoa bada, bigarrena [*que* + subjuntiboa] egituraren bidez adieraziko da: *Si nous avons du soleil pendant nos vacances et que nous puissions nous baigner tous les jours, nous reviendrions bronzés*. Tartasez landara, frantsesaren kalko horren agerpena beste (frantsesetikako) itzulpenean ere ageri da:

(110) *Aurhidetatic çombait eracouts baledi gogor, eta ezten jarri nahi bide hounian, edo eguin lian çombait gaizki handi eta itchoussi mundu oroc lekianic, idoki eta eçabatu içanen da aurhidegoa erran deneco registre edo izkiributi.* (Ressegue 23)

4. Ahalezkotasunaren adierazpena

- 4.1. Sarrera
- 4.2. Ahalezkotasuna joskera sintetikoan
 - 4.2.1. *-(te)(ke)* morfema joskera sintetikoan
 - 4.2.2. *Ahal/ezin* partikulen erabilera joskera sintetikoan
 - 4.2.3. Kasu berezi bat: **idi* erroa
- 4.3. Ahalezkotasuna joskera analitikoan
 - 4.3.1. Perifrasi zaharrak
 - 4.3.1.1. [aditzoin + *ahal/ezin* + **edin*, **ezan*, **iron*]
 - 4.3.1.2. [aditzoin + **edin*_{+KE}, **ezan*_{+KE}, **iron*_{+KE}]
 - 4.3.1.3. Kasu berezi bat: *-kidi-* segida.
 - 4.3.1.4. Aditz iragankorren laguntzaileen arteko lehia: **iron* vs. **ezan*
 - 4.3.2. Perifrasi berriak: [inperf. / perfektibo / prospektibo + *ahal/ezin* + *izan*, **edun*].
 - 4.3.2.1 [part. perfektibo + *ahal/ezin* + *izan*, **edun*].
 - 4.3.2.2 [part. inperfektibo + *ahal/ezin* + *izan*, **edun*].
 - 4.3.2.3 [part. prospektibo + *ahal/ezin* + *izan*, **edun*].
- 4.4. Ahalezkotasuna adierazten duten elementuen arteko lehia
 - 4.4.1. Joskera sintetiko vs. analitikoa
 - 4.4.2. *-(te)(ke)* morfema vs. *ahal/ezin* partikulak
 - 4.4.3. Perifrasi zaharrak vs. perifrasi berriak
- 4.5. Ondorioak

4.1. Sarrera

Aditz sistemaren moduaren puntu batzuk aztertu ondoan, VI. kapituluaren azken atal honetan modaltasunari lotuko gatzazkio; zehazkiago, *ahalezkotasuna* deitu dugun balioen multzoari, potentzialarekin estekatua. Mounoleren hitzetan, potentzialak “*exprime la capacité du sujet à réaliser une action, ou les circonstances générales qui rendent une action possible ou impossible*” (2011: 120). Potentzialari estuki loturik, bestelako balioak atzematen ditugu, hala geroaldia (Mounole 2011; Padilla-Moyano 2013b) nola modalitate epistemikoa (King 1994; Mounole 2011). Euskaraz modaltasuna zenbait erroren eta aditz laguntzailerren (**idi*, **edin*, **iron*, **ezan*, *egin*), morfema baten (*-TE/-KE*), eta azkenean *ahal/ezin* partikulen edo haien arteko konbinazioaren bidez adierazten ahal da. Oro har, modaltasuna adierazten duten adizkiak ziurgabetasunaren ideiarri lotuak izan dira, euskalaritzan “*menturazko*” terminoaren barnean sartuak (Salaburu, Goenaga & Sarasola 2011).

Modaltasunaren azterketa sistematikorik egin ezean, beraz, ahalezkotasuna esparruarena proposatzen dugu, funtsean potentzialaren eta menturazko balioena. *Potentzial* deitura pean dautzakeen balioen ñabardurak alde batera utziko dira:⁴¹¹ testu arkaiko eta zaharretan *ahalera* deitzen dugunak zenbaitetan geroaldia adierazten du (Mounole 2011: 71; Padilla-Moyano 2013b), eta maizenik zail gertatzen da balioen arteko muga garbirik ezartzea. Azterketa honetan, beraz, ahalezkotasuna adierazten duten baliabide morfosintatikoei erremarkatuko zaie: laguntzaile modalak —ekialdeko euskararen kasuan **edin*, **iron* & **ezan*—, *-(te)(ke)* morfemadun adizkiak eta *ahal/ezin* partikulak hartzen dituzten joskera sintetiko zein perifrastikoak.

Gaiaren konplexutasuna zedarriztatu nahian, azterketa bi ardatzetan agituratuko da. Lehenik, ahalezkotasuna joskera sintetikoan deskribatuko dugu, *-(te)(ke)* morfemaren (§ 4.2.1) zein *ahal/ezin* partikulen bidez adierazia delarik (§ 4.2.2), gehi **idi* erroaz (§ 4.2.3). Bigarrenik, ahalezkotasuna joskera analitikoan, laguntzaile modalekiko perifrasi zaharretan (§ 4.3.1), aditz iragankorren **ezan* & **iron* laguntzaile modalen arteko lehiari arreta berezia eskainiz (§ 4.3.1.4). Joskera analitikoaren hesteko, *izan* & **edun* parearekiko ahalezko perifrasi berrien lekukotza ere aztertuko dugu (§ 4.3.2): partizipio imperfektiboa, perfektiboa eta prospektiboaren gaineko egituren bilakaera, *temps surcomposés* direlakoak ahanzi gabe. Baliabide morfosintaktiko bakoitzaren erabilpen eta bilakaera deskribatu ondian, ahalezkotasuna adierazten duten aukeren arteko lehiez arituko gara: (§ 4.4), ondorioetera etortzeko (§ 4.5).

4.2. Ahalezkotasuna joskera sintetikoan

4.2.1. *-(te)(ke)* morfema joskera sintetikoan

Euskaltzaindiaren lanetan *-(te)(ke)* morfema hartzen duten formak, oro har, “+AHAL” etiketa pean sailkatuak dira (*EGLU*). Azpiatal honetan adizki sintetiko horiek aztertuko ditugu, Zuberoako testuak lagun. Ahalezkotasunaren adierazteko bide hau ihartua da euskara orokorrean, salbu ekialdeko mintzoetan. Izan ere, Zuberoan iraun duten *-(te)(ke)* morfemadunak maiz “geroaldi arkaiko” edo “zahar” gisa ezagunak dira. Alta, geroaldi

⁴¹¹ Mounolerentzat (*ibid.*), orainaldi, iraganaldi eta hipotetikoaren potentzialezko formek ondoko balioak adierazten ahal dituzte: “(i) La capacité mentale ou physique de l’agent de mener un procès à son terme (816-827); (ii) la possibilité ou l’impossibilité qu’un procès se produise, les conditions requises étant extérieures à l’agent (conditions sociales, physiques...) —*root possibility* selon la terminologie de Bybee & al. 1994—.”

arkaiko hori ez da ahalezkotasunak zerratzen dituen balioetako bat baizik: “On aura remarqué l’homophonie de ces formes de modalité épistémique et de celles de futur. On l’a dit, les formes synthétiques de présent à suffixes *-te / -ke* expriment également le futur (et le potentiel) dans les textes les plus anciens” (Mounole 2011: 131). Egiazki, *-(te)(ke)* morfemaren balioa konplexu eta ñabarragoa izan daiteke “Une idée de futur, de conditionnel, de possibilité, de supposition ou de probabilité” (Gavel 1929 § 32).

Adizki sintetiko edo trinkoez mintzo bagara, honakoak dituzkegu gogoan: *izan* & **edun* parearen formak, aditz nagusi direlarik, eta gainerako aditz guztien forma trinkoak. Azken hauei begira, nabaria da haietarik erdia Oihenarten testuetarik idoki direla. Ez da soilik garrantzi kuantitatiboa: kualitatiboa ere bada, zeren +KE forma sintetikorik lekukotuak diren aditzak oro (*eduki, egon, egotzi, ekharri, erakharri, erakhutsi, erran, erosi, ethorri, ezagütü, ikhuzi, iraun, jakin & joan*) Oihenartengan aurkitu dira,⁴¹² haietarik bakan batzuk baizik ez direnean gainerako egileengan ageri (*eduki, egon, jakin & joan*). Erabilienak, diferentziaz, *egon* eta *jakin* dira, eta mendeka begiraturik begien bistakoa da forma hauen maiztasuna behehituz doala: XIX. mendean *jakin* baizik ez da aurkitu, bospasei agerralditan. Bistan da, behehitze hori joskera sintetikoaren bilakaera orokorrean ulertu behar da: ezaguna da XVI. mendetik honat molde sintetikoan joka daitezkeen aditzen multzoa murriztuz joan dela, eta joskera trinkoak paradigma anitz galdu duela (Lafon 1943; Mounole 2011: vii).

Batzuetan *-ke-dun* trinkoek geroaldia adierazten dute (1)-(7). (6)-ko pasarteak geroaldia eta potentizala uztartzen dituzke.

- (1) *Arraica aunçari, Baihagozque gapharrari.* (Saug 14)
- (2) *Hainbercerequi aiduru nauque cien commissioniaren coppia goure lenguoadgiar.* (Etchart 6, 1r)
- (3) *Hainbercerequi, aiduru nauque cien berriric.* (Etchart 7, 2r)
- (4) *Arraika ahunzari, agozke kaparrari* ‘Va après la chèvre, elle te jettera dans le hallier’. (O Pro 33)
- (5) *Nahi duenean doake bakhura, arstoa eta arbalda dituena eskura* ‘Quand il lui plaira, ira à la foire celui qui a le bât et l’âne en sa mangeoire’. (O Pro 326)
- (6) *Beti, joz-joz, daritzana, / Inkudeak bezala, / Diraukedala?* ‘Penses-tu que, malgré ces coups répétés, je pourrai toujours résister, comme une enclume?’ (O Po IX 2)
- (7) *Zure bizitze zuhurrak/ Zeru-lurrak / Derakarzke bakera.* ‘Votre vie de sagesse amènera le ciel et la terre à la paix’. (O Po XX 7)

Bestetan, menturazko balioa igartzen ahal da, (9) & (10)-eko etsenpluetan probabilitatea ere.

⁴¹² Oihenarten adizkerak bere hizkera noraino islatzen duen eztabaidatu izan da: “Mundu guziak daki, Urkixok eta Mitxelenak aho batez irakatsi zutenetik, zenbait atsoitzek beste hizkuntzetatik Oihenartek euskaratuak diruditela, [...] eta haietako adizkiak ez direla nahitaez Oihenarten hizkerakoak” (Altuna 1994: 85). Zernahi gisara, mintzo biziarekiko distantziaz denaz bezainbatean, atsoitzak eta neurtitzak bereizi behar dira.

- (8) *Bainan ezpaitzauzkot' otoitu, / hala hur' er', ed' ezt' orhoitu, / edo zauke' orobat izan / Joana hil edo bizi lizan.* ‘Mais comme vous ne l'en avez pas prié, lui, de son côté, n'y a pas pensé, ou bien il a dû lui être indifférent que Jeanne fût morte ou vivante’. (O Po XVII 113-116. lerr.)
- (9) *Orai cieç ere noula / eguin badakikecie / labamenturic sekula / behar baducie.* (SteEli 1040)
- (10) *Utzuli nahi baduzu, / Badakikezie zuri zer erran.* (Archu 30)

Halaber, potentzialaren ideia atzemaiten ahal da, Lafonen itzulpena (1955a) berme (11).

- (11) *Haren ahorpegia, / Zer, baderragu egia, / Zer derrakegu dela / baizik izartegia?* ‘Son visage, à quoi, si nous disons la vérité, à quoi pouvons-nous l'identifier, si ce n'est au firmament?’ (O Po XIII 9)
- (12) *Sacra blu! Nour lauke / erriviatu gabe, / bere buria erho / edo desesperatu gabe?* (StJul 888)
- (13) *Ezagützen eztianak, arren nola lakike, zer dian balio ta zer den haren gozomena.* (Egiat I 9)

Oihenarten itzulpenei erremarkatzen bazaie, orainaldiko *-ke*-dun trinkoek egia orokorraren balioa adieraz dezakete (14)-(18). Zehazkiago, “[Le suffixe *-ke*] sert toujours à indiquer ou que le procès, bien qu’il soit envisagé dans le plan de la réalité, n’a pas lieu effectivement ou uniquement au moment présent, ou qu’il n’aboutit pas à un terme défini” (Lafon 1943 I :448). (19)-ko adibidean prozesua mugagabea genuke.

- (14) *Esku batak dikhuzke bertzea, biek begitartea* ‘Une main lave l’autre, et les deux lavent le visage’. (O Pro 157)
- (15) *Her-jauna otoiez dagoenean botoiari, keinuz dauke uheari* ‘Quand le seigneur use de prières envers son sujet, il guigne le bâton’. (O Pro 228)
- (16) *Oro, bere buruaz bertzeak, dezaguzke gaizki erraileak* ‘Le médisant connaît tout le monde, fors soi même’. (O Pro 374)
- (17) *Surda tinkatuz sobera, datorke etentzera* ‘La corde d’une mandore ou d’un violon se rompt en la tirant trop’. (O Pro 416)
- (18) *Hulaxe ere bai, Jaunaren jüjamentiak egiak dira, bere beithan jüstotarzüna dadüke.* (Mst III 58, 1)
- (19) *Nik gortharzun, zuk gortarzun, / derakuskegu elkarri; / biek bardin bermetarzun / dugu hetan ezarri.* ‘Je me montre ardent, et vous sourde : telle est notre attitude mutuelle. Nous y avons mis tous deux une égale opiniâtreté.’ (O Po XXIV 3)

Ekharri aditzak arreta berezia merezi du, zeren “L’addition du suffixe *ke* à ses formes simples de présent et de préterit donne lieu à des faits très intéressants” (cf. Lafon 1943 I: 217). Horrela, (21), (23) eta (29)-ko atsotizetan Oihenartek *produire* gisa itzultzen du *ekharri*. (23)-ko adibidean “Le procès aboutit à un terme défini, mais *-ke* exprime ici une autre forme d’indétermination, celle qui porte sur les circonstances du procès : ce n’est pas en ce moment même, mais à n’importe quel moment qu’il a lieu” (*ibid.* I: 31). Beraz, egia orokorraren baliokidea: “L’adjonction de *-ke* à une forme de présent lui donne la valeur d’un présent intemporel” (*ibid.*). Horrela ulertzen ditugu (20)-(30) adibide sorta.

- (20) *Aseak batzutan dakarke gosea* ‘Quelquefois pour trop se saouler on vient après à endurer la faim’. (O Pro 50)
- (21) *Baigorriko Bizkondea, beldurrak diakarkek ahalgea* ‘Vicomte, c’est la peur qui produit la honte’. (O Pro 65)

- (22) *Handiki gorapenak soinean diakarken beherapena* ‘Souvent le croissant porte le déclin sur ses épaules’. (O Pro 160)
- (23) *Gaztaro alferrak dakarke zahartze landerra* ‘Une jeunesse oiseuse produit une vieillesse nécessiteuse’. (O Pro 185)
- (24) *Goiz gorriak dakarke uri, arrats gorriak eguraldi* ‘La matinée rouge est présage de pluie, la soirée rouge promet beau temps’. (O Pro 199)
- (25) *Minzatzeak sobera, nerakarke galtzera* ‘Le trop parler me mène à perdition’. (O Pro 317)
- (26) *Nekez irabazteak derakuske ongi begiratzea* ‘En gagnant avec peine on apprend à bien garder ce qu’on a’. (O Pro 329)
- (27) *Egiteak egiten derakuske* ‘En faisant on apprend à faire. *C’est à dire en s’exerçant*’. (O Pro 498)
- (28) *Biziro agintzeak, dekarke astiro urrikitzea* ‘Qui tôt promet à loisir s’en repent’. (O Pro 512)
- (29) *Atseginak atsegin dekharke* ‘Le plaisir produit plaisir’. (O Pro 682)
- (30) *Vizcondia, beldurrac diakarquec Ahalguia.* (Saug 60)

Azkenik, ohart bedi *ahal* partikula lau aldiz baizik ez dela ageri (31)-(33) & (154); iduri du Tartasen adibideetan menturazko balioa datzala, baina (154)-ko *ahal gouazketçu* pleonastikoa diferentea dateke, gehiago ulertzen baitugu potentzial gisa.

- (31) *Bata berziaganik separatzen bada, ahal date meritorio eta ez inpetratorio.* (Tt Arima)
- (32) *Ahal date halaber inpetratorio, eta ez meritorio.* (Tt Arima)
- (33) *Disputa da Eskolan ahal datianez satisfatorio eta ez meritorio.* (Tt Arima)
- (34) *Madama, hoxt gouatçan, / lehena hebetche duçu. / Orai arren hortara / bertan ahal gouazketçu.* (SteEli 1105)

Ezezko perpausei doakienean, datuk ez dira hain nahasiak. Batetik, ezeztapen hutsean direnek, *-(te)(ke)* morfemaz baina *ezin* partikula gabarik, gehienetan mentura edo geroaldiaren balioa adierazten dute (35)-(164).

- (35) *Dakoussanac goure beztia, ezaquique goure beharra.* (Bela 16)
- (36) *Zalduna, egik semea Duke, ezezaguke* ‘Chevalier, fais ton fils Duc, il ne te connaît plus’. (O Pro 424)
- (37) *Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan eztakiena, eta berrogeietan eztuena, da jagoiti eztatena, eztakikeena eta eztukeena* ‘Celui qui à vingt ans n’est, à trente ne sait, et à quarante n’a, jamais ne sera, ni saura ni n’aura’. (O Pro 524)
- (38) *Bertanko ilhots haur gaztaroan egina ez izanagati, eritzi dut etzaokeela hemen gaizki.* ‘Bien que cette élégie, composée tout de suite après l’événement, ne soit pas une œuvre de jeunesse, j’ai pensé qu’elle ne devait pas être déplacée ici.’ (O Po XVII, izenburu pean)
- (39) *Etzauteke bethi, ene semia, berthüten desir süz bethian.* (Mst III 51, 1)
- (40) *Ecin diçut pacentciatcen, / eniaukeçu haboro!* (SteEli 1164)
- (41) *Hartaz ere enauke / bi hitz erran gabe.* (Malqu 23)
- (42) *Zeren ezeptakike solamente / senharra niin dian.* (CanBel 32)
- (43) *Krista jiten datekienian ihourc ere eztakike nounco den.* (EvS 7, 27)

Bestetik, *ezin* partikula agerrarazten dutenak potentzial (ezintasun) gisa interpretatu behar dira (44)-(54).

- (44) *Ezin naoke jan gabe.* (O Pro 63)
- (45) *Bizi hunek (aitor dut hori) / ezin dirauke beti ehor.* ‘Cette vie (je l’avoue) ne peut durer toujours pour personne’. (O Po XVII 97-98. lerr.)
- (46) *Gizona ezin date gauza miserablebat, eta sinplebat bai.* (Tt Onsa)

- (47) *Ienkoa ezin date nehoren ere peko.* (Tt Onsa)
 (48) *Gu ezin beikirate harenak, ezpaditzagu haren maniak onsa begira.* (Tt Onsa)
 (49) *Gizonak hilez geroz bere bekhastien barkhamendurik ezin baituke.* (Tt Onsa)
 (50) *Ez phenen beldurra, ez rekompensien amorioa ezin baituqegu herioaren beldurra edo amorioa gabe.* (Tt Onsa)
 (51) *Badakit eztudala deus eta ezin deus ahal dukedala.* (Tt Arima)
 (52) *Gizona ezin daukiela denbora luzez bekatu mortal gabe orationiaren aiutia gabe.* (Tt Arima)
 (53) *Ecin nauke haboro / hassy beiniz gossetcen.* (Edipa 190)
 (54) *Obraric ederrenec ecin dukie eternitatian phacuric.* (Medit 34)

Azaldu dugun *ez* vs. *ezin* arau horri (55)-eko etsenplua oposatzen ahal zaio, ezintasuna klarki adierazi arren *ez* soila baitarama; ohart *erran* aditzarekilako beste adibideak ere, baiezko moldean, potentziala adierazten duela (11). Bestalde, Maisterren *eztauke* (56) formaren lekuan Pouvreaux *ezin dagoke* darabil (Imit I 17, 3). Nolanahi ere, baiezkoetan hamarretik batek baizik ez badarama *ahal* partikula, ezezko moldean *ezin* dutenen proportzioa erditik goiti dabil, *ezin*-en gramatikalizazio gradu altuagoaren seinale.

- (55) *Hanbatez beud'erranak / Agerriz dadutzanak, / Eztazkit ezterrasket, / gordailuan daunzanak.* 'En voilà assez dit sur les trésors qu'elle tient à découvert. Je ne connais pas et je ne puis dire ceux qui restent cachés.' (O Po X 10)
 (56) *Han ihur eztauke, bihotz osoz Jinkuaren amurekatik ümiliatü nahi ezpalin bada.* (Mst I 17, 3)

Ahalezkotasuna adierazten duten *-ke*-dun formak ez dira hipotetikoarekin nahasi behar, maizenik —baina ez beti— baldintzazko perpausei lotua (57)-(80).

- (57) *Niri baibatzen erraitera / Etzenthozke ehoiz-ere?* (O Po I 7)
 (58) *Enendauke, / Ez elauke / Bertzebat hunl'oboro, / Net bilaizi / Baliz baizi / Zenzuz edo burzoro.* (O Po II 11)
 (59) *Izena du Graziana, / Graziaz beth'izana; / dihulatez neroske / harzaz maitatu izana.* (O Po X 2)
 (60) *Burutik oinzolala, / Berregin den bezala, / Dohainetan neduke / haren zerbitz' ahala.* (O Po XIII 2)
 (61) *Dohainetan neduke / haren zerbitz' ahala.* (O Po XIII 24)
 (62) *Balin balu, sabela / Garhi nerrake dela.* (O Po XIII 19)
 (63) *Orduan pausu nuke / Eta nihaur neduke, / Handiago baninz ezi / Baroin, Kont', edo Duke.* (O Po XIII 26)
 (64) *Noula asky remestia, / Jauna, enakikeçu.* (StJul 71) *Monseigneur eta madama, / enekike noula remeztia.* (StJul 101)
 (65) *Hobeky endauke, navassiky, / lephoua ondoty trencaturicq, / ecy ez eta goure / compagnan errecevituricq.* (StJul 486)
 (66) *Langer ouste banu / banoundoukac ihessy, / bay eta ezcapa / segurky onxa ederky.* (StJul 634)
 (67) *Ene haur maitiaq, enekike noula enthelega eraci.* (StJul 854)
 (68) *Afrounteriaz devria / hiq, arauz, eracax iro, / bahekike arteficio / eta igura franco.* (StJul 943)
 (69) *Eta bestalde elekikeie refusatcen estimiaren merechimentu eguiazcoari.* (Mercy 13)
 (70) *Etcenekikeie, goure anaye khariouac, hortan inganatcen eta eçagutcen ducie Virgina ecinago Sainta marca horietan.* (Mercy 13)
 (71) *Officierec elekikeye hetaric beguiratcen edo dispensatcen.* (Mercy 43)
 (72) *Balauke sortzepenaz gaiztokeriaren azia lükian.* (Egiat I 4)

- (73) *Jinkuak egün hun deizüla / neskatila gastia / neskato jari nahi lizatienbat / ihur ere bazanakikela. (Chiveroua 240)*
 (74) *Niq Enaquiue orai / cieq noula erremestia. (Xarlem 21)*
 (75) *Ezquanaquiueçu çu / noula remestia. (Xarlem 1081)*
 (76) *Ni ja enuc loxa / cien baten ere, / eci loxa baninz ja / enindiaukey hebe! (SteEli 1198)*
 (77) *Haietaric badaezpada / deus ere enakikeçu. (SteEli 1270)*
 (78) *Enakike zer egin / züre phakatzeko. (Malqu 217)*
 (79) *Areta berhaiñ bacenakike, çuç, dama gazter minçatcen. (Etchahun “Musde Chaho”)*
 (80) *Bestiak, nik enakike ezarten. (Archu 9)*

*Izan & *edun* pareta apart utzirik, atzeman ditugun *-(te)(ke)* morfemadun forma sintetikoak oro adizka sailkatzen dira ondoan. Izardunek (*) hipotetikoa adierazten dute, eta izarño gabeek ahalezkotasuna.

*EDUN

- daduke* ‘daukate’ (18)
dukie (54)
 **neduke* (60), (61) & (63)

EGON

- naoke* ‘nagoke, egon naiteke’ (44)
nauque ‘nagoke, egonen naiz’. (2) & (3)
nauke ‘nagoke’ (53)
enauke ‘ez nagoke’ (41)
eniaukeçu ‘ez nagoke_{+alok_zu}’ (40)
dauke ‘dagoke, egon daiteke’ (15)
eztauke (56)
etzauteke ‘ez zaudeke’ (39)
etzaokeela ‘ez zegokeela’ (38)
 **enendauke* ‘ez nengoke’ (58)
 **enindiaukey* ‘ez nengokek’ (153)
 **endauke* ‘hengoke’ (65)
lauke ‘legoke’ (12)
 **balauke* ‘balegoke’ (72)
 **elauke* ‘ez legoke’ (58)

EGOTZI

- agozke* ‘egotziko hau(ke)’ (4)
baihagozque (32)

EKHARRI

dakarke ‘ekhar dezake, ekhartzen du’ (O *Pro* 50). “Présent intemporel” (Lafon 1949: 442
apud Altuna & Mujika 2003: 86). (20)

dakarke (23) & (24)

dekarke (28)

dekharke (29)

diakarquec ‘ekhartzen dik, ekhar zezakek, ekharriko dik’ (Saug 60 & O *Pro* 65).
“Orpustanek NNN gisako formatzat dauka, *hura-hiri-hark* [...] (1992: 119). Frantses
itzulpenak, haka ere, ez du irakurketa hori bultzatzen” (Altuna & Mujika 2003: 93). (30)

diakarken ‘ekhartzen din, ekhar zezaken, ekharriko din’ (22)

ERAKHARRI

derakarzke ‘erakarriko ditu’ (7)

nerakarke ‘erakar nazake, erakartzen nau(ke)’ (25)

ERAKHUTSI

derakuske ‘erakuts dezake, erakusten du(ke)’ (26) & (27)

derakuskegu ‘erakusten du(ke)gu, erakuts dezakagu’ (19)

ERRAN

ezterrasket ‘ez ditzaket erran’ (55)

derrakegu ‘erran dezakegu, erranen du(ke)du’ (11)

**nerrake* ‘erran nezake/niro’ (62)

EROSI

**neroske* ‘erosiko nuke, eros nezake’ (59)

ETHORRI

datorke ‘etortzen da(teke), etor daiteke, etorriko da(teke)’ (17)

**ezenthozke* ‘ez zinateke etorriko’ (57)

EZAGÜTÜ

dezaguzke ‘ezagutzen ditu(zke), ezagut ditzake’ (16)

ezezaguke ‘ez hezaguke, ez hau(ke) ezagutuko, ez hazake ezagut’ (36)

IKHUZI

dikhuzke ‘ikhuzten du(ke)’ (14)

IRAUN

diraukedala ‘iraunen du(ke)dala, iraun dezakedala’ (6)

dirauke (45)

JAKIN

eztakike ‘ez dakike’ (35) & (164)

eztakikena ‘ez dakikeena, jakiten/jakinen ez du(ke)ena’ (37)

- ezpeitakike* ‘ez baitakike’ (42)
badakikecie ‘badakikezue’ (9)
badakikezie (10)
 **enaquique* ‘ez nekike’ (74)
 **enakike* ‘ez nekike’ (78) & (80)
 **enekike* ‘ez nekike’ (64) & (67)
 **enakikezu* ‘ez nekike_{+alok_zu}’ (64)
 **enakikeçu* ‘ez nekike_{+alok_zu}’ (77)
 **bahekike* (68)
lakike (13)
 **elekikeie* ‘ez lekikete’ (69)
 **elekikeye* ‘ez lekikete’ (71)
 **ezquanaquiqueçu* ‘ez genekike_{+alok_zu}’ (75)
 **bacenakike* ‘bazenekike’ (79)
 **bazanakikela* ‘bazenekikeela’ (73)
 **etcenekikeie* ‘ez zenekikete’ (70)

JOAN

- doake* ‘joan daiteke, joaten da(teke), joanen da(teke)’ (5)
gouazketçu ‘goazke_{+alok_zu}’ (154)
 **banoundoukec* ‘banindoake’ (119)

4.2.2. *Ahal/ezin partikulak joskera sintetikoan, -(te)(ke) gabe*

Ahal eta *ezin* partikulak atal berean aurkeztu arren, azpimarkatu behar da haien kronologia eta balioak desberdinak direla. *Ezin* lehen testuetarik potentzialari argiki lotua agertzen bada ere, *ahal*-en balioa nagusiki menturazkoa izaten da, eta haren agerpena berankorragoa. Beraz, gure azterketan ongi bereizi beharko ditugu bi partikula hauek.

Ahal eta *ezin* partikulen sorrera bi izenen gramatikalizazioan datza, egungo euskararen ere izenki gisa iraun dutenak: *ahal* ‘poder / pouvoir’ & *ezin* ‘imposibilidad / impossibilité’ (cf. Mounole 2011: 121). Bientzat gramatikalizazio bide bertsua proposatzen dugun arren,⁴¹³

⁴¹³ Pentsa daiteke *ezin* eta *ahal* izenen gramatikalizazioa aditz iragankorrei loturik abiatu zatekeela: *ezin dut* ‘ezina(a) dut’ → ‘ez dezaket’; *ahal dut* ‘ahal(a) dut’ → ‘badezaket’. Era berean, *ahal baduzu* bezalako baldintzazko perpausetan arras gardena gertatzen da parearen jatorria eta semantika. Pentsa daiteke, halaber, bi partikula hauen gramatikalizazioa joskera sintetikora iragan zela: *egiten ahal düt, joaten ahal niz* → *ahal dakizü*

kronologia ez da paraleloa, *ezin*-ena goiztiarrago izanik, garai historikoetan haren ihartzea hautematea ere posiblea delarik: Iparraldean *ahal*-ekiko ezezko perpausok *ezin* partikularen erabilera ordezkatzuko dute ezintasunaren adierazpenean.

Zenbait testutan *ahal* partikula aditz sintetiko bat lagunduz ageri da, aditz horri balio modala emanaz. *OEH*-k Iparraldeko mintzoetan kokatzen du sintaxi hau: “Más usado al Norte; su frecuencia disminuye desde el s. XIX. Sólo se usa en modo no indicativo, o bien con sufijos de relativo o en oraciones condicionales” (s.v. *ahal*). Iduri du erabilera hau menturazko balioari guztiz lotua dela; hots, [*ahal* + aditz sintetiko] egiturak ez bide da potentziala adierazteko erabili; *OEH*-k honela formulatua: “Probablemente, seguramente, al parecer (sin una constancia o certeza total)” (s.v. *ahal* I.2). Gure corpuseko testu zenbaitetan [*ahal* + trinko] sintaxia “indikatibozko” adizkiei lotua ere atzeman dugu —izan ere, (81)-(95) adibide sortako gehienek hori dute lekukotzen—. Balioari erreparatuz, Belaren etsenpluak potentziala adierazten badu (81), gainerakoetan menturazkoa igartzen da.

- (81) *Ez nahi ahal dudana; ez ahal nahi dudana.* (Bela 45)
- (82) *Zein ahal den egiati.* (O Po VII)
- (83) *Nor ahal zen / Zakitenak bezala.* (O Po XX)
- (84) *Devriky, arauz, / pato eguiniq ahal iz.* (StJul 984)
- (85) *Goguak eraiten deit hura / ene bedezia ahal dela.* (Chiveroua 239)
- (86) *Soldado gaisto çounbait / hor ahal duc gorderic.* (Edipa 119)
- (87) *Erreguigna consent ahal cela.* (SteEli 33)
- (88) *Erregueren mecia eguin / lehia ahal beitu.* (SteEli 474)
- (89) *Don Pedro nahi ahal du / guiçon hari assassineraci.* (SteEli 440)
- (90) *Lôo ahal diaudec / edo eta barazkariten.* (SteEli 1516)
- (91) *Albina eta Marko / ari ahal dütük sisetian, / zeren eta egün / ama ezpeitik etxian.* (Malqu 84)
- (92) *Bena amoriotan ahal da / besta zenbeiteki.* (Malqu 387)
- (93) *Hüira badien, bali ala ez, / ahal dakizü ingoiti, / hartzen düziünaz geroz / haren amorekati.* (Malqu 541)
- (94) *Malkü, erhaztina / erhian ezar, ezar ezozü, / zuintan ezarri behar den, / ingoiti ahal dakizü.* (Malqu 560)
- (95) *Jauna, zü zünbait / izpiritü gaixto ahal zira.* (CanBel 72)

Ezezko perpausetan [*ez* + *ahal* + aditz] ordena markatua ageri da, gure ustez menturazko balioari lotua (96)-(100).⁴¹⁴

‘badakikezu’, *ahal zen* ‘zatekeen’. Ez da ahantzi behar *ahal* & *ezin*-en erabilera euskara osoan hedatua dela, haren agerpena homogeneoa ez bada ere. Zentzu honetan, ekialdeko testuen lekukotza garrantzizkoa da, Zuberoan *ahal* + *izan* & **edun* laguntzaileekiko perifrasiaren agerpena inon baino goiztiarrago delako (cf. §§ 4.3.2 & 4.4.3).

⁴¹⁴ Halere, erremarkatu behar da erabilera honek Bizkai eta Gipuzkoako testuetan hedatu den *al* galderazko morfemarekiko antz handia hartzen duela galderetan: (97)-ko etsenplua berdin entelega daiteke ‘Ez ote dukezü düdarik?’ bezala, eta are ‘Ez al duzu dudarik?’.

- (96) *Pastoral bat ezin eginez / haur representatü dügü, / solaz propi xipigorik / mündin ez ahal düzü.* (Jouanic Hobe 142)
 (97) *Eta zük, anderia, / ez ahal düzü düdarik?* (Malqu 558)
 (98) *Ez ahal da deusere hau becein importantic.* (Medit 72)
 (99) *Müندان ez ahal da ni bezañ trixterik.* (Etchahun “Urx’aphal bat”)
 (100) *Bardin ez ahal düzü orai profetitirik.* (Etchahun “Filipeñekuak”)

Ezintasunaren adierazpenari doakionean, *ezin* hiru aldiz lekukotu dugu *-ke* gabeko aditz trinko batekin (101) & (102).

- (101) *Noiz ere ecin beytouaz.* (Mercy 8)
 (102) *Düdalakoz uste ezin giradila hobe hen gogamenaz.* (Egiat I “Hitzauria”)
 (103) *Bena ecin niaukecu / erran gabe eguia.* (SteEli 330)

100. TAULAK *ezin* & *ahal* parearen arteko kontrastea erakusten du: *ahal* maizago ageri denean *-ke* gabeko trinkoekin *-ke*-dunekin baino (31)-(154), *ezin* horren ifrentzuan da: *-ke*-dun trinkoekiko dozena bat agerraldi du (44)-(54), eta hiru baizik *-ke*-gabeekin.

100. TAULA. *Ezin* & *ahal* aditz trinkoekin.

	trinko + <i>-ke</i>	trinko <i>-ke</i> gabe	oro
<i>ezin</i>	11	3	14
<i>ahal</i>	4	15	19

Azkenik, [*ahal* + *-ke* gabeko trinko] egitura kasik beti herri tradizioko testuetan lekukotzen dela ikusten da. Horrek bide ematen digu pentsatzeko menturazko egitura horren baliatzea beharbada ezaugarri herrikoi gisa hautemana izaten zela, zeren idazleek *-ke*-dun adizkiak anitez ere maizago erabiltzen baitzituzten (cf. § 4.2.1).

4.2.3. Kasu berezi bat: **idi* erroa

Lafonen hitzetan, “Un fait particulièrement curieux et obscur de supplétisme est l’emploi de formes qui semblent empruntées à une racine *idi-*, en lieu et places des formes simples à suffixe *-ke* de la racine *gi-*” (1943 I: 431). Euskara Arkaiko eta Zaharrea lekukotu da **idi* erro hori, ‘egina bilakatu’ erran-nahia zukeena (< *egin* + **edin* ‘devenir’) (Lafon 1943: I, 431-432; Lakarra 1996a: 368).⁴¹⁵ Erro hau iragankorra da, eta Mendebaldeko Euskara Arkaikoan [partizipio + **idi*] perifrasiari ageri da, orainaldiko potentziala adieraziz, ekialdeko [aditzoin + **iron*] perifrasiaren parekoa. Mounoleren arabera, halako perifrasietan **idi* erroak

⁴¹⁵ “Il est fort possible, en effet, que l’*i* de ces formes ait été primitivement précédé d’un *g* et qu’elles appartiennent à la racine *gi-*. Mais que signifie le *di* qui suit? Est-ce, comme *-ke*, un suffixe? Mais on ne trouve par ailleurs aucune trace d’un tel suffixe. Est-ce la racine signifiant ‘devenir’, et faut-il voir dans (*g*)*i-di* une racine composée par juxtaposition de deux racines simples et qui signifierait ‘devenir fait’ ? [...] Il me semble difficile de ne pas voir avec Schuchardt dans *idi-* un composé de *gi-* et de *di*.” (Lafon 1943 I: 431-432).

ez du sekulan *-(te)(ke)* atzizkia hartzen (2011: 124), *ahal* partikularen erabilera hautazkoa delarik.

- (104) *Eçin contadu al leidi.* (Lazarraga 7v-21/22)
- (105) *Apa bat baneydiçu ao goçoan.* (Laz. 31r-19)
- (106) *Eguitayaren orçac / ebagui leydi ondo* ‘Las mellas de la iz podríanla bien cortar’. (RS 268)
- (107) *Sedeguidisula.* (Micoleta 47)
- (108) *Engañadu ezin leidin.* (Kapanaga 25)

Aldiz, ekialdeko mintzoetan **idi* erroa espezializaturik agertzen da, *egin* aditzaren erro supletibo edo ordezkio gisara. Zuberoako testuetan gehinbat Oihenarten testuetan aurkitzen da, geroztik maiztasun baxueneko ezaugarri bihurtuz. Orotara hamazazpi agerraldi bildu dugu (38)-(124), guztietan subjektua 3. pertsonakoa dela. Behin **idi* erroa *-ke* morfemarekin ageri da (36), eta hiru aldiz aditz kausatibo batean⁴¹⁶ —eta beraz forma sintetikoan— (18), (111) & (114). Azken datuak badu munta, zeren **idi* erroaren forma trinkoak arkaismo handi baitira, hots, berauek jaso dituzten atsotitzak baino lehenagokoa den hizkuntz egoera baten isla, demagun XV. mendekoa, edo menturaz zaharragoa.

- (109) *Amak iri balu, opil balaidi* ‘Si ma mère avait de la farine, elle ferait des gâteaux’. (O Pro 20)
- (110) *Arrotzak ez lan daidik, ez deraidik* ‘Un hôte ni ne fera aucun travail pour toi, ni ne te donnera le moyen d’en faire toi-même’. (O Pro 37)
- (111) *Gaitz deritzanak irri daidik, on deritzanak hasperren* ‘Celui qui te hait te fera rire eta celui qui t’aime te fera soupirer’. (O Pro 176)
- (112) *Bere egitekoen egiten eztakienak, nekez daidizke bertzerenak* ‘Celui qui ne sait pas faire ses affaires fera malaisément celles des autres’. (O Pro 557)
- (113) *Ezin daidienak nahi bezala, begi egin ahala* ‘Celui qui ne peut faire ce qu’il voudrait, qu’il fasse ce qu’il pourra’. (O Pro 588)
- (114) *Arrotzac ez lan daidic, ez deraidic.* (Saug 182)
- (115) *Margarita, / Badaidita / Othe huts zin egitez, / Begiz urdin / Bezain gordin / Zarela zur'egitez?* (O Po II)
- (116) *Zer, ahatz lakidita / Haren begi polita? / Al, ez aski goratuz, / hutsik othe daidita?* (O Po XIII)
- (117) *Hark zer er' ahal bailiotsa / Badaidiel uste duzua?* (O Po XV)
- (118) *Laster hil dadin, / Su haur egizu, / Ilhaunt enadin, / Ahal daidizu.* (O Po XVI)
- (119) *Laurdenak ezpaitzakien, / Ber' egonik zer zaidien, / Sorgin, et' ohoinen lotsaz, / auzora laster zegien.* (O Po XXVI)
- (120) *Eliçac espiritu saintiaz vrgatciric, houxic ecin baitaidi haren partez erraiten deritcienetan, eta ceren Apostolien sinhestiac, gouria hitz gutitan baitaduca, dugun erran.* (PrS 2-3)
- (121) *Bere nahiz eizten dianac, haren eguin gabez bekhatu laidi.* (Bp I 68)

⁴¹⁶ Frantsesezko itzulpenak, aldiz, ez legozkioke beti aditz kausatibo bati. *Irri daidik* ‘te fera rire’ (hots, ‘irri eginaraziko’) (111) frantsesez ere kausatibo gisa ulertzen bada, (18)-ko itzulpena ez da hain argia: [*ez lan*] *deraidik* ‘ni ne te donnera le moyen d’en faire toi-même’.

- (122) *Eta gaiçaz beratçaz eztaidiana, edo gincoa ganic indar haren eguiteco hartu gabé, naturaz gaintico gaicen eguitera iarten direnac Charactero izkiribatu çonbaitez, edo nola nahi.* (Bp I 87)
- (123) *Nourc daidio soric / Beguiac idorric / Jesus haurari?* (NLilia 5)
- (124) *Ezi nahi zialarik gizonak emaztiz gozo laidian haurretzaz errekeitü batere gabarik nahi zütian agindü.* (Egiat I 29)

Beraz, Zuberoan *idi erroa XVIII. mende akabantzaraino iristen den arkaismoa da. XVII. mendeko testuetan hamabost aldiz kausitu dugu (gehi Zalgizerengan beste bi, Oihenarten atsotizetan errepikatuak), eta biga XVIII. mendean. *Noelen Lilia* liburuaren kasua (1782) azpimarkatu nahi genuke, bertan *idi erroa oraineko forma hirupertsonal batean erabilia baita: *daidio* ‘egin diezaioke’. *Noelen Liliaren* 1821 eta 1844ko arra inprimaldiak ez baditugu kontuan izanen, Eguiateguy da *idi erroaren azken lekukoa (1785). Zuberoako testuetan, agerpen hori koherentea da euskararen oro har aurkitzen dugunarekin (ikus 101. taula).

101. TAULA. *Idi erroaren agerpena euskara osoan*

		*idi	*idi + ke	orotara
1545	Etxepare	8	-	8
1566	Lazarraga	10	-	10
1571	Leizarraga	25	5	30
1596	RS			
1598	Simancaseko gut.	1	-	1
1620	Voltaire	-	1	1
1635	Haranburu	8	2	10
1627-45	Etxeberri Z.	2	3	5
1643	Axular	5	31	36
1656	Kapanaga	1	-	1
XVII. m.	Zalgize	2	-	2
1657	Oihenart <i>Pro</i>	5	1	6
1657	Oihenart <i>Po</i>	5	-	5
1665	Poesia bizkaitarra	1		1
1656-69	Pouvreau	6	44	50
1676	<i>PrS</i>	1	-	1
1696	Belapeire	2	-	2
1718	Etxeberri S.	-	1	1
1782	<i>NLilia</i>	1	-	1
1785	Eguiateguy I	1	-	1
1809	Duhalde	-	3	3
XX. m	Oxobi	-	1	1
	<i>Orotara</i>	82	92	174

* Zuberoatik kanpoko datuetarako ondoko bilaketak egin dira *EKC*-n: *daidi-*, *badaidi-*, *baitaidi-*, *neidi-*, *baneidi-*, *naidi-*, *leidi-*, *baleidi-*.

4.3. Ahalezkotasuna joskera analitikoan

4.3.1. Perifراسi zaharrak

4.3.1.1. [Aditzoin + *ahal/ezin* + **edin*, **iron*, **ezan*]

Euskararen joskera analitikoan aditzoinarekin eratzen diren perifراسiak dira zaharrenak. Lehenik, aditzoina da aditz forma jokatu gabeen arteko zaharrena (Urgell 2006): partizipio perfektiboak eta imperfektiboak aditzoina hartzen dute eratorpen oinarri gisara, eta haien osaketa aski gardena da. Bigarrenik, aditz sisteman deskribatu diren aldaketek **edin*, **ezan* & **iron* laguntzaileen gaineko perifراسiak zaharragoak direlako hipotesia indartzen dute (Mounole 2006 & 2011). Hirugarrenik, **edin*, **ezan* & **iron* aditz laguntzaileak —eta bereziki **iron*— arras gramatikalizatuak dira, haien eduki semantikoa beste laguntzaileena baino ilunagoa gertatzen delarik.

Euskararen aditz sisteman, modu orokorrean, **edin*, **ezan* & **iron* laguntzaileekiko perifراسien maiztasuna beheitituz joan da garai historikoan.⁴¹⁷ Perifراسi zaharren beheititze orokor horretan kokaturik ikusiko dugu nola, nahiz eta **edin*, **ezan* & **iron* laguntzaileek *ahal/ezin* partikulak hartu izan dituzten corpuseko testu zaharrenetarik berrienetaraino, haien maiztasuna [partizipio + *ahal/ezin* + *izan/*edun*] perifراسi berrien mesedetan jaitsiko dela (cf. § 4.4.3).

Ahalezkotasunaz mintzo garela, **edin* & **ezan* pareta eta **iron* ez dira ber manera analizatu behar. Bada, **iron* aditzak berezko balio modala duen bitartean (Gómez & Sainz 1995; Mounole 2011; Padilla-Moyano 2013b), **edin* & **ezan* pareak beste zerbaiten beharra du balio modalen adierazteko tenorean: *-(te)(ke)* morfema edo *ahal/ezin* partikulak. Hortaz, **iron* laguntzailearen kasuan *ahal* edo *ezin* partikulekiko adibideei partikula horiek gabekoak emendatu beharko litzaizkieke —4.3.1.4 atalean sakonki aztertuko da **iron* aditza—.

Ahalezkotasuna adierazten dutelarik, perifراسi zaharretako aditz laguntzaileak bakarrik edo *ahal* & *ezin* partikulez lagunduak ager daitezke. Honela dakusa Oyharçabalek: “In older

⁴¹⁷ Batetik, Euskara Arkaikoraino **edin* & **ezan* pareak adieraz zezakeen indikatibozko perfektiboa (euskalaritzaren tradizioan *aoristo* deitua *izan* & **edun* laguntzaileekiko perifراسi berrien faboretan galdu zen, beraz **edin* & **ezan* subjuntibozko balioetara lerratu ziren. Bestetik, azken mendeetan **edin* & **ezan* laguntzaileekiko perifراسiak geroz eta gehiago izan dira perpaus jokatu gabe bez ordezkatuak. Azkenik, baldintzazko perpausetan ere *izan* & **edun* parearen aldeko halako lerratzea gertatu da: *irrealis* erako protasiak, Euskara Arkaikoan **edin* & **ezan* laguntzaileen gainean eraikiak, guztiz galdu dira orainaldian, alegiazkoan iraun dutelarik (cf. § 3.2.3).

Basque, potential forms were always used along with *ezin* in negative sentences and *ahal* in positive sentences. In present day Basque, they are only optional” (2003: 274). Mounoleren hitzetan (2011: 121):

Ils accompagnent très fréquemment des formes verbales de potentiel à suffixe *-te / -ke* (synthétiques et périphrases [radical verbal / participe passé + **edin*, **ezan*, *egin*, **iro*, **idi*]) pour, semble-t-il, renforcer la valeur potentielle de ces dernières. Leur usage dans ces constructions est facultatif : *ahal* est totalement optionnel dans les énoncés de potentiel positif, tandis que dans ceux de potentiel négatif, *ezin* peut parfaitement être remplacé par la particule de négation *ez* sans que cela n’affecte à la valeur potentielle de la forme verbale. C’est pourquoi dans ces constructions, ils semblent plutôt comparables à des particules modales.

Sintaxiak badu muntarik *ahal/ezin* partikulen agerpenean. Modu orokorrean, *ahal/ezin* partikulen testuinguruak zabalagoak dira *-(te)(ke)* morfemarenak baino. *-(Te)(ke)* morfema oroz gaintetik perpaus nagusietan agertzen da, balio potentzial zein hipotetikoa adieraziz, konpletiboetan eta *bait-* aurrizkidun egituretan. Potentzialaren kasuan *ahal/ezin* eta *-(te)(ke)* morfema batera ager daitezke. Ifrentzuan, perpaus finaletan eta baldintzaren protasietan *ahal/ezin* partikulak beharrezkoak dira, horietan ez baita *-(te)(ke)* erabiltzen.

Testu zaharrenetan *ahal* nekez erabili izan da ezezko perpausetan ezintasunaren adierazteko. Zulaikak adibide bakarra ematen du (*apud* Mounole 2011: 121), eta Mounolek ez du besterik atzeman XV eta XVI. mendeko testuetan, XVIII. mendean ohikoago bihurtuko direnean, Maister lekuko (*ibid.*).

Bistan dena, aditz iragangaitzekiko perpausok **edin* laguntzailea agerrarazten dute (125)-(137). Erran bezala, *ezin* eta *ahal* partikulak beharrezkoak dira mendeko testuinguru zenbaitetan, hala helburuzko perpausak (129) nola baldintzaren protasiak (131). Perpaus nagusietan ere ager daitezke, *-(te)(ke)* morfemarekin batera; azken honen adibideentzat ikus § 4.3.1.2.

- (125) *Bil ahal guitian bortuyan edo berce [...] batetan.* (Etchart 2, 1v)
- (126) *Çoure sacramentu handialat hullant ahal nadin.* (Mst IV 4, 1)
- (127) *Han diren abantaillez goça ahal ditian.* (Ressegue 10)
- (128) *Egun batez ahal guitian / algarreky içan celian.* (StJul 15)
- (129) *Amourecatic celian çouri junta ahal dadin.* (Mercy 24)
- (130) *Elkhy ahal nadin / miseria hountaric.* (Edipa 391)
- (131) *Ny jouan ahal banandy / ounxa irous nundukhen.* (Edipa 610)
- (132) *Konfida ahal banendi / züre erranetan.* (Malqu 161)
- (133) *Jesus-Christen promesen digne jar ahal guitian.* (DKhi 86)
- (134) *Hel ahal guitian merechitu deikuçun gloria hartara.* (Ip KurBD 41)
- (135) *Ciauriste, sar citie / repausa ahal citeien.* (SteEli 1137)
- (136) *Ordenatcen dugu Ordre hountan sartcen diren persounac ezditian elki ahal mundialat utçultceco.* (HOrdre 7)
- (137) *Ah! Hori izan ahal baledi!* (SGrat 6)

Ezin bi aldiz ageri da **edin*-ekin, bietan baldintzaren protasian (138) & (139).

- (138) *Çointara berac ecin hel badite.* (Bp I 19)
 (139) *Bay osso bada, eta ecin cofessa baguité.* (Bp I 67)

Betiere perifrasi zaharrez ari garela, aditz iragankorrek **ezan* zein **iron* behar dute; ez da balio desberdintasunik bi laguntzaile hauen artean (140)-(173). Sintaxiak, aldiz, bata ala bestea agerraraz dezake: iduri du **ezan* maizago agertzen dela mendeko testuinguruetan⁴¹⁸ — bi aditz horien arteko diferentziak eta lehiarako, ikus § 4.3.1.4—. Gogora bedi atal honetan *ahal/ezin* partikulak hartzen dituzten perifrasiak baizik ez ditugula aipu, eta partikula horiek gabe **iron* laguntzaileak berdin adierazten ahal dituela ahalezkotasunari lotu balioak, salbu hipotetikoan, non *ahal* behar baita potentzialaren markatzeko (173).

- (140) *Kausit ahal baneza.* (O Po X)
 (141) *Behetic eta Etchartec atchequi ahal deçaten çure absencian conferencia houra.* (Etchart 1, 2r)
 (142) *Bana cien iaun bis reguiac uken ahal diro pothere ample.* (Etchart 2, 2r)
 (143) *Oro eguin ahal ditiroala Celian, eta Lurrian.* (Bp II 69)
 (144) *Goure bekatién onsa eçagutceco arguia ardiex ahal deçagun.* (CatOlo 87)
 (145) *Bay, eci nahi dutian gayçac oro eguin ahal ditiroçu.* (CatOlo 24)
 (146) *Esta possible deusec ere / Alaguera ahal deçan?* (Othoitce 74)
 (147) *Eztiroçut maitha ahal çu baici.* (Othoitce 60)
 (148) *Miseriaçco içate haur eniroçu sustenga ahal.* (Mst IV 11, 4)
 (149) *Deus eniro placer haboro eguin liroyonic eman ahal.* (Mst IV 13, 3)
 (150) *Ahal badace 'badezate'.* (Ressegue 18)
 (151) *Remarca ahal ditçacien / nicq esplica beno hobeky.* (StJul 0117)
 (152) *Imagina ahal geneçan / elukeçu, ez, possible.* (StJul 429)
 (153) *Den ignorentenacq / ahal ciroçu compreny.* (StJul 1059)
 (154) *Onsa arranja ahal ditçan oro differenki eta ordretan.* (Mercy 40)
 (155) *Admiradceco dena / Ama bat den Virginia / Eguin ahal liroçu.* (NLilia 8)
 (156) *Ginhaurrek baizik gal ahal ginirokiana.* (Egiat I)
 (157) *Amourecaty eta frutu / produisy ahal deçan.* (Edipa 354)
 (158) *Solamente eztirouat / çotuka ahal besoua.* (Edipa 253)
 (159) *Attaca ahal ditçagun / montabaco hirian.* (Xarlem 234)
 (160) *Eta atceta ahal ceneçan, / ene haurra, nahi nikeçu.* (SteEli 130)
 (161) *Goure bekhatiac hastio ahal ditçagun eta hajen eguinez dolore bicibat sendi ahal dezagun.* (DKhi 10)
 (162) *Çoureki partagea ahal deçadan çoure edari Kharax hori!* (Khurutch 16)
 (163) *Exercicio saintu hau eguin ahal deçagun.* (Ip KurBD 8)
 (164) *Noun hourac ikhous eta erran ahal decen lehen Khiristiez erraiten cien.* (MaiMarHil 18)
 (165) *Ikhüs ahal dezadan / giziün eder hüra.* (Malqu 488)
 (166) *Eztüdala maleziarik / phenxa ahal dirozü.* (Malqu 76)
 (167) *Nik sendo ahal bazintzat / Eremedi zinzaket berhala.* (Chiveroua 22)

⁴¹⁸ **Iron* aditza gehien baliatu dutenen artekoa da Lopez. Bada, **ezan*+*ahal* aditzaren 84 agerraldietarik 48 mendeko testuinguruetakoak dira, eta **iron* aditzaren kasuan 154etarik 35. Beraz, Lopezengan aditz hauen menderagarritasuna %57koa eta %22koa da, hurrenez hurren (Padilla 2013: 157). Datu hauek adierazgarriak dira, nahiz eta egile eta hizkera batetik bestera kanbia litezkeen.

- (168) *Cer ukhen ahal diroçun lurrian. (Medit 49)*
 (169) *Norc phensa eta erran ahal diro Ama tendre haren bihotzeco min? (Ip KurBD 38)*
 (170) *Nitzaz zer eghin ahal diozu? (Archu 29)*
 (171) *Senhar hil batek ziruala, erho ahal emastia. (Etch “Complainte Heguilus”)*
 (172) *Nourc enthelega ahal liro ene iniquitatien handitarçuna? (HOrdre 202)*
 (173) *Bagunu ere ehun liberaren oguia, ezkinioçu eman ahal bakhotchari ahamen bat! (EvS 6, 7)*

Ezin partikularen agerpenari doakionean (174)-(190), erremarkatu behar da kronologia diferentea dela: *ahal*-en kasuan hainbatenaz eta maizago ageri bada, XIX. mendeko azken testuetaraino, *ezin* ihartua da XVIII. mendean, azken agerraldia 1780koa izanik; hortik aitzina [ez +aditza + *ahal*] moldeak du ezintasuna adierazten, (158) & (173)-ko etsenpluek erakusten baitute. Hau *ezin* partikularen gramatikalizazio goiztiarragoari lotzekoa da.

- (174) *Eihera batian ecin eho deçanac (bercerat) laster (baldin harri). (Saug 94)*
 (175) *Bercela ecin dirogu guc deuzez ere tracta edo arcorduric eguin. (Etchart 2, 2r)*
 (176) *Bana nic ecin deus arcorduric eguin dirot ene depputatu lagunac gaberac. (Etchart 4, 1r)*
 (177) *Nic ecin hori eguin dirot. (Etchart 5, 1r)*
 (178) *Viceregue iaunec ecin dirotela arcordu eguiascoric eguin. (Etchart 8, 1r)*
 (179) *Behin besarkhatu dian gauza, ezin kita baitiro, eta behin kitatu dian gauza ezin besarkha baitiro. (Tt Onsa)*
 (180) *Hantik ezin akaza dirot. (Tt Onsa)*
 (181) *Ezpadizi rebela, eta berria erran, ezin diro. (Tt Onsa)*
 (182) *Deusek ere ezin ase diro. (Tt Onsa)*
 (183) *Gure mihiak ezin erran diro nolako den tormentu hura. (Tt Onsa)*
 (184) *Deusek ere ezin kontenta diro. (Tt Onsa)*
 (185) *Hanbateki iustoak ezin diro rezebi gratia. (Tt Onsa)*
 (186) *Zoin gabe ezin baitiro deus nahi. (Tt Arima)*
 (187) *Ecin deuzere eguin dirogu saluatu içateco. (37)*
 (188) *Goure burietan sobera sinheste ecin har dirogu. (Mst II 5, 1)*
 (189) *Deuseq ere ecin honky, / ecin bera beitiro. (StJul 1246)*
 (190) *Bihotcez, ecin badece ahoz. (Mercy 6)*

4.3.1.2. [Aditzoin + *ahal/ezin* + **edin*_{+KE}, **iron*_{+KE}, **ezan*_{+KE}]

Errana dugu, **edin*, **ezan* & **iron* aditzek perpaus nagusietan, konpletiboetan eta *bait*-aurrizkidunetan har dezakete *-(te)(ke)* morfema, *ahal* & *ezin* partikulez lagundurik ala ez. Bi elementuak batera agertzen direlarik, *-(te)(ke)* morfemadunek potentziala adierazten dute (191)-(211).

- (191) *Ez ez, ahal aint'engana. (O Po IX)*
 (192) *Gincoa othoitu gabé etçan ahal guitakia? (Bp I 126)*
 (193) *Oro dakitçana, oro ahal ditçakiana. (Bp I 29)*
 (194) *Eliçac bekhatiac parca ahal ditçakiala. (Bp I 39)*
 (195) *Khorpitz [...] lekhu orotaric igaran ahal daytian bat. (CatOlo 33)*
 (196) *Goure instructionec behardie içan segur, simple, honkigarriac; eta oroc compreni ahal ditçakeyen beçalacoac. (CatOlo2 v)*
 (197) *Guisa hortan comunionetic luçaç destorbatu içan ahal cinteke. (Mst IV 10, 4)*
 (198) *Eçpeikiteke behar gunukian chahutarçunareki bici ahal. (Mst IV 11, 8)*
 (199) *Hullant ahal daiteke profitebleki, eta manu gabe Jesu-Kristen eçpirituço comunionala. (Mst IV 10, 6)*

- (200) *Guiçonon arraçooua flacu da, eta ingana ahal daite, eguiaçco fedia aldiç eçtaite ingana.* (Mst IV 18, 4)
 (201) *Guero çoure proximo laguniala ere heda ahal dirokeçu justoki.* (Mst II 3, 1)
 (202) *Cer ere aurhideoala leint ahal beyleite behar eztenic.* (Ressegue 32)
 (203) *O, aleta monseigneur, / segurta ahal citake / ene fidelitiaz / eta coragiaz ere.* (StJul 477)
 (204) *Nik beno hobeki proba ahal lirokienak ixil egonez ogen dü.* (Egiat I “Hitzauria”)
 (205) *Probatüirik dago hala ere mintza ahal daitekiala.* (Egiat I “Hitzauria”)
 (206) *Ginhaurrek baizik gal ahal ginirokiana.* (Egiat I 3)
 (207) *Enintec ausat ahal / hire adjutatcera.* (Edipa 105)
 (208) *Sei hilabeteren bürian / ahal gitakianez espusa.* (Boubane 149)
 (209) *Nour egon ahal leite / orai errabiatu gabe?* (SteEli 1407)
 (210) *Banta ahal aiteke non nahi konpañan.* (Etch “Mundian malerusik”)
 (211) *Noun ere beiniçate hara etçaiteke jin ahal.* (EvS 7, 34)

Trinkoekin ez bezala, *ezin* partikula garai guztietako testuetan ageri da; beraz, **edin*, **ezan* & **iron* laguntzaileekiko perifrasietan *ahal* partikularen ezezko erabilerak ez du *ezin* ordedzkatu, lekukotua bada ere: (198) & (207).

- (212) *Heyen rezumen arteco diferenciãc ecin diteque accorda eta iudga.* (Etchart 3, 2r)
 (213) *Heyec ere ecin diteque gin conferenciatarã.* (Etchart 4, 1r)
 (214) *Arcordu eta baque eguiascoric ecin eguin daite by rezumen artian.* (Etchart 9, 1r)
 (215) *Haboro gogoua eçteçan eman dohagn, hagn ecin erran daitian houni.* (Mst IV 1, 12)
 (216) *Ecín ikhous ditakian beçala.* (Mst IV 9, 1)
 (217) *Miseria ecin khounta ditakianac baicic.* (Mst IV 13, 2)
 (218) *Ecín naiteke consola / noun eztudan noreky.* (Edipa 529)
 (219) *Bakia ihoulare / ecin eguin daiteke.* (Edipa 559)
 (220) *Repausa gütian, / ebil ecin benainte.* (SteEli 1222)
 (221) *Çoure misericordia ecin erran daitianaren ekhoizpenac.* (DKhi 11)
 (222) *Cihaur ecin eguin cintakin.* (Medit 15)
 (223) *Noun hagaz ecin balia beitçaitekian.* (MaiMarHil 116)
 (224) *Jan hüxareki ezin bizi gitake.* (Ip Dial 9. elh.)
 (225) *Ezin erran dizakezüüt zer sirax handireki entzüten düdan zure elhesta.* (Ip Dial XIII)
 (226) *Bestec ihourc enetaco ecin eguin dirokena.* (Medit 66)
 (227) *Ecín duda dirokegu haren boronthatiaz.* (Medit 71)
 (228) *Agüri da frütia ezin dirot ükha.* (“Mündüan malerusik”)

Aldi bakanetan *ahal* & *ezin* batera ageri dira ezintasunaren adierazteko. Zulaikak hamahiru gertaldi bildu du Leizarragaren corpusean (1998: 545, *apud* Mounole 2011: 122), eta Mounolek Lazarragarengan (behin) eta Etxeberri Sarakoarengan ere atzeman du *ezin+ahal* konbinazioa, aditzoinaren gaineko perifrasietan. Hori ez da ezezaguna Zuberoako testuetan (229)-(230), eta imperfektiboaren gaineko perifrasietan guztiz ohikoa gertatuko da (cf. § 4.3.2.2).

- (229) *Ama hona denak bere haurrak eztutu kargatzen ezin egin ahal diroiñes baizi.* (Tt Arima)
 (230) *Goure khorpitzeco beguiez ecin ikhous ahal diteçu.* (CatOlo 23)

Ahal edo *ezin* partikulak gabe, **edin* laguntzaileak *-te(ke)* morfema har dezake potentzial, menturazko edo hipotetikoaren balioen adierazteko. Morfema hori bi alomorfoetan gauzatzen ahal da: 1) *-te* eta 2) *-teke*. Testu zaharrenetan *-te* nagusitzen bada, XIX. mendean *-teke*

gailenduko zaio. Bokalismo aukerentzat, aldiz, diakroniaz kanpoko azalpenik xerkatu behar bide da.⁴¹⁹

- (231) *Uzki maite, higunt elaitte* ‘Un cul une fois chéri ne saurait jamais être haï’. (O Pro 474)
 (232) *Infernura sekulakotz lo egitera Ioan laite*. (Tt ONSA)
 (233) *Maita nezazu, / Halaz hil daite; / Ezpaneazazu / Hauts gertha naite*. (O Po XVI)
 (234) *Çonbatetan ihor confirma daite?* (Bp I 65)
 (235) *Baceneki, creatura orotariç çoure bihotçaren husten, Jesus çoureki, gogo houneg, egon liteçu*. (Mst II 7, 2)
 (236) *Haren kuntre enaite juañ*. (Mst III 8, 1)
 (237) *Noula içan daiteke / Jesus enekilla?* (NLilia 10)
 (238) *Nor düda daite?* (Egiat I 27)
 (239) *Hetan ere bere artetan berhezi zonbait egin laiteke*. (Egiat I 29)
 (240) *Ouste duka hiry ny / jarraiky naitekiela?* (Edipa 964)
 (241) *Halako bat arakontra baneza / juañ naite desesperatzera*. (Jouanic 133)
 (242) *Bestela trompa daiteke, / jaunac, orai ni beçala*. (SteEli 818)
 (243) *Eci bestela sacrilegio bat / segurki cometi liteçu, / bai eta damnacione / eternala bilha liteçu*. (SteEli 921)
 (244) *Noula khiristi bat egon daite oren bat ere bere Gincouaren exaigouan?* (Medit 81)
 (245) *Maleciac gordatcen baliz, bekhatu mortal berri bat eguinic jouan laite batbedera etcherat*. (Medit 84-85)
 (246) *Ez daiteke erran çoumbat den handi Jesusec gouretçat dian amourioua*. (Medit 133)
 (247) *BASILIO. Heben berian ediren daite. Jinkollo baten lana da zeta. / ANTONIO. Jinkollo baten lana! badaitekia?* (Ip Dial I)
 (248) *Gin ditezu laster gaztiguia*. (SGrat 22)
 (249) *Zer egin daiteke mezaco demboran?* (Catuchuma 36)

Aditz iragankorretan, *ahal* edo *ezin* partikularik gabe eta *-ke* morfema harturik, **ezan* laguntzaileak geroaldia (250), potentziala (252)-(262) edo hipotetikoa (263)-(274) adieraz ditzake. Errana dugu, **iron* aditzak modaltasuna bere baitan edukirik, *-ke* morfema hartzeak ez dakarkio desberdintasunik.

- (250) *Ohapean nago gorderik, enirozu ediren. Inhardetsia: Eztitzaket, ezi enaiz bilha ebiliren* ‘Je me tiens cachée sous le lit, vous ne sauriez me trouver. [Réponse]: Je n’ai garde de vous trouver, car je ne vous irai pas chercher’. (O Pro 352)
 (251) *Ardi bilha adi, nahiz bake, otsoak jan ezake* ‘Fais-toi brebis pour l’amour du repos: le loup te mangera’. (O Pro 545)
 (252) *Erhoa da hasten duena lan urhent eztezakeena* ‘Celui-là est fol qui commence un travail qu’il ne saurait achever’. (O Pro 582)
 (253) *Ceren Deebria eta mundia iraiç baititçakegu, bena ez araguia*. (Bp I 57)
 (254) *Eztitzakezüit hoiek holako gizon bateganik unhets*. (Mst III 19, 2)
 (255) *Eçtitçake ihourc celuco gaiçac enthelega*. (Mst II 12, 14)
 (256) *Çouaç! Pharti cite! / Laister eguin eçaçu! / Baraeracy guičaquieneç / jaquin behar ditçigu*. (Edipa 433)
 (257) *Bena handitarçun handiac / noula litçake aski laida / guiçonaren spiritiac?* (SteEli 481)
 (258) *Harekila batian oro bacitçakeçut*. (UskLi 55)
 (259) *Goure bihotçac maitha ditçakian gaiça hounac oro Gincouatan dira*. (Medit 110)

⁴¹⁹ *Laitte/liteke/litezü* banaketak akzentuari seinala liezaioke.

- (260) *Noula aski adora citçaket, ô ene jabe soberanoua!* (Medit 135)
 (261) *Ihurk ez-taki zunbat eman dezakian lürrak.* (Ip Dial XIII)
 (262) *Bekhatu mourtalaeki denac comunia dezake?* (Catuchuma 57)
 (263) *Ahal baleza komüniatzetik ere bara erazi zintzake.* (Mst III 6, 4)
 (264) *Bihotçetic pherestu, eta chachu bacina, gaiçac oro ikhous, eta ounxa enthelega cintçake.* (Mst II 4, 2)
 (265) *Ale, traidore athia, / guty sarritan hebetche / nihauq orory lephouaq / trenca nitçakecie.* (StJul 874)
 (266) *Nik sendo ahal bazintzat / Eremedi zinzaket berhala.* (Chiveroua 22)
 (267) *Oh, erreguec baleki oro noulako dutian / hori becein ounxa / igor litçakec mementian!* (SteEli 526)
 (268) *Sira, cihau nahi ezpacira ere / obliga cintçakegu.* (SteEli 1118)
 (269) *Gisa hartan biak / gure lirateke, / iferniaren zolan / ehortz beikinzake.* (Boubane 101)
 (270) *Gaur espüsa zinzaket / ahal balin banü.* (Malqu 73)
 (271) *Herioua jiten balitçait cer estatutan caussi othe nintçake?* (Medit 80)
 (272) *Mila bici balimbanutu, oro eman nitçaketçu.* (Medit 205)
 (273) *Arrañak jakile har eta hek litçakie kundena.* (Etchahun “Ofizialenak”)
 (274) *Oraiño sort bazinte ene osto pian, [...] Beghira zinzaket tenpestatik.* (Archu 8)

4.3.1.3. Kasu berezi bat: *-kidi-* segida.

Orainaldian, geroaldian eta potentzialean datiboarekiko komunztadura delarik, **edin*-en ohiko formez bestelakoak ere ager zitezkeen, *-kidi-* segidarekin. Mounolek **-kidi-* laguntzaile batez mintzo bada ere (2011: 123), gure ustez *-kidi-* ez da **edin* aditzak hartzen ahal duen itxura bat baizik, morfemen hurrenkerak emana. Bada, *-di-* erroa arras desitxuratzen da forma jokatueta. Hasteko, bokal arteko *-d-* erortzen da: **dadite*, **ledite*, **leditezke* > *daite*, *leite*, *litezke*. Urrunago joanik, *-ki-* morfoaren eransteak *-di-* erro osoaren desagerrarazten du: **zedikion*, **(h)adikio* > *zekion*, *(h)akio*. Lafonek akzentuaren eragina seinalatzen du. Horien ondoan, badira beste forma batzuk non *-di-* gorde baita *-ki-* morfoaren eskuinean. Lafonen hitzetan, “*da-ki-di-o*, etc., ne sont pas autre chose que *da-ki-o*, etc., bien qu’ils s’en distinguent quelque peu dans l’usage” (1943 II: 34). Beraz, morfemen hurrenkera hutsak esplikatzeko **edin*-en forma aparantziaz elkarrengandik urrun gerta litezkeen hauek.⁴²⁰

Zertan bereizten dira **edin*-en bi itxura horiek? Batetik, *dakio* bezalakoak ez dira sekulan biluzik erabiltzen (salbu inperatiboan), beti aurrizki edo atzizki batekin eratzen baitira. Bigarrenik, orainaldian jokatzeko direlarik, *dakidio* bezalakoek geroaldiaren balioa dute:

⁴²⁰ Morfemen hurrenkerak, gutienez, bi puntutan agertzen du aldakortasuna. Batetik, ikusi dugun bezala, *-ki* morfoa —*dative flag* ala zer nahi den— erroaren ezker zein eskuin ageri da; bestetik, *-(te)/(-ke)* morfema ere datiboaren ezker zein eskuin. Banaketa geografikoari begira, (1a) eta (1b)-ko hurrenkerak ekialdean aurkitzen ditugu, eta (2)-koa gainerako mintzoetan (eta euskara batuan):

- (1a) 1 - e - di - ki - (-ke) - DAT *le(di)ki(ke)t*, *le(di)ki(ke)o*, *le(di)ki(ke)zu*, etab.
 (1b) 1 - e - ki - di - (-ke) - DAT *lekidi(ke)t*, *lekidi(ke)o*, *lekidi(ke)zu*, etab.
 (2) 1 - e - di - ki - DAT - (-ke) *le(di)kida(ke)*, *le(di)kio(ke)*, *le(di)kizu(ke)*, etab.

Comme *dakidio* et les formes analogues sont utilisées comme formes datives correspondant à *daite*, et que cette dernière forme, qui contient le suffixe d'indétermination *-te*, a valeur soit de futur, soit de potentiel, *dakidio* et les formes analogues servent à exprimer non seulement ce que sera, mais ce qui peut ou pourra être (*ibid.* 35).

Elles ne servent jamais à exprimer un ordre, une fin ni une hypothèse. (Lafon 1998: 522).

Leizarragarengan, *-kidi-* formak *ahal/ezin* partikulez laguntzen ahal dira, potentziala adieraziz (276)-(279). Axular (281)-(283), Aranburu (280) eta Pouvreauren lanetan (285)-(286) *-kidi-* segidak klarki hartzen du *-ke-* morfema.⁴²¹

- (275) *Ny erhoa çu iaquynxu vaha enaquidiçu* 'Je suis folle, vous êtes savant ; je ne vous écouterai pas'. (Dech. XII)
- (276) *Persona fidelari gogora ethor ahal lekidion tentationerik xipiena ere.* (Lç Cat)
- (277) *Iauna, zeren ezin iarreiki nakidik orain?* (Lç Io 1, 37)
- (278) *Lehen iarririk konsultatzen ez tuen, eia hamar millarekin aitzinera ilki ahal dakidionez.* (Lç Luc 14, 31)
- (279) *Hel ahal lekidizkigun gaitz guzietarik deliuratu eta enparatu.* (Lç ABC)
- (280) *Arima bati ethor ahal dakidikeon kalterik bortitzena.* (Aramburu)
- (281) *Aieruari ere sinheste gehiago eman lekidikaiola, anhitz arnegu eta iuramentu egiten dutenei baiño.* (Ax 19. kap.)
- (282) *Hunelatan gutarik bat bederari erran ahal lekidikeion bezala.* (Ax 46. kap.)
- (283) *Zeren orduan halako moldez argi lekidikezu zeure adimendua.* (Ax 50. kap.)
- (284) *Ezin aitari deus agradago dakidio bere Semea han ofrendatzea baino.* (Hm)
- (285) *Errazki pensatuko ahal duzu gerta ahal lekidikezun guzia.* (SP Gudu 18. kap.)
- (286) *Gauza guziak ongi eta probetxurekin gertha lekidizketzu.* (SP Imit 1. kap.)

Zuberoan *-kidi-* segida orotarar hamazazpi aldiz ageri da (287)-(302), sustut Oihenarten testuetan, eta poxi bat gutiago Maisterrenean. Azken bi agerraldiak herri tradizioko testuetakoak dira (301) & (302). Behin ere ez da *-ke-* morfema ageri, eta *ahal* partikula bitan baizik ez, potentzialaren adierazteko (296) & (300). Ohart bedi alegiazko zenbait formek hipotetikoak adierazten dutela (297), (298) edo (302).

- (287) *Auzilaria, sarista ezak onsa barataria, ezpere eure zuzena eztakidik balia* 'Plaideur, salaire bien le notaire ou le greffier, car autrement à ton droit tu ne te dois fier'. (O Pro 59)
- (288) *Zeha ezak ona, hoba dakidik; zeha ezak gaxtoa, hont eztakidik* 'Châtie le bon, il deviendra meilleur ; châtie le mauvais, il n'en amendera point'. (O Pro 427)
- (289) *Emok arlotteari egositi, Latsari onari, eztakidio falta latsarri* 'À une bonne lavandière ne saurait manquer la pierre pour y battre la lessive'. (O Pro 639)
- (290) *Noiz nakidina dakidan / Jin* '' (O Po III)
- (291) *Zer, ahatz lakidita Haren begi polita? Al, ez aski goratuz, / hutsik othe daidita?* (O Po XIII)
- (292) *Orai eta betiereko / Zureki tink egoiteko, / Eta berhez neholatan / Enankidizun gisatan.* (O Po XV)

⁴²¹ Pentsatzekoa da Leizarragaren *lekidizkigun* forma (279) erratum dela, *lekidizkegun* beharko bailuke.

- (293) *Hezaz oradrano iraitzi / Ikusirik nuzula, / Orai onhestea gaitzi / Dakit dakidizula. (O Po XXIV)*
- (294) *Enezazula gal gorrez, Kalte jin lakidizu, Bana galde nauzun horrez Ukenduru negizu. (O Po XXIV)*
- (295) *Emac sorhaioari phorru, esqua daquidic gatz. (Saug 79)*
- (296) *Elikidiçu eskietara eror ahal libru sokhorri pouchantagoric eman litciroçunic, ecieç hunec emanen beiteiçu. (Mst I “Iracourçaliari”)*
- (297) *Bihotça chuchen, eta ounxa chahaturic baçunu, gaiçac oro hounetara, eta profetitara utçul lekiditçu. (Mst II 1, 8)*
- (298) *Bihotça chuchen balin baçunu, creaturac oro bicitciaren mirail, eta libru saintu baten, cerbutcha lekiditçu. (Mst II 4, 1)*
- (299) *Jincouac belexa, Jesusen icenaren ouhouretan, cerbaiten soferitcia merechi çunian! Ala beilekidiçu bara gloria handi bat! (Mst II 12, 13)*
- (300) *Naturá bere abantallagatic triballatcen da, eta cer irabaci beste bateganic jin ahal dakidion, gogoua emaiten du. Graziac aldiç hobeki so eguiten du, eç cer abantalla, edo houn berauri jin dakidion, bena hanitchentaco profeytable datekianari. (Mst III 54, 2)*
- (301) *Imitatcen baduçu haboro Absalonen beste orduzko conduta tristia hari beçala hel lakidiçu. (SteEli 814: gutuna)*
- (302) *Bera beno polit ago / ezpalimbalu emaztia, / aggardent edale guti / jouan liquidio etchera. (Agardentegilea 4)*

-*Kidi* itxuraren ondoan, egile batzuek —orainaldian bederen— (*di*)*ki* erabili dute, ber indizeekin. Horrela, Maisterrek bi *dakidio* lekukotzen du (300), eta bost *dakion* (300) (306)-(310). Batzuen eta besteen arteko diferentziaz ohartzeko, deus baino lehen erremarkatu behar da guztiak (*dakidio* zein *dakio*) helburuzko perpausetan dautzala. Aldiz, -*kidi*- itxurakoek gehiago karreiatzen badute potentzialaren balioa, *dakio* itxurakoak konpletibo huts dira (303)-(312). Erran behar da Maisterrengan alegiazko guztiak -*kidi*- itxurakoak direla, *lekikezü* bezalakorik lekukotu gabe. Zuberoatik kanpo, Maisterrengan ikusi diren ñabardurak Leizarragarengan ere suma ditzakegu (276)-(279) vs. (304)-(305). Azkenik, XIX. mendearen azken herenean Urruty andereak (*ni hari*) *naikikezu* baliatzen du (312).

- (303) *Natione huni galdegin dakionzat. (Lç Luc 11, 50)*
- (304) *Israeli manifesta dakionzat, halakotz ethorri naiz ni urez batheiatzera. (Lç Io 1, 30)*
- (305) *Ezen Iainkoa ezta iniusto, ahanz dakion zuen obra. (Lç Heb 6, 10)*
- (306) *Othoi beça utçul dakion, eta içan umil, eta abisatu gal eçteçan. (Mst II 10, 5)*
- (307) *Guibelian badu khurutchia, amourecatic cernahibeita gaitç besteganic jin dakion, eçtiki oro Jincouagatic igourtç ditçan. (Mst IV 5, 3)*
- (308) *Badakizü zer konbeni den, bat bederari eman izan dakion. (Mst III 22, 3)*
- (309) *Ezi jüstoia ezta nahasiren, zer nahi beita Jinkuaganic hel dakion, nahi bada zerbait haren kuntre erran izan den, hartan eztenik, eztü axol handirik ükhenen. (Mst III 46, 4)*
- (310) *Zuñ da gizona hañbeste abisamentiüreki, eta goguareki bere büria begirutzen ahal diana, nun eztakion hel zunbait ordüz, zunbait inganiotara, edo düdatara erortia. (Mst III 45, 2)*
- (311) *Ordian debeiatzen da lüzazegi bizitziaz, eta desiratzen lüke hiltzia jin lekion. (Mst I 12, 2)*
- (312) *Jauna, cergatic enaikikeçu jarraiki ahal orai berian? (Uruthy EvS 13, 37)*

Aldi historikoan nagusiki Iparraldeko testuetan lekukotzen ditugu *-kidi-* formak. Halere, “La racine **kidi* est également attestée dans le texte alavais de Lazarraga et dans les vers biscayens *Bertso Bizkaitarrak* de la fin du 17^{ème} siècle : *Astean beyn baleçarçue / aus oça ta brasea, / agaz osatu lequidiçu / mataduraco frezea* (Laz. B5: 35-38) ; *Santua bere eztaquidizu /orregaz baliadu* (BB : 652)” (Mounole 2011: 71); beraz, iraganean *-kidi-* itxuraren hedadura zabalagoa zen. Forma hauen maiztasuna beheitituz doa, eta —guk dakigula bederen— Zuberoatik kanpo ez dira XVIII. mendera iristen. Erran daiteke Zuberoan *-kidi-* itxurazko formen erabilpena XVII. mendetik gutituz badoa ere, inon baino berankorrago dela. Azken agerraldiak XIX. mende hastapenekoak dira, egoera ihartuan.

4.3.1.4. Aditz iragankorren laguntzaileen arteko lehia: **iron* vs. **ezan*.

4.3.1.4.1. **Iron* aditzaren bilakaera

Ekialdeko euskararen aditz sistemarentzat aipatzen diren ezaugarrietarik bat da **iron* aditzaren erabilera (Zuazo 1989b; Camino 2008 & 2011). **Iron* laguntzaile defektibo gisa erabilia izan da ekialdeko mintzoetan, aditz iragankorren balio modalen adierazteko. Hizkunta osoari begira, **iron* mendebaleko *egin* laguntzailearen kontrapartearantz har daiteke, haren erabilpen testuinguruak mugatuagoak badira ere.

Hemen “**iron* aditza” aipatuko dugu, eta ez soilik **iro* erroa. Aditz honek berezko balio modala du (Gómez & Sáinz 1995; Mounole 2011), eta bereziki aditz iragankorren potentzialari lotua agertzen da. Dena den, potentzialaren adierazteko ditugun baliabide morfosintaktikoak maiz beste balioei estekatuak dira, ikusegi zabalenean *modaltasunaren* baitan sartzen direnak, eta hemen baliatzen zaigun erdibideko hautuan, *ahalezkotasunaren* barnean: potentziala, honi estuki lotua den geroaldia eta egia orokorra (Mounole 2011), menturazkoa edo modalitate epistemikoa. Hauekin batera, ekialdeko mintzoetan **iron* arras baliatzen da hipotetikoan (nabarmenki baldintzazko egituren apodosian), eta inoiz “subjuntibo” gisa ere ageri da (Padilla-Moyano 2013b: 156).

Ahalezkotasunaren azterketak, batetik, eta bestetik Zuberoako euskararen bilakaeraren deskripzioak, bi-biek eskatzen digute **iron* aditzaren gaineko azterketa berezi bat, haren erabilpen testuinguruak eta bereziki **ezan* aditzarekiko izan dukeen lehia historikoaren argitzeko xedez. Azken finean, Zuberoako euskararen ezaugarritzatzeko baliatu izan den elementua da **iron*, eta haren iraganaren ezagutzetik irakaspen zabalagoak idoki daitezke, ahalezkotasunarentzat bezala euskara orokorraren aditz sistemarentzat ere.

**Iron* aditzaren antzinatasuna hiru argudiotan oinarriturik postula daiteke: i) **iron*-en gramatikalizazio maila arras gauzatu da: ez da forma simple ez eta aditz nagusi gisa lekukotu, haren eduki semantikoa guztiz iluna izanik; ii) **iron*-en perifrasiak aditzoinaren eskatzea, **edin* & **ezan* pareak bezala; iii) **idi* erroarekin batean, haren formek *-ke-* morfema modala ez hartzea, hasiera batean bederen (Padilla-Moyano 2013b: 137).

Haren hedadura geografikoari doakiola, **iron* aditza *ekialde zabal* gisa defini daitekeen eremuan lekukotua izan da historikoki: lapurtera, bi behe nafarrerak (bat bederak Pirinioez hegoaldera duen eremua harturik), zuberera, erronkaria eta hego nafarrera (*op. cit.* 140). Ereku hori tipituz joan da, izan dadin **ezan*-en aldeko ordezkatzeko prozesu bat gertatu delako, izan dadin eremu horren zati batzuetan euskara bera delako desagertu. Egun zenbait forma fosilduk baizik ez du iraun, Zuberoatik Aturri alderaino. Oro har, zenbatenaz ekialderago joan, hainbatenaz altuago izan dira **iron*-en maiztasuna, indarra eta garapen morfologikoaren gradua.

4.3.1.4.2. **Iron* aditza *ahal/ezin* partikulez

Potentziala adierazten duelarik, **iron* aditz *ahal/ezin* partikulez lagundua ager daiteke. Puntu hau ñabarra da; Etxeparek edo Oihenartek *ahal/ezin* partikulak gabe baliatzen zuten:

- (313) *Ene mina sendo ezliro çuc bayeci vician.* (Etxepare IX, 36)
- (314) *Harria xila zirozu.* (O Po I: 25)
- (315) *Higu dudana gaitz diostana sinets ziroiat, nahiz barhana.* (O Pro 233)
- (316) *Emak zaretaz, bilha eztirok ahurretaz.* (O Pro 133).

Kontrakora jotzen du Leizarragak, perpaus nagusietan zein mendekoetan (317)-(320). **Iron* aditzaren beste balioekin, partikularzki denborazkoekin, iduri luke Leizarragak ez duela partikula hauen beharrik (320).

- (317) *Enzun ahal ziroitenaren araura.* (Lç Mc 4, 33)
- (318) *Kadenaz ere nehork ezin esteka ziroen.* (Lç Mc 5, 3)
- (319) *Hala non ogiaren iateko artea ere ezin har baitziroiten.* (Lç Mc 3, 20)
- (320) *Iujemendua biktorian ilki erazi diroeno.* (Lç Mt 12, 20)

**Iron* aditzaren erabilpen oparoena egiten dutenen artean, Maister ere antzeko eredu bati lotzen zaio, ahalera hutsa beste erabileretarik bereiziz (321)-(322) vs. (323)-(324). Lopezengan (325)-(328) ez dugu sistematikotasunik sumatzen, *ahal/ezin* partikulak gutxiengo batean kausituz; gainera, ezezko potentzian ere *ahal* baliatzeko joera erakusten du (328). Beste banaketa aurkitzen ahal da Beriainen liburuetan, baiezko perpausetan **iron*-en adizkiak biluzik baina ezezkoetan *ezin* partikulaz lagunduak ematen baititu (329) & (330).

- (321) *Hobekienik profeta ahal liru bezala.* (Mst “Iracourtçaileari”)
- (322) *Zer ikhus dirozü bestetan, heben ezin ikhus dirozünik?* (Mst I 20)
- (323) *Arren zer dirokegü, zük eta nik.* (Mst “Iracourtçaileari”)

- (324) *Zeren gihaurtan ez beitirogü ediren flakezia, eskazkeria eta eritarziün baizik.* (Mst“Iracourtçaileari”)
- (325) *Cer, cioçu Seint Augustinec, gure ispirithiac penxa diro, mihiac erran diro, lumac iskiriba diro hobenic hitz hoc beno?* (Lopez 175:28)
- (326) *Uken diencac berac ere, etciroçu unxa erran, ez unxa ezagut cerden.* (Lopez 107:10)
- (327) *Penxa ahal diroen beno infinitoki handiago duçu.* (Lopez 172:32)
- (328) *Behinere ezpaitirote lauda ahal.* (Lopez 210:12-18)
- (329) *Nola baita anbat dirokena Iaungoikoareki.* (Ber *Trat* 4. kap)
- (330) *Ezin ziroketaf.* (Ber *Trat* 9. kap).

Kasuistika, beraz, zabala da: *ahal/ezin* parearen erabilera lotua da **iron* aditzak egile bakoitzarengan adierazten dituen balioei. Joera diakroniko orokor baten deskribatzea zail izanik, erremarkagarri da zuberotar modernoek partikula hauen erabilera kasik abandonatu dutela (Inchauspek zazpitan behin), Zaraitzu eta Erronkariko testuetan —non forma guztiak *-ke*-dunak baitira— *ahal/ezin* salbuespen diren bezala.⁴²² Honen guztiaren konprenitzeko pentsatu behar da hasiera batean **iron* aditzak modaltasuna bere baitarik adierazi arren, denboraz *-ke* morfemadun forma pleonastikoak ere ageriko zirela. Eta *a contrario*, **iron* ahalerako espezializatzean, *ahal/ezin* partikulen premia desagertu zatekeen. Bi joera hauek, nonbait elkarri lotuak, corpusean abisa daitezke: denboran zenbatenaz aitzinago egin, **iro* errodonek hainbatenaz maizago hartzen dute *-ke*, eta urriago *ahal/ezin*.

Aditz honek modaltasuna bere baitarik adieraziz, denboraren iragaiteaz potentzialera lerratuz joan zatekeen; ondorioz *ahal/ezin* baliatzeko premia desagertuko zen. Paraleloki, *-ke*- morfema ageriko eta hedatuko da aldi historikoan. Zentzu honetan erronkaria eta zaraitzuera erremarkagarri dira, **iron*-en adizkiak beti itxura pleonastikoan agertzen baitira, *ahal/ezin* partikulen erabilera salbuespenekoa denean guztiz.

4.3.1.4.3. **Iron* aditza *-ke*- morfemaz

**Iron*-en adizkiak bi itxuratan lekukotzen dira: *-ke* morfemaz hornituak ala gabe. Honela mintzo da Lafon: “Les formes à *-iro-ke-*, qui sont beaucoup plus rares, ont la même valeur que les formes sans le suffixe (1973b: 525). Oyharçabal ere erremarkatzen du: “Most of the time, the conjugated form of **iro* doesn’t include the modal suffix *-ke*” (2003: 274). **Iron* modu markatu jakin bateko laguntzailea izanik (funtsez ahalerako, baina baita geroaldiko ere), haren formek *-ke* morfema har dezaten ala ez, hori estuki lotua da aditzaren naturari. Ikusi den bezala, hastapenean **iron* aditz modal bat zatekeen; beraz, *-ke* eransteko beharrik ez zen.

⁴²² Hualdek eta Mendigachak orotara hiru etsenplu erakusten dute 45 agerraldien artean: *ez badei recibitan al doqueinian* (Hualde 1869: 60), *toca aldoquedan ber aren edo bere beztidua* (Hualde Eb 23) & *al dokedan obekienaz* (Mdg 18).

Beraz, **idi* erroarekin gertatu bezala, mendeak iragan ahala **iron* aditzaren forma pleonastikoak ageriko ziratekeen. Badira desberdintasun markagarriak ez bakarrik garaika, baina batez ere mintzoka: **iron*-en eremuaren mendebaldean, haren formak arau minoritarioan baliatzen dituzten egileen baitan, Leizarragak *-ke*-dun nahiz gabeak ematen ditu. Lafonendako ez da diferentziarik haien artean, ondoko perpausetan hauteman daitekeenez:

(331) *Ezaiz ilkiren handik, renda diroano azken pelata.* (Lç Mt 5, 26)

(332) *Ezaiz ilkiren handik azken pelata ere renda dirokeano.* (Lç Lc 12, 59)

Geroztik, Voltoirek, Etxeberri Ziburukoak edo Pouvreaux *-ke*-dun forma bana eskaini dute, Lapurdiko beste idazleek betiere *-ke* gabeak erabiliz (Harizmendi, Etxeberri Sarakoa, Goyhetche, Dv, Zby & Larz).

Begiak ekialderago bihurtuz, lekukotasun zaharretan **iron*-en formak *-ke* gabeak dira, gutienez XVIII. mendera artio, Maister, Lopez eta Eguiateguy hasiko baitira forma pleonastikoak baliatzen.⁴²³ Hauek gutiago agertzen dira forma zaharrak baino, maiztasuna handiagoa denean alegiazko moldean: *Zer dirokegü zük eta nik?* (Mst “Iracourtçaliari”) baina *Eztakigu zer dirogun* (Mst I 13:5); *liroke* (Egiat xxx) & *zirokiana* (Egiat XXII) baina *liroainik* (Egiat XVI); *prefera niroke* (Chaho “Herritar ezinago-maitiak”). Etchahunek forma bakarra agertzen du: *egin ahal diokezüna*⁴²⁴ (“Bi bertset dolorusik”). Baxenafarroan idazle gehientsuenek *-ke* gabekoak ematen dituzte, Etxeparerekin has eta Barbier edo Oxobirekin buka, *Kadet eta Bettiriño* izkributik pasatuz. Lopez da salbuespen nagusia: *eguin diroskeela* (101:25); *etcirokegula exmpluric eman* (300:5). Finitzeko, Bordel bertsolariak batzuk zein besteak erabiltzen ditu.

Datuak arras desberdinak dira Nafarroa Garaiko euskalkietan. Beriainek beti forma pleonastikoak ematen ditu: *dirokena & ziroketat* (1621), *dirokena*, *dirokenak*, *dirokenari & dirokenik* (1626), baina goi nafarrerazko lehen predikuan (1729) *cer caso eguiñ guindiro?* (2:2) & *adiguindirola* (2:3). Erronkari eta Zaraitzuko testigantza guztietan **iron*-en formak oro pleonastikoak dira. Azken hau nola interpreta? Kontu egin behar da Pirinioetako euskalki hauetan **ezan* ez dela ahaleran lekukotu, eta **iro* erroa biziki higatua dela (*doked* eta *are doked*).

⁴²³ Antzeko bilakabidea erakusten du **(g)idi* erroak (cf. § 4.2.3).

⁴²⁴ Haritschelharrek dioen bezala (1970: 148), adizki hau hiperkarakterizatua da: “forme employée avec *ahal* représente un pléonasme qui est courant en basque. En fait, l’idée de pouvoir est exprimée trois fois”.

Erran daiteke *-ke*-dun formak berrikuntza gisa ulertzeko direla, batetik **iron*-en naturak ez duelako *-ke* morfemaren beharrik, eta bestetik corpusak hala erakusten duelako. Lapurteraren datuak Leizarragaren eraginaz azal litezke, haren ondoan forma pleonastiko bakan batzuk baizik ez baitira agertuko, eta irakurle izan zitezkeen idazle landuen lanetan. Ekialdeko informazioa garbiago da: XVIII. mendera artio ez da forma pleonastikorik ikusiko, hain zuzen idazle jasoenen —edo bederen hizkuntzarekiko suein berezi bat agertzen dutenen— eskutik. Hizkuntzaren bilakabide “naturalagoaren” barnean jarraitu zutenendako **iro* erroak bere izaera modala atxikitzen zuen. Eta alderantziz, XIX. mendeko Zuberoan Chahok, Archuk edo Inchauspek forma pleonastikoak erabiliko zituzten.

4.3.1.4.4. Ustezko muga morfologikoez

**Iron* aditz (oso) defektiboa dela pentsatzen ahal da. Batetik, aditz iragankorren potentzialera mugatua agertzen zaigu, eta (egun) 3. pertsonako subjektuko forma bakan batzuk baizik ez dituela gorde: *li(r)o*, *li(r)oke* (Lüders 1993). Morfologiara bihurtuz, erran izan da **iron* aditzak objektu pluraleko formak falta zituela (Euskaltzaindian gertatu eztabaidaz ikus Davant 1983: 25), eta batez ere datibozko komunztadura (NNN). Bi ideia horiek xeheki azterkatuko dira puntu honetan, haien deuseztatzeak interesa baitu **iron*-en bilakaera errezesiboaren egiazko arrazoiak xerkatzen hasteko.

a) 3. pertsonako objektu pluraleko formez

Lafonen arabera (1973b: 523), **iron* aditzak ez du objektu pluraleko formarik (3. pertsonakoaz ari da) “du moins dans nos textes du XVI^e et du XVII^e siècle”. Davantek objektu pluraleko formen lekukotasun zeharrez gaztigatu du, batzuen ustearen kontra (1983: 25). Corpora ikertu ondoan, bermatzen da **iron*-ek objektu pluraleko formak izan dituela (3. pertsonako ABS, baina ez bakarrik). Auziak badu bere garrantzia, objektu pluraleko formek **iron* vs. **ezan* lehiaren aitzinean kokatzen gaituztelako.

Belapeirek orainaldi nahiz alegiazko moldeetan ematen ditu, bietan *-it-* pluralgileaz: *ditiroala* (147) & *litiroyen* (135). Hamar urte berantago Belapeirerena ordezkatu zukeen katiximan ondoko adibide hau irakur daiteke: *ditiroçu* (*CatOlo* 24). Edo 1734ko lan batean: *ditiro* (*Othoitce* 79). Guztiarekin, XVIII. mende erdi aldera agerraldien kopurua anitz emendatuko da, Maister, Lopez edo Eguiateguyri esker. Ligiko erretorak bi pluralgile diferente erabiltzen ditu

banaketa osagarrian: *-tz-*⁴²⁵ orainaldian eta *-it-* alegiazkoan: *dirotza* (Mst III 45:3), *eztiroketza* (Mst III 58:5), *bazirozkezüt* (III 55:4) vs. *litiruan* (Mst III 57:2).

Lopezek, aldiz, *-zki-* eta *-z-* baliatzen ditu, grafiak goiti beheiti. Bigarrena soilik *-ke-*dun formetan azalduko da. Adibide guztiak orainaldikoak dira, alegiazko moldean *litzake* bezalakoak ematen baititu: *baitiroskigu* (157:23); *cirozkiçu* (196:21); *ezpaitiroski* (73:13) baina *diroskeela* (101:25). Maisterrek *-irotza-* itxura lekukotzen duen bakarra den bezalaxe, Lopezen marka da *-irozki-*. Ifrentzuan, Eguiateguyren etsenplu guztiak alegiazkoak dira: *litiroanari* (X); *e'litiroela* (III) edo *litiro* (X). Chahok ere alegiazko formarik baizik ez du eskaintzen: *litiuala* (“Apez bati arraphostü”); bai eta Etchahun Barkoxekoak ere: *beinitio*⁴²⁶ (“Musde Chaho”, I). Jada XX. mendean, Mirandek *ditirogu* dakar (“Euskaldun baten streap-teasea”).

Zuberoan alegiazko moldean *-it-* da absolutiboaren pluralgile bakarra, salbuespen bakar eta berankor batez: Anna Urruty: *Abrahamen obrac eguin ciniotcie ciec ere* (*EvS Io* 8, 39). Gertatzen da *ciniotcie* forma berezia dela, ergatiboaren pleonasmoa erakusten baitu: *zinirozüe*.⁴²⁷ Bestenaz *letçaken* bat lekukotzen du (*EvS Io* 22, 25).

Zuberoatik kanpo ere izan dira **iron-*en 3. pertsonako objektu pluraleko formak, Erronkarin: *dozqueinic* (Hualde *Eb* 14); *dozquegua* (Hualde 1869: 55); *emondozke* (Mdg 7) edo Zaraitzun: *ezlozquea* (*ETZ* 164) & *badrozquegua* (Samper 1866: 51).

102. TAULA. **Iron-*en adizkien pluralgileak (abs 3. p.).

	+ ORAIN	<i>ditzake</i>	ALEGIA	<i>litzake</i>
<i>KadBet</i>	<i>-it-</i>	+	-	+
Echeverri (Baztan)	<i>-z-</i>	-	-	-
Bp	<i>-it-</i>	+	-	-
<i>Cat Olo</i>	<i>-it-</i>	-	-	-
<i>Othoitce</i>	<i>-it-</i>	-	-	-
Mst	<i>-z/-tza-</i>	+	<i>-it-</i>	+
Lopez	<i>-z/-zki-</i>	+	-	+
Egiat	-	-	<i>-it-</i>	-

⁴²⁵ Pluralgile hau bi alomorfortan gauzatzen da: [-TZA-] eta [-TZ-].

⁴²⁶ Etxahunek *beinirio* akastuna idazten du. Haritschelharren oharra: “N’existe pas. Il faut sans doute lire *beinitio*; litt.: *je les ferais facilement* (les couplets)” (1970: 578).

⁴²⁷ Fenomeno hau berrikuntza dateke, hiztunek ezkerrean den ergatiboaren morfema aski hautematen ez dutelako seinale. Espero izatekoa da halakorik egile *xume*, herrikoiengan aurkitzea; izan ere, *zinirozü* forma bi astolasterretan atzeman dugu: *Chiveroua eta Marceline & Recoquillart eta Arieder*.

<i>AstLas</i>	-	-	<i>-it-</i>	-
<i>UskLi</i>	-	-	<i>-it-</i>	-
Chaho	-	+	<i>-it-</i>	-
Ecth	-	-	<i>-it-</i>	-
<i>EvS</i>	-	-	<i>-tz-</i>	+
<i>CatS</i>	-	-	<i>-it-</i>	-
Mde	<i>-it-</i>	+	-	+
1780ko pred. (Sal)	-	-	<i>-z-</i>	-
Samper	<i>-z-</i>	-	-	-
Hualde	<i>-z-</i>	-	-	-
Mendigacha	<i>-z-</i>	-	-	-

b) Forma triperersonalez

Erran izan da **iron* aditzak NN sailean baizik ez zitekeela joka: “Les terminatifs à deux régimes manquent dans tous les dialectes” (Bonaparte 1869, “Observations” xxv); “Il n’y a pas de voix dative” (Lafitte 1944 § 597). “Ce verbe n’a pas des formes à objet de référence” (Lafon 1973b: 523). Eta kasu gehienetan horrela azaltzen zaigu corpusean zehar: duela guti artio pentsatzen genuen soilik Lopezek zuela **iron*-en adizki triperersonalik erabili (cf. Videgain 1983), baina Zuberoan ere ongi lekukotuak dira (Padilla-Moyano 2013b: 148-151), (333)-(352) adibideetan ikusten denez.

- (333) *Seint Leonec cioçu Jesu-Christo eguiaski Ginco ičan ezpalis ezkinduskeela erremediatu eta aldiz eguiaski guiçon ezpaliz, etcirokegula exmpluric eman.* (Lopez 300:5)
- (334) *Gincoaren aldetic gure eretcerat gracia handi bat lukeçu, eta ezker handiric çor guindirekooçu.*⁴²⁸ (Lopez 312:6).
- (335) *Elikidiçu eskietara eror ahal libru sokhorri pouchantagoric eman litciroçunic, ecieç houneç emanen beiteiçu.* (Mst, “Iracourtçaliari” xviii)
- (336) *Etciniro, çoumbat nahibeita tcherçu eguinic, ediren libruric, hobeki eçagut eraci litciroçunic, çougnen goure enthelegu ororen gagnetico den Jincouaren içatia.* (“Iracourtçaliari” xviii)
- (337) *Ihourc erran ahal litciroçun beno hanitcheç hobeki.* (“Iracourtçaliari” xx)
- (338) *Ihourc erran ahal litciroçun beno hobeki.* (“Iracourtçaliari” xxi)
- (339) *Eci guiçonac Jesus tcherkhatcen eçpalin badu, bere buriari haboro damu eretchekiren-du, ecieç mundiac oroc, eta bere exayec eguin ahal beilitciroye.* (Mst II 7, 3)⁴²⁹

⁴²⁸ Lehen forma (*etcirokegula* ‘hark hura guri’) morfologikoki gardena baldin bada, bigarrenak ilunagoa dirudi: testuinguruaren arabera ‘guk hura hari +ALOK_{ZU}’ behar luke, eta *zirokegun* horren araura **gindirokeozu* bezain egongaitz suerta litekeen zerbait espero genuke. Aldiz, egokitzen morfonologikoak *oo* bokal bikoitza eman duke, *e* aitzina pasaraziz; ondorioz, *iro* erroa desitxuratua da (**gindirokeozü* → *gindirekoozü*). Zernahi gisaz, ez da komeni ahanztea Lopezek bi forma hauek **iron*-en beste 153 agerraldien artean aurkitu direla. Haren maiztasuna minimoa izan arren, fenomenoak baluke garrantzirik, enbrio gisa baledi ere.

- (340) *Eta hala cerere, cihaurtçaç campo, eman beitcinirot, edo çoumbat nahibeita argui eracoux, edo hitç eman ciniçadan, hourac oro elutukeçu aski, cihaur ikhoussi, edo ossoki goçatu gabe.* (Mst III 21, 2)⁴³⁰
- (341) *Erran litian ordian çoure countre, ecinago malecia handibateki, sor litekian gaiçac oro, cer damu eguin litciroie, erras igaraitera eitç bacintça, eta lastobat beno haboro etheki ezpacintça? Bilho bakhoitçbat idoki ahal litcirocieya?* (Mst III 46, 2)⁴³¹
- (342) *Deus eniro [Jincouari] placer haboro eguin liroyonic eman ahal, ecieç ene bihotçaren ene Jincouari ossoki emaitia eta hareki, eçur chilouetara drano, juntatu içatia.* (Mst IV 13, 3)⁴³²
- (343) *Berthüdiak dükianian zure izena gaintü isterbegiak dantzarik eztüke min egin litzirokianik.* (Egiat I 10)
- (344) *Famaz jende güzia da haiñ khoi non etare lakikinak, elirokiala nola nahi küpera, gaizkia beitu eginen amoregatik harez mintza dadin jendia, ustez hilik bezala bizitzia dagoela deuserezgoan; hantik fama hona dianak handiago nahiz, beraz ahalke da, egun oroz zerbait ezpadü egin heda litzirokiana bazterretarat.* (Egiat I 37)
- (345) *Çoure plaçan igor nirioçu⁴³³ / nic proposatcera; / atçetatçen ezpada meçu berarez / aldiz guerla declara.* (SteEli 615)
- (346) *Sarritan aiskora hounez / trenka nitciroc buria!* (SteEli 1061)
- (347) *Julienecq beçala eguin baleie / balikeie beltçoury, / adar ederricq litciroieçq bertan karreia eracy.* (StJul 181)
- (348) *Güti saritan orai / jauxzera nitzirot⁴³⁴ müthüra!* (Jouanic 38)

⁴²⁹ Inchauspek honela ematen du: Eci Jesus ezpadu tcherkhatzen, guicono damugarriago da beretaco, eciez mundu gucia eia bere exayac oro.

⁴³⁰ Inchauspek: Hartacoç cer nahi eman diçadacun, çutzaz campo, eta cer nahi eracoux edo hitzeman diçadacun, ezcikedaçut aski, eta eniçu elikaturen, cihaur ezpaçutut ikhouston eta ossoki gocatzen.

⁴³¹ Inchauspek: Erran litzen ordian çoure contre, guiçonen gaistokeriac jauki ahal ditzakian gaizkiac oro, cer damu eguin leikecie, utz bacintza ichilic igaraitera; eta ezpaceneça ilhain batez beno haboro casu eguin? Bilho bakhoitz bat ere elkhi ahal leikecieya?

⁴³² Inchauspek: Eztut deus eguiten ahal hari laketgarriago cayonic, ene bihotzaren ossoki emaitia beno eta ene Jincoareki bat eguitia.

⁴³³ *Nirioçu* formak (345) galdera batzuk pausatzen ditu, zer den ez baita guztiz gauza segurua. Lehen interpretabidean ‘zuk ni hari’ orainaldiko forma litzateke, alegiako 1. pertsonako absolutiboa [NIND-] morfemaren pean agertzen baita: *nindiroçu* (273, 376), *nindirocien* (1461). Kasu honetan perifrasiak honako erran-nahia karreiatuko luke ‘vous pouvez m’envoyer à lui’. Hau estonagarri litzateke, 3. pertsonaz landako ABS argumentua duten NNN saileko formak arras bakanak baitira euskararen historian (cf. Gómez & Sainz 1995: 236 eta Etxepare & Oyharçabal 2007). Gainera kontrol arazo bat ageriko litzateke: *Çoure plaçan igor nirioçu / ~~nic~~ proposatcera*. Bigarren interpretabidea: ‘nik hura hari ^{+ALOK.ZU}’. Orduan bi elipsi dukegu: lehen perpausaren objektu zuzenarena eta bigarreneko aditz nagusia: *Çoure plaçan igor nirioçu / nic* [mezuaren] *proposatcera; / atçetatçen ezpada meçu berarez / aldiz guerla declara* [nirioçu] ‘À votre place, je lui enverrais [le message]; dans le cas où il n’accepterait, par le même message je lui déclarerais la guerre’. Hirugarrenik, hutsaren aukera dugu gogoan, eta orduan *igor nirozü* bi gauza izan liteke: 1) ‘igor nazakezu’ ala 2) ‘igor nezake’. Testu berean agertzen den *nitciroc* (346) aise endelgatzen da, testuinguruak ‘nik hura hiri’ eskatzen baitu klarki. Bestenaz, ditransitibotasunaren iragartzeko tenorean adizki honek badu parerik *-tz-* darakusten beste adizkietan (cf. Maisterren *litzirozü*). Herri antzertiaren tradizioko testuek **iron*-en forma ditransitiboak emateak halako bermea ematen du: populu xeheak entelega zitzakeen formak ziren, eta ez *idazle* batek bere gramatika bortxatuz idatz litzakeenetakoak.

⁴³⁴ Hemen hitz bukaerako herskari ahoskabeen arteko nahastekamendu guztiz ohikoa dugu; hortaz, *nitzirok* ‘niezaake’ ulertu behar da. Cf. izkribu bereko *etciroçuc* ‘etzirozüt’ (77).

-
- (349) *Güti saritan orai / jauxerazi nitzerot südüra! (Jouanic 40)*
 (350) *Aments balin banü / hire khorphitzaren erdia, / ezar nitzirok berotürik / bizkar mila debria. (Pierrot 94)*
 (351) *Uste banü ziniola, / begira segretiak, / eran nitzirozü bertan, / nik ene sentimendiak. (Petit Jean 8)*
 (352) *Eman nitziroçu gage houn bat. (Jean de Paris 400).*

Hau guztia zenbakitara bihurtuz, zuberera historikoaren corpusean *iron aditzak badu hogei agerraldi lekukoturik NNN jokamoldean, gehi beste bi Lopezengan. Kopuru baxua iduri lukeen arren, Zuberoan are eskasago gertatzen da *ezan-en NNN saileko adizkiena, 103. TAULAK agerian uzten duenez:

103. TAULA. Ahalerako NNN saileko adizkiak (Zuberoa gehi Lopez).

	<i>*ezan</i>		<i>*iron</i>	
Oih	<i>dezakeio</i>	‘diezaioke’	-	
Mst	<i>ditzakezüdanak</i>	‘diezazkizuket’	<i>beilitziroie</i>	‘liezaiokete’
			<i>beitzinirot</i>	‘zeniezadake’
			<i>lironionik</i>	‘liezaioke’
			<i>litziroie</i>	‘liezazukete’
			<i>litzirozieia</i>	‘liezazukete’
			<i>litzirozün</i> (2)	‘liezazuke’
			<i>litzirozünik</i> (2)	‘liezazuke’
Egiat	-		<i>litzirokiana</i>	‘liezaioke’
			<i>litzirokianik</i>	‘liezaioke’
SteEli	-		<i>niriozü</i>	cf. 433. oharra
			<i>nitzirok</i>	‘niezaake’
StJul	<i>nitzakezie</i>	‘niezazkizueke’	<i>litziroiek</i>	‘liezaioketek’
Jean de Paris	-		<i>nitzirozü</i>	‘niezazuke’
Petit Jean	-		<i>nitzirozü</i>	‘nieza(zki)zuke’
Jouanic Hobe	-		<i>nitzirok</i> (2)	‘niezaake’
Pierrot	-		<i>nitzirok</i>	‘niezaake’
MaiMarHil	-		<i>litzirodala</i>	‘liezadake’
Medit	<i>dezakeguna</i>	‘diezaguke’	-	
Archu	<i>deizakezü</i>	‘diezazuket’	-	
AR	<i>dezakoon</i> (2)	‘diezaioke’	<i>zirokegün</i>	‘ziezagukeen’
	<i>dezakootela</i> (2)	‘diezaiokete’	<i>gindirekoozü</i>	‘geniezaioke _{+ZU} ’
	<i>eztezakegucie</i>	‘diezagukete _{+ZU} ’		
	<i>lezakeden</i>	‘liezadake’		
	<i>lezakoonik</i>	‘liezaioke’		
	<i>litzakoon</i>	‘liezazkioke’		
Orotara	5 + 8		20 + 2	

4.3.1.4.5. **Iron vs. *ezan lehiaz*

Larrasquetek zubereraz kanpoko formen bere gramatikan sartzea egotzi zion Inchausperi: “Il est arrivé à l’auteur de consigner des flexions qui ne sont pas souletines: *egin hezake...* En Soule, on dit: *égin ní(r)o...*” (1939: 19). Nola interpreta hori? *Dezake*, *lezake* tankerakoak ez diratekeela zubererazko formak? Ala Larrasquetek gehiago nahi zuen *diro*, *diroke* bezalakoan zuberotartasuna azpimarratu?

**Iron*-en eremua Zuberoa baino anitzez zabalagoa baita, ikusi behar da zein den bi aditzen banaketa euskalki bakoitzeko, eta xede horrek gidaturik adalatu ditugu puntu honen akabantzako taulak (104-108). Badakigu, adibidez, Erronkariko lekukotasunetan zehar ez dela **ezan_{+KE}* aurkitzen, eta antzeko zerbait gertatzen da Zaraitzuko testuekin. Aldiz, ezaugarriaren beste muturrean, lapurteran eta mendebaldeko baxenafarreran, **iron*-en formak egoera higatuago batean iragan dira, maiz fosil gisa.

Testuak aztertuz, zernahi gisara, argi da zenbait egilek **iron* eskusiban baliatu dutela ahalera eta beroni lotuak diren balioen adierazteko. Beraz, iduri luke euskararen garai historikoan noizbait, nonbait, **ezan*_{+KE} ez dela hiztunen errepertorioan izan, era produktiboan bederen. Parearen banaketari begira, testigantzak lau multzotan sailka daitezke: i) **iron* aldioro agertzen dutenak, *dezake* bezalakoen arrastorik gabe; ii) **iron* nagusi izan arren **ezan*_{+KE} ere ematen dutenak; iii) **iron* & **ezan*_{+KE} modu orekatuan ematen dituztenak; eta iv) **ezan*_{+KE} gailendu arren **iron* ere baliatzen dutenak. Gakoa 2) eta 3) multzoetan datza, hauen ikertze sistematikoan hatzeman baitaitezke aldaketaren arrazoiak. Zein testuinguruk eskatzen du **ezan*-en itxura modala? Non dira **iron* aditzaren muga morfosintaktikoak? Aldiek zerikusirik dutea? Zein mintzotan hasten da **iron* desagertzen eta non iraunen du luzazkien? Hemendik aitzina halako galtoei arraposta ematen ahaleginduko gara.

Zuberoako testuetara mugatuz, 104. & 105. taulek **iron* vs. **ezan* laguntzaileen arteko lehia erakusten dute, tradizio idatzian eta mistoan, hurrenez hurren.

104. TAULA. **Iron* vs **ezan*: kopuruak egileka (Zuberoako tradizio idatzia).

	<i>*iron</i>	<i>*ezan+ke</i>	% <i>*iron</i>	% <i>*ezan+ke</i>
Zalgize	1	-	100,0	0,0
O Pr	13	10	56,5	43,5
O Po	5	1	83,4	16,6
Tt, orotara	33	-	100,0	0,0
FPrS	1	-	100,0	0,0
Bp	25	3	89,3	10,7
CatOlo	14	-	100,0	0,0
Othoitce	12	-	100,0	0,0
Mst (osorik)	140	15	90,3	9,7
Sacram	3	-	100,0	0,0
Mercy	1	-	100,0	0,0
NLilia	2	-	100,0	0,0
Egiat I & II	168	1	99,4	0,6
DKhirst	3	0	100,0	0,0
UskLi	17	1	94,5	5,5
Chaho	11	1	91,7	8,3
Medit	81	18	85,3	14,7
MaiMarHil	14	1	93,4	6,6
Myst	9	0	100,0	0,0
Arch	17	7	70,9	29,1
HOrdre	3	0	100,0	0,0
Ip	9	12	42,9	57,1
CatS	15	2	88,2	11,8
EvS	6	1	85,7	14,3
Alth	3	1	75,0	25,0
Peillen ALB	3	-	100,0	0,0

105. TAULA. *Iron vs *ezan: kopuruak (Zuberoako herri tradizioa).

	*iron	*ezan+ke	% *iron	% *ezan+ke
“Andr’ Emili”	1	-	100,0	0,0
<i>SteEli</i>	29	5	95,3	14,7
<i>StJul</i>	23	7	76,7	23,3
<i>Jean de Paris</i>	6	1	95,7	14,3
<i>Petit Jean</i>	5	-	100,0	0,0
<i>Chiveroua</i>	9	3	75,0	25,0
<i>Boubane</i>	2	1	66,6	33,3
<i>Jouanic Hobe</i>	5	-	100,0	0,0
<i>Edipa</i>	24	1	96,0	4,0
<i>Ardeatina</i>	1	1	50,0	50,0
<i>Mehalçu</i>	2	-	100,0	0,0
<i>Saturna</i>	4	-	100,0	0,0
<i>Malqu</i>	12	3	80,0	20,0
<i>Pierris</i>	2	-	100,0	0,0
<i>Pierrot</i>	8	1	88,9	11,1
<i>Planta</i>	1	2	33,3	66,6
<i>Recoquillart</i>	3	-	100,0	0,0
<i>Xarlem</i>	19	-	100,0	0,0
<i>Etch</i>	19	1	95,0	5,0

Orobat egiten du 106. taulak, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko testuen lekukotza bilduz, bai eta 107. taulak, Nafarroa Garaikoena.

106. TAULA. *Iron vs *ezan: kopuruak egileka⁴³⁵ (L eta BN).

	*iron	*ezan+ke	% *iron	% *ezan+ke
Leizarraga	24	258	9,3	91,7
1598ko gutunak	2	1*	66,6	33,3
Volt	1	9	10,0	90,0
SP	25	407	5,8	94,2
EZ, orotara	15	145	9,4	91,6
Harismendy	2	2	50,0	50,0
ES	1	79	1,2	98,8
Gy	11	53	17,2	92,8
Echeverri (Baztan)	1	3	25,0	75,0
Laph	2	60	3,3	96,7
Dv	48	574	8,3	91,7
Zby	32	25	56,1	44,9
Larz	8	374	2,1	97,9
Ettxepare	14	7	66,6	33,3
KadBet	6	27	18,2	91,8
AR	154	84	64,7	35,3
Bordel	25	4	86,2	13,8
CanBel	6	1	85,7	14,3
Dib	2	6	25,0	75,0
Arb	4	245	1,6	98,4
Etcham	3	12	20,0	80,0
Barb	20	60	25,0	75,0
Ox	3	32	8,6	91,4

107. TAULA. *Iron vs *ezan: kopuruak egileka (Nafarroa Garaia).

	*iron	*ezan+ke	% *iron	% *ezan+ke
Aldaz 1609	2	-	100,0	0,0
Ber, orotara	6	27	18,2	90,8
1729ko predikua	2	2	50,0	50,0
Orbara (129)	1	1	50,0	50,0
Garralda 2	5	12	29,4	70,6
1780ko predikuak	7	2	87,8	22,2
Samper 1866	8	-	100,0	0,0
Samper 1869	1	-	100,0	0,0
Abartzuzako predikua	1	-	100,0	0,0
Hualde Ebanjelio	17	-	100,0	0,0
Hualde Dotrina	10	-	100,0	0,0

⁴³⁵ Egile batzuen kasuan datuek haien ekoizpen osoari dagozkio: *ezan vs. *iron lehiaren aztertzeko lan guztiak miatu ditugu, *iron agertu ala ez. Horrela gertatzen da Duvoisin, Archu, Inchauspe, Larzabal edo Barbierrekin.

Azkenik, 108. taulak **iron* vs. **ezan* lehia labur biltzen du, euskalkiz euskalki:

108. TAULA. **Iron* vs. **ezan*: kopuruak euskalkika.

	<i>*iron</i>	<i>*ezan+ke</i>	% <i>*iron</i>	% <i>*ezan+ke</i>
Lapurtera	172	1990	7,9	92,1
Hego nafarrera	10	29	25,6	74,4
Baxenafarrera	237	478	33,1	66,9
Aezkera	6	13	31,6	68,4
Zuberera	792	100	88,8	11,2
Zaraitzuera	17	2	89,5	11,5
Erronkaria	44	1	97,8	2,2
Orotara	1.278	1.813	41,3	58,7

Zuberoako corpusean posible da **iron*-en ordezkatzeko prozesuaren urrats diferenteen deskribatzea —galera horren zergatien gaineko gogoetarako, ikus § 4.3.1.4.6—. Hona hemen, *grosso modo*, prozesuaren norabidea:

- a) ABS argumentua *gu & zu* denean.
- b) ABS argumentua *ni & hi* denean, galera seguruenik lehenago 2. pertsonatik abiatuz: *intçaket* (*SteEli* 870) baina *nindiroçu* (*SteEli* 273 & 376), *nindirocien* (*SteEli* 1461) & *nindiron* (*SteEli* 1203 (2)).
- c) ABS 3. p. plurala denean (*ditiro* → *ditzake*), eta beharbada lehenago orainaldia alegiazko denbora baino (zenbait egilerengan *ditzake* baina *litiro*).
- d) Azken urrats batean **ezan* ABS 3. p. singularrean sartzen da.
- e) NNN sailean **iron*-en adizki guztiak XVIII. mendekoak dira. Hor gure corpuseko herri tradizioko izkirioek ez dute **ezan+KE* ematen.

4.3.1.4.6. Ordezkatzearen arrazoiak

- a) Hizkuntzaz barneko arrazoiak

Lehen inork pentsa zezakeen **ezan*-ek **iron*-en ordezkatzearen gakoa lehenak forma hirupertsonalen onartzean datzala, baina ideia hori aise indargabetu dugu. Lehenik, **iron*-ek ere badu NNN jokaturarik: hala Lopez, Maister edo Eguiateguyrengan nola Zuberoako herri antzertiko lanetan hatzeman ditugu halako formak (cf. § 4.3.1.4.4). Gehiago dena: **ezan*-en forma tripertsonalak oso bakanki baliatu dira Ekialdeko tradizioan, maiz NN saileko formak aski izanik; 103. TAULAK **ezan* & **iron* laguntzaileen forma hirupertsonal guztiak erakusten ditu. Bigarrenik, **iron*-ek NNN jokaturarik ez ukanik ere, datiboeko argumentua ez islatzeak nekez esplikatu lezake **iron*-en gainbehera, kontu eginik ekialdeko mintzoetan datiboarekiko

komunztadura hautazkoa dela. Beraz, **iron*-en balizko muga morfologikoez ez lukete datiboaren agerpena inondik inora oztokatzen, ondoko perpausetan prezatzen denez: *Etzirozüt hari ihesirik egin*⁴³⁶ [= ‘dezaket_{ALOK_ZU}’] (Mst III 29, 1) & *Erho nahi nundukin exai bati ihes eguin niro* (Medit 28).

Aditzaren defektibotasunarekin jarraituz, ez da ohikoa aditz laguntzaileetan **iron*-ek duen esparru hertsia, zeren eta haien arteko banaketa *indikatibo/ez indikatibo* edo *iragangaitz/iragankor* bezalako lerradura zabalagoek markatzen baitute. **Iro* errodenen maiztasuna hain mugatua izanik, iduri luke hiztunek **ezan* ahaleraren adierazpena heda lezaten. Izan ere, ordezkapenaren zantzuak maiztasun tipien duten formetan hasten dira: (*haiek gu*) *gintiro(ke)te* → *gintzakete*; (*guk zu*) *zintiro(ke)gu* → *zintzakegu* eta, oro har, 3. pertsonaren absolutibo pluraleko formak. Ez da ezusteko, halaber, iraganaldiko formak besteak baino fitezago desagertzea: *zitiro(ke)en* → *zitzakeen* lehenago, *ziro(ke)en* → *zezakeen* berantago. Gogora bedi XX. mendeko zubereraren alegiazko formek baizik ez dutela iraun (Lafon 1973b: 525).

Bestalde, aldi historikoan aditz laguntzaileen sistema simetria batera hurbildu da: aditz iragangaitzendako *izan* & **edin* pareak aski den bezala, iragankorrendako ere aski zukeen **edun* & **ezan* pareak. Nonbait, hiru aditz laguntzaile iragankor izatea egongaitzago litzateke bi izatea baino. Nahiz eta ez den arras gauza bera, Mendebaldeko euskalkien historian ere antzeko fenomeno bat ezagutzen dugu: **edun*, **ezan* & *egin* hiruko iragankorretik biko sistema batera iragan da, *erregulartze* bat gauzatuz. *Grosso modo*, erran daiteke Mendebaldeko euskalkitik **ezan* aditza desagerrarazia izan dela, eta gipuzkeran *egin* laguntzailearen erabilera gibelatu dela.

Ezin bazter genezake **iron* aditzak, aipatu den bilakabide errezesiboa goiti beheiti, bere paradigmaren garapenaren goiena garai historikoan ezagut zezan. Horrela, XVI. mendean 3. pertsonaren absolutibo pluraleko formarik lekukotzen ez den bitartean, XVIII.ean ohikoak dira, eta hautu diferenteez gauzatuak (*-it-*, *-zki-*, *-tza-*). Puntu hau zaila da: *negativa non sunt probanda*. Hots, nahiz eta Etxeparearen baitan **iron*-en formak 3. pertsonaren absolutibo

⁴³⁶ Adibide hau *aitari eman dut* tankerakoak baino adierazgarriagoa litzateke: “Badirudi, baina, datiboa, izena edo adjektiboa barik izenordaina denean, komunztadura egiteko joera nagusitzen dela” (Zuazo 1988: 639). Orobat —edo gehiago— gertatzen da **ezan* aditzarekin: *Guizonac falta dezaque vere promesari?* (Garraldako dotrina, 2. bertsioa). Bestenaz formulatzeko: zenbatena datiboaren komunztadura hautazkoago, hainbatena febleago gertatuko da **iron*-en errezesibotasunaren azalpena komunztadura auzietan xerkatzea.

singularrera hertsatzen diren, gainerako kasuetan **ezan* baliatuz, Berazkoitze eta Garazi baino ekialderagoko lekukotasun arkaikoen premian gaude.

a) Hizkuntzaz landako arrazoiak

Badakigu XX. mendean **iron* galtzeko bidean sartu dela Zuberoaren. Ifrentzuan, Zuberoako anitz testu zaharrek **ezan*_{+KE} saileko formen arrastorik ez badute (horietako zenbait XIX. mendekoak izanik), zerk eragin ote du iraulkatze hori? Menturaz, goitiago aztertu diren arrazoi purki linguistikoez harago joan beharko genuke. Izan ere, XVII. eta XVIII. mendeetako zuberotarrek **iron* baliatzen zuketan potentzialaren adierazteko, eta **ezan* indikatiboz landako gainerako moduetan. Ontsalaz, beste eremuetako hiztunekiko kontaktuak indarturik —eta hizkuntzen funtzionamenduan ongi ezaguna den ekonomiaren hatsarrea lagun— **ezan*_{+KE} hedatuz joan zatekeen, denborarekin **iron* defektiboari emeki gailentzeko, aipatu den egoera fosildura bulkatu artio.

Finitzeko, idazleen hautu kontzienteak aipa litezke. Ekialdeko testurik zaharretan *dezake* (bai eta *ditzake*) modukoak ere lekukoturik, baliteke “ekialdekoagotzat” jotzen ziren zenbait elementuren indartzeko xede batek **iron* aditzari lehentasun “artifizial” baten eskaintzea eragin ukan lezan. Gogoan dugu Eguiateguy bat, edo bere hizkuntza zenbait ñabarduratan moldatu zukeen Lopez itzultzailea. Baina baita kontrakoa ere, zeren zilegi da pentsatzea idazleek, memento batetik aitzina, **ezan* prefera zezaten: Zuberoan —Oihenart salbuespen— Archurenganaino itxaron beharko da **ezan*_{+KE} absolutiboko 3. pertsona singularrean lekukotzeko.

4.3.1.4.7. **Ezan* vs. **iron* lehia: ondorioak

**Iron* aditz laguntzailearen bilakaera errezesiboa dela erakutsi dugu, galeraren norabidea honakoa izan datekeela proposatuz: i) ABS argumentua *gu* & *zu* denean (*zintiro* → *zintzake*); ii) ABS argumentua *ni* & *hi* denean (*hindiro* → *hintzake*); iii) ABS 3. p. plurala denean (*ditiro* → *ditzake*); iv) azken urrats batean **ezan* ABS 3. p. singularrean ere sartzen da (*diro* → *dezake*).

Ordezkapen horren esplikatzeari baztertu behar dugu **iron*-ek datibo komunztadura egiteko leukakeen balizko zailtasuna, lehenik NNN jokamoldea baitu ezagun, eta bigarrenik haren eremuan datiboarekiko komunztadura hautazkoa delako. Eta orobat erran daiteke objektu pluraleko formei doakienean. **Ezan* gailentzeko arrazoiak gehiago xerka litezke **iron*-en maiztasun urrian. Izan ere, **iron* esparru zabalagoak zituzkeen aditz modal bat izatetik potentzialaren esparruari hertsatzera iragan zatekeen, espezializazio horrekin batean haren

maiztasuna murriztuz. Ondoko fase batean hiztunek **ezan* ahaleraren adierazpena ere hedatu zuket. Ez da harritzekoa iraganaldiko formak lehenago desagertu zitezen, hau ere maiztasunari egoten ahal zaiola. Labur adierazteko, ez da ohikoa aditz laguntzaile batek halako esparru tipia atxiki dezan; nonbait ekonomiaren hatsarrearen kontra doa hori. Azkenik, hizkuntzaz kanpoko faktoreek ere kontsidera daitezke: beste eremuetako hiztunekiko kontaktua, batetik, eta bestetik zenbait idazleren hautuen eragina.

109. TAULA. **Iron* vs. **ezan*: banaketa (Zuberoako tradizio idatzia).

	ABS <i>hura</i>	ABS <i>haiek</i>	ABS <i>ni, hi</i>	ABS <i>gu, zu</i>	NNN	+iragan
Zalgize ca. 1600	-	-	<i>*iron</i>	-	-	-
O <i>Pr</i> ca. 1600	biak (I)	<i>*ezan</i>	<i>*iron</i>	<i>*ezan</i>	<i>*ezan</i>	-
O <i>Po</i> 1665	biak (I)	-	-	-	-	<i>*iron</i>
Tt, orotara	<i>*iron</i>	-	-	-	-	-
Bp 1696	<i>*iron</i>	biak (E)	-	<i>*iron</i>	-	-
<i>CatOlo</i> 1706	<i>*iron</i>	<i>*iron</i>	-	<i>*iron</i>	-	-
<i>Othoitce</i> 1734	<i>*iron</i>	<i>*iron</i>	-	-	-	-
Mst 1757	<i>*iron</i>	biak (E)	<i>*iron</i>	biak (E)	biak (I)	biak (E)
Ressegue 1758	<i>*iron</i>	-	-	-	-	-
Mercy 1780	<i>*iron</i>	-	-	-	-	-
<i>NLilia</i> 1782	<i>*iron</i>	-	-	-	-	-
Egiat I & II 1785	biak (I)	<i>*iron</i>	-	<i>*iron</i>	<i>*iron</i>	<i>*iron</i>
<i>UskLi</i> ca. 1800	<i>*iron</i>	biak (I)	-	-	-	-
Chaho	<i>*iron</i>	biak (I)	-	-	-	-
<i>Medit</i> 1844	<i>*iron</i>	<i>*ezan</i>	<i>*ezan</i>	biak (E)	<i>*ezan</i>	<i>*iron</i>
<i>MaiMarHil</i> 1856	<i>*iron</i>	-	-	<i>*ezan</i>	<i>*iron</i>	-
<i>Myst</i> 1860	<i>*iron</i>	-	-	-	-	-
Archu	biak (I)	<i>*ezan</i>	-	<i>*ezan</i>	<i>*ezan</i>	-
Ip	biak (I)	<i>*ezan</i>	-	-	-	-
<i>CatS</i> ca. 1836	biak (I)	<i>*iron</i>	-	<i>*ezan</i>	-	-
<i>EvS</i>	<i>*iron</i>	=	<i>*iron</i>	-	-	-
Althabe	biak (I)	-	-	-	-	-
Peillen <i>ALB</i>	<i>*iron</i>	-	-	-	-	-

(I) = konkurrentzia **iron*-en alde ; (E) = konkurrentzia **ezan*-en alde

110. TAULA. *Iron vs. *ezan: banaketa (Zuberoako herri tradizioa).

	ABS <i>hura</i>	ABS <i>haiek</i>	ABS <i>ni, hi</i>	ABS <i>gu, zu</i>	NNN	+iragan
<i>SteEli</i> ca. 1810	*iron	*ezan	biak (I)	*ezan	*iron	-
<i>StJul</i> 1770	*iron	*ezan	-	*ezan	biak	-
<i>Jean de Paris</i>	*iron	*ezan	-	-	*iron	-
<i>Petit Jean</i>	*iron	-	-	-	*iron	-
<i>Chiveroua</i>	*iron	*ezan	-	*ezan	-	-
<i>Boubane</i>	*iron	-	-	*ezan	-	-
<i>Jouanic H.</i>	*iron	-	-	-	*iron	-
<i>Edipa</i> 1796	*iron	-	*iron	*ezan	-	-
<i>Ardeatina</i>	*iron	-	-	*ezan	-	-
<i>Mehalçu</i>	*iron	-	-	-	-	-
<i>Saturna</i>	*iron	-	-	-	-	-
<i>Malqu</i> 1808	biak (I)	*iron	*iron	*ezan	-	-
<i>Pierris</i>	*iron	-	-	-	-	-
<i>Pierrot</i>	biak (I)	-	*iron	-	*iron	-
<i>Planta</i>	*iron	*ezan	-	-	-	-
<i>Recoquillart</i>	*iron	-	-	-	-	-
<i>Xarlem</i> ca. 1800	*iron	-	*iron	-	-	-
<i>Etchahun</i>	*iron	*iron	-	*ezan	-	*iron

(I) = konkurrentzia *iron-en alde ; (E) = konkurrentzia *ezan-en alde

4.3.2. Perifrasi berriak

Aditzoinaren gaineko perifrasiak —hots, *edin, *ezan & *iron laguntzaileekikoak— zaharrenak badira, hiru partizipioen gainean eratuak —hots, izan & *edun laguntzaileekikoak— berrienak dira euskararen aditz sisteman (Mounole 2006 & 2011). Ahalezkotasuna denaz bezainbatean, testuek perifrasi zahar eta berrien arteko lehia erakusten dute (ikus § 4.4.3). Atal honetan aditz nagusiak hartzen duen formaren arabera aztertuko ditugu izan & *edun laguntzaileekiko perifrasiak: [part. perfektiboa + ahal/ezin + izan, *edun] (§ 4.3.2.1); [part. inperfektiboa + ahal/ezin + izan, *edun] (§ 4.3.2.2) eta [part. prospektiboa + ahal/ezin + izan, *edun] (§ 4.3.2.3).

4.3.2.1. [Partizipio perf. + ahal/ezin + izan, *edun].

Mounole-ri jarraikiz, euskara orokorrean perifrasi mota honen agerpena goiztiarrago bide da ezin partikularekin, ahal-ekin bi mende berantago azaleratzen delarik:

Dans le texte de Lazarraga, *ezin* apparaît comme l'élément non verbal (nominal) d'une locution verbale *ezin izan* « être dans l'impossibilité de » qui régit une subordonnée participiale. Au 18^{ème} siècle, cette construction s'étendra aux autres parlers occidentaux et centraux. Plus tard (2^{ème} moitié du 18^{ème} siècle, 19^{ème} siècle), une construction de potentiel positif de même type ayant pour base la locution *ahal izan* fera son apparition. (2011: 121)

Dena den, partizipio perfektiboaren gainean eraiki perifrasiaren lehen testuetan kausitzen da:

En la tradición septentrional antigua se documenta, ya desde Dechepare, la construcción participio + *ahal* + aux. indic. Desde el s. XVIII va imponiéndose participio + *ahal izan* (o *ukan*) + aux. indic. (que es tbn. la usual en los escritores meridionales) (*OEH* s.v. *ahal*, I 1B).

Kronologiaz apart, [perfektibo + *ahal* + *izan*, **edun*] perifrasiaren beste interesgunea aspektuan datza —aditz laguntzaileak aldia du markatzen: oraina, iragana edo alegiazkoa—. Badakigu inperfektibozko perifrasiaren ments duten euskalki eta garaietan, perfektiboarekikoak aspektu burutua ala burutugabea adieraz ditzakeela, egilearen arabera (Mounole 2011: 249). Hortaz, pentsa liteke [inperfektibo + *ahal* + *izan*, **edun*] perifrasiaren azaleratzen denean (§ 4.3.2.2) hau aspektu burutugabea lerra zitekeela, eta [perfektibo + *ahal* + *izan*, **edun*] perifrasiaren aspektu burutua adieraztera. Errealitatea, aldiz, ñabarragoa da: gure corpusean partizipio perfektiboaren gaineko perifrasiaren adibideek bata zein bestea adierazten ahal dute. Gisa guztiz, mota bateko eta besteko perifrasiaren agerraldi kopuruak manera argi batez ezartzen du partizipio perfektiboaren gaineko perifrasiaren erabilera oso minoritarioa dela Zuberoan, kasik marjinala: 54 agerraldi vs. 708 [inperfektibo + *ahal* + *izan*, **edun*] perifrasiarentzat.

Laguntzailearen hautuari doakionean, Zuberoako testuek banaketa sistematikoa erakusten lukete: **edun* iragankorrendako eta *izan* iragangaitzendako (353)-(388).

- (353) *Bana nehorc ecin deus descroubitu deraut.* (Etchart 5, 1v)
- (354) *Hoboro bizi ahal naizen / Da gauz' ezinezkoa.* (O Po XXIV)
- (355) *Ediren ahal zian.* (Tt Onsa)
- (356) *Eliçac manu hoyec oro eguin ahal derizkia?* (Bp I 113)
- (357) *Egun hortan haur hil delaric, herioac ecin goithu ciala.* (Bp II 108)
- (358) *Edo noulaz ahal çutut ahatce, mesperetchatu, eta hastiotu?* (Othoitce 52)
- (359) *Ouste ducia eçcapiren cirela, guiçonec batec ere ihessiric ecin eguin dian, gaiçari?* (Mst II 12, 6)
- (360) *Senditu ahal dian desiric bicienareki.* (Mst IV 17, 1)
- (361) *Bena mehatchuz ez balacuz / ecin reussitu cian.* (StJul 057)
- (362) *Ihourq ere ecin beinundian / Julieneganiq separatu.* (StJul 1047)
- (363) *Eztucq ja errana içanen / ecin goithu dutudala.* (StJul 1176)
- (364) *Bilerazi ahal ziana.* (Egiat I 20)
- (365) *Jinkoak eman zeitadan indar beharra galtho egin ahal nereitzoan.* (Egiat I 23)
- (366) *Papel plama bat ezin bethe ziala.* (Egiat I 25)
- (367) *Ecin eguin beitut / orano recontria.* (Edipa 166)
- (368) *Irabacy ahal duc / ihaurec haren bihotça.* (Edipa 842)
- (369) *Nik ere orai gizün bat / ahal banü gorteiatü, / seküla egitekotz / orai ordü nikezü.* (Malqu 182)
- (370) *Orai artio ere nik / sinhexi ahal zütüt.* (Malqu 232)
- (371) *Neskatila maradikatü hüra / ezin beität garhaitü.* (Malqu 334)
- (372) *Hik ene emaztia / ezin dük gorteiatü.* (Malqu 577)
- (373) *Eta voto houra diant / ecin orano complitu* (SteEli 1090)

- (374) *Ordu artecan bildu ahal çutian obra houn eta merechimentu orotaric bilaiciric da. (Medit 32)*
 (375) *Gomendatcen deiçut ene exaiac eta tratamentu gaichto çouimbait eguin ahal deitaden guciac. (Medit 175)*
 (376) *Gero obra hunik egin ahal dügünian. (Etchahun “Jinkuaren maniak”).*
 (377) *Idi bat ahal badiüt ediren, / gero haren jatera. (CanBel 274)*
 (378) *Birjina saintiec ecin merechitu beitieltcia. (MaiMarHil 132)*
 (379) *Pharcamentu eske nago çuri ene izpiritiaren barreamientiac eta ene bihotçaren hostarçunac eraguin ahal dereiztaden hutsez. (MaiMarHil 137)*
 (380) *Eztzien jalkheraci ahal Olocoueco hiritic. (SGrat 15)*

Goikoei -(te)(ke) morfemadunak emendatu behar zaizkie (381)-(388).

- (381) *Ikoussiric ecin datequela eguin arcordu ossoric. (Etchart 3, 1r)*
 (382) *Ecin arcordu bidescoric eta eguiascoric eguin date. (Etchart 5, 1v)*
 (383) *Egin eta pensatu ahal bait duke. (Tt Arima)*
 (384) *Erori ahal baitzinate. (Tt Arima)*
 (385) *Bere contre eguin ahal dutukian bekhatiac oro. (Othoitce 15)*
 (386) *Heben mintzo ezpakirade hobe(ki) egin ahal lütükienek dereikie balima barkhatuko. (Egiat I “Hitzauria”)*
 (387) *Berantu gabe, nahi bada egon ahal çatekian, mendier gainti eta lehia handitan abiatcen da Maria. (MaiMarHil 42-43)*
 (388) *Galthatu ahal çukien permissionia gabe bilkhuretara jouaitetic excusatu diratekian. (HOrdre 21)*

Ahal partikulak ez du beti potentziala adierazten: menturazko balioa ere karreia baitezake bereziki (389). Joskera sintetikoaren atalean erran den bezala (§ 4.2.2), ezezko perpausetan [*ez* + *ahal* + ad. laguntzailea] ordena markatua ageri da menturazkoa adieraztean (389), (394) & (395), potentzialaren adierazpenak ordena neutroa agerrarazten duelarik [*ez* + ad. laguntzailea + *ahal*]: *Ez eztugu houra merechitcen ahal Gincouaren graciaz baicic (DKhi 26).*

- (389) *Bena holakorik orano ez ahal dizügü ikusi. (Chiveroua 55)*
 (390) *Aiei jaunac! Eta / hanitz egon ahal niz! (SteEli 528)*
 (391) *Zük ikhasi ahal düzü zekürria. (Etchahun “Eihartxe eta Miñau”)*
 (392) *Ha! Ha! Jentiak, arauz / erhotü ahal zirie. (CanBel 83)*
 (393) *Jauna, gützaz erri egitera / jin ahal zira espresüki. (CanBel 74)*
 (394) *Xüti ebiltan orano / ez ahal die ikhasi. (CanBel 79)*
 (395) *Grat Aphezcupu cen demboran, ez ahal cen izan berritzapen handiric. (SGrat 6)*

Markatzekoa da, halaber, *temps surcomposés* direlakoan erabilera (396)-(402), Aldairen proposamenean *perfektu-perfektibo bikoitzak* (2006).⁴³⁷ Erantsitako *izan* edo *ükhen* hauek

⁴³⁷ Perfektu-perfektibo bikoitzek ekintza edo gertakari bat iraganaldian kokatzen dute, aspektu burutuaz. Perifrasi hauek sustut Iparraldeko mintzoetan izan dira erabiliak, baina ez bakarrik; hartu dituzten adierak, aldiz, ez letozke bat (Aldai 2006: 33). XVII eta XVIII. mendeetan zehar beste eremuetan bigarren laguntzaileen arteko bereizkuntza *izan*-en alde galdu baldin bada, Ekialdean *izan* / *ükhen* pareraren bereizkuntzak luzazkiago iraun du. Euskararen kokapenaren aldetik, erran dezagun perfektu-perfektibo bikoitzak okzitanieran eta frantsesean existitzen direla —bai eta harago ere: Suitzako alemanez (Aldai *ibid.*)—, baina ez gaztelaniaz. Aldairentzat Mendebaldeko Europako ezaugarri areal bat bada (*ibid.*), Lafonek euskaldun elebidunek mailegatutako ezaugarri gisa esplikatzen du, sekulan hizkuntza mintzatuan egiazki baliatu izan denetz duda eginik ere (1943 II: 120-121).

ekartzen dituzten ñabardurak ez dira aise definitzen: “Adierak ez dira errazak jeneralizatzeko, ez euskara barruan ez hizkuntzen artean” (Aldai 2006: 32); “Dans beaucoup de passages l’adjonction du participe passé de l’auxiliaire à une forme qui contient déjà un participe passé ne paraît pas modifier la signification” (Lafon 1943 II: 119).

Hemen perfektu-perfektibo bikoitzek ekintza edo gertakaria burutua azpimarratzen dutela baizik ez dugu erranen. *Ahal/ezin* partikulekiko perifrasiak aspektuaren araberako banaketa erakuts balezate —hots, part. inperfektibozkoak beti aspektu burutugabea adieraz baleza, eta part. perfektibozkoak beti aspektu burutua—, ekialdeko euskarak ez luke perfektu-perfektibo bikoitz hauen beharrik, baina errana dugu: testuek ez dute halako banaketa erakusten. Beraz, euskara batuaz pentsaturik honako baliokidetza orokorra ezar daiteke: *Ez naiz sartu ahal* (edo *ezin naiz sartu*) ‘ez naiteke sar’ vs. *Ez naiz sartu ahal izan* (edo *ezin izan naiz sartu*) ‘ez dut sartzerik izan’.

Bestalde, *ahal/ezin* partikularekin, Zuberoako egileek aditz nagusiaren araberako hautuak egiten dituzten perfektu-perfektibo bikoitzetan: iragankorrenzat *ükhen* txertatzen dute, eta iragangaitzetan *izan* (396)-(402).

- (396) *Amourio infinito bat, merechi duçun objet ederra, noula offensatu ahal ukhen çutut?* (Othoitce 23)
- (397) *Egundano Thebassen / eniz sarthu ahal içan.* (Edipa 004)
- (398) *A. Bekhatu Originaletic chahatcen du, bai etare beste bekhatu sorthuz gueroz batheyatu denac eguin ahal ukhen dianetaric.* (DKhi 53)
- (399) *Nula hori egin izan ahal da?* (CatS)
- (400) *Nula hanitz estranjer beitzen, ostatiirik etzien ediren ahal ukhen.* (CatS)
- (401) *Haren berri galthatu gabe chehe chehia ikhoussi ahal ukhen çukien orori.* (MaiMarHil 78)
- (402) *Tanpez hougnaç inkantatu ceitcen, berant artio ez zotukatu ahal izan.* (SGrat 11)

Azkenik, perfektiboaren gaineko ahaleko perifrasiak laguntzaileek *-(te)(ke)* morfema ere hartzen ahal dute (407-413). Kasu hauetan ez da beti argi menturazko balioa ageri den.

- (403) *Egin eta pensatu ahal bait duke.* (Tt Arima)
- (404) *Bere contre eguin ahal dutukian bekhatiac oro.* (Othoitce 15)
- (405) *Hala noula erran den parropiac jardietsi ahal çutukianac goure aïtciniceco erras ouhouratietatic, içan ditian ez deus baliotaco, eztenaz gueroz nekez baïci idokitcen ahal cerbaït hountarçun.* (Ressegue 14)
- (406) *Heben mintzo ezpakirade hobe(ki) egin ahal lütükienek dereikie balima barkhatuko.* (Egiat I “Hitzauria”)
- (407) *Certain hauçe ahal çuntukin Gincouaren eta eliçaren maniac.* (UskLi 86)
- (408) *Berantu gabe, nahi bada egon ahal çatekian, mendier gainti eta lehia handitan abiatcen da Maria.* (MaiMarHil 42-43)
- (409) *Galthatu ahal çukien permissionia gabe bilkhuretara jouaitetic excusatu diratekian.* (HOrdre 21)

4.3.2.2. [Partizipio imperf. + *ahal/ezin* + *izan*, **edun*].

Inperfektiboaren gaineko *ahalekiko* perifrasiak ekialdean azaleratuko zen, gero Iparraldeko gainerako mintzoetan hedatzeko eta azkenean partizipio perfektibozko perifrasiari gailentzeko.

Desde la segunda mitad del s. XVII aparece en autores suletinos *-t(z)en ahal dut* (*nuen*, etc.); a partir de mediados del XIX se extiende a otros autores septentrionales, y su uso se hace gral. y dominante al Norte, aunque sin llegar a desplazar a *ekar ahal dezaket* (*nezaken*, etc.). (*OEH* s.v. *ahal* I 1.A)

Beharbada Zuberoan edo haren inguruetan sortua izateaz gain, [inperfektibo + *ahal* + *izan*, **edun*] perifrasiak arras ohikoa da testuetan zehar, ohikoena ere —eta diferentzia handirekin; zifreetarako ikus 113. taula—. Tartasengandik arras ongi lekukotua da; aldiz, Etchartek bere gutunetan (1616) ez ematea adierazgarria dateke. Ondoan testu gehienetako adibide bana agerrarazten da (410)-(436). Aditz laguntzailearen hautapenez denaz bezainbatean, oro har erran daiteke aditz nagusiaren araberrako laguntzaile iragangaitz edo iragankorrek ageri direla (*izaten ahal niz* vs. *egiten ahal düit*), baina ez da kontra-etsenplurik falta (428), (434).

- (410) *Bizi gireno erorten ahal gira, hilez geroz ez.* (Tt Onsa)
- (411) *Gauza inposibliaren egitera ezta nehor obligatzen ahal dianik,* (Tt Arima)
- (412) *Espjritu gaistoaren tentacionia garhaitcen ahal cianaz gueroz.* (Bp I 53)
- (413) *Libru gaitzo ez gaizto içaten ahal direnac eztutugu behar iracourtu.* (CatOlo 40)
- (414) *Norc nahi beyta batheyatcen ahal dia?* (CatOlo 81)
- (415) *Instant batec idekiten / Ahal dereic paradussia.* (Othoitce 73)
- (416) *Eçtela ihour ni urgaiçten, soltatcen, eta salbatcen ahal nayanic.* (Mst IV 4, 5)
- (417) *Aurhideoac ppherestaturen ahal dutu torchac.* (Ressegue 37)
- (418) *Hirour pressounatan bat, / noula içaten ahal da?* (StJul 1206)
- (419) *Deus ere mintçatu gabe / espranitcen ahal ducq mihia.* (StJul 627)
- (420) *Batec erranen du botz ençuten ahal den batetan.* (Mercy 29)
- (421) *Berri handienna / Heltcen ahal dena / Haur duciela.* (NLilia 6)
- (422) *Hiq eguin accioniaq / nourq ahal dutu sofritcen?* (Edipa 711)
- (423) *Sira tranquilqui / egoiten ahal çira.* (Xarlem 32)
- (424) *Nour içaten ahal da / naturaren buruçagui? / Eta nour buhurtcen ahal da / araguiaren desirari?* (SteEli 312)
- (425) *Haurric hoborouec etciela ikhasten ahal catichima berria oro.* (DKhi 5)
- (426) *Iracourten eztaquienec erraiten ahal dicie Pater, Ave eta gloria bat.* (Khurutch 6)
- (427) *Etcielacoz ounxa enthelegatcen ahal Ciberouan.* (Medit 7)
- (428) *Khurutchiaren bidia establituric den elicetara joaiten ahal eztieneç, eguiten ahal die khurutchiaren bidia.* (Ip KurBD 6)
- (429) *Erranic içan da eztela Ordrian sartcen ahal persouna praüberic.* (HOrdre 21)
- (430) *Ihourc ere eztu ikhousten ahal Jincouaren erresouma.* (EvS 3, 3)
- (431) *Necessitatian nor nahic batheiatzen ahal dia?* (Catuchuma 42)
- (432) *Eta haren emastia / Arlaita ahalkegabia, / deitzen ahal dügü, / gizon saflazalia.* (Jouanic 4)
- (433) *Bena eniz sartzen ahal / xehetarzünetan.* (Malqu 41)
- (434) *Ixilic egoiten ahal düzü.* (CanBel 390)
- (435) *Lo egoiten ahal gütüç / oren bat edo biga.* (CanBel 491)
- (436) *Enüzü haboro egoiten ahal / zuri deklaratiü gabe.* (Chiveroua 278)

Ezintasunaren adierazpenean hiru aukera dira: a) *ahal* ezezko moldean (430); b) *ezin* partikularen baliatzea (437)-(454); edo c) *ezin* & *ahal* batera erabiltzea (*vid. infra*).⁴³⁸

- (437) *Egia da immortal dela bere naturaz, ezin hilzen dela.* (Tt Onsa)
 (438) *Akisizaliak ezin bere konserbatzen dutu, zeren bertzeren honak baitira; ezin rendatzen du emailari.* (Tt Arima)
 (439) *Meça ecin ençuten dianian.* (Bp I 107)
 (440) *Ecín ihour salvatu içaten da confessatu liçan ordian bekhatu harez.* (CatOlo 74)
 (441) *Juge justo houra ecin enguanatcen duc.* (Othoitce 76)
 (442) *Haçcurru ecin ikhouston den bateç açcartcen da.* (Mst IV 10, 6)
 (443) *Ecín jouaiten badira cegnu deia ençunen duyenian* (Ressegue 8)
 (444) *Ecy guiçonaq hainbeste / magia ecin phenxatcen diq.* (StJul 984)
 (445) *Assestitcen ecin direnec erranen duye bost Pater.* (Mercy 30)
 (446) *Ecín despenxatcen nuçu / erran gabe eguia.* (Edipa 907)
 (447) *Nour den descoubritu gabe / ecin niz egoiten.* (SteEli 81)
 (448) *Ecín diçut pacentciatcen, / eniaukeçu haboro!* (SteEli 1164)
 (449) *[Maria Virgina Saintac] beitu titre ecin comunicatcen den bat.* (DKhi 78)
 (450) *Ouhouiñec ecin eramaiten dien tresora.* (MaiMarHil 61)
 (451) *O amourio ecin estimatcen dena! Uthurri ecin agortcen dena!* (Myst 40)
 (452) *Bai aita, ni heben nüzü / ezin ukatzen düdana.* (Petit Jean 53)
 (453) *Eta haren sentimentia / ezin beitiüt ezagützen.* (Malqu 269)
 (454) *Nik zer jan balin badüt, / untsa baizik ezin izaten nüik.* (CanBel 405)

Errana baita, ezintasunaren adierazteko tenorean *ezin* & *ahal* partikulak batera ager daitezke inperfektibozko perifrasietan. Mounolek Maisterrengan atzeman badu (2011: 245), gure corpusean Tartas, *CatOlo*, *Othoitce*, *StJul*, *Mercy*, *SteEli*, *DKhirist*, *HOrdre*, *CatS*, *Urruty* eta pare bat astolaster ere badira molde horren lekuko (455)-(487). Beraz, konbinazioa hori normaltzat har daiteke Zuberoako euskara zaharrean. Behin bi partikulen bateratze hori izenondo funtzioan ageri da: *Entçunac, ikhousiac, / cheste eta senditiac / Ecín suporta ahal becein / gaisto eta loxagarriac* (SteEli 926). (455) eta (456) adibideetan aditz nagusia eliditua dela konpreni daiteke.

- (455) *Ezin deus ahal dukedala, zure gratia gabe.* (Tt Arima)
 (456) *Eztudala deus eta ezin deus ahal dukedala.* (Tt Arima)
 (457) *Biak algarreki ezin onsa egoiten ahal dira.* (Tt Arima)
 (458) *Deuz ere ecin sufferitcen ahal dian bat.* (CatOlo 33)
 (459) *Edertarçun ecin erraiten ahal dena.* (Othoitce 23)
 (460) *Ecín erraiten ahal den banket hartan.* (Othoitce 33)
 (461) *Badakiçu ecin obratcen ahal dutudala [...]erresolucioniac.* (Othoitce 13)
 (462) *Adichkide bat gabe, ecin ounxa bicitcen ahal cira.* (Mst II 8, 3)
 (463) *Urgulluxu ihoulere ecin içaten ahal dira.* (Mst II 10, 4)
 (464) *Jinco ecinago handiac emaiten dian gaiça ecin tchipi içaten ahal da.* (Mst II 10, 5)

⁴³⁸ “En lo que respecta al uso de *ezin* frente a *ez* más forma verbal potencial, parece que en textos de los ss. XVI, XVII y XVIII, *ezin* es más frecuente (excepto en Dechepare, en el que predomina *ez*); en el s. XIX, especialmente desde su segunda mitad, hay una tendencia al uso creciente de *ez* en los meridionales, siendo ésta todavía mayor al Norte, donde apenas se encuentra algún autor que use exclusivamente *ezin*, y son relativamente pocos los que utilizan ambas formas. Esta tendencia se mantiene o acentúa en el s. XX” (OEH s.v. *ezin* 1).

- (465) *O mundiaren creaçale Jinco ecin ikhouston ahal cirena.* (Mst IV 1, 10)
 (466) *Ecín eçagutu içaten ahal diren maneria elibateç.* (Mst IV 18, 5)
 (467) *Ecín eçcapiric eguiten ahal dienetan.* (Mst II 1, 3)
 (468) *Ecín huxic eguiten ahal deiçunaren ajutu fidelari gomenda cite.* (Mst II 7, 2)
 (469) *Ecín içaten ahal dela / gaiça curiousagoricq.* (StJul 0106)
 (470) *Ecín erraiten ahal dun / jalkitcen içala herriticq.* (StJul 113)
 (471) *Eta hary eçcapiricq / ecin eguiten ahal dugula?* (StJul 527)
 (472) *Çoure gracia saintutic ecin privatu içaten ahal niçan maneria batez.* (Mercy 3)
 (473) *Çoure gloria saintutic ecin separatu içaten ahal niçan bonur infinito batez.* (Mercy 3)
 (474) *Ecín sofritcen ahal dut / beguien aiccinian!* (SteEli 1536)
 (475) *Entçunac, ikhousiac, / cheste eta senditiac*
 (476) *Ecín comprenitcen ahal denbat.* (DKhi 16)
 (477) *Caractera ecin galtcen ahal denbat.* (DKhi 52)
 (478) *Judith ecin goitcen ahal dena.* (HOrdre 77)
 (479) *Klarki eta ezin ükhatzen ahal den gisa batez.* (CatS)
 (480) *Hura da tresor ezin estimatzen ahal den bat.* (CatS)
 (481) *Hura da irusitate ezin estimatzen ahal den bat.* (CatS)
 (482) *Badira hirur arimari ezin galtzen ahal den señale bat.* (CatS)
 (483) *Arimari ezin galtzen ahal den señale edo karaktera bat.* (CatS)
 (484) *Grazia ezin estimatzen ahal denaz Jinkuari eskerrak eman.* (CatS)
 (485) *Erreçebituco ducie cin galtcen ahal den gloriaren khoroua.* (Epi I 5, 4)
 (486) *Bena mement huntan / Deus ezin egiten ahal zaie.* (Recoquillart 164)
 (487) *Sekulan ezin jalkiten / ahal zitziat bihotzeti.* (Chiveroua 147)

Izan & **edun* laguntzaileekiko ahalezko perifrasiak geroaldira bihurtzen direlarik, espero izateko emaitzak, gaingiroki, *-ko* marka inplikutzen du, partizipio prospektiboaren barnean zein *ahal* partikulari erantsia, edo [*ahal/ezin* + *izanen/izango*] moldean (cf. § 4.3.2.3). Zuberoako zenbait testuk, aldiz, beste aukera bat erakusten dute: *-(te)(ke)* morfema imperfektibozko perifrasiari. Gure corpusean hiru dira testu horiek: Ressegue (Eskiula, 1758), Mercy (Eskiula, 1780) eta *Heren-Ordreco escu libria* (Oloroe, 1860). Geroaldiaren adierazpenari doakionean, hirurak zinez aberatsak dira, arautegiei berezkoa zaien preskriptibotasunak horrela ekartzen baitu naturalki. Orotara [part. imperfektibo + *ahal* + *izan*_{+KE}, **edun*_{+KE}] moldearen dozena bat agerraldi bildu dugu (488)-(499).

- (488) *Algarganacen ahal dirate bi hilabetetariç by hilabetetara.* (Ressegue 31)
 (489) *Aiphatcen ahal dutukeye aurhidegoaco eguinbeharrac eta mengoac.* (Ressegue 24)
 (490) *Çoignetan irabazten ahal beytirate çazpi ourtheren eta çazpi berroquey egunen indulgenciac.* (Mercy 9)
 (491) *Arima su biciagouec devocionian eguiten ahal dukeye haborouago.* (Mercy 26)
 (492) *Personna iracourten eztakienec empletatçen ahal dukeye oren houra.* (Mercy 27)
 (493) *Bena continuatcen ahal dukeye orano beste hirour outhetz.* (Mercy 36)
 (494) *Continuatcen ahal tukeye sacristaigna, tresoriera eta khantariac confrariaco beharrac galthatcen dian beçanbat.* (Mercy 37)
 (495) *Goure decretaren iracourtia eguiten ahal dukeye.* (Mercy 43)
 (496) *Direturrec excusatcen ahal dutukie ahurrhidiac vigiliataric.* (HOrdre 27)
 (497) *Aürrhidiac profieitatcen ahal dirateke ber privilegiouaz.* (HOrdre 11)
 (498) *Eriac excusatcen ahal dirate officiouaren erraitetic nahi badira.* (HOrdre 15)
 (499) *Segnaturic içan diatekienec araguiz usage eguiten ahal dukie hirour egunez arrount.* (HOrdre 11)

Partizipio imperfektiboa + *(te)(ke)* morfema konbinatzen dituen perifrasiak eta partizipio prospektiboa inplikatzeko duenak baliokideak dirudite: *a priori* biek aspektu ez-burutua adierazten dukete. Hortaz, uste dugu bi aukera horien baliatzea estilo aldakortasun gisa kontsidera litekeela. 111. taulak imperfektiboa + *(te)(ke)* moldea ematen duten testuen lekukotza biltzen du; partizipio prospektiboaren gaineko etsenpluentzat ikus § 4.3.2.3.

111. TAULA. *Izan & *edun*-ekiko ahalezko perifrasiak geroaldian.

	inperf. + <i>-(te)(ke)</i>	prospektibo
Ressegue (1758)	2	6
Mercy (1780)	6	-
<i>HOrdre</i> (1860)	5	6

Ahala geroaldirat igortzeko bi manera horiek batera ageri dira (500)-eko adibidean.

(500) *Hala hala lan penibletan occupatcen direnec eguin ahal die egunian hirour apairu Bazcos hassiric Joundane Gneli, arkangeliaren bestala drano; eta nouiz eta ere lanian ariren beitira besteren etchen jaten ahal dukie aldi oroz presentatcen çaiën araguitic salbu ostiralez, neskenegunez eta Eliçac manhatcen dutian barour eta Vigilia egunez. (HOrdre 12)*

4.3.2.3. [Partizipio prosp. + *ahal/ezin* + *izan, *edun*].

Potentzialeko perifrasi berrien multzoan, partizipio prospektiboaren gainean eraikia ezohikoena da. Historikoki modaltasunak geroaldia ere adierazi ahal izan baitu, partizipio prospektiboarekiko potentzialeko perifrasiak ez zatekeen hain beharrezkoa:

Quant à la périphrase [participe prospectif + *izan* « être » / **edun* « avoir »], elle est très rare en contexte de potentiel. Zulaika (1998 : 531, 540) en relève quelques exemples dans les textes de Leizarraga : un seul accompagné de la particule *ahal*, plusieurs avec *ezin*. Ce sont les seuls exemples de ce type rencontrés dans les textes des 15^{ème} et 16^{ème} siècles. Deux siècles plus tard, cette périphrase sera très souvent employée dans les textes guipuzcoans et souletins pour rendre le potentiel futur. (Mounole 2011: 127)

Geroaldia adierazten dutelarik, *ahal* partikularekiko perifrasiak ez du forma bakarra hartzen euskal herri guztietan. Mintzoak eta garaiak *totum revolutum* batean bildurik, hiru aukera dira: a) *-ko* marka partizipioari eranstea —*egingo/eginen ahal dut*—; b) *ahal* partikulari zuzen eranstea —*egin ahalko dut*—; eta c) txertatua den *izan/ukan* pareari eranstea —*egin ahal izango dut*—.

En la tradición meridional lo más habitual es *a(a)l izango*; hay tbn. participio + *-ko* + *(a)al*, en Moguel, Astarloa, Alzaga, T. Agirre, Zaitegi y Orixe. Hay participio más *alko* en Zaitegi, con *algo* en T. Etxebarria y con *aalgo* en Berrondo; con un vb. sobreentendido hay estas formas ya en Añibarro: *zelan alko dozu* (GGero 184), *eztakigu gero algo badogu* (ib. 363). Al

Norte la construcción tradicional es part. + *ko* (o *-(r)en*) + *ahal*, pero desde el s. XIX alterna con *ahalko*, que llega casi a desplazar a la anterior en el XX. (OEH s.v. *ahal* I 1C)

Kronologiari erremarkatuz, jada Oihenartek erabili zuen [part. prospektiboa + *ahal* + ad. laguntzaile] perifrasi (501). Bigarren agerraldia zazpi hamarkada berantagokoa da (502), eta hortik aitzina erabilpena emeki joanen da emendatuz, XIX. mendean ohikoagoa gertatzen denean.

- (501) *Enganatuko bide zira / gaurger', orano bezala, / baduz' uste zure begira / Egonen ahal nizala, / Hautuagorik zu bano / deiez ondotik dautano.* ‘Vous vous tromperez sans doute si vous croyez qu'à l'avenir je pourrai, comme je l'ai fait jusqu'à présent, rester à vous attendre pendant que de plus distinguées que vous m'invitent à les suivre’ (O Po XXIII 2)
- (502) *Oihuz, heiaigoraz, plagnuz inutilki / Ifernian bethi egonen ahal iça?* (Othoitce 78)
- (503) *Jesus çoureki bada, exayec batec ere eçteçu oguenic eguinen ahal.* (Mst II 8, 2)
- (504) *Ni noula oren bateç adelaturen ahal niç.* (Mst IV 1, 4)
- (505) *Bilduren ahal duie berriz haïtatceco votça.* (Ressegue 28)
- (506) *Officierac berriz eçariren ahal dira cargutan hirour ourtheren burian.* (Ressegue 28)
- (507) *Jakineraciren deyo çoin egunetan hartu içanen ahal den.* (Ressegue 33)
- (508) *Aurhidegoac ppherestaturen ahal dutu torchac.* (Ressegue 37)
- (509) *Gaiça baliouenac [...] edukiren ahal dutu beraren edo priorearen etchen.* (Ressegue 38)
- (510) *Orduian aïpphaturen ahal du bilkhurary cer eçari dukian.* (Ressegue 39)
- (511) *Ouste dit haren condutaz / fidaturen ahal dela.* (StJul 96)
- (512) *Bena cerbait berri arauz / jakinen ahal dut han.* (SteEli 475)
- (513) *Sofrituren ahal duta / beguien aïtcinian?* (SteEli 554)
- (514) *Nourc suportaturen ahal du?* (UskLi 127)
- (515) *Atxikiren ahal tüzü / zihauerek hitzemanak?* (Malqu 451)
- (516) *Guero batec iracourriren du, bestec entçunen ahal dien beçala.* (MaiMarHil 11)
- (517) *Debria ezta behinere lo; unguuru unguuru ari çaiçie, gose errabiareki den lehöa beçala, erphai, nouiz iretsiren ahal çutien.* (MaiMarHil 28)
- (518) *Orhituric eztiala egun batez hala hala idokiren ahal bere bourreuen aztaparretaric.* (MaiMarHil 70)
- (519) *Haregatic nahi direnac sarthuren ahal dira beste Ordre approbatu batetan.* (HOrdre 7)
- (520) *Emazte ezcontiac eztira errecebituric içanen ahal Ordre hountan.* (HOrdre 7)
- (521) *Lan penibletan occupatcen direnec eguinen ahal die egunian hirour apaïru.* (HOrdre 12)
- (522) *Direturrec iracourriren ahal dutie explicacione horic.* (HOrdre 24)
- (523) *Herentarrec dispensa horic aisa ukhenen ahal dutie.* (HOrdre 28)
- (524) *Ordretic khenturic içanen ahal dira.* (HOrdre 21)
- (525) *Badabila cien unguurian lion bat orrouatuz beçala, tcherkhatuz çougn iretxico ahal dian.* (Epi I 5, 8)

Ezintasuna adierazten dutenen artean, *ahal* lau aldiz ageri da ezezko perpausetan (526)-(529), eta *ezin* hiru aldiz [*ezin* + part. prospektibo + ad. laguntzaile] egituran (530)-(532).

- (526) *Ihourcq ere etçiala deus / erosiren ahal ez salduren.* (StJul 050)
- (527) *Enuçu secular digne içanen ahal.* (UskLi 109)
- (528) *Ez-ez eztuçü herioua baycic arrestaturen ez chucaturen ahal dutinic ene nigarrac.* (UskLi 221)
- (529) *Hanitchec cherçatuco die hartaric igaraitia eta ez die ahal ukhenen...* (Medit 69)
- (530) *Emaztiac ecin edirenen dira bilkura hoyetan.* (Ressegue 28)
- (531) *Malur hau ecin arraparatuco da.* (Medit 67)

(532) [*Badakie*] ordian ezin elkhiko direla bere khobaiñetik. (Ip Dial 6. elh.)

Preseski adierazi behar dugu Zuberoako testuetan ez dela *ahalko* edo *ezinen* bakar bat ere, *EKC*-ren emaitzekiko koherentzian: *ahalko* Lapurdin eta Nafarroa Beherean lekukotzen du, baina ez Zuberoan; *ezingo* & *ezin izango* soilik Hegoaldeko testuetan aurkitzen da (*OEH* s.v. *ezin*). Beraz, Zuberoan *ahal/ezin* parearekiko perifrasi berrietan —i.e., *izan* & **edun* laguntzaileekikoetan— geroaldia partizipio prospektiboaren bidez adierazia da (501)-(524). Horrek, hein batean, ekialdean *ahal* partikularen gramatikalizazioa beste eremuetan baino gibelatuago dela iradoki lezake.

Bestalde, XIX. mendearen azken hereneko testu batzuek *ahal izanen/ükhenen* moldearen nolabaiteko agerpena lekukotzen dute (533)-(536). Guztira lau agerraldi baizik ez badira ere, ikusten da *temps surcomposés* direlakoan laguntzaileen bereizkuntza bera gertatzen dela.⁴³⁹

Kasu hauetan perifrasi partizipio perfektiboan datza.

(533) *Ez eta nahigabec ere ezpenaie, çoureganic hurunteraci ahal ukhenen.* (Myst 44)

(534) *Gincouaren colerari nour buhurtu ahal içanen da?* (Myst 16)

(535) *Plazeretan bici cirena, noula bici ahal içanen cira sugarretan bethierecoz!* (Myst 17)

(536) *Gincouac nahi ciala khen lezan guerrentetic burdun khatia, zouignekei nekez baici ezeptzutian eguin ahal ukhenen bere eguinbide zoubait.* (SGrat 8)

Perfektibozko eta imperfektibozko perifrasietan bezala (bai eta joskera sintetikoan ere), *ahal* partikulak zenbaitetan menturazko balioa ematen dio perpausari; kasu hauek ez dira potentzialeko perifrasiekin nahasi behar (537)-(538):

(537) *Hitaz ez ahal dik ihurk / eginen khuntü haundirik.* (CanBel 465)

(538) *Hori etsenplü hüna dük / arrastako emazten; / ez ahal die ükhenen / axol handirik giziünen.* (CanBel 498)

Azkenik, gogoratu behar da perifrasi honek desioa eta igurikimena adieraz dezakeela, batez ere mendebaldeko euskalkietan, baina baita Lapurdin eta Nafarroa Beherean (cf. VI, § 2.3.7).

Zuberoako corpusean balio hori behin baizik ez dugu atzeman, ondoko madarikazioan:

(539) *Khurutçhia deitaqua orai / eni aiphatçen heben? / Larria elkhiren ahal çeiq / etçhera beno lehen.* (Malqu 430)

⁴³⁹ *EKC*-ren emaitzetan oinarriturik, badirudi *ahal izanen* moldearen lehen lekukotasuna Duhalderena dela (1809), lau agerraldirekin. Ondoren Duvoisinek (dozena bat agerraldi) eta Lapeirek (biga) ematen dute. XX. mendeko testigantzak Zuberoakoak dira: Constantinek eta Mirandek zortzi eta bi agerraldi dakarte, hurrenez hurren. Beraz, *ahal izanen* Iparraldeko molde berrizat har daiteke. Urthek zortzi aldiz erabili zuen *ahal izango*, betiere *EKC*-ren arabera. Bestalde, corpus horrek ez du behin ere *ahal uk(h)enen* ematen, ez eta ezezko perpausetako ordenan ere.

4.4. Ahalezkotasuna adierazten duten elementuen arteko lehia

Orain arteko guztiaren gaineko ikuspegi orokor baten erdiesteko, corpusetik idoki datuak hiru ardatzetan erkatuko ditugu: 1) joskera sintetiko vs. analitikoa; 2) *-(te)(ke)* morfema vs. *ahal/ezin* partikulak; eta 3) perifrasi zaharrak vs. perifrasi berriak.

Atal honen akabantzan hiru taula adalatu dugu. 112. TAULAK *-(te)(ke)* morfema baliatzen duten perifrasi zaharrak biltzen ditu *-(te)(ke)*-dun forma sintetikoen pare, hauek ere zaharrak baitira. 113. TAULAK, aldiz, *ahal/ezin* partikulekiko perifrasiaren eta forma sintetikoen agerpena jasotzen du; azken taula honetan perifrasi motak oro dautza, aditzaren forma ez-jokatuaren arabera sailkatuz. Azkenik, 114. TAULAK perifrasi zahar eta berrien arteko konparantza orokorra egiten du, testuka zein mendeka, *ahal/ezin* partikulekiko agerraldietan oinarrituz.

4.4.1. Joskera sintetiko vs. analitikoa

Adizkera trinkoaren bilakabide errezesiboa ezaguna da (cf. V, § 3). Hortaz, ahalezkotasunari lot daitezkeen aditz trinkoena espero bezalakoak da: errezesiboa. Orotara, Zuberoako testuen corpusean *-ke*-dun aditz sintetikoak 56 dira (112. TAULA), horietatik 27 Oihenartenak eta beste 10 Tartasenak. Mendeka antolaturik, XVII.era artio 42 forma ageri dira, XVIII. mendean 5, eta XIX.ean 9. Kopuru horietaz harago, azpimarkagarriena da molde trinkoan joskatuak diren aditzen kopurua (cf. § 4.2.1), Oihenartengandik kanpo multzo hertsia bati mugatua: *eduki*, **edun*, *egon*, *izan*, *jakin* & *joan*. Hauen ondoan, *-(te)(ke)* morfema *ahal/ezin* gabe hartzen duten forma perifrastikoak bakarrik **edin* & **ezan* parearentzat 102 dira. Bistan denez, kopuru hori anitz emendatzen da *ahal/ezin* partikulekin batera ageri direnak edo *izan* & **edun* laguntzailekiko perifrasiak ere kontuan hartuz gero.

Ahal & *ezin* partikulekiko aditz sintetikoek 42 agerraldi dute corpusean. Kronologiaren aldetik, hauen agerpena ez da *-(te)(ke)*-dunena bezain markatua: XVII. mendean 18, XVIII. mendean 7, eta XIX. mendean 17. Menturaz konparantza interesgarriagoa gertatzen da tradizioei erremarkatuko badiegu: XVIII. mendetik aitzina tradizio mistoko testuek 20 agerraldi lekukotzen badute, tradizio idatzian sartzen direnek 4 baizik ez. Kopuru eskas horiei alderaturik, *ahal/ezin* pareak 1.100etik goiti agerraldi du joskera perifrastikoan (113. TAULA).

4.4.2. *-(te)(ke)* morfema vs. *ahal/ezin* partikulak

Bigarren ardatz honetan datuak aski ñabarrak dira. 112. TAULAK erakusten baitu, **edin* & **ezan* laguntzailekiko perifrasiarentzat mugatuz gero, nekez ikusten dugu *-(te)(ke)* morfemaren erabileraren eta *ahal/ezin* partikulenaren arteko banaketa edo lehia argirik. Hau da, garai guztietan gertatzen dira batera, bestera zein bietara lerratzen diren lekukotasunak. Adibidez,

Oihenarten atsotizetan *-(te)(ke)* soila nagusi da 13 vs. 1 proportzioan, baina Etcharten gutunerian zenbakiak itzulikatzen dira. Betiere **edin & *ezan* pareari erreferentzia eginez, *Charlemagnen* ez da behin ere *-(te)(ke)*, ez bada *ahal/ezin* partikulekin batera; aldiz, *Saint Julien* edo *Sainte Elisabeth* trajerietan aukera hori herenaren inguruan mugitzen da. *Uscara libria* (1814), *Meditacioniac* (1844) edo *Heren-Ordreco escu libria* (1860) —Elizaren tradizioko XIX. mendeko hiru testu nagusi aipatzearren— oso banaketa kontrajarrien lekuko dira.

4.4.3. Perifrasi zaharrak vs. perifrasi berriak

Hirugarren konparazio ardatza perifrasi moten arabera da, horien sailkatze irizpidea aditzaren forma ez-jokatua izanik. Perifrasi hauek bi multzo nagusitan banatu ditugu: zaharrak (aditzoinaren gainekoak) eta berriak (gainerakoak: imperfektibozkoa, perfektibozkoa eta prospektibozkoa). 114. TAULAK *ahal/ezin* partikulekiko perifrasiak oro biltzen ditu, perifrasi motaren arabera, testuka eta mendeka. Horrek bilakaera orokor baten zantzuak ematen ditu: jada XVI. eta XVII. mendeetan perifrasi berriak zaharrei gailentzen zaizkie (%60 eta %40, hurrenez hurren), XVIII. mendean proportzioa hori zerbait areagotzen da (%66 eta %34), eta areago XIX. mendean (%75 eta %25).

112. TAULA. Perifrasi zaharrak balio modalez (\pm ke, \pm ahal/ezin).

	*edin +KE	*ezan +KE	biak	*edin + ahal/ezin \pm KE	*ezan + ahal/ezin \pm KE	biak	*iron \pm ahal/ezin \pm KE	perif. oro	trinko +KE \pm ahal/ezin
O Pro ca.1600	3	10	13	-	1	1	14	28	19
Bela ca. 1600									1
Zalgize ca.1600	-	-	-	-	1	1	1	2	2
Etchart 1616	-	-	-	4	10	14	11	25	2
O Po 1657	1	1	2	1	3	4	5	11	8
Tt orotara	1	1	2	3	13	16	33	51	10
PrS 1676	-	-	-	-	-	-	1	1	
Bp 1696	1	7	8	2	4	6	25	39	
CatOlo 1706	-	-	-	4	3	7	14	21	
Othoitce 1734	-	-	-	-	1	1	12	13	
Mst (I&IV) 1757	1	4	5	11	5	16	71	92	1
Ressegue 1758	-	-	-	-	-	-	3	3	
Petit Jean 1769	-	-	-	6	2	8	5	13	
StJul 1770	-	7	7	9	10	19	23	49	1
Mercy 1780	-	-	-	3	6	9	1	10	
NLilia 1782	1	-	1	3	-	4	4	9	
Egiat I 1785	1	1	2	-	-	-	108	110	2
Jouanic 1788	1	-	1	-	-	-	5	6	
Boubane	-	1	1	1	1	2	2	5	
Chiveroua	-	3	3	-	3	3	9	15	
Edipa 1793	-	1	1	8	5	13	24	38	1
Xarlem ca.1800	-	-	-	2	19	21	19	40	
SteEli ca.1810	4	5	9	6	9	15	29	53	3
Malqu 1808	-	3	3	1	3	4	12	19	1
DKhi 1812	-	-	-	2	2	4	3	7	
UskLi 1814	-	1	1	8	6	14	17	32	
CatS ca. 1836	-	2	2	1	3	4	15	21	
Khurutch 1838	-	-	-	-	1	1	-	1	
Medit 1844	3	18	21	2	-	2	81	104	1
Ip KurBD 1847	-	-	-	1	2	3	2	5	
CanBel 1848	-	-	-	1	-	1	-	1	1
Etchahun	-	2	2	1	1	2	19	23	1
Archu Alh 1848	-	2	2	1	6	7	4	13	1
MaiMarHil 1856	1	1	2	2	2	4	14	20	
Ip Dial 1857	2	5	7	2	-	2	4	13	
HOrdre 1860	-	-	-	6	11	17	2	19	
Myst 1862	-	-	-	6	8	14	9	23	
Urruty oro 1873	-	1	1	2	-	2	6	9	1
SGrat 1879	1	-	1	1	-	1	-	2	
Catuchuma 1899	2	3	5	-	-	-	-	5	
Oro	23	79	102	99	141	240	607	949	56

113. TAULA. *Ahal/ezin* partikulekiko aditzen agerpena Zuberoako testuetan.

	trinko			aditzoin + *edin, *ezan, *iron			inperf. + izan, *edun			perf. + *izan, *edun			prosp. + *izan, *edun,		
	<i>ahal</i>	<i>ezin</i>	<i>oro</i>	<i>ahal</i>	<i>ezin</i>	<i>oro</i>	<i>ahal</i>	<i>ezin</i>	<i>oro</i>	<i>ahal</i>	<i>ezin</i>	<i>oro</i>	<i>ahal</i>	<i>ezin</i>	<i>oro</i>
O <i>Pro</i> ca.1600		1	1	1	-	1	-	1	1						
Bela ca.1600															
Zalgize ca.1600					1	1									
Etchart 1616				5	7	12				-	4	4			
O <i>Po</i> 1657	2		2	3	-	3				1	-	1	1	-	1
Tt <i>Onsa</i> 1666	4	5	9	14	10	24	21	21	42	1	-	1			
Tt <i>Arima</i> 1672	3	2	5	5	3	8	13	21	34	2	-	2			
PSing 1676		1	1	-	1	1									
Bp 1696				13	2	15	8	2	10	-	1	1			
CatOlo 1706				8	2	10	19	5	24						
Othoitce 1734				3	-	3	9	5	14	4	-	4	1	-	1
Mst 1757				21	4	25	28	21	49	1	1	2	2	-	2
IP 1757															
Ressegue 1758				8	-	8	8	3	11				6	1	7
Petit Jean 1769							-	1	1						
StJul 1770	1		1	21	1	22	19	10	29	-	3	3	2	-	2
Mercy 1780		1	1	9	1	10	12	8	20						
NLilia 1782				1	-	1	1	-	1						
Egiat I 1785		1	1	22	-	22	8	-	8	3	1	4			
Bala 1788							5	-	5						
Jouanic 1788	1		1				1	-	1						
Boubane				2	-	2	7	2	9				1	-	1
Chiveroua	1		1	3	-	3	12	3	15	1	-	1			
Edipa 1793	1	1	2	14	2	16	10	5	15	3	1	4			
Xarlem ca.1800				23	-	23	4	4	8	-	2	2			
SteEli ca.1810	6	1	7	14	1	15	32	30	62	1	1	2	2	-	2
Malqu 1808	5		5				-	2	2	-	2	2			
DKhi 1812				3	1	4	26	8	34	1	-	1			
UskLi 1814				19	-	19	29	-	29	5	-	5	3	-	3
CatS ca. 1836				6	-	6	83	8	91	3	-	3			
Khurutch 1838				1	-	1	2	-	2						
Medit 1844	1	1	2	5	3	8	12	-	12	2	-	2	1	1	2
Ip KurBD 1847				4	-	4	5	-	5						
CanBel 1848	1		1	1	1	2	6	4	10	4	-	4	2	-	2
Etchahun	2		2	6	1	7	4	-	4	2	-	2			
Archu Alh 1848				11	-	11	6	-	6						
MaiMarHil 1856				6	1	7	21	7	28	3	1	4	3	-	3
Ip Dial 1857				1	1	2	1	-	1				-	1	1
HOrdre 1860				20	-	20	51	1	52	1	-	1	7	-	7
Myst 1862				14	1	15	14	4	18				3	-	3
Urruty 1873				8	1	9	43	1	44				1	-	1
SGrat 1879				1	-	1	3	-	3	3	-	3	1	-	1
Catuchuma 1899							4	-	4						
Oro	28	14	42	296	45	341	527	177	704	41	17	56	36	3	39

114. TAULA. *Ahal/ezin* partikulekiko perifrasiaren agerpena Zuberoan.

	inperf. + <i>izan, *edun</i>	perf. + <i>*izan, *edun</i>	prosp. + <i>*izan, *edun,</i>	Perifr. berriak, orotara	aditzoin + <i>*edin, *ezan, *iron</i>
O <i>Pro</i> ca.1600	1	-	-	1	1
Zalgize ca.1600	-	-	-	-	1
Etchart 1616	-	4	-	4	12
O <i>Po</i> 1657	-	1	1	2	3
Tt <i>Onsa</i> 1666	42	1	-	43	24
Tt <i>Arima</i> 1672	34	2	-	36	8
<i>PSing</i> 1676	-	-	-	-	1
Bp 1696	10	1	-	11	15
XVII. mendea				97 (%60)	65 (%40)
<i>CatOlo</i> 1706	24	-	-	24	10
<i>Othoitce</i> 1734	14	4	1	19	3
Mst 1757	49	2	2	53	25
<i>IP</i> 1757	-	-	-	-	-
Ressegue 1758	11	-	7	18	8
<i>Petit Jean</i> 1769	1	-	-	1	-
<i>StJul</i> 1770	29	3	2	34	22
Mercy 1780	20	-	-	20	10
<i>NLilia</i> 1782	1	-	-	1	1
Egiat I 1785	8	4	-	12	22
<i>Bala</i> 1788	5	-	-	5	-
<i>Jouanic</i> 1788	1	-	-	1	-
<i>Boubane</i>	9	-	1	10	2
<i>Chiveroua</i>	15	1	-	16	3
<i>Edipa</i> 1793	15	4	-	19	16
XVIII. mendea				233 (%66)	122 (%34)
<i>Xarlem</i> ca.1800	8	2	-	10	23
<i>SteEli</i> ca.1810	62	2	2	66	15
<i>Malqu</i> 1808	2	2	-	4	-
<i>DKhi</i> 1812	34	1	-	35	4
<i>UskLi</i> 1814	29	5	3	37	19
<i>CatS</i> ca. 1836	91	3	-	94	6
<i>Khurutch</i> 1838	2	-	-	2	1
<i>Medit</i> 1844	12	2	2	16	8
Ip <i>KurBD</i> 1847	5	-	-	5	4
<i>CanBel</i> 1848	10	4	2	16	2
Etchahun	4	2	-	6	7
Archu <i>Alh</i> 1848	6	-	-	6	11
<i>MaiMarHil</i> 1856	28	4	3	35	7
Ip <i>Dial</i> 1857	1	-	1	2	2
<i>HOrdre</i> 1860	52	1	7	60	20
<i>Myst</i> 1862	18	-	3	21	15
Urruty 1873	44	-	1	45	9
<i>SGrat</i> 1879	3	3	1	7	1
<i>Catuchuma</i> 1899	4	-	-	4	-
XIX. mendea				471 (%75)	154 (%25)
Oro	704	58	39	801	341

4.5. Ondorioak

Ahalezkotasuna deitu dugun kontzeptuaren barnean kokatzen diren potentziala eta menturazko balioak azterkatu ditugu, beroiek adieraz ditzaketen baliabide morfosintaktikoak oro kontuan izanik: *-(te)(ke)* morfema, *ahal & ezin* partikulak, **idi* eta **iro* erroak eta guztien arteko konbinazioak; elementu bakoitza adizkera sintetikoan eta perifrastikoan ikertu da.

JOSKERA SINTETIKOAN

Aditz sistemaren bilakaera orokorrean kokaturik, joskera sintetikoaren pisua beheitituz joan da azken mendeetan gaindi. Joera hori ahalezko formetan ere hautematen da, hala maiztasunean nola molde trinkoan lekukotu diren aditzen multzoan ere: *-(te)(ke)* morfemadunei doakiela, agerraldi gehientsuenak testu zaharretan aurkitu dira. *Ahal & ezin* partikulei begira, horiekin batera ageri diren forma trinkoek ez dute bilakaera guztiz argirik erakusten; izatekotan, testu tradizioek zerikusirik dukete halako formen agerpenarekin: proportzioz, nabarmenki usuago ageri dira herri antzertiko testuetan.

Ezin partikularen balioa *ahal*-ena baino argiagoa da, unibokoa ere: potentzialaren ezeztapena adierazten du beti, hots, ezintasuna; *ahal* partikulak, aldiz, potentziala eta menturazkoa. Hori erranik, ezezko perpausetan kanbiamendu bat sumatzen da: ezintasuna kasik beti *ezin* partikularen bidez adierazia izatetik *ez + ahal* konbinazioaren bidez ere adierazia izatera iragaten da, *-ke* morfemarekin ala gabe. Zuberoan, *ahal & ezin* partikulen gramatikalizazioa beste mintzoetan baino berankorragoa dateke, geroaldiko ahalezko perifrasiaren formak iradokitzen duenez (*vid. infra*). Bestalde, *ezin*-en gramatikalizazioak *ahal*-ena baino lehenagotik abiatua dirudi: testu zaharretan *ezin*-ekiko adibideak bi partikulen agerraldi guztien erdira iristen direlarik, denboraren iragaitearekin *ahal*-ekikoak anitz emendatzen dira.

Zuberoan **idi* erroak badu nolabaiteko agerpena, beste euskal herrietan baino iraunkorragoa: arkaismoaren lekukotza XVIII. mendearen akabantzaraino heltzen da († 1782). Zenbaitetan *egin* aditzaren supletibo hutsa, bestetan *egin*_{+ahal} adierazten du.

JOSKERA ANALITIKOAN

Aditz perifrastikoei dagokienez, Zuberoako corpusak zenbait aukeren arteko lehiak lekukotzen ditu. Lehenik, aditzoinaren gaineko perifrasi zaharren eta bestelako formen gainean eraikien artean. Zuberoan bi sailak ongi lekukotuak dira lehenbiziko testuetarik, baina molde berriak nagusigoa hartuz doaz. Bigarrenik, perifrasi zaharren barnean **ezan*-ek lekua kenduko dio **iron* laguntzaileari.

Behiala ekialde handian, gero hertsian, **iron* aditz iragankorren balio modaletarako laguntzailea izan da. Balio modalak bere baitarik adierazirik, **iron* aditzak ez zuen *-ke* morfemaren hartzeko beharrik, ez eta *ahal* partikula ere. Bigarren aukera, **ezan* laguntzailea, minoritarioa zen oso, eta betiere *-ke* morfemaz edo *ahal* partikulaz lagundua. Ordezkapenaren arrazoen artean preseski baztertu ditugu **iron* aditzaren ustezko muga morfologikoak. Absolutiboari dagokionez, testuek arrunt lekukotzen dituzte pluraleko formak. Datiboari dagokionez, erakutsi dugu, lehenik, **iron*-ek bazuela jokamolde hirupertsonala eta, bigarrenik, jokamolde hirupertsonal horren agerraldiak anitez gehiago direla ahalezko **ezan*-enak baino. Horri guztiari ekialdeko mintzoetan datiboarekiko komunztadura hautazkoa dela emendatu behar zaio. **Iron* aditzaren gibelatzearen arrazoiak, beraz, beste nonbait xerkatu behar dira: espezializazio hertsian eta horren ondoriozko maiztasun baxuan, sistemaren asimetrian —aditz iragangaitzek laguntzaile bakarra dute—, ekonomiaren hatsarrean eta, beharbada, beste mintzoekiko kontaktuan.

Aditz iragangaitzen ahalezko formetan *-kidi-* segida ageri da, Iparralde osoko testuetan bezala. Gure ikusmoldean, *-kidi-* ez da erro berezi bat, **edin*-en formek har zezaketen itxura —nahi bada markatu— bat baizik, morfemen ordena eta prozesu fonologikoak direla medio. *-kidi-* duten formen kronologia azpimarkatu behar da: Zuberoatik kanpo ez direnean XVIII. mendera iristen, tesi honen corpusak XVIII. eta are XIX. mendeko agerraldiak lekukotzen ditu († ca. 1810).

Ahalezkotasuna perifrasi berrien bidez adierazten delarik, Zuberoako euskararen ezaugarria da, Akitaniako gainerako mintzoetan baino lehenago, partizipio imperfektibozko formaren hautapena. Anitez ere bakanago bada ere, perfektibozko perifrasia ere ezaguna da Zuberoko testuetan. Bi hautu horien artean ez dugu aspektuaren gaineko bereizkuntza fermurik hauteman. Azkenik, geroaldiko ahalezko perifrasia prospektiboaren gainean eraikia da, *ahalko* bezalakorik ez delarik batere aurkitu corpusean —bai, ordea, *ahal iikhenen & ahal izanen*, XIX. mendearen bukaerako bi testutan—. *Ahal*-ekiko perifrasiak *-ko* markarik gabe ere igor daitezke geroaldiari buruz, *-(te)(ke)* morfemadun zenbait etsenplutan ikusi denez, guztiak hiru testuan ageririk: Ressegue (Eskiula, 1758), Mercy (Eskiula, 1780) eta *Heren-Ordreco escu libria* (Oloroe, 1860).

VII. KAPITULUA

SINTAXIA

1. *Barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioen gaineko egiturak
2. Zuberoako aurkezleak eta deixiaren diakronia
3. Harridurazko perpausak: ala partikula eta harekiko egiturak
4. (Des)genitibizazioaz: subjektu iragangaitzen genitiboa (ISGen)

1. *Barne(a)n & gañe(a)n* postposizioekiko egiturak

- 1.1. Sarrera
- 1.2. *Barne(a)n & gañe(a)n* inesiboez bi hitz
- 1.3. [INE/GEN + *barne(a)n*] egitura
- 1.4. [ZERO/INE/GEN/INSTR + *gañe(a)n*] egitura
- 1.5. Ondorioak

1.1. Sarrera

Aski berantago, Orpustanek ber ikusmoldea besarkatu du: harentzat TOGen IS baten modifikatzaile huts litzateke, eta ez benetako aktante bat: “C’est ce qui conduit notamment nos modernes grammairiens à parler, pour ce qui est un complément déterminatif d’un nom, d’un « complément d’objet direct », appliquant au modèle basque et dans tous les cas

l'analyse qui convient à l'infinif latino-roman et notamment à la *proposition infinitive latine*" (1992: 539).

Arestian Bossong vs. Abaitua & Trask eztabaida ekarri dugu (ikus. § 4.5.1). Haren kari, hamarkada bat berantago Traskek ondoko iruzkina egin zuen, afera behin betiko trenkatuz:

Observe that this genitive is possible (indeed, obligatory) only with the direct object of a gerund, and in no other circumstances. This fact has not always been understood, because of apparent counterexamples like the following: *Aitaren jiteaz atsegin dut* 'I am happy at the arrival of my father', in which the genitive *aitaren* appears to be the subject of an intransitive gerund *jitea* 'arrival', from *jin* 'come', and *aitaren egite hori* 'that deed of father's', in which genitive *aitaren* appears to be the subject of a transitive gerund *egite* 'deed', from *egin* 'do'. But this is not so. In these examples, we are not looking at any gerunds at all, but only at ordinary verbal nouns which happen to be identical in form to gerunds of the same verbs. Like other languages, Basque has several suffixes for deriving nouns (verbal nouns) from verb-stems, and among these are the suffixes also used to form gerunds. It is a simple matter to show that these examples are nouns, and not gerunds, because they plainly have nominal properties, while gerunds have only verbal properties. For example, we can say *aitaren egite izugarri horiek* 'those terrible deeds of father's', in which the noun *egite* 'deed' takes not only a genitive but also an adjective (*izugarri* 'terrible'), a demonstrative and a plural marker; a true gerund can do none of these things (1997: 245).

Puntu honetan Traskekin guk halaxe ikusten dugu auzia: euskarak baditu aditz nominalizatuen formalki identikoak diren izen hutsak, eta haiek aditz-tasun osoa atxiki duten bitartean, haiek izenen ezaugarri sintaktikoez hornituak dira. Bereizkuntza hau klarki gogoratzea funtsezkoa izanen da gure proposamenaren defendatzeko tenorean (§ 4.6).

4.6. Subjektu iragangaitzen genitiboa (ISGen) ⁴⁶⁹

There seems to be no natural explanation of why TO's but no IS's are genitivized [in northern Basque], if this genitivization is considered as merely a special case of the general genitivization rule (Heath 1972: 53).

⁴⁶⁹ Genitibozko objektuari erreferentzia egitean *transitive object genitive* deitura baliatzen badugu (euskalaritzan ongi errotoa izanik), koherente iruditu zait genitibozko subjektu iragangaitza *intransitive subject genitive* (ISGen) gisa izendatzea. Ezaugarri haiek ber fenomenoaren agerpenak izanik, jarraikortasun bat bilatu nahi izan dut —eta, zeren ez, estekadura terminologiko bat.

4.6.1. ISGen: existentziaren frogantza

Ezaguna da egungo hizkuntzaren berri ematean egin daitezkeen baieztapenek anitzetan ez dutela ber indarra iraganera bihurturik (edo baliorik batere ez). Bestenaz, argi dugu hizkuntza baten historia ezagutzeko bide zuzen eta bakarra lekukotasun zaharretara jotzea dela, eta euskararen kasuan anitz dukegu oraino horietan xerkatzeko. Ene gustuko sekula ez diegu testu zaharrei aski atentziorik emanen: haiek zerratzen dute hizkuntzaren iragana, eta haiek dute iragan hori erakusten —ikusteko prest dagoenari—. Genitibozko markatzeaz denaz bezainbatean, seguru zenari (O argumentuarenari) orain S-rena emendatzen diogu, eskrutiniorik zorrotzena iraganen duten etsenpluekin.

Hasiera batean *Sainte Elisabeth de Portugal* trajerialan atzeman genituen genitibozko subjektu iragangaitzen adibide ezinago garbiak,⁴⁷⁰ baina testu honen kokapen berezia gogoan izanik (Eskiula, 1750 [Oyharçabal 2004]) bitxikeria isolatu bat izan zitekeela pentsatu genuen. Ondoren, zubereraren corpus zaharra azterkatzean, ohartu ginen genitibozko subjektu iragangaitzak ez zirela batere arraroak (eta ez bakarrik Zuberoan). Askia da lekukotasunen zerrendari soño bat egitea ezaugarriaren hedadura historikoaz jabetzeko; bestalde, badirudi zenbatenaz ekialderago hainbatenaz maizago lekukotzen dela ISGen. Zuberoan: *Tartas*, *Belapeire*, *CatOlo*, *SteEli*, *Maister*, *StJul*, *Edipa*, irri antzertiko lanak, *Xarlem*, *Doctrina khoristia*, *Medit* eta are *Constantin*. Lapurdin (gutxi edo inoizka): *Leizarraga*, *Materra*, *Axular*, *Etxeberri Ziburukoa*, *Le Dauphin*-eko gutunak, *Zaldubi*.

Oro har, fenomenoaren maiztasuna oso baxua da Zuberoatik kanpo, egile batzuegan marjinal izanik ere. Beste zenbait egilerengan ez dakigu ISGen posible zenetz, haien testuetan ez baita testuingurua gertatzen (zorigaitzez, halakoa da Etxepareren kasua). Ondoan aditz-tasun osoa atxiki duten aditz iragangaitz nominalizatuen genitibozko subjektuak eskaintzen dira, AS-ri doazkion osagaien arabera zerrendatuak:

⁴⁷⁰ *Adibide garbi* erraitean hauxe nahi dugu adierazi: genitibozko subjektu iragangaitza eta aditz-izenaz gain, AS-ri dagokion beste zein-nahi osagai erakusten duten perpaus nominalizatuak baino ez ditugu kontuan hartuko. Hortaz, ekarri ditugun etsenpluetan aditz-izenek beren aditz-tasun osoa atxikitzen dute, adberbioak, kopulak eta era guztietako adjuntuak onartzen dituztelako. Bestela erraiteko: [GEN + aditz-izen] egitura agertzea ez zaigu aski, nahiz halako zenbaitetan egiazko perpaus nominalizatua izan, batere dudarik gabe: *Erak: ene pausatzeke* [= 'ni pausa nadin'] / *oihan zabalik badüka?* (*Jouanic Hobe* 62, in *AstLas* 168).

4.6.1.1. Datibozko osagarriarekin

- (10) *G. Cer ikhasteco da Jesus-Christ Jauna ganic? I. Guihauren hareki Aita bethierecoari oherescatcia, gucz Meçaco sacrificio saintian*⁴⁷¹ (Bp II 106).

4.6.1.2. Atributu eta kopularekin

- (11a) *Cer cegnhare da Ama Virginaren devot içatia?* (Bp I 146).
(11b) *Jesus-Christen batheyatu içatia Jondané Johané Batistaz* (Bp II 24).
(11c) *Ostacchia oro duçu / haren hain gazte içatia* (SteEli 95).
(11d) *Balukeçu erremedio / çoure libre içateko* (SteEli 370).
(11e) *Ounxa ceikularic gaitci / çoure mesperetchaturic içatia* (SteEli 374).
(11f) *Çu aldiç etcitjala alaguera, eç hartan, eç hountan, bena bai çoure ciharen mesperetchatu içatian* (Mst III 49, 7).
(11g) *Ene eri içatiaz, / ene erren maitia, / etcitjala ez içan / batere aflegitia* (SteEli 1276).
(11h) *Eztuçu behar debeiatu / ene hounic içatekoz* (SteEli 1417).
(11i) *Jauna, justo duçu / çoure erregue içatia* (Edipa 410).

4.6.1.3. Atributu eta inesiboarekin

- (12a) *Bonurra dugunaz gaignian / arkort içateko heben, / ene alhabaren içateko / erreguina Portugalen* (SteEli 159).
(12b) [...] *haren beraren eracaxiric içateco goure diocesan. (Doctrina khiristia 6).*

4.6.1.4. Egitura predikatiboak

- (13a) *Çu beithan diagoçu ene ahoia, botcic gabe, eta ene ichilic egoitia mintçatcen çaiçu* (Mst III 21, 4).
(13b) *Haregatic çoumbait orduç ihardexi ukhen ciçun, beldurreç flakier bere ichilic egoitiaç escandal eman leçan* (Mst III 36, 2).
(13c) *Eta haur prodigouaren umiliaturic arrajitiaz aitac ukhen cian plazerac ez du erhi ideia baicic emaiten celuco Aitaren plazeraz* (Medit 146).⁴⁷²

4.6.1.5. Soziatiboarekin

- (14) *Harengatic erraiten deiçu bere plazerac eçarten dutiala guiçonon haurreki içatian* (Medit 136).⁴⁷³

⁴⁷¹ Pasarte honek atentzioa merezi du. Ohart bedi, batetik, *ohereskatu* aditzaren erregimen zaharra dugula hemen: *nor nori ohoreskatu*. Ohart, bestetik, datiboak markatzen duen sintagma *hareki Aita bethierecoari* dela, X-reki Y 'X eta Y' koordinamoldearen bidez. Beraz, 'hari [Jesu-Christi] eta Aita bethierecoari ohorescatcia'. Arkaismo honek Iparraldean utzi duen aztarnarentzat ikus Lakarra 2008, Padilla 2011: 76-77 eta Camino 2011. Zubereraz halako dozena bat etsenplu bildu dugu azken aldian.

⁴⁷² Lapurterazko originalean: eta seme prodigoak bere falta aithortzean, haren aitak izatu zuen bozkarioak erdizkara bezala ezagut-arazten daroku, Aita Zerukoak, gu humiliatuak bere aitzinean ikhustez, duen plazera (Brtc 246).

⁴⁷³ Lapurterazko originalean ere ISGen gertatzen da: hartarakotz erraten daroku, bere plazerak ematen dituela gizonen umeekin izatean (Brtc 231).

4.6.1.6. Leku osagarriekin: ablatibo, adlatibo, inesibo

- (15a) *Arimaren gorputcetic partitcean içanen den eguitecoa eta herstura* (Mat 34).
 (15b) *Iesus Kristoren Hierusalemera sartzearen gañean* (EZ Noel 101).
 (15c) *Hanitz duçu, sira, / çoure houna gitia, / eta Portugaleric houna / bidian eçartia* (SteEli 110).
 (15d) *Perssona haien ikhoustiac / bai eta gougouala gitiac / ezutia oro branlatcen / guiçonaren centçu guciac?*⁴⁷⁴ (SteEli 319).
 (15e) *Zorigaixto zela hire / gure etxian gerthatzia!* (CanBel 451, in AstLas 211).
 (15f) *Anaya, desiratu içatu dut hanitxetan çuben byen hemen içatea* (Le Dauphin, Pierre d'Etchevers).
 (15g) *Ene semia, etcitiala triste, ouhourian, eta goratarçunian, besten ikhousteç, cihahren aldiç, mesperetchian, eta aphaltarçunian içateç* (Mst III 41, 1).⁴⁷⁵
 (15h) *Bena çoumbait hountarçun bere buriari emaiten dianac, Jincouaren graciaren bere beithara jitiari baragallubat eçarten du* (Mst III 42, 2).
 (15i) *Goure berthutian aitcina jouaitiaren, eta boronthate hounaren araur* (Mst I 19, 2).
 (15j) *Jesus-Christen ifernietarat jaistiaz, haren hiletaric phiztiaz, eta celietarat igaitiaz* (Doctrina Khiristia 24).
 (15k) *Bai eta zenbat errespetu haren han izaiteari* (Zby Kant 74).
 (15l) *Theadossa, cer da sugeta / çoure houna gitia, / eta ounxa beguira ciçadan / Charlemaignaq igortia?* (Xarlem 740).
 (15m) *Plazer hartçen dit çoure / desseing hounian jçatia* (Xarlem 148).
 (15n) *Badüzü mila egün / zure hunu jitia* (Malqu 400, in AstLas 251).

4.6.1.7. Denbora osagarriekin

- (16) *Etcen possible içan / haren secula combertitcia*⁴⁷⁶ (StJul 101).

4.6.1.8. Modu adberbioekin

- (17a) *Damuago baitzenduke zeure anaia haren kalteaz, eta haren hala izaiteaz, egiten eta erraiten derauzkitzun bide gabe guztiez baiño* (Ax 206).
 (17b) *Amaren hola jartetic / ounxa dit comprenitcen, / segurki ere niçala / gaiski bai agitcen* (SteEli 896).
 (17c) *Etcitadaçu hambat propy / çoure hola mintçatcia* (Boubane 126, in AstLas 117).
 (17d) *Haren hain garbiki mintzatziak eman zeron estimü handi bat mandozain apezaren* (Const 27).
 (17e) *Themporaren ounxa jitiaren araur, debocionen khambiatciac ere placer eguiten deicu* (Mst I 19, 5).
 (17f) *Beldurreç gaicen ounxa jouaitiac gora eraci citçan* (Mst III 30, 4).

⁴⁷⁴ *Perssona haien* ahapaldiko bi aditzen argumentu da: lehenbiziko aditzaren osagarri zuzena eta bigarrenaren subjektu iragangaitza. Beraz, hemen TOGen eta ISGen erregelen adibide bikoitza dugu.

⁴⁷⁵ Maisterren pasarte honetan ezinago argi ezartzen da TOGen (*besten ikhousteç*) eta ISGen (*cihahren içateç*) fenomenoaren paralelotasuna. (15c) adibidean ber sintagman dautza TOGen nahiz ISGen.

⁴⁷⁶ Irakurleak oposa lezake *combertitcia* aditz iragankor gisa agertzen dela, eta beraz *haren* TOGen etsenplu bat dela, baina guk ez dugu horrela interpretatzen, eta ber testuak *combertirazteco* (0107) emateak argiago errendatzen du afera.

- (17g) *Houn-da çoumbait orduç estecamentu, eta desircunte hounen ere bridatcia, beldurreç, hen ussiegui jitiac, eçpiritia barreia eraci diçaçun, edo çoure aski beguiratu içan gabiac, bestiac bekhatiala eror eraci ciçan* (Mst III 11, 2).
- (17h) *Eçkintek hagn ehignera nahas, besten gourc sendimentien countre jouaitiaç* (Mst I 14, 1).

4.6.1.9. Instrumental, inesibo eta adlatiboz

- (18) *Andre dana Mariaren Paradussialat Corpitz eta arimatan Jesus bere semiaren indarraz igaitia* (Bp I 148).

4.6.2. ISGen erregela zertan den

Argumentuen markatzeari doakionean, ISGen erregelak lerratze ergatiboa ezartzen du. Beraz, eta espero daitekeenez, aditz iragankorren subjektuek ezin dute, inolaz ere, genitiboan agertzen ahal:⁴⁷⁷

- (19a) *Ingrat eta injusto lukeçu / nic çoure refusatcia* (SteEli 157).
- (19b) *Francesaq francesaren jcoustic / bethi plaçer eguiten dou* (Chiveroua 126, in AstLas 137).

Orain arte *Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750) da ISGen hobekien lekukotu duen testua. Trajeria osoan bilatu ondoan, hamaika adibide garbi aurkitu dugu (adibide garbi batentzat zer hartzen dugun argitzeko ikus 9. oin-oharra). Dozena batek ez lirudike oso kopuru altua, baina garrantzitsuena da kontra-etsenplurik ez izatea, erran nahi baita **zü huna jitia* bezalakorik ez dela (eta gehiago dena, **zü jitia* bezalakorik ere ez). Mendeko perpau nominalizatuetakoa subjektu iragangaitzak oro, aldiz, genitiboan izaten dira emanak, honako aditz ezaugarriak atxikitzen dituztela: atributu edo kopulak (11a-i, 12), inesiboak (12a, 15c), ablatiboak (15c), adlatiboak (15c, d) edo modu-adberbioak (17b). ISGen erregelari oposa dakioken salbuespen bakarra (20) arras kasu berezia da, subjektua izenordain indartu baten forman delako (*nihau*), eta korreferentzian:

- (20) *Eci deus eztit estimatcen / nihau mesperetchatu içatia* (SteEli 379).

Nolanahi ere den, *Sainte Elisabeth de Portugalek* ezaguna frogatzen du: euskararen markatze genitiboaren arauak ez du eraginik aditz iragankorren subjektuetan, hauek ezinbestean ergatiboan izan behar baitute emanak (21a, b):

⁴⁷⁷ Egia erraiteko, A-ren genitibizazioaren adibide garbi bat kausitu dugu (8a-f) adibideetako kalkoez landa, baina momentoko bakarra: *Sira, zure izentatzeç ene / enperadore erresümako, / kuntent dira mündü oro, / sarri benaie ezagütiko* (CanBel 448, in AstLas 211). Hemen objektua ere genitiboan agertzen da, eta markagarria da aditzaren eskuin izatea, agian A (*zure*) eta O (*ene*) ongi bereizteko —fartsaren testuinguruan Sataneke enperadore izendatu duena Satani berari mintzo zaio.

(21a) *Eguia duçu: senharrac emaztiari / eguitia hala handi duçu (SteEli 430).*

(21b) *Bena segur içanen duçu / harec çouri guerla emaitia (SteEli 1140).*

Bestalde, ikusi behar liteke testu bakoitzean ISGen emankorra, ihartzen hasia ala fosildua den. Horrela, zenbait testutan ISGen arauaren kontra doazen adibideak atzeman ditugu, guti badira ere (22a-i), eta beste testuetan bat bera ere ez (hala Oloroeko katiximan nola *Sainte Elisabeth de Portugal* edo *Charlemagne* trajerietan).

(22a) *Icẽ amoriozco hunec (çu ene Aita içaiteac) (Mat 272).*

(22b) *Manatzen du bat bedera hartaz orhit izatera (Tt Onsa 34).*

(22c) *Jauna, cer da guiçona, çu hartçaç orhit içateco, edo cer da guiçonaren semia, çuc houra bisita deçaçun? (Mst III 40, 1).*

(22d) *Zer da gizona hartaz zü ohartzeko, edo gizonaren semia haren ikhustera zü jiteko? (Arch Psalm VIII).*

(22e) *Nour niz ni, ô gloriaczco eta majestatzco Gincoua, çu nitara gin nahi içateco? (UskLi 108).*

(22f) *Ez da comeni mundupian bici behar dena hain ussu mahain saintiala huillantcia (Medit 139).⁴⁷⁸*

(22g) *Jauna, çu hemen içaterat, ene anaya etcen hillen (Lg II 203).*

(22h) *Hek ethortzearekin / akhabo negua (Zby Kant “Primadera”).*

(22i) *Bakea jitearekin, kristauek lehen urtetan / Eliza bat zuten egin Sainda horren ohoretan (Zby Kant 174).*

Ikusi behar liteke, halaber, egileek zer jite duten perpausen nominalizatzeko tenorean: *hura joan dadin* ala *hura joaitea* moldeen maiztasuna aztertu behar da, eta azkenean nominalizatzen dituzten perpausetako subjektu iragangaitzak nola izaten diren emanak. Bestalde, ez da komeni arrazoin pragmatikoen ahanztea; baliteke ISGen mintzamoldeetarik hurbilago den ezaugarria izatea (beharbada horregatik herri antzertiko lanetan lekukotzen da hobekien).

4.6.3. ISGen: jatorriaren gaineko hipotesia

Orain arterainokoa ikusirik, ondorio klar batera etortzen gara: perpaus nominalizatueto argumentuen markatzeari doakionean, (Ekialde zabaleko) euskarak noizbait berdin tratatu ditu objektua eta subjektu iragangaitza eta, beraz, lerratze ergatibo bat erakutsi du sintaxiaren atal honetan. Trasken hipotesietara itzuliz, 1995eko bere lanean azalpen bat bilatu zion euskararen TOGen fenomenoari (§ 4.3.2), arraposta ingelesaren gerundioaren historian edirenez. Hortaz, Jespersenen lan batean oinarrituz (1948), paralelotasun bat ezarri zuen ingelesaren gerundioaren eta euskararen *aditz-izenaren* historien artean. Izan ere, bien kasuan *gerundioak*

⁴⁷⁸ Lapurterazko bertsioan: Ez da konbeni, diote batzuek, mundupean bizi behar dena hain maiz mahain saildurat hurbiltzea (Brct 236).

jatorri purki nominal bat izan zukeen, eta denborarekin hastapeneko izen deberbal haiek aditz ezaugarriak hartuz joan ziren, harik eta gerundio bihurtu arte. Egungo ingelesaren genitibozko subjektuak⁴⁷⁹ eta Iparraldeko euskararen genitibozko objektuak behialako izen-tasun haren lekukoak dirateke:

In both languages, the suffixes in question originally derived nouns from nouns; in both, the suffixes eventually acquired the ability to be added to verbal nouns; in both, the derivatives of verbs were originally true nouns, with no verbal characteristics; in both, the verbal nouns gradually acquired more and more of the characteristics of verbs, shedding their nominal properties along the way; in both, this process has not yet quite gone to completion, with genitive objects (in northern Basque) and genitive subjects (in English) still being the norm (Trask 1995: 227).

Funtsez, akort gara Traskekin, baina hark ez zuen azaldu zergatik euskararen ez den genitibozko subjekturik, ez iragankor ez iragangaitzik.⁴⁸⁰ Trasken hipotesiaren abiapuntu harturik, badugu egoera bat non hiru *aktanteak* genitiboan emanak baitziren, hirurak buru izen huts zeukan IS baten osagarriak ziren heinean: *haren egitea* (A), *haren egitea* (O), *haren etortzea* (S). Bidean zer gertatu zen esplikatu gabe, Trask denek ezagutzen dugun helmugara heltzen da: *hark egitea* (A), *haren egitea / hura egitea* (O), *hura etortzea* (S); hots, O baizik ez da genitiboan ematen ahal. Hipotesi horrek ondokoa dakar inpliziturik: hasierako izen deberbalek aditz-tasunen hartzeko bidean, euskarak subjektua (A zein S) hastapenetik markatu zuen (uler bedi *markatzea* ‘desgenitibizatzea’). Bistan denez, hori posible da; horrela izatera, lehen ekarri ditugun ISGen adibideak Ekialdeak berantago bere kasa egin eta ondoren arrakastarik izan ez zukeen berrikuntza batean kokatzeko lirateke.

Bigarren aukera da pentsatzea hiru aktanteak genitiboan izaten zirela emanak, salbu haietako bi batera agertzen baziren, hau da, A eta O.⁴⁸¹ Kasu honetan euskarak subjektu iragankorraren

⁴⁷⁹ “The only reservation is in the form of its subject. Still today, a gerund in English takes its subject in the genitive case for many speakers: *I don’t approve of his doing that*. Some speakers, especially in Britain, have replaced the genitive by the objective: *I don’t approve of him doing that*. But nowhere is possible to use the ordinary subject case with a gerund: **I don’t approve of he doing that*” (Trask 1995: 226).

⁴⁸⁰ Nonbait, Traskek ba omen ISGen sintaxiaren berri: “Rebuschi 1995 shows that, in early texts in northern dialects, the genitive could also be used for the subject of the verbal noun of an intransitive verb” (1995: 225). Erran behar dugu Rebuschiren lan horretan ez dugula halakorik aurkitu. Nolanahi ere den, Traskek ISGen ezagutu ez balu bezala jokatu zuen.

⁴⁸¹ D. Creisselsek erremarkatu baitigu, munduko hizkuntzetan perpauz bateko argumentuak makatzean objektuek izaten ohi dute lehentasuna. Oro har, aditzetik hurbilen den argumentuak hartzen luke lehentasuna.

markatzea (desgenitibizatzea) hautatu zukeen, ergatiboaren morfema erantsiz, subjektu iragangaitzak genitiboan jarraitzen zuela. Denborarekin ISGen indargabetuz eta galduz joan zen —guk dakigula, egun ez da gehiago emankorra—, TOGen-ek luzeago iraunez. Hipotesi honek lehen ikusi diren ISGen adibideak azkenetan zegoen arkaismo baten isla izatea lekarke. Bistan denez, azalpen honek kanbiamendu gutxiago eskatzen du; kasu hauetan erraitea usu den bezala, “merkeago” zaigu. Haratago joanez, ikusmolde honek bilakaera orokorrago batean kokatzen ditu euskara historikoak lekukotzen dituen genitibozko objektuak eta genitibozko subjektu iragangaitzak.

Bestela formulatzeko, ISGen fenomenoak bi esplikabide ditu: 1) Ekialdeak egin duen berrikuntza izan dadin; edo 2) Ekialdeak atxiki duen arkaismoa izatea. Lehen aukerak sintaxi jada akusatibo batean nonbait markatze ergatibo bat ageri zela suposatzen du, beharbada morfologiarekiko erregulartze batengatik. Bigarrenean pentsatu behar da ISGen sistema ergatiboago batetik sistema akusatibora iragaiteko bidean gelditu den herexa dela. Bistan da, arkaismoaren hipotesiak bide zuzenago eta sinpleagoa eskaintzen digu, konprenitzeko errazagoa, eta aldaketaren norabidea gogoan, espero dugunarekiko koherenteagoa ere.

CODA

Oro har ISGen fenomenoa ekialdeko euskara zaharrean kokatzeko da. Egungo euskaldunek ez dukete onartzen (Videgainek eta Oyharçabalek hala gaztigatu didate), baina sintaxi zaharraren arrastorik oraino aurkitzen ahal da. Johañe Bordaxarren antzezlanean, *José Mendiague* pastoralean, ISGen arauaren bi adibide irakur daiteke (23a, 23b). Bistan da, bietan mendeko perpaus nominalizatuan adberbio bat txertatzen da genitibozko subjektuaren eta aditzaren artean. Gure ikusmoldean, halako agerraldiek nonbait ISGen ekialdeko hitzunen memorian datzala erakutsiko lukete eta, beraz, haren galera ez bide dela aspaldidanikoa.

(23a) *Beste pena bat handia / haurren hürriin joaitea / Bihotza düüt ürratüirik / ama hanitxen zortea!* “Comme beaucoup d’autre mères, / je suis contrainte d’accepter / le départ de mes enfants, / cela me brise vraiment le cœur” (*Jose Mendiague* pastorala 30).

(23b) *European gerla handia / horrek düi gose gorria / Beharrezko izanen da / gure saihets egoitea* ‘La grande guerre d’Europe / engendre la faim, / nous ne devons surtout pas / nous y engager’ (*ibid.* 166).

4.7. Ondorioak

Ezaguna den —eta oraino bizirik den— TOGen fenomenoaz apart, euskara historikoak genitibozko subjektu iragangaitzak ere onartu ditu, Ekialde zabalean bederen. ISGen adibide

argiak Iparraldeko euskara zaharrean aurkitzen ahal dira, zenbatenaz ekialderago hainbatenaz indartsuago lekukotu ere. Genitibozko markatze molde hau TOGen arauak dituen testuinguruei eta murriztapenei hertsatzen zaie: funtsean, mendeko perpau nominalizatuei.

Horrekin, euskararen sintaxia guztiz akusatiboa dela erakusteko baliatu diren parametroetako batean (hots, genitibizazioan) lerratze aldaketa bat gertatu izan da: eskema ergatibo/absolutibo bati dagokion A / S, O bereizkuntza batetik A, S / O lerratze nominatibo/akusatibo batera. Bestalde, badakigu iraganean TOGen euskara komunaren ezaugarri bat izan zela (Lakarra 1983 & 1996). Denboran gibelerago joanik, genitibozko objektua gerundioaren (aditz-izenaren) historiarekin lotzekoa bide da; konkretuki, haren jatorrizko izaera nominalaren herexa litzateke (Trask 1995 & 1997).

Gure ustez, ISGen gisara izenda daitekeen araua ere ber testuinguruan esplikatzekoa da, haren balizko hedadura orokorra testuek frogatzen ez badute ere. Izan ere, TOGen-ek berantago iraun du, eta horregatik ongi lekukotua da Ipar nahiz Hegoaldeko euskara zaharretan. Aldiz, ISGen jada lehenbiziko testuetarik ikusten dugu Iparraldera mugatua, egungo euskaratik desagertua izanik, eiki. Bestenaz erraiteko, objektuaren genitiboa (TOGen) eta subjektu iragangaitzaren genitiboa (ISGen) fenomeno orokorrago baten agerpenak baino ez dira.

Garai historikoan desgenitibizazio prozesu bat gertatu da, objektuen kasuan hobekiago lekukoturik, eta subjektu iragangaitzenez soilik azken fasean ezagutua, hauen galera besteena baino lehenagotik abiatua baitzen. Azken finean, ISGen arauaren proposamenak Trasken TOGen fenomenoaren jatorriaren gaineko hipotesia (1995) indartzen du, berorrek zuen hutsunearen betetzera baitator.

VIII.

ONDORIOAK

1. Hizkuntz atalka, labur
 - 1.1. Fonologia
 - 1.2. Kasu sistema
 - 1.2.1. Marka berriak eta kasu sistemaren berrantolatzea
 - 1.2.2. Genitibo zaharraren mapa semantiko baterat
 - 1.2.3. Ekialdeko euskarak bi komitatibo bereizi zituzkeen?
 - 1.2.4. Kasu lokatiboak
 - 1.3. Aditz sistema
 - 1.3.1. Forma jokatu-gabeak
 - 1.3.2. Erroak eta forma jokatuak
 - 1.3.3. Modua eta modaltasuna
 - 1.4. Sintaxia
 - 1.4.1. *Barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioekiko egiturak
 - 1.4.2. Haridurazko perpausak
 - 1.4.3. Subjektu iragangaitzaren genitiboa (ISGen)
2. Hizkuntz ukipenaren eragina
 - 2.1. Bokal sudurkarien sail berria
 - 2.2. Txistukari ahostunen saila
 - 2.3. Eratorpen morfema mailegatuak
 - 2.4. Hurbiltze adlatiboaren egitura berriak
 - 2.5. *-i* sail berriko partizipioak
 - 2.6. Zuberoako egitura aurkezlea
 - 2.7. Benefaktibo-zko marken hedakuntza semantikoa
 - 2.8. Frantsesari kalko bat, literatur zubereran
3. Literatur hizkuntzaren eragina
 - 3.1. Ohar bat grafiaz
 - 3.2. Frantsesaren eragina
 - 3.2. Euskararen idatzizko tradizioen eraginak
 - 3.2.1. Lapurterarena
 - 3.2.2. Zubererarena?
 - 3.2.3. Hegoaldeko tradizioarena
4. Zuberoako euskararen barne zatiketaz
 - 4.1. Asimilazio bokalikoak direla eta
 - 4.2. Ablatiboaren morfema berria: *-ti* vs *-tik*
5. Zuberoako euskararen bilakaera orokorra
 - 5.1. Zuberoako euskarak atxiki dituen ezaugarri orokorrak
 - 5.2. Zuberoako euskarak partekatzen dituen hautu eta berrikuntzak
 - 5.3. Zuberoako euskararen berezko berrikuntzak
 - 5.4. Azken hitza Zuberoako euskararen bilakaeraz

1. Hizkuntz atalka, labur

1.1. Fonologia

Tesi honek ez du Zuberoako euskararen fonologia sistematikoki ikertu. Erabaki horren arrazoiak gorabehera (ATALASEAN, § 2.2.1), guhaurren ezagutzatik erran dezakegu Zuberoako euskararen sistema fonologikoa funtsean egina agertzen dela corpuseko lehen testuetarik. Zenbait ezaugarritan bestelako itxurarik igartzeko Erdi Aroko informaziorik dakarten datu onomastikoetara jo behar da (*Censier gothique de Soule*)⁴⁸². Oro har, Zuberoako euskararen itxura fonologikoa definitzen duten elementuak XVII. mendean lekukotzen dira, Agirrek (2001b) erakutsi duen bezala. Batetik, badira Zuberoak atxiki dituen ezaugarri behiala orokorrak (bokal sudurkari etimologikoak, hasperena); bestetik, badira ekialde hertsiko mintzoez obratu dituzten aldaketa zaharrak (*j > /ʒ/; diptongoen bilakaera, *u_i > u_u* bezalako harmonia bokalikoak), batzuetan soilik Zuberoakoak (hala /y/ fonema, nola txistukari ahostunen agerpen testuinguruak eta fonema-tasuna). Beraz, Zuberoako testuetan ezaugarri fonologikoez suma dezakeguna, kasu gehienetan, aldaketen betetze mailari lotua da. Gauzak horrela, tesi honetan bi ezaugarri fonologiko baizik ez dugu aztertu: lehena bokal sudurkari sail berezi bat (I, § 1) eta bigarrena txistukari ahostunen lekukotza (I, § 2). Bi fenomeno horiek hizkuntz ukipenaren medioz azaldu baititugu, aitzinago aipatuko dira (§ 2.2).


1.2. Kasu sistema

1.2.1. Marka berriak eta kasu sistemaren berrantolatzea

Aztertu ditugun kasu-marka berriek euskararen kasu sistemaren berrantolatze bat ekarri zuten, morfemen espezializazio semantikoaren bidean (ikus 3. IRUDIA). Lehenik, genitiboaren marka zaharrari erantsiak izan arren, komitatiboaren morfemek lehenagoko instrumentalak adierazten zituzten balioetarik bat hartu zuketan. Bigarrenik, genitiboaren gainean eratu morfemek —motibatiboarenak, prolatiboarenak eta benefaktiboarenak— (II, § 2) genitiboaren behialako balioetarik batzuk berenganatu zituzten, kasu haren polisemia nabarmen apalduz.

⁴⁸² Erakusgarri batentzat, *ea* bokal bilkura bere horretan lekukotzen da (*Arhalea*, *Aspechea* edo *Barnechea* bezalakoak 37 direlarik, *ia* behin baizik ez da ageri). Badira, halaber, *i_u > u_u* bilakaeraren aitzineko aztarnak (*Ithurralte* & *Ithurriague*, baina *Uthurralte* & *Utthurriague*); bestenaz, *rs* taldearen maiztasun altua igartzen ahal da (*Arstoe*, *Erspile*, *Sagarspe*).

Hirugarrenik, orobat gertatu zen adlatiboaren gaineko marka berriekin, balio zehatzagoen adierazteko sortuak (II, § 3). Prozesu horiek mendeak pasa ahala bete ziren; genitiboaren gaineko marken artean, argi ezar daiteke komitatiboarena zaharrena dela, *-n* gabeko genitibozko marka zaharrari erantsia baita; ondoren, *-gatic* motibatiboarena, gero prolatiboarena, eta azkenik benefaktiboarenak, *-n-dun* genitibozko markari erantsiak. Adlatiboaren gaineko zenbait markaren garapen morfologikoak kasu sistemaren berrantolatzea hetsiko zuten, haien artean seguruenik muga adlatiboarenak destinatiboarenak berankorrenak izanik.



3. IRUDIA. Kasu sistemaren berrantolatzea, EBZ-etik euskara historikorat

Kasu sistemaren berrantolatzean, genitibo zaharretik abiatu kasu multzoak duke pisurik handiena. 122. TAULAK genitiboari lotu zenbait balioen adierazpenaren bilakaera laburbiltzen

du. Gogoan erabili behar da balio horietan genitiboaren marka hutsaren erabilpena ez zela guztiz iraungi, testu zaharrek —bereziki ekialdekoek— hala erakusten baitute; horrela, *-(r)en* marka balio motibatiboz 1873 arte lekukotu dugu, eta balio benefaktiboz egun ere aurki daiteke. Taularen azken errenkak arras bestelakoa den aldaketa bat jasotzen du: benefaktiboaren marken hedakuntza semantikoa, motibatiboaren *-gati(k)* morfema hein batean ordezkaturaz—motiboaren adierazpenean, baina ez kausarenean—; frantsesarekiko ukipenak sorrarazia baita, azken aldaketa horretaz aitzinago arituko gara (§ 2.3.2).


122. TAULA. Genitibo zaharrari lotu zenbait balioaren adierazpenaren bilakaera Zuberoan.

	Abia.	XVI. m.	XVII. m.	XVIII. m.	XIX. m.	XX. m.
PTZP PROSP.	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i> <i>-ko</i>	<i>-(r)en</i> <i>-ko</i>	<i>-(r)en</i> <i>-ko</i>
DEST	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-(r)en</i> <i>-ra(t)ko</i>	<i>-ko</i> <i>-ra(t)ko</i> <i>-(r)en</i>	<i>-ko</i> <i>-ra(t)ko</i> <i>-(r)en</i> (†)
BEN	<i>-(r)en</i>	<i>-(r)en</i> <i>-(ren)tako</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)entako</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)en</i> (†)
PROL	<i>-(r)en</i>	<i>-tako</i> <i>-(r)en</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>	<i>-tako</i> <i>-tzat</i>
MOT	<i>-(r)en</i> <i>-gati(k)</i>	<i>-gati(k)</i> <i>-(r)en</i>	<i>-gati(k)</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)(en)gati(k)</i> <i>-(r)en</i>	<i>-(r)(en)gati(k)</i> <i>-(r)en</i> (†) <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)entako</i>	<i>(r)(en)gati(k)</i> <i>-(r)entzat</i> <i>-(r)entako</i>

1.2.2. Genitibo zaharraren mapa semantiko baterat

Kasu polisemiko baten balioak finkatzerakoan, nahasgarri bezain antzu gerta daitezkeen termino konposatuaren eretzean, egungo hizkuntzalaritzak mapa semantikoaren metodologia abantailatzen du, hizkuntzen arteko konparantzarako tresna egokia eskaintzen duena (Haspelmath 2009; Malchukov & Narrog 2009; Malchukov 2010). Guk dakigula, euskararentzat proposatu den kasu baten mapa semantiko egiteko saio bakarra instrumentalarena da (Igartua & Santazilia 2013). Mapa semantiko batean, kasu baten balioak *core meaning* delakoarekiko distantziaren arabera irudikatzen dira; ezaguna denez, genitiboaren balio zentral hori edutezkoa izaten da (posesioa).

Tipikoki, munduko hizkuntzetan genitiboa kasu polisemikoa izaten da (Nikiforidou 1991); orain artekoan argudiatu denez —eta ahanzi gabe ideia inplizituki sumatzen dela Azkarate & Altunaren lanean (2001)—, ekialdeko euskararen genitibo zaharra ere nabarmen polisemikoa zen. Printzipioz bi aukera lirateke posible: a) Zuberoako testu zaharrek lekukotzen duten polisemiaren aztarnak arkaismo baten zantzuak izan litezen; edo b) itzaliz joan den berrikuntza (zahar) baten lekukotza. Gure ulertzeko maneran, badira arrazoiak lehen hipotesiaren hobesteko: alde batetik, ekialdeko testuetan bereziki ohargarriak badira ere, genitiboaren polisemiaren aztarnak mendebaldeko lekukotasun arkaikotan ere ageri dira, nabarmenki benefaktibozko balioa; hortaz, errazagoa dirudi pentsatzea hizkuntzaren fenomeno orokorra izan dela. Beste aldetik, aztertu ditugun “marka berriak” genitiboaren morfemari erantsi zaizkio mintzo guztietan, eta ez beste bati. Gauzak horrela, 4. IRUDIAN euskara osoaren genitibo zaharraren mapa semantiko batendako oinarria proposatzen dugu.



4. IRUDIA. Euskararen genitibo zaharraren mapa semantiko baten oinarria

1.2.3. Ekialdeko euskarak bi komitatibo bereizi zituzkeen

Defendatu dugunez (II, § 2.6.2.2), Zuberoako testuek, hein batean, *-(r)kila(n)* morfemaren ñabardura semantiko zaharraren aztarnak gorde dituzte. Jada hizkuntzaren aldi historikoa iritsi zeneko, *-(r)ekila* morfemaren balioa lausotua zen, gero eta gehiago *-(r)eki(n)* komitatiboaren alomorfo huts bihurturik. Onartzen bada komitatiboaren kronologian *-(r)eki* forma zaharrena dela, eta *-(r)ekin* hari inesiboaren *-n* eranstearen emaitza dela, orduan nekez idoki liteke *-(r)ekila* morfema *-(r)ekin* baino berriago izatea. Beraz, Gavelen (1929: 26) eta Lafitteren (1944: § 142) proposamenak gogoan (II, § 2.6.2.2.1), *-(r)ekila* morfema zaharra

komitatiboan *-kila* gutxien erabiltzen den morfema dela erakusten dute, diferentzia handirekin, eta horrek zalantza bat pausatzen digu.⁴⁸⁴

Azkenik, *-(r)ekila(n)ko* sekuentziak ere *-(r)ekila* morfemaren jatorrizko balioaren aldeko argudio sendorik ematen du (§ 2.6.2.3): ekialdeko mintzoetan nekez atzeman dugu *-(r)eki(n)ko* eransketaren lekukorik, baina bai *-(r)ekila(n)ko*-renak. Sekuentzia horrek adierazten dituen balioak, oro har, adlatibozko erlazio espazial metaforikoetan koka daitezke, hau da, *-gana(t)ko* sekuentziaren medioz ere adieraz daitezke —horregatik *-(r)eki(n)ko* ez da kasik ageri—. Horri lotuz, ez da halabeharrez euskarak *-gana(t)ko* eransketa onartzea, baina ez ***gango*; gure ikusmoldean, ekialdeko euskarak *-(r)ekila(n)ko* sekuentzia garatu izanak logika horri obeditzen dio, eta hori ageriago gelditzen da zenbakietara joz gero, ezen *-(r)ekila(n)* morfemaren maiztasuna anitzez ere baxuagoa da *-(r)eki(n)*-ena baino.

1.2.4. Kasu lokatiboak

Kasu lokatiboak direnaz bezainbatean, ekialdeko euskarak, printzipioz, mendebalde eta erdialdeko kasu lokatibo, ablatibo eta adlatibo berberak ditu, gehi garai berriago batean adlatibozko markaren gainean sortu muga-adlatiboa (*-raino*) eta destinatiboa (*-ra(t)ko*). Hori erranik, ekialdeko mintzoetan kasu lokatiboen azpisistemak berezitasun aipagarriak ditu. Hasteko, polimorfismo ñabarra garapen morfologikoen lekukoa da:

- Ablatiboan bi aukera nagusi dira: *-(r)ik* zaharra, partitiboari lotua, eta prosekutibo zaharraren bilakaera den *-ti(k)* —printzipioz *-ti* zaharrago, eta *-tik* berriago, nahiz eta Zuberoan lehen testuetarik bi aukerak batera ageri diren—; cf. Lafon 1948 & Lakarra 1984.
- Adlatiboaren polimorfismoa bi ardatzetan gertatzen da: lehenik, *-ra(t)* & *-ala(t)* parean, zeinaren banaketa, gaingiroki, izen berezi eta arrunten arabera izaten baita, hurrenez hurren, egungo Zuberoan ere (Gèze 1873: 22; Larrasquet 1939: 141; Etxebarne 2011: 64); bigarrenik, *-t* bukaera hartzen duten eta ez duten atzizkien arteko lehia, funtsean bi ardatz semantikoren arabera: mugimenduaren iraupena eta mugimenduaren norabidea —kontrastearen berri zehatza jakiteko, ikus II, § 3.3.3, edo atal horretako ondorioak (II, § 3.3.3.3)—.

⁴⁸⁴ Batetik, badirudi Zuberoan *-kila* morfema *fase sparitan* lekuktozen dela, hots, eta horrek arkaismo izateko itxura ematen dio. Bestetik, Amiküzen *-kila(n)* orokortu da, eta ez dakigu bi datu hauek noraino uztar daitezkeen.

- Kasu berrietan, polimorfismoa are nabariagoa da. Hortaz, Zuberoako testuek zazpi aukera lekukotzen dituzte muga-adlatiboarentzat: *-dano* & *-drano*, *-rano* & *-alano*, *-ra(d)ino*, *artio* & *artino* (cf. II, § 3.4.3). Horien artean, zuberera historikoan nagusi izan dena, *-drano* postposizioa, XIX. mendean itzali da.
- Azkenik, destinatiboan *-ra(t)ko*, *-ala(t)ko* & *-gana(t)ko* pareak gerta daitezke gehi, ebentualki, *-baitara(t)ko* (cf. II, § 3.4.4).

Horietan guztietan munta handienekoa dateke *-t* morfoaren araberako bereizkuntza. Gure azterketak bi adlatibo berezien hipotesia babesten du, testu gehienek, hala edo nola, *-t*-dun eta gabeko morfemen arteko bereizkuntza lekukotzen baitute (ikus II, § 3.3.3.2). Oro har, *-t*-dun aldaerek honako ñabardurak adierazten dituzte, testuan testu:

- Itzulbiderik gabeko mugimenduak (*zeliürat*, *iferniürat* / *zelialat*, *ifernialat*), edo itzulbidea dutenak, baina luzaz egoteko lekualdatzea dakartela (*Ameriketarat*).
- Norabide eza, norabide ezezagun edo zehaztugabea.
- Diskurtsoa edo gertaldia mugimenduaren iraunaldian sartua denean.
- Egoera kanbiamenduak.

Aldiz, *-t* gabeko adlatiboek ondokoak adierazten dituzte:

- Joan-jinak, egonaldi laburrak edo xede zehatza duten mugimenduak.
- Bukaera ezaguna duen egonaldia, luzea izan arren (*mündü huntara jin*).
- Helmuga zehatza duten mugimenduak.

Hau da, ñabardura semantikoak bi ardatzetan multzoka daitezke: a) leku-aldatzearen iraupena; eta b) mugimenduaren norabidea. Oyharçabalek *Charlemagne* testuarentzat formulatu arauetarik abiatuz (1991: 401-403), zenbait zehaztapen gehitu ditugu (cf. II, § 3.3.3.3).

Azken buruan, badirudi bilakaeraren emaitza bi adlatiboen arteko kontrastearen lausotzea izan dela, batik bat adiera direkzionalean. Azken horri lotuz, ez da halabeharrezkoa XIX. mendeko Zuberoan hurbiltze adlatiboaren bestelako aukerak azalera zitezen, bereziki [DAT / ADL + *bürüz*] egitura (← gask. *cap a*), eta *aldialat* & *khantiala* postposizioak. Ildo berean, *-t* morfoaren balioaren itzaltzea Erdi Arotik euskara historikorat obratu den kasu sistemaren berrantolatzean uler daiteke: sistema zaharrak bi adlatibo izatetik (batetik *-ra* & *-ala* parea, bestetik *-rat* & *-alat*) hainbat aukera izatera iragaitean, *-t* morfoaren araberako bereizkuntza egongaitz gertatuko zen. Hau da, sistema berriak *-ra* & *-ala* adlatibo orokorra, *-rat* & *-alat* hurbiltze adlatiboa —anitzetan adiera terminatiboaz—, muga-adlatiboa gehi destinatiboa (*-t*-dun zein gabea) bereizten ahal izanik, zehaztasun semantiko berriak bazter utz zezakeen *-t*

morfoaren araberako bereizkuntza zaharra. Nolanahi ere den, kontraste zaharraren aztarna garbiak corpuseko garai berrietan ere lekukotzen dira.

Kasu lokatiboekin finitzeko, inesiboan bada zer aipatu Zuberoako euskara zahar eta modernoan. *Inesibo arkaiko* deitu izan den ezaugarriak mendebaldean ere iraun du (cf. 147. oharra), baina bereziki Zuberoan aurki daiteke. Haren azterketa *barne(a)n* & *gañe(a)n* postposizioekiko egiturenarekin lotu dugu (VII, § 1), erakutsiz halako egituretan inesibo arkaikoa emankorra dela; labur erranik, *mendin gañen* bezalakoetan, ezkerreko osagaiak ez dakar genitibo higaturik, baizik eta inesibo mugagabe arkaikoa. Beste gai bati lotuz, kasu lokatiboetan izaki adimendunek deklinazio hirukoitza dute: i) *-ga* morforen gainekoa, euskara osoan bezala; ii) *-ta* morfoaren gainekoa, nonbait mugagabe gisara ulertzekoa; eta iii) *baitha* postposizioaren gaineko aukera. Irudi luke ekialdeko euskara zaharrean hiru aukeren artean *-ta* ohikoena izatea; ifrentzuan, *baitha* moldearen maiztasuna aski baxua da Zuberoan.

1.3. Aditz sistema

1.3.1. Forma jokatugabeak

Forma jokatugabeei dagokienez, Zuberoako euskara historikoak ildo batzuk markatzen ditu:

- vi) Aitzineuskaratik datozkeen **e-* aurrizkiak zein **-ra-* morfema kausatiboak gainerako mintzoetan baino indar handiagoa erakusten dute, eta iraupen luzeagoa.
- vii) Aditz-izenaren formetan Zuberoan *-tze* morfema ez da kasik sartu, *-tü* saileko aditzez kanpo.
- viii) Partizipio prospektiboan, azken bizpahiru mendeetan euskal herri guztietakoa den *-ko* atzizkia leku irabaziz joan da.
- ix) Aditzoinaren formen markatzeko joeraren barnean kronologia desberdineko prozesuak bereiz daitezke; guztien erakusgarri berezia da Zuberoako euskara.
- x) Azkenik, partizipioaren eremuan, XVIII. mendean Zuberoak berrikuntza eskusibo bat garatu du, *-i* akabantza duten partizipio mailegatuen multzo batekin.

**e-* aurrizkiari doakionean, garai historikoan Zuberoako euskarak, non-nahi hedatuak diren aditzez gainera, itxura gorde duten hamabost bat aditz ditu (*ebil*, *edeki*, *edüki*, *egor*, *egüriki*, *eitz*, *ekhus*, *ekhüz*, *erail*, *erakhats*, *herakitü*, *eratxeki*, *eratzar* & *eroan*), zeinetarik erdia ez baita XIX. mendearen akabantzara iritsi (IV, § 1). Bazterreko euskalkietan *e-* emaitza atxiki

duten aditzen sailak beteagoa dirudi erdialdeko mintzoetan baino; halere, arkaismoa emeki itzaltzen da Zuberoan ere, *i*-ren eta horren ondorengo *ü*- emaitzaren faboretan (*igor, ügürüki*).

Bestalde, non-nahi bezala Zuberoan ere, aldi historikoan kausazioaren adierazpenak *erazo/arazi/erazi* aditza abantailatu du —dudarik gabe EBZ-ren ondotik—, estrategia morfologiko hutsa den *-ra-* morfema zaharra baztertuz. Haatik, Zuberoako testuetan morfema kausatiboaren iraupena eta indarra beste mintzoetan baino nabariago iruditu zaizkigu: oraino XIX. mendean aise aurki daiteke *-ra-* morfemaren balio zaharra cf. IV, §§ 6.3.2 & 6.3.3. Bereziki aipagarria da *eragin* aditz arazlearen lekukotza (*sinhets eragin* ‘sinetsarazi’, Eskiula, ca. 1800), ezaugarri hori behiala orokorra izan zelako hipotesia sendotzen duena.

Partizipio inperfektiboari doakionean, Zuberoako testuek ez dute ustekabe handirik eman, salbu erdialdeko fenomeno batzuei lotzekoa datekeen *-aite* atzizkiaren lekukotza estonagarria (*egorraiten* \approx *hartzaiten*; cf. Urgell 2006, eta ikus IV, § 4.4). Datuek gehienez ere *-te* & *-tze* morfemen arteko lehiaren hastapenaren berri ematen dute, *-ki* multzoko aditzetan, non *-tze* berria hedatzen baita. Azkenik, *-n* saileko aditzetan Zuberoak ongi gorde du *-ite* emaitza. Beraz, inperfektiboaren formak direnaz bezainbatean, Zuberoako euskara oro har gordetzailerda da, mendebaldekoa baino gehiago.⁴⁸⁵

Partizipio prospektiboari begira, ezaguna da Zuberoan, ekialde handiko mintzoekin batera, *-ko* & *-(r)en* morfemak baliatzen direla. Halere, bi atzizkien banaketa ez da bat eta bera. Oro har, ekialde hertsia goan *-(r)en* aukerak esparru handiagoa du: *-n* saileko aditzei ez ezik, *-tü*, *-ki* eta $-\emptyset$ sailetakoei ere eransten ahal zaie. Azken mendeetako Zuberoan, *-(r)en* atzizkiak bilakaera errezesiboa erakusten du, *-ko* atzizkiari lekua utziz. Hizkuntza osoaren ikuspegitik, *-(r)en* prospektiboa ekialdera gibelatuz joan da, han ere indar galtzeko. Bistan dena, bi atzizki horiek Lafonek (1965: 175) “les deux génitifs” deitzen zituenak baizik ez dira: *-ko* erlaziozkoa, eta *-(r)en* genitiboa. Interesgarriago dena, horrek lotura garbia iradokitzen du benefaktiboan lekukotu dugun lehiarekin (II, §§ 2.4.1 & 2.4.2); hots, *-(r)en* genitibo hutsak benefaktiboaren adierazpenean luzeen atxiki duten mintzoek *-(r)en* gehiago lekukotzen dute partizipio prospektiboan edo, bestela erraiteko, benefaktiboan *-ko* atzizkia daramaten hautu morfologikoen hedakuntza (*-(r)entako* vs. *-(r)en*) *-ko* prospektiboarenarekiko

⁴⁸⁵ Mendebaldeko mintzoek ere *-te* atzizkia ongi atxiki badute ere, ekialdekoek baino gehiago ere, bestelako berrikuntzak garatu dituzte; horien deskripzio egoki batentzat ikus Urgell 2006.

paraleloan dabil (-*ko* vs. -(*r*)*en*). Horrek guztiak bi elementu gramatikalen arteko lotura seinalatzen du, azken buruan bi-biek -(*r*)*en* markaren behialako polisemiara igortzen dutelako.

Aditzoinaren formen indartzeari dagokionez, Iparraldeko gainerako mintzoekin batean, lau fenomeno paralelo deskribatu dugu: i) -*t* aditzoinak (*hant*, *zilhet*); ii) -*k* aditzoinak (*idok*, *jarraik*); iii) *erazi*, *utzi* → *eraz* + *i*, *ütz* + *i* berranalisiak; eta iv) -*e* → -*a* forma bereziak (*erra*, *gorda*, *busta*). Bilakaera horiek kronologia desberdinak dituzte.

Bada, aditzoinaren formen indartzeko joera Erdi Aroan abiatu zen, -*t* moldeko aditzoinen multzoarekin. Hor lehen geruza bat defini daiteke, hitz elkarketaren arau zaharren medioz sortua: *zilhegi*, *handi* → *zilhet*, *hant* (FHV 423). -*t* hura elkarketa arauetarik kanpoko kasuetara hedatu zen, nonbait baliagarria gertatu baitzatekeen homonimiaren saihesteko (*lagunt*, *xuxent*, etab.). -*t* moldeko aditzoinen saila egoera horrexetan da Euskara Arkaikoan. Ondoren, eta partikulazki Zuberoan, joera orokortuz joan da: testuetan batere anbiguotasunik ebazten ez duten formak ageri dira (*xahat*, *phozuat*, etab.), eta fenomenoak emankorra da egungo zubereraren (*telekargat ditzazkezü*).

Aditzoinaren tinkatzeko joeraren bigarren manifestazioa da -*k* moldeko formen saila, -*ki* → *k* + *i* berranalisiaren ondorioz sortua. Bilakabide hau garai historikoan gertatu da: Zuberoako lehen testuetan abiatua da, eta ondoko mendeetan -*k* moldeko aditzoinen saila handituz doa. Azkenik, antzeko berranalisiak dira *erazi* → *eraz* + *i* eta *utzi* → *utz* + *i*: datuak arras sinplifikatuz, testu zaharrenek *erazi* & *ützi* aditzoinak lekukotzen dituzte, eta berriek *eraz* & *ütz* —berranalisiak ondorioak ditu, halaber, imperfektibozko formetan: *eraziten* & *ütziten* → *erazten* & *üzten*—.

Aditzaren forma jokatu gabeen artean aditzoina zaharrena da, irizpide morfologikoengatik bezala, lekukotzaren kronologia eta perifrasiaren bilakaeragatik ere. Hori erranik, Urgellendako (2016b) garai historikoko aditzoina ez dateke aitzineuskararena; beraz, ikuspegi diakronikotik aditzoin₁ & aditzoin₂ bereizi beharra genuke. Urgellen azalpenean, garai historikoko aditzoina Erdi Aroko forma litzateke, hitz elkarketaren arau zaharrak direla medio. Memento hartarik aitzina, mendebalde handian aditzoinaren erabilpena partizipioarenaren alde galduz joan zen; aldiz, ekialdean aditzoinak indartsu jarraituko zuen. Gure azterketa testuinguru horretan kokatzen da, ondorioak garbiak izanik: *historian* zehar ekialdeko euskarak joera argia erakutsi du aditzoinaren formen markatzeko, partizipioarenetik bereizteko, eta joera orokor horretan Zuberoa joan da urrunen.

Forma jokatu gabeen azterketa hesteko, Zuberoako euskararen berrikuntza bat deskribatu dugu, hots, *-i* akabantza hartu duten partizipio mailegatuen sail berria (IV, § 3); ezaugarri hori hizkuntz ukipen fenomenoetara lotua denez, beherago aipatuko da (§ 2.4).

1.3.2. Erroak eta forma jokatuak

Zuberoako testuetarik erroen arteko lehien berri ematen dituzten datu interesgarriak idoki ditugu: batetik, aditz ditransitiboaren laguntzaileetan (**eradun* vs. *-i(n)*), eta bestetik aditz iragankorren balio modaleko laguntzaileetan (**iron* vs. **ezan*); horietara *-(g)idi-* erroaren zein *-kidi-* segidaren lekukotza emendatu behar zaie.

Hasteko, laguntzaile ditransitiboetan, **eradun* aditzarekin batean, ekialdean *-i(n)* erroa ere erabiltzen zelako hipotesia (Lakarra 2011a) onetsi dugu, garai historikoan *-i(n)* aditz nagusi ageri delako, baina sustut forma alokutiboaren oinarrian delako —alokutibo hurbilean, noski, zuketa hedakuntza analogikoz sortutako berrikuntza baitateke (V, § 1.3)—. Beraz, EBZ-aren ondotikako adarreztatze bitarraren ikuspegitik, eta ekialde hertsiko banantze goiztiarraren hipotesia geure eginez (Lakarra 2011a), Zuberoako testuen azterketak ekialde hertsiko adar goiztiarrak *-i(n)* & **eradun* aditz nagusi bezala bazituela iradokitzen du; egitura benefaktiboak aditz laguntzaile hirupertsonal gisara gramatikalizatu ahala (Mounole 2015), ekialdeak **eradun* aditzaren aldeko hautua egin zukeen.

